



PVBLIVS VIRGILIVS

IDAZLANAK OSORIK



ENEARENA



V
A
I

A
O
L

K
A
N
A
K

K
A
N
A
K



*Ille ego, qui quondam gracili modulatus avena
carmen, et egressus silvis, vicina coegi,
ut quamvis avido parerent arva colono,
gratum opus agricolis: at nunc horrentia Martis...*

P. Vergilius Maron

BERGILI'REN

IDAZLANAK OSORIK

Lateratik euskerara eman dituzte:

IBIÑAGABEITIA'TAR ANDIMA'K:

UNAI-KANTAK

eta

ALOR-KANTAK

AITA ONAINDIA'K:

ENEARENA

Marrazkigin:

ELORRIAGA'TAR XABIER

BILBAO, 1966

BERGILI'REN IDAZLANAK OSORIK
au zergaitik egiten dan argitalpen berezian.

1 alea, zenbakitu barik, saldu eziña, marrazki jatorragaz.

9 ale, zenbakitu barik, saldu ezinak.

100 ale, 1'tik 100'ra, zenbakituta,
EUZKAL IDAZTIZALE EKINTZA'ri opaetsiak.

garren alea

Bear diran baimenakaz.

@ Aita Onaindia — Larrea (Amorebieta)

ITZAURREA

Ekaitzari bare-aldiak darraikion bezela, gizarteko naspil zakarretan ere ezialdi belatza etorri oí da geienik. Erroma'k bere garaian, Kristo'ren aurreko 30'tik osteko 40'raíño, aintzin-urteetan gorriak ikusi ta jasan zitularik ere, gero, August kaisarraren garaian, ezialdi bikaiña izan zun. August'ek, bitarte baterako beintzat, pakea eman zion Erroma'n ta aren gurdian loturik zioan lurbira zabalari. Eta pake-aroa, geienez, ekarkorra izan oi da, dela erri-aurrerapenetan, dela jakintza ra erti-gaietan, naiz-ta iñoiz ur geldian apakiñak bezela, gizartea meko ta mazkar biurtu. Enroma etzun loak ito.

Latindar literatura, gerkarren alaba, troxatu ez-ezik, koskondu ta gizontzen asia dugu orduko. Kristo'ren aurretiko III'garren gizaldiaren erdirantza sortua da, griegoena, oso goira igonik aspaldiko urteetan, beerantza asia zegola noski. Elendar kultura itzaliz ta Erroma'koa eguzki antzo jaiki ta edatuz. Ark, alare, eragin berebizikoa ezarri zion. Kristo aurreko 250'garren urterantza jarri zan erromatar literatura bere goirantz-arloan. Etzan, baiña, luzerako izan; iru gizaldi geien jota ere, Kristo ondorengo I'go gizaldiaren azkenerako, ba, beerantza asia dugu aren eguzki dirdaitsua. Gerkar kulturak, beraz, latindarrak baiño edadura zabalagoa, bizi-indar ta adore geiago izan zun, ele-eder saillean batez ere.

Erroma'ko gogo-lantze orren egun-sentian dagerzkígún len-olerkariak auek dira; Libi Andronik (III g.), *Odisena* ta beste gerkar trajedi batzuk lateraz jarri zituna; Nebi (III g.), *Puni-Gudua*, aberri-sutan Iliada antzera idatzi zuna; Kint Enni (II g.), Erroma'ren len-kondaira bertsotan ondu zuna; Lukili, Erroma'ko oitura nabarmenduak ziri-bert9oz duindu ta jasotzen saiatu zana, ta Pakubi, gerkar antzerkiak laterara itzuli ez-eze, saio, jostaillu ta irrigarri batzuk ere bere kabuz osatu zituna. Auek baiño garaiago ditugu Plaut (III g.) eta Terenfzi (II g.) Eun eta ogeitamar bat antzerki idatzi zitun Plaut'ek, naiz-ta gerkar antzerkileengandik gaia artu geienik; eta Terentzi antzerkille bikain dugu, azalez eder ta mamiz nortzu bakoitzaren zima ta aiurria barrenki aztertu ta azaltzen dakiana.

Baiña latindar elertiaren arorik yaioena, ots, urre-garaia, 81'tik 14'garren urteraiñokon dugu. Ari ta tankera guztietariko antze ta erti ederrak bitarte ontan indartu, andi-azi ta edatu ziran guztiz loretsu, bide-zuzu ta eragidura bik bultzatuta batez ere: gerkarrekin izan zuten ar-emana ta ukitua

alde batetik, eta August agintariaren esku zabal ta zentzun erne argia bes-tetik. Bulzkin bi oieri zor diote Erroma'k bere elertiaren pizkundera, gara-tzea ta arnari emate joria. Ordukoak dira Kikeron (106-43), izlari bikain bikaiña; ordukoa Juli Kaisar (100-44), agintari ta idazle trebe; ordukoa Tit Libi (59 K. a.—16 K. o.), edestilari goragarria; ordukoak Salusfi (87-35), kondaira idazle jaioa, ta Korneli Nepote (99-24), bizitz-ídazlari azkarra.

Poesi-zaleak ere etzeuden lo, ta arnas beteko olerkariak sortu zitun urrezko garai ark, naiz epiku-saillean naiz lirikarren artean. Ona oietarik bost, gerkar oberenekin berdintzeko ere lotsarik ez dutenak: Bergili (70-19), Orati (65-8), Tibul (54-19), Propertzi (50-15) ta Obidi Nason (43 K. a.—17 K. o.) Olerkari yaukal auk, beste ezerk arduratu gabe, beren barne-deiari itsatsirik lan egin zezaketen, ez tarteka ta asti-orduetan, etengabeko eki-ñean baizik. Aurretikoen oin-errestu ta irriskiz ibillirik, aien joera ta mue-tak antz-artuz, giro bikaina zuten beren Jiteraturako sail guziak, gero ta geiago, edertu, jantzi ta berarizko bitxiz ostillatzeko. Giza ortan sortuak ditugu gaur ere munduan zabal dabiltzan eredu-lan guren arrigarriak. Ber-gili'k eta Orati'k izadia ta giza-egintzak eta kezak ditute kantagai, Albi Tibul ta Sextu Propertzi'k maitasunezko griña ta andre-min jator egiazkoa, ta Obidi'k, asmarena txairo dantzatzuz, aretoetako gizateri buru-jantzi ta zerden dotoreak eder zitun txiribiri atsegiñak.

August'en mendean, gaiñera, August bera aurrenik eta aren eskupeko agintari Mekena, oso elerti-zale ta babesle agertu ziran, gizaldi erdian beint-zat. Bergili ta Orati batez ere guztiz maiteak zitun Mekena'k, eta aiek be-ren arlo aberkoi ta txalogarrian lan egin zezaten, bere magalpean artu, itzal eman eta diru-emaitzez ere sari lagundu zien. Auek biok nai zitun lagun, anai arteko burruka ta liskarrak zirala bide ain eroria zegoen aberri-soiña berriztu ta indartzeko, erromatarren biotz-muiñetan joanaren leia ta griña bizia pitzazi, barrendu ta kementzeko, erkala ain goi-nagusi jarri zuten aintziñako bakuntasun ederra ta oitura galduak lengo ildoetara ekar-azteko, izadi-edermiña ta nekazaritzarako lera borboilla erritarren erantsi azteko. *Unai-kantak* izadia abesten dute, *Alor-kantak* zelai-soroak gorai-pa-tzen dituzte, eta *Enearena'k* azkenez Erroma'ren etorki urrutikoak gogoraz-ten ditu, egite gnaiz ta bertso ozenez. Irukoitz onek —Bergili, Orati ta Tit Libi— osotzen du latindar literaturaren aro eder egiazkoena.

Alpe-emendiko Gali'n, Mantua'tik urbilxe, gaur Pietola deritzan Andes alderrian jaio zan Kristo aurreko 70'garren urtean, urrillak 15, urteak joan urteak etorri latindar olerkari illezkorra izango zan Publi Bergili Maron. (*Vergilius*, gerkeraz *Bergilius*, esaten zioten antziñate guztian V'garren gi-zaldirarte, ta gaurko ele-jakitunak ere *Vergilius*, Hübner, Ritschl, Schaper, *Westphal*, Hanow, Tegner, Posset, Cadinbach'ek baitik bat). Jaiotz-eguna ez dakigu ziur, baiña olerkari andiaren irakurle porrokatu batek ospetsu jaitu

oi zun urtero urte-egun orixe, ta azkenik aren jaiotzetiko bi millagarren urtea ta eguna ere 15'garren onan ospatu ziran mundu zabalean.

Gizaki guren geienak bezela, bizitz-idazleak izan zitun Bergili'k: Suetoni (I g.), Baleri Probu (I g.) ta Serbi Mauro (V. g.), beste batzuen artean. Gerora, munduko izkuntza ezagunenetan, aren lanak aztertu, itzuli ta iruzkin-adierazpen jakingarriz apaindu ditutenik asko ta asko izan dira. Bizitz-idazle oiek diotenez, Maron, Bergili'ren aita, eltzegille genun ogibidez, eta Magia Pola, aren ama, Mantuarra zan. Aitak, langille argia baitzan, izerdiz ta buru-ukapenez diru-mordoska bildu zun, eta onekin aisa ta xamur azi ta ezi al zun bere semea. Kremona'n eman zion ikasteari Bergili txikiak, eliztilari ta gramatikuen eskolan, amasei urterarteko ikasketak bertan egiñik. Gero, toga edo gizon-soiñekoa jantzirik —Donato'ren iritiz, Lukretzi olerkariak bere burua il zun egunean noski, ots, 55'garren urteko epaillaren 17'an—, Milan'era eramane zun bere aitak, asitako ikaskizunak jarraitu, oso-azi ta sakondu zitzan.

Urrengo urtean edo Erroma'ra egaz egin bide zun, Eusebi'k bere *Kronika*n dioskunez, jakingai guztietan olako gogo-lantze zabala iritxiar. Geienik, alare, literaturari ekin zion, gerkar idazleen barrutian, ots, Omer, Teokrit eta Hesiodu'n idazlanetan bereziki sarturik. Oien erexak eta aztarrenak, bada, mantuar olerkariaren idatzi guztietan aurkitzen ditugu, aien tanke-rako irudi egokiak eta zeaztopen lerdenak mugonez ta eraz ematen ditularik. Erroma'k eta ango oiturak, baiña, bildur-azi zuten, aren Igo Unai-*kan-tak*'etako ahapaldi ontatik atera dezakegunez: «Erroma deritzan uria gurearen antzekoa zala uste nun zoro onek, antxume xamurrak eramaten dituguna bezelakoa. Ala uste nitun ttotoek zakurren antzeko, antxumeak beuren amen ideko; era ortara txikiak aundiekin erka oi nitun. Uri ark, ordea, uztinilatze apalen artean nekostak baiño garaigo jaso du bere burua, beste guztien artean».

Orduko auzi-lan ta legegizonak lilluraturik nunbait, legedia fa onen in-guruko gaiak saratzen ere asia gendun, baita iñoiz edo iñoiz olako auzitan sartu ere. Baiña etzan legekari izateko gai, ez izatez ez barne giroz, il, lotsor, azkai eder gabea zan-eta. Bein bakarrik aritu izan zan danen agirian: etzion antza gauzeak ondo irten, eta betikoz agur egin zien aiko-maiko ta lege-auzietan, izlari arazo iztandatsu ta solas arro-putzeri. Teokrit'i jarraitu naiago zun, ordun ots aundiko zan Kikeron'i baiño.

Olerkari artean ba-ziran batzuk garai artan «berriak» —poetae novi— zeritzenak: aberri olerki zarrak arbiatu ta batez ere alesandertarra ontzat ematen zuten auek. Bergili ere, Erroma'ra zanetik, aien tarteko ta lagun egin zitzaigun. Ogetamar urtetan il arren 116 poema utzi zitun Baleri Katul'ek zauskada itzala egin zion; erromatar andereeri buruzko maite-griña ziri-bertso eder gartsutan abesturik latindar lirikuen artean gorenengo maillako

dugun Katul begiko zitzaion Bergili'ri; onegandik ikasi zitun barren-guna —giza-biotzaren ezkutua— ta azal txanbeliña —bertso neurkera apaiña. Lu-kretzi'k erakutsi zion, ordea, jainkoeu ta barnera begiratuz, gizarteko tri-kimailluen gaiñetik ibilki, eguneroko bizitz-arloa duindu ta zentzunez jo-katzen.

Gurasoen etxetik urrun ibilli arren, maiz jo oi zun beretarren magal epelera. Aitak, esan dugunez, bere kopet-izerdiz ugaritu zun etxealdea, soro, landa, oian eta aberez baliatu rik. Aitaren oiñatzez jarduna dugu semea ere, ibar, mendi, zugazti, erle, abere ta olako zaletasunetan bereziki. Silon eta Flaku, olerkariaren bi anaiak, gazterik il ziran. Aita il zanean, bigarrenez ezkondu zitzaion ama, seme bat, Baleri Prokul, izanik. Oni utzi zizkion gero Bergili'k seni-zatiz ta ondorez bere aberaski ta onibarren erdia.

Toki ederrez inguraturiko sorterría beti zaigu atsegin, gogo-pizgarri ta olermen azkartzaille. Mantua aldean ba-dira mendi-zelaiak, ba-dira basarte nareak, baita ertz orlegizko ibai naroak ere, seska, zii ta saratsez eder, nagi ta gozo dabiltzan beltzarga, lepazut, aate, piro ta antzarrez zardain; ikuspegi zoragarrizko muiño ra menditxoak agiri dira an-emen, eta euren era guztizko abere ta piztiak dantzari, belaiño ta txia kadentsuz gogoá goxo-samur igurtziten dutela. Ementxe, Lonbardi'ko baserritarren artean azi ta gizondu zan Bergili, minbera ta samur, sentimenez azkar ta adime-nez argi. Bere bizialdi guztian ere baserritar izan zitzaigun gogo ta soin: gure Orixe'ren antzera nunbait, bere lurrari lotua beti. Atsegin zitzaion izadia, atsegin mendi ta zelaiak, alor-bizitza tolesik gabea, atsegin oian itzaltsuak, lau muskerrak, abere triskariak, ibai zapartariak. Nola edertu oi ditun bere lanetan —Unai-kantak'etan, Alor-kantak'eran, Enearenean— aurtzaroko oroitzapen eztiok! Izadiko izaki bizidun eta bizigabe oieri bu-ruzko maite-txingarretan gantzuturik dauzka utzi zizkigun lanak oro.

7'garren urterantza, berak 23 zitula, Napoles'era aldatu zan. An ikasi zitun oso gogotsu, Siron epikureutarraren eskolan diotenez, Landaredia, Aberedia, Izarritzia, Matematikak eta Osabidea, jakintzari buruzko bes-te zeinbat ezaugerarekin batera. Antxe zun gaiñera itxas zoragarri bat, bere lanetan sarri aitatuá: ura ere betiko lotu zitzaion idurimeneko aril maille-tan. Umetatik somakari baitzan, begi-zorrotz ta aut-emaille, etzion ezek ere iges egin oi: ikasiz ta oartzuz ederki jantzi zun bere burua. Barnera ta atera ziztaka ikasi ta artu zun idazterakoan utzi zigun guztia. Muna on-tatik begiratuta idazleak ba-du, ta olerkariak berariz, Bergili'gan zer ikasia.

Erroma'n zegola asi zitzaigun olerki idazten, Napoles'eko egotaldian girotsu ta beteago jarraiturik. Ordukoak dira urrean, ziu jakin ezta ere, Serbi'k dakazkin zonzi auek: *Ciris* (bas-oillarra), *Aetna*, *Cviex* (eltxo), *Pria-peia*, *Katalekton*, *Epigrammata* (ziri-bertsoak), *Copa* (txiribogiña) ta *Dira*

(zoritxarra). Gai errez belaskaz egiñiko lauki pinpiñak, Teokrit'en idili antza dutenak, arenak ez baldin ba'dira ere, ez ditugu ezegarri len-saio auek. Ogei ta zortzi urte zitula sorterrira biurtu zan zati baterako. Sendi-irrikak etzun soilki araiño eraman, baserri arteko sormiñak, berak egin lanetan maiz aitaturko zun bizitz-nardak —*tedium vitae*— eraginda baizik. Berezko oler-lerari jarraituaz lan egiteko ere aukera ederra zun: Mantua'n ba-zan olerki-ikastetxe bat, Katul'ek sortua ta ordun Alpe-emendiko jaurleri zan Asini Polion'ek bere zaintzapean zeukana. Biok, agintari ta olerkari, laster adiskidetu ziran; eta or daukagu Bergili bere argidu ta izamenari zegokion sailleko langille. Gure Orixe bere «Euskaldunak» idazten Orea'n bezela.

Lenengo ta bederatzigarren *Unai-kantak*'etan aipatzen dun lur-galtzea 41'garren urtean jazo zan. Bi kanta auetan oso lurzale agertzen zaigu, aurretikoen soro, txaraka ta ibar zabalak ezin aantzirik. Lur gabe gelditu ziran gaixoak negar-jario utzi zioten biotza. Oktabi'k izan ere, Pilipo'ko burrukaldi ostein, Alpe-emendiko lurralde mordo bat zarren artean banandu zun. Bergili'ri kendu zioten bere zatia. Baiña olerkariak, Polion eta Korneli Galo'ren bitartez Erroma'ra jorik, lur-galtze ua zala-ta gogor egin zun agintarien aurrean, eta berriz eskuratu zizkien. Ordun ezagutu zitun batez ere Oktabi laster agintari izango zana ta aren aolkulari Gai Mekena, urteak joan urteak etorri adiskide min ta laguntzaille emankor izango zitunak. Orduntxe idatzi zitun amar *Unai-kantak* —*Eclogae bucoliquae*—, ango lur, abere, gizaseme xotil ta jainko gurenak ahapaldi bizi gozoetan onez aipatu ca goretiaz.

Epe laburraren buruan, alare, berriz egin zan aldaketa eskerga Erroma'k mende zitun eskualde guzietan: anai arteko gudu gordiñean sarturik zebiltzan erromarrak tai gabe. Perusa'ko matxiñada ta burrukaldi ondo-rean, zarrak askonai ta zorrotzago azaldu ziran; jaurlaritzatik jaurri zuten Polion, ta aren ordezko Alfenu Var'ek Mantua'ko lur-bazterrak eman zizkien. Bergili'ri ere berriz kendu zizkioten zeuzkan lurak, eta arek bere zaindariagana jo zun len bezelatsu. Unai-kantak zirala bide, orduko guztiz maite zun Mekena'k, galtzen zitun lur-saillen ordez landetxe bat eta lur-zati batzuk eman zezaizkiotela agindu zun. Eta aurrerantzean, agintari ta olerkari, egundo urratuko etziran maite-lokiz korapillotuta gelditu ziran: Bergili'k bear zun aien babesa, ta bai aiek ere aiurri aratzeko olerkariaren lana zeuzkaten burubide ta asmoak aurrera eraman zitzaiketen.

Garai ontako goraberei ta bildur-ikarai darizkien barne-zauskadak dira Bergili'k *Unai-kantak*'etan abesten ditunak. Amar abesti guztiz. Gaia beti du artzai-bizitzari dagokiona: Silenu duzu orain, Egle neskatxak ez-ustean atzimana, ta Koromi ta Mnasil artzaiak dira gizarteko kondaira garratz bat, epikur-jakinbideari buruzkoa, edesten dutenak; Melibe'u'k gero, erbes-

tera doalarik, Titir bidez aurkitu ta au sorterrian gelditzen dalako zorionak emanez agurtzen du; emen, Dapnis goraltzen da, artzai-olerkia asmatu zuna; an, maite zun Likori'k erdi-zapuztua utziriko Galu poztutzen saiatzen da olerkaria. Saio guztiotan Bergili Teokrit'en antza beretu nairik dabilkigula esan dezakegu, baiña aren xalo-izate ta jatortasunera iñoiz ere iritxi gabe. Axal-jantzia beti du eder mantuarrak, guztiz oskidetsu bertsuak ere; baiña landuegi atera ziran, alegia, aren eskutik darabilzkin gizaki ta nor-tzuak, artzain me lauak ertilari bezela mintzatzen diralarik. Alegi ta idurikizunez diardu sarri: Dapnis, Kaisar da, diñoenez; eta Titir, Bergili bera. Izaditik jatoriko bitxi bikaiñez kuin-kuin dauzkagu beste aldetik aren neur-titzak. Biotzondo agitz azkarra derakusgu, adibidez, Melibeu'k bere etxe ta alorrai, berak eskuz iñausi zitun zugatzai, berak landu zifun masti azkorrai egin agurrean: «Guk aberriko muga ta soro atsegiñak utzi bear izan ditugu; sorterriitik igesi atera gera; zu, Titir, gerizpean lasai, Amarili ederraren izena ber-esaten, oianei irakasten ari zera».

Berak ere, azkenez, Melibeu'ren antzera, toki pozgarri aiek utzi ta Itali bee-alderako bidea artu bear izan zun, atzerrirakoa noski. Erritar arteko gudu zala-ta, Itali'ko lurraldeetan inguru ta bazter osoak soil ta murntz gelditu ziran. Erroma'ko aginrariak, August'ek eta Mekenak aurrenik, lurzaletasuna esnatu ta nekazaritza buruzko leia beroa aizatu nai zuten berriro ere; aiek eragin zioten Bergili'ri *Alor-kantak* borobildu zitzen. Berebizikoa zun ortarako Kanpania'n zeukan landetxea; baita ba-zun Napoles inguruan ere edertasunik naiko idurimena arrotu ta gaia osatzeko. Lau liburutan ederki abestu zitun: 1) Nekazaritza ta garigintza; 2) zugatz-lan-keta, iñauste ta zaintzea, oliondo ta mahastiena batez ere; 3) abel-azkera, ta 4) erleen lan, burruka ta gaitzak. Ontan Hesiodu artu zun eredutzat; berak diño: «Erromatar iriak zear, Askra'ko poema abestuko dut» (II, 176 b.). Hesiodu Beoti'ko Askra'n sortua genun. Baiña bere biotz-beratasun goxoagatik, izadiaganako erakusten digun samurtasunagatik, Bergili'k bere jite ta aztarna bereziz jantzi ta duindu zizkigun darabilzkin gai guztiak. Babesleen irritsa bezin bizia zenun olerkariaren izadi-eragiña ta biotz-ixuria, ta orrela jaiio zan erromatar olerki-lanik bikaiñena, gizadiak duen oroigailurik lerdenetariko bat. 30'garren urterako amaitua zeukan poema ori, ots, *Alor-kantak*, eta gero, Serbi'k diñonez, August'i irakurri zion egilleak lau egun jarraitan; irakurtzean, bera nekatzen baldin ba'zan, Mekenak lagutzen omen zion: orrela lau egun osoz Atela'n. Lilluraren mende gelditu omen ziran August bera ta beste entzuleak, oso ederra iruditut bait-zitzaian.

Kanpania'n idatzi zitun Bergili'k beste *Alor-kantak* eta *Enearena*. Donato'k dioskunez, iru urtean bukatu zitun *Unai-kantak*, zazpian *Alor-kantak* eta amaikan *Enearena*; au da, 40'tik 37'ra ondu zitun *Unai-kantak*, 37'tik 30'ra,

Alor-kantak; 30'tik 19'ra, *Enearena*. Lenengo kantak Polion'ek amas emanik, bigarrenak Mekenak idarokita, *Enearena* berriz August'ek naia bete-
tzearren. Unai-kantak errez ta lasai idatzi zitun; Alor-kantak osotzean, or-
dea, goiz-goiz bertsozik asko taiutu oi omen zitun eta egunez laburta ta
ahapaldietan billazi - berak gatz aundiz esan oi zunez, otso-emearen antzera
biribiltzen zitun oler-aurrak: lenengo erdi egin, ta ondoren, miazkatuz,
osotu. Poema aundian itzalak atera zizkion aurrenik, itz lauz, ezertariko
ari ta antolabide gabe, ta., olermen-jarioa ez itotzearren, tarterik asko utzi
zitun amaitu gaberikan; beste batzun, eusgarri bezela, apapuan egiñiko
neurtitzak jartzen zizkieten, arrobotik ateratako ar-mokor aundiak zutabe
sendo zai bezela.

Bizitz azkenaldiko amaika urteak *Enearena* idazten aitu zitun. Aren la-
netatik ederrenak *Alor-kantak* diran arren, *Enearena* zan Bergili'k aldioro
bere baitan zeramana. Maite zun bada Itali, maite zun Erroma, ta Erroma,
Itali'ko uriburuaren jatorri ñimiño bezin aintzatsua abesten du batez ere
poema garai artan. Amabi idazti ditu guztira: Troia etsai mende erori
ta troiar talde bat, Enea buru, Lati'n errikotu zan arteko gorabera, trikimiki
ta zeaztasunak. Xede ta asmo bereziak eraginda ari da Bergili: bere abe-
rria gorai patu, Erroma izarretaraiño jaso ta andietsi. Venus duzu Enea'ren
ama, ta Juli, aren semea, juliar sendiaren aitalena, August argia, azken-zi-
turik beteena munduari eman diona. Erroma da gaiñera, Bergili'ren gardiz,
lurbirako enda ta erri denak argiazi ta zuzendu bear dituna. Olerki onen
zatirik ederrena, askorentzat, VI'garren liburua duzu; gizurenak inpernura
dagian ostera dator bertan, an, Eliseu zelaietan aurkitzen du Ankise bere
aitaren itzala, ta autu goxotan gain datorkizkion egun its goibelak egoarriz
eramateko indarrak damazkio semeari. Beste batzuentzat laugarren kantuan
datorren Dido, Kartago'ko erregiñaren iduria da bikaiñenik bikaiñena. Tur-
no, errutuldarren nagusi Enea'ren leikibide, azkenez onen mende erori
zana ere, antzez-lagun lerdena dugu. Gai onetzaz, baiña, sarrera berezian
luzeago.

Aberri-poema au emaldu, mardo-azi ta jantziz zioan bitartean, Erro-
ma'ko elerti-bazkunetan bereziki, jakin-min itzala nabari zan. Propertzi'k
itz-neurtu auek utzi zizkigun urduritasun orren adierazle (II, 34):

«Cedite, Romani scriptores, cedite, Graii:
Nescio quid maius nascitur Iliade».
(Utz, erromar idazlanak, utzi, gerkarrak:
Iliada'z goitiko zerbait dakust jaiotzen).

Ikusmin ta gutartsu zegon August bera ere. Garai artan, Kantaurrita-rrekin gudan zebillela —gure ingurukoekin noski—, bein ta berriz eska-tzen zion igorri zezaizkiola, poema osoa ezpazan ere, aren txatal batzuk be-deren. Donato'k, olerkariaren bizitzan, onela: «August Kaisar nagusiak, Bizkai'ko gudan zebillela. Eneida'ren zati batzuk bialtzeko eskatuaz idatzi zion, ura irakurtzeko miñetan zegola-ta. Bergili'k berenez parkatzeko es-katuz erantzun zion, orduan beintzat ezin baitzun bete eskatzen ziona». Geroago, Kaisar August, Kristo aurreko 24'an, Erroma'ra itzuli zanean, iru liburu, bigarrena, laugarrena ta seigarrena, osorik irakurri zizkion, eta sei-garrenean, August'en illoba Markel'i buruzko bertso auek: «Tu Marcellus eris» aditzean, Oktabia aren amak, biotz-urtua ta naigabez, alditxarrak jo ta zentzuna galdu omen zun, eta berriz seneratu zanean, oiuzkatu zitun bertso bakoitzagatik amar sestertzi emateko agindu.

Nork eztu maite bere aurra? Bergili'k ere, amaika urte igazi arren lana ondu ta biribiltzen, bere iritiz lar osotu gabe zeukan oraindik, eta poeman aitatzen ditun toki, eskualde ta lur-bazterrak berberak arakatu ta iker-azi nai ditu. Asia ta Grezi'ko itxas-zoko ta ingurumariak ikuskatu ta aietako Zerak ikasiz obeto bukatu. Ta arako bidean jarri zan. Joan-etorri au, alare, etzan arrisku gabea, ta bere olerkari lagunak bildur ziran txarren bat izan-go ote zun. Berak ere ba-zun zerbaiten susmo ta bideari ekin aurretik Var adiskideari eman zion *Enearena*, ostera artan ezer txarrik baldin ba'zun, sutan erre zezala eskatuaz.

Orati bera arduratan zan. Ezaguna dugu Bergili'k Grezi'rako bidea ar-tzerakoan egin zun oda giarra. Pixu onen yaukala daraman ontziari gogo beroz otoizten dio, galzoriz beteriko ur-azpi zear arretaz dabillela, arren bai arren. Odaren asiera (Lib. I, 3):

«Elene'n bi anai, izar distikorrak,
Txipre'ko erregin, adorez kementsu,
ta aizeen aira orrek —Iapiga ez beste,
aize oro jarriz baretsu—,
zuzendu zazute ontzi bikaiñena:
arek bait-darama Bergili guria.
Itzul, otoi, onez Atika mugatik,
zaindu ene bizitz-erdia!»

Ontziak, alare, etzun zintzoro jokatu. Aize zakarrak ausi zun Orat'i'ren guraria, ta etzioren iñoiz itzuli bere gogo erdia zan maitea. Alkar maite zuten noski baiño noskiago bi olerkari erneok, ahapaldi ontatik dakusgunez. Atenai'n aurkitzen zala, sortaldetik Erroma'rantza zetorren August'ek be-rakin aberriratzeko eskatu zion. Ark esana egin zun Bergili'k; baiña, len-

dik ere gaizbera, etzun itxasoak ondo artu ta eguzkiak kalte eginda, Kalabriako Brindisi'n il zan, Jesukristoren osteko 19'garren urteko iraillaren 21'an.

Ilzori zegola bein ta berriz eskatu omen zun bere Eneida. Zertako, baiña? Erretzea nai zun, nonbait. Etzioten utzi, gaiñera etzegon aren eskuetan: gizadi osoarena zan, onezkeru, aren lan ederra. Eta August'ek, izan ere, L. Var'i ta Ploti Tuka'ri agindu zien poema garai ura, egilleak utzi zun bezelaxe, argitara emateko. Olerkariaren gorpuzkiñak, ordea, Napoles'era aldatu zituzten, eta an daude gaur ere illobi apal batean, Pozzuoli'rako bi-dean bigarren millarri ondoan, Mediterraneu itxasoari aurrez aurre; zerua urdiña du gaindegi zabalean, era ezker-eskuin berak ain maite zitun zugaitz, landare ta lorez usaituriko baratze joria. Il-agiñean zegola ondu omen zun illobi gaiñean daukan bi lerroko, distiku ospetsua:

«Mantua me genuit, Calabri rapuere, tenet nunc
Parrhenope: cecini pascua, rura, duces».
(Mantua'k sortu nindun; Kalabri'k ostu; orai
nauka Partenope'k: larre, alor, gizuren kantagai).

Itz auetan: «artzaiak, nekazariak eta gizurenak abestu nitun» datza Bergili'ren lan osoaren muiña. Ortan eman zun bizia, bere izateari ta erriarenari zegokiona goraldtu ta kantatzen. Eta kantatze orrek egin zun Erroma'ko olerkaririk garaiena, ta Gizadiko erti-sorpen nagusien arteko ederren bat.

Bergili bere izakeran otzan, ameslari ta atsegiña genun. Gorputzez, aundi, beltzizka ta lerdan, baiña gexoti. Baita lotsorra ere, ta garbia, neskatz baten pareko. Napoles'en bizi zalarik, ain alkeor ta bildurti ikusirik, *parthenios* (gizkarbi) deitzen zioten angoak. Eta iñoiz Erroma'ra joanik, oso eza-guna baitzan, ango kaleetan norbait ikusmiran zeukala uste zunean, igeska, aurrenik idorotzen zun etxean sartzen omen zan. Ari ezarritako elezar artean au ere edestu oi zuten, Erdi-aroan bereziki: Bergili, lotsati zan arren, maitakerietan ibillia omen zan gizasemeen lepotik irri egiten zekin erromatar andera eder batekin. Andere-lagunak, bein, ark jauregi goikaldeko torre gaillurrean zeukan etzanguratu nai izan zun gauetz Bergili; ortarako dindilizka zeukan saski batean sartu bear zun onek, eta gero mirabeak berak jasoko zun, ariari tiraturik, maitearen leio ertzera iño. Olerkari siñeskorrak onartu zun esaten ziona, baiña laster txundioturik gelditu zan: torreko leio egalean zegoen zintzilika, baiña ez zetorkion iñortxo ere andik erasten. Urrengo eguna argitzerakoan, sarkutzak eten-ala irri-karkar egin zuten andik igaro ziran goiztar bidariak, andera gaiztoak ipiñi zion amarru sarean atzemanik olerkaria ikusita.

Beste bein, Erroma'ko Zirkuan, jaialdi eder bat antolatu zuten; jaiarengunean euri-jasa ikaragarria jausi zan urian, eta ezin inñolaz ere jairik ospatu. Erregeren jauregi atean, ordun, distiku au azaldu zan idatzita:

«Nocte pluit tota, redeunt spectacula mane,
Divisum imperium con Jove Caesar habet».
(Gau osoz euri, biar ospatuko jaiak,
Manu bai daukate, erdiz, Jobe'k ta Kaisar'ak),

Bergili'k egiña zan distiku au; Batil zeritzaion sasi-olerkari batek, alare, erregek zerbait emango ziolakoan antza, berea zala esan zun. Bergili'k, urrengo egunean, azpi-sapo aren itxuskeria ezin eramani, ate artan bertan idatzi zun beste distiku au:

«Hos ego versículos feci; rulit aker honores.
Sic vos, non vobis...
Sic vos, non vobis...
Sic vos, non vobis...
Sic vos, non vobis...»

Bi espondeu oiñak, ebaki ta guzti, lau bider agertzen ziran bostekoa bertsolari ezaiñak osotuko zitulakoan zeuden; baiña Batil'ek etzun ezertxo ere ezari, ezpaitzekin nola bete utsune aiek. Bergili'k beraz, neurtizkeran zun erreztasan arrigarria erakutsiz, lau *non vobis'en* ondoren, au gaiñeratu zun:

cHos ego versículos feci; tulit alter honores.
Sic vos, non vobis... nidificatis, aves.
Sic vos, non vobis... vellere fertis, oves.
Sic vos, non vobis... mellificatis, apes.
Sic vos, non vobis... fertis aratra, boves».

(Nik osatu nun biko au; baiña inñorentzat ospeak.
Orla zuok, ez zuontzat, kabi egiten, txoriak.
Orla zuok, ez zuontzat, illez zabiltze, ardiak.
Orla zuok, ez zuontzat, ezti dagizute, erleak.
Orla zuok, ez zuontzat, goldez zabiltze, idiak).

Arima eder baten jabea zan Bergili. Ta orlakoak, mesede berarizkoa egin oi diote gizadiari, dana dalako arlotan. Ikus-alderdi ontatik begiratuta, Erdi-arok besteak beste, azti edo igarle bat ikusi zun aregan, Kristau erriarentzat ere orixe zan, laugarren aztia noski, sortaldetik Belen'go estal-

pera etorri ta an auzpaztu ziran iruren artekoa, aintziñako ludi nekez bete Kristo'ren seaska ondora eraman zuna. Ederki asko kanta zun ark laugarren abestian (IV, 6-7): «Gr Neskatxa ere..., or gizaldi berri bat zeru gaindegitik jalkitzera doa». Au oiñarri arturik, Laktantiu ta Augustin deunak beintzat, Jainko-igarletzat jo zuten, Isai aundia bezela. Ta, izanez ere, oraindik ez dakigu ziur nortzaz ari dan, nor dugun olerkariak gorai-patzen dun aur arrigarria. Irudimenez edolan ere Belen'go estalpera urbildu zala dirudi ta an idoro zula egiazko Aurra bere Amaren magal goxoa irriparretsu.

Eguzki antzo itxasperatu zan mundu zarra, ta aldi berriak, gizaldi gazteak Jaiki ziran argitan jori. Ta mundu zar orren jiestea abestu zigun Bergili'k, baita igarle bezela berriaren jeikitzea ere. Naiz siñismenez naiz olerindarrez argitua, Jainko-zale bikain agertzen zaigu bere lanetan, aratz, giartsu, guren; gaueko zaintzaille dugu begi ernai, gain datorren eguneko goizurratzearen irripar ezta begipean duela. Orati'k ez omen zun orduko sasi-jainkoetan uste geiegirik; garai artako atzerriar geienen antzera Bergili'k ba-zun izakietan barne-ind3r bizia jarri zun Egille aundi bategan uste ona. Goi-indar orrek eraginda beti jardun zun garbi ta zintzo bere bizitz ansietan, naiz bere buruarekin naiz urko lagunarekin, Egille nagusiak asieratik giza-barrenean ipiñi zun berezko legea leialki beteaz. Olaxe jainkotiar agiri zaigu, ez argi ez illun, ezkutu-litsez urre-inguratua; beraz, Kristo'ren jarraileok ere, kristauki irakurri dezakegu aren lan osoa.

Giza-biotza errez gaiztotu oi da, baita gizartea basakar itzuli ere, neurri-legerik ezpadu beintzat. Idazlearen egitekoa dugu biotzak gurendu ta erriak irakatsiz jasotzea. Bergili'k bete zun ontan bere zatia. Ark, bere idatziz, era berria eman zien giza-griñai, barne-zauskadai ta eder-esmenari. Igarle bezela asmatu zun, munduarentzat bein-betikoa zan kinka artan, geroak maite izango zuna. Ertz oni loturik, ederki idatzi zun batek: «Ark irakatsi zun biotz-samurtasuna, izkera guren jaikia. Ark iriki zitun berriz ere itz ederraren amillura edatu bezin argiak. Ark piztazi zitun oiartzunak gogoaren sakosra arroetan. Atxurdin garden soilla dugu aren idaz-arazo jabala, dirdai ta nabarduraz aberats argirik garbiena gaiñez doakiola. Aren griñamargozki ta gizarteko samur-itz biziak guren baitira, maitegarri dugu oso-osorik. Gaur ere Bergili, Orati'rekin bat, bein ezagutu ezkeroz, beti-beti maite ditugunen artekoa da». Poliki esana.

Gaur dan egunean, garrasika eskatzen zaigu idazleoi: «Idatz ezazu gaurko eran, oraingo modaz». Zer esan nai du onek? Gaurkotasuna, itz sorgiña, sarri erabillia izan arren, zer esan nai dun ez dakiguna. Bergili'gan dugu, alare, gaurkotasunaren eredu bat: bi milla urte dira ark idatzi zula, ta aren lanak atsegingarri zaizkigu oraindik. Orain ta gero, or gaurkotasunaren

alderdi bar. Idazten duguna ez dedilla une batekoa izan, edesti zear luza-
tzen dana baizik. Ura zaigu aintziñako olerkarietan gaurkoena. Nola baiña?
Oso gizatiar baitugu. Oraingo gustu ta jendearekin ere egoki datoz aren
iritzi ta aburuak. Zertan batez ere? «Beste olerkari batzuk, gerkarrak be-
rariz, obeki betetzen dute aintziñako ertiaren jomuga ta eredu atsegin na-
rean dagokiona; Bergili'k bakar-bakarrik dauzka etorkizun dagonaren igar-
tze, aztarna ta zuzmoak. Omer'en ertia miretsi ba'dagigu ere, Bergili'k da-
ramazki gure biotzak. Bizitz-zugatzaeren arnaria damakigu Orati'k, maiz
garratza; Bergili'k, ordea, mun gazte pizkorra».

Izan ere, iñork ez bezela ditzikortzen du izadi zabala barnetik darion
txinpart-iñarren bero eragikorrez, baita islatu argi-azi giza-bizirzaren ildoak
oro. *Unai-kantak'etan* lilluragarriro sartzen zaigu arima barru izadi zentzu-
nik sakonena; ango artzain eta abereak egoki ta oskidetsu zaizkigu. *Alor-
kantak'etan*, berriz, bizirik ez dunari ere bizia damaio, sor ta odolge danari
kemen sentikorra: zugatzen ernetze, azte ta guritzeak arima dutela esan
dezakegu, ta arek dakarzkin tantai-ebakitze ta erortzeak ere zirrara biziak
dagizkigute barnean: abarño elkorra ezitu ta gero emankor biurtzen zaigu,
goldeak bere lanean ebaki dun lorea zimeldu. Abereen griñak eta erleen
lan-jorana, gizakiena dirudite. Eta *Enearena'n* dakartzin gizurenak? Dido'ren
etsipena edonork negartuko du, baita Ankise'ren eta Eurial'en amaren itzez
barne-ikututa biotz-asperen luzeak jaiki ere.

Eta, oraindik, erabateko eder-alderdi oni txairotasun berezia ematen
dion beste zerbait ba-du Bergili'k. Gauzeri muga eman ta zeatz azaltzeko
legeak ongi zekizkin, eta giza-iduria jartzen digu beti ikuspegi ta margo-landa
erdian. Omer'ek ere orrela zegin: gizona beti lenengo lerroan. Orain izadia
besce ezer bagarik ere margoztu oi dugu. Antziñako idazle aundiak etzuten
geienik izadia aintzat artzen gizonik gabe. Bergili'k —L. Riber'ek ederki
diñoskunez— «uzta-saillak erretzen ditun su-lauki lazgarrian edo alorrek
zizutzen ditun ugolde oldartsuan, an edo emen, muiño gaiñetxoan bear
bada, beti jarriko du nekazari edo artzain bat, triskantza aren aurrean izu-
turik. Txerta-ertia edo zaldi-azte legeak azaltzen ari dan bitartean, itzetik
ortzera agindu oiek ebaki ta Itali agurtuko du, uzta ta gizurenen ama
jori bezela. Naiz nekazaritzako lege-emate ori utziko du Euridike'n galpen
atzera-eziña ta Orpeu'ren malko-jario goxo guri edesteko. Bergili oler-
karirik gurenetarikoa dugu, ta aren lana iñoizkoren baten galdua ba'litz,
munduaren edertasuna ere gutxiruko litzake».

Bergili, jakiña, osotuagotuz, gero ta ederkiago idatziz zijoan, iritzi ta bar-
ne-zauskadak ere aldatuaz. *Unai-kantak'etan* Epikur zale da, oiñazearen
balioa tinkatzen du *Alor-kantak'etan*, eta, biotako ezkortasuna lagarik, Jain-
kozale ageazen zaigu *Enearena* borobiltzean. Idazkeran ere berdintsu esan

dezakegu, baiña aren nortasuna nabarmentzen dun ezaugarririk bikaiñena sentikor ta samur izatea dugu: aren bertsoak beti daude liriku dardaraz ta kaden-zirradaz beteak. Izate-izkutuak kezkatzen zun, ezpairik gabe; ta auxe da aren olerkia guztizko egiñik illezkortzen duena.

Illezkor bedi gurean ere, arena baiño millaka batzuk urte, len ta orain, zarrago dugun euskaldunon izkuntzan, egiazki.

Larrea'n, 1965-XI-25

AITA ONAINDIA

ATARITXO

Berriz ere itzulpenak? Bai, irakurle, berriro itzulpenak. Gure artean itzul-lanak ainbat etsai dituken eginbearrik eztut uste arki ditekunik, zenbait urtez gero batez ere. Ala ere, gure izkuntza nai genuken mailla iasoa ikusi nai baldin ba'dugu, itzul-lanean iardun bearko dugu oraindik ere zati eder batean. Eguzkipeko izkuntza geienak itzul-lanean zaildu eta gaitu dira eta gaur ere izkuntza aundi auek itzulketan iarraitzen dute naizta, berez, literatur-zitu ederrik ekarri. Ergelkeria litzake, beraz, euskera bide ortatik baztertu nai izatea. Itzulpenik aski egin duala euskeraz esango dit baten batek... Ixo, ixo... Ez ainbeste, eta egin diran geienak ere eliz gaietan, ez bestelakoetan; eta elizaz landa badu beste bearrianik euskera errukarri onek.

Baiñan zertako itzuli Bergili baizen idazle zaarrik? Berriagoak eta gaurkoagoak| ere ba-genituen begien aurrean antxiñako klasiku igatu oriek baiñon ernagarriagoak...

Bai gero? Norbaitek esan du, eta esan ezpadu neonek diot, iru izan dira mundua mundu eta mendeak mende eutsi dioten olerkariak: HOMER, BERGILI eta DANTE, aurreneko biak batik bat. Merezi zuen, beraz, Bergili'ren lan osoa euskeratzea.

Gezurra dirudi, egi borobilla izaki zoritxarrez, oraindik egiteko geneukala bearrezko lan ori. Eta au gaiñera, are lotsagarriagoa: Gure lur-aldean zerbait loratu izan bada, latin-ikasketak loratu izan dira aspaldi aspalditik Baiona, Iruñe eta Gazteiz'ko seminarioetan, baita iosulagun, karmeldar, pasiotar, prantzizkotar eta beste eleiztar ikastetxe ezin-zenbatu-alean ere. Eta zer? Auxe; iñortxo ere eztala arduratu latindar eta grezitar auktoreak euskerara itzultzen; bidenabar egin zezaketen lanik ere ez dutela egin euskerari laguntzeko...

Egia da bestalde, gure seminarioetan eta elizaren asmoeran euskerak ez-tuela begiko zakarrak baiño garrantzi geiagorik. Geiago diñot? Baita zera ere... Edozein izkuntza arrotz euskera baiño aintzatago izan dute Euskalerriko seminarioetan, era oraindik ere ortan iarraitzen dutela esango banu, ez nuke batere gezurrik esango eta «Pacem in Terris» gora-bera ala iarraituko dute, gure apaizak etxerako barik auzorako gertutzen, Euskalerrian ixekarik, burlarik ügarriena egiten... Eta iakiña, erdel-giroan itota azi eta ezi dituten gure apaizen gandik zer itxaro genezakean? Luzaro eztelea norbaitek idatzi du «Zeruko Argia»n, «*eliza eztelea euskera, irakasteko sortu*», egia noski; zapaltzeko bai ote? Kristok besterik irakatsi zigun erri-izkuntza apala bere iardunetan erabilliaz.

Ala ere, aitortu bearrik arkitzen gera latindar klasikoak euskeraz iaizten zerbait egin dutenak apaizak izan direla; gutxi, baiñan zerbait bai. Neri dagokidan sail onetan, Bukolikon-Georgikon'en itzulpenetan, alegia, ona emen gure aurretik euskaldunek zer egin zuten. Paskual Iturriaga'tar Agustín'ek *Unai-kantak*'etako lenengo eta bigarrena euskeratu zituen eta *Fábulas y otras composiciones en verso vascongado* liburuan argitaratu ziran (San Sebastián. Imp. Baroja 1842). Argitaldi berri bat egin zan geroago Tolosa'n, Eusebio Lopez'enean, 1884. Manterola'ren *Cancionero Basco'n* agertu ziran Unai-kantok (Tercera serie 1880, Antonio Baroja, p. 135). Esan dezagun bidenabar, apaiz au oso izan zela euskalzale ta bere garaiko ta geroagoko eliz-gizonek ez bezela, lan aundiak egin zituela euskera ikastoletan batez ere sartzeko. Eztut iñoiz irakurri aren saiotoxa ta, egia esan, erbeste gorrian eztut aukerarik izan aipatu liburuak begiztatzeko, ta nere gaurko itzulpenok erbeste gorrian egiñak izan dira, ogei urtez gero dirauen erbesteetan, euskalzale sutsuenaren gairik goriena ere epeltzeko ta itzaltzeko ere naiko ta geiegi.

Urte asko geroago *Miangolarra'tar Kesara jaupariak* EUZKADI aldizkarian *Ur.aikantak*'etako 3'gna. 1907'n, 9'gna. 1908'an, eta boskarrena eta bigarrena, 1909'an argitaratu zituen. Arrezkero liburu osoa antolatu zuen eta Bukolikon guztiak itzulita eman zizkigun *Virgilio'ren Artzain-Abestijak* deritzaion liburutxoan (Bilbao'n Astui'ren Irarkola'n, Tendería, 19, 1912). Auek bai, gazterik irakurri nituen eta etxean utzi nituen liburuen artean au ere an izango da nunbait, erre zitzaizkidanen artean ezpazen, ainbeste liburu erre bai zitzaizkidan... Baiñan itzulpen ontaz ere, nekez ezer esan nezake igaro den urte samaldak ezpaitit irizpiderik borobiltzen uzten. Oker ezpanago Azkue'k bere Morfología'n aipatzen du Miangolarra, Morfologian edo beste nunbaiten, eta gizon aundi aren aipamenak, onezkoak diranean, aski dira nor-nairen trebetasuna nabarmentzeko (1).

Orratx *Unai-kantak'en* inguruan euskeraz orain arte egin diran saio bakkarrak, nik dakidala beintzat. Baliteke besterik ere egin izatea, baiñan urrutiegi bizi naiz euskal aldizkari eta liburuak bear bezela arakatzeko ta itzulpen guztien aztarrenak iasotzeko.

Alor-kantak, *Georgikon* alegia, iñork ere eztituela euskeraz osorik eman esango ba'nu, enukc gezurrik esango. Zatiren bat edo beste agertu dira or nunbait, bat Orixe zanak egiña «*Zaldia*» deritzana, «Alor-kantak»etako 3'gn. liburuko 75 gn. neurtitzetik 88 garrenera, amairu neurtitz bikainki euske-

(1) Zeaztasun guzti auek Aita Onandia'ri zor dizkiot eta ementxe agertu nai diot nere esker-onik sakonena, *Unai-kantak* Guatemala'ko EUZKO-GOGOAN agertu ziran lenengoz. 1954 eta 1955 urteetan.

ratuta. Bestelako itzulpena aterako zen aren eskuarfetik «Georgikon» osorik euskeratu izan baligu. Nik baiño neke gutxiagoz eta obeto egingo zituen noski itzulpenerako zeukan esku trebe arekin. Etzuen egin eta emen gu, txepelok, utsune ori betetzen.

Eta orain zerbait esan dezagun Bergili'ren idazlan auetaz gaingiroki badare. Liburu bakoitzari sarrera bana ez ipintzearren, bietaz ariko gera, gaiak bera dakarrenez.

«Unai-kantak» dituzu Bergili'ren gaztezaroko lana eta urte asko geroago ondu zituen «Alor-kantak». «Enearena» aren lanetatik arnas aundikoena, lan guztietan azkena duzute. «Eneida»z eztut nik ezer esango, ni baiño esale bikaiñagorik badukezure-ta.

Izenetati ageri dira beraz, liburu bakoitzean derabilzkin gaiak: «Unai-kanta»etan artzai-bizitza gorapatzen du nolarebait, «Alor-kantak»etan berriz, lur-lanak darabilzki kantagai.

Ez nioa emen liburu bakoitzeko gaiak banaka aztertzen, bear ez beste luzatuko bai litzake «ataritxo» au. Gaiñera liburu bakoitzean ematen ditugu aski zabalki kantu bakoitzaren gaiak.

«Unai-kantak», aurreneko Bergili'ren lana izanda ere, entzute aundia iritxi zuen erromatarren artean: «*Vita Donatiana*»k dionez, «*Bucolica eo successu edidit, ut in scaena quoque per cantores crebro pronuntiantur*»; Unai-kantak alako ondore ona izan baizuten, eskenan (antzokian) ere maiz abestu oi zituten kantariak». Laburrak dira izan ere, erre abestekoak.

«Alor-kantak»eri akats bat ezarten diote: Mekena'ren aginduz idatziak izan zirala alegia, ta agindu olerkiak beti ere, berezkoak baiño elkor eta latzagoak izaten dirala. Mekenak agindu zizkionik ezin diteke ukatu, Bergili ber-berak aitortzen baitigu: *Sequantur... tua, Maecenas, haud mollia iussa* (Georg. III, 40, 41). Ala ere, maite zuen Bergili'k eta etzuen iñoren agindu bearrik alako gaia neurtitzetan emateko, batez ere Varron'en *Res Rusticase* agertu berria, begi aurrean zeukalarik. Egia da gaiñera garai artan Erroma'ko agintariak nekazaritzarako gogoia pizkortu naiez zebiltzala gudu aundietatik itzulita cpor zeuden gudarien artean. Baiña Bergili'k, Unai-kantak'etatik ageri denez, ez zituen batere maite alako gudariak (I, 70, 71). Esan dezagun Seneka'rekin: «*nec agricolas docere voluit sed legentes delectare* (Epist. 86, 15); etzuen nekazariei irakasteko idatzi irakurleari atsegin emateko baizik». Etzuen lugin-teknikaz liburu bat egin nai izan, argi dago ori liburuaren orrialdeetan, lur-lanak eta arazoak olerkiz iantzi baizik. Eta ederki iritxi zuen, ala fede, asmo ori. Latiñez irakurri besterik eztauka-zute, gure itzulpen au latiñaren oiartzun sor bat besterik ezpaita.

Txillardegi'k dionez, *Artean eta literaturan, beraz, molde zakarrez ahaztutzea da lehengo urratsa* (*Huntaz eta Hartaz*, Baiona 1965, 88 or.). Nik enuke oinbesterik esango. Iakina «*barne-mogidura batek debeketzen digu Virgilio'ren kera kopiatzera* (Txillardegi, loco citato); idazleak, diot nik ere, aintxe bear du *barne-mogidura* berezia idaztera bultzatuko duena bestearen imintzio parregarri gerta eztedin. Alare, Txillardegi'k berak dionez, «*Badago gizonarengan aldatzen ez dan zerbait: gizonaren gizatasuna ain zuzen. Eta hunengatik Homero baiño olerkari haundiagorik ez omen da izan, eta nekez izango...* (Loco citato 89 or.). Orregatik berorregatik da olerkari aundi Bergili ere, menderik mende eutsi diona eta oraindik bear dute izan gure lan guztien eustazpi eta oiñarri. *Bach ezta sekulan ahaztuko*, eta musikari kaxkarra litzake Bach baztertu ta arbiuatu, aren lan ezilkorretan bere gogoan eradan gabe Schonberg baten dodekafoni urratuan murgilduko litzakena. Ravel «*Dafnis eta Kloe*»ren egille aundiak esaten zuen egunero edaten zuela Bach'en iturri gardenetik. Eta iñork ez dio ukatuko berritasunik, ezta gaurkotasunik ere, Ravel musikarietan garaienetaoari,

«Bergilio'ren «*Georgikak*» ezin uka poesi eder ederra diranik, dio Gazteluk, baiña gaurko egunetan eziña dirudi poema berri bat, batean poesi on ditekenik, nekazaritaz idatzi; bestetik itz-lauz, egokiago azaldu ditekena da» (OLERTI 1-2, 1963, 5^{gn.} or). Egia biziki gaurko idazleak ezin dezaiokegula luginzari bi milla urte lenagoko begiekin so egin, ez eta olerkariet ere. Baiña nere ustez nekazaritza beti izango da poesi-iturri bikaiña-goa egungo gizarte-auzi lazgarriak baiño. Egia esan, «*beti esanen dut egia*» (*Harri eta Herri* 42 or.) gizarteko mixeri gorria, gorputz eta arimetako mixeri samiña poesi-iturri baldin bada, zergatik izan ez nekazarien gizartea ere? Egia da izan, gizarte-olertia, oker ezpanago, uri aundietako biztanleen mixeri gorriari dagokiola batez ere, fa alako bertsu apurtu ta garratzetan kanta oi dala, ta ez dagokiola nekazarien giro apal ta goxoari. Baiñan nork sentiarazi ditu gure artean lugiñen arteko auzi berriak? Oiek ere ez al dira nabarmengarri?

Ez nijoa luzezago idazten eta ementxe noa nere lumaren etorria etetzera, bestela enuke iñoiz amaituko-ta. Auxe aitortu bear dizuet, ala ere: nekerik izan dudala Bergili euskeratzen, baiñan ez beste mundukorik. Ondo dakit utsune aundiak ditutela neure itzulpenok, alare norbaiti lagunduko al diote obeagoak eta borobillagoak egiten. Eta auxe ere esan bear dut: Bergili, antxiñako beste idazle asko bezela, oraindik ere gaurkotasunez gaiñezka dagoela. Bart ain zuzen, Atenas'ko «*Piraikon Theatron*»ek Sopokel'en «Elektra» eman zigun emengo Unibersidadeko Theatro ederrean: gaiñezka zegoen gazte iendez. Gaur Euripides'en «*Medeie*» emango dute eta atzo baiño

iende geiago bilduko gera. Gizonak berdintsuak gora-bera, ordukoak eta oraingoak. Eta nola bizi-arazi zituten antzezleri aiek... Ni birloratuta gelditu nintzan eta ni bezela beste asko txundituta.

Ondo dakit gure itzulpen au askotxok zoko bazterrera botako dutela, are urrunago bialtzen ezpadute. Ez al dute bada, gurea baiño itzulpen osoago ta ederrago bat, Olabide'ren *Idazteuna* alegia, Antipodetara bialdu? Ez naiz ni asko estutuko ara bialtzen baldin ba'dute ere; an ere etxean arkituko du bere burua, lana Bergili'rena izaki illezkorra baita, ta illezkorrak beti ta nun-nai bizirik irauten dute, iltzeko beldurrik gabe. Eskerrak gaiñera lagun on baten eskutik natorrena... Nere zailtasun eta moldakaizl'asuna Aita Onaindia'ren trebetasunak gozatuko dizkitzue noski baiño noskiago. Nere lerroek aspertzen baldin ba'zaitute, zoazte aren orrialde gozoetara; aintxe gozatu al izango duzute nire itzulpenak utzi dizuten ao-keru minkaitza.

Eta agur onen bestez, euskaldun maitea: euskera bekigu gidari ta io-muga, orain, nun-nai ta beti, batez ere Irakasle Aundiaren urte-muga on-tatik asita. Aren argiak argituko al gaitu.

Caracas'en, 1965'gko. Abenduan


Ibiñagabeitia'tar Andima

UNAI-KANTAK

(Boukolikon)

ՄՈՒԿԻ ԿԱՆՏԱԿ

ՔՄԲԼԻՍ
ՎԻՐՅԻԼԻՍ



ԱՏԻՄԱ

ԻՍԿԱՅՅԵԻՄԿ

ԷՎԿԵՐԱՄԿ

I'ngo. UNAI-KANTA

Melibeu eta Titir'ena

Octavius'i eskerrona erakusteko idatzi zun Bergili'k unai-kanta au, lurren iabetasuna utzi ziolako, eto, liburuaren aurrekaldean ezarri zun, naiz ta bigarrena, irugarrena ta boskarrena baiño geroagokoa izan. Titir Bergili'ren irudia duzute, ala ere ezin diteke bukolika osoan Bergil'tzat beti artu; maiz zakarregi ta burukoiegi baita. Melibeu'k, aldiz, askoz obeto ageri ditu idazlearen biotz-beratasun ta gogo-argitasuna. Onatx unai-kanta onen mami: Titir lasaiaren eta Melibeu erbestetuaren zori-aldea erakusten digu. Titir'ek lurren iabe gelditzea nori zor dion esaten digu; Melibeu'k bere zoritxarra deitoratzen du. Melibeu'k galdetuta, Titir'ek nola erromaratu zan esaten digu askatasuna iristeko, iopu baitzan, eta iainko gazte batek nola itz-eman zion len bezin patxaratsu aurrerantzean ere biziko zala. Zorionak damaizkio Melibeu'k ain etorkizun argiaren alderako. Titir'ek berri ere, iainkoekiko esker-ona agertzen du, Melibeu'k aldiz, erbestetuaren zoritxarra. Arratsa da; Titir'ek pozik eskeintzen dio Melibeu'ri ostatu.

Melibeu'k.—Zu, Titir, pagondo zabalaren itzalpean etzanda basa-musaren eresiak txirul segail batez ioten ari zera; guk aberriko muga ta soro atsegiñak utzi bear izan ditugu; sorterritik igesi atera gera; zu, Titir, gerizpean lasai, Amarili ederraren izena ber-esaten, oianei irakasten ari zera.

Titir'ek.—Oi, Meibeu!, atsarte auek iainko bateri (1) zor dizkiot: beti ere hura, iainko izango da niretzat eta aren opalarria, maiz, nere artaldeko bildots xamurren odolez zipriztinduko dut. Dakusunez, ari eskerrak, ene idiak lasa bazka ditezke nunnai, eta neonek ere basa-txirulaz zemai io dezaket.

Melibeu'k.—Ez zaitut bekaitz, miraz nago ala are; soro guztiak erabat asalaturik daude! Ara, neonek ere, ozta daramazkit aurretik auntz auek; auxe ere, Titir, doi daramat: urraizti sarri batean antxume bizkiak edin

ditu oraintsu, artaldearen itxaro; ondikotz, arkaitz gorrian laga ditu. Zoritar au, —gogoan dut—, ortziak iotako antzak iragarri zigun; itsuegi izan ni, ordea. Alare, Titir, esaiguzu, arren, iainko orí nor ote duzun.

Titir'ek.—Erroma deritzan uria gurearen antzekoa (2) zala uste nun zoro onek, antxume xamurrak eramaten dituguna bezelakoa. Ala uste nitun ttotoek zakurren antzeko, antxumeak, beuren amen ideko; era ortara txikiak aundiekin erka oi nitun. Uri ark, ordea, uztailatze apalen artean nekostak baiño garaigo iaso du bere burua beste guztien artean.

Melibeu'k.—Zerk piztu zizun Erroma'rako orren gurari bizia?

Titir'ek.—Askatasunak! Berandu bederen begiratu zidan erbail oni; bizarra iñoiz baiño urdiñago mozten nun garaian. Begiratu zidan bai, ta azkenean etorri ere zitzaidan Galatee'k utzi ta Amarili'k artu nindenez gero. Ala are, aitortu bear dut, Galatee'k nendukanean ez neukan askatasunaren itxarorik, ezta diruaren ardurarik ere. Alperrik ateratzen nitun esi artetik urirako opalgaiak, baita gatzai guriak ere. Ez nun iñoiz ere diruz astun sakeik etxerutzen!

Melibeu'k.—Zurtuta nengon, Amarili, zer zalata orren its iainkoei deiez ari ziñan, eta norentzako uzten ote zenitun igaliak zuaitzetan zintzilik. Ioana zan Titir! Lerrondoak eurak, iturriak, zugazti auek ere zuri deiez zeuden.

Titir'ek.—Zer besterik egin ote nezakean? Bestela ezin nindekean ioputzatik irten, ezta iainko laguntzaille auek ezagutu ere, nonbait. Orduntxe, Melibeu, ikusi nun gazte hura (3), sei-urrenez, urtean birritan, gure opalarriek kea eskeintzen dien gazte hura. Eta orduntxe nere galdeari aurrenekoz erantzun zion ark: «Aurrak!, idiak bazka itzatzute, len bezela; zezenak ezi itzazute».

Melibeu'k.—Agure zorionsua zu! Onezkero soroek zure iraungo dute. Aski dukezu, naiz ta larreak lur-etze biurturik ta ii-basatsuz idoiturik egon! Zure ardi ernariak ez dute bazka ez-ezagunik irrikatuko, ezta auzoko abereen izurriak ere ez ditu ukituko. Agure doatsua! Ibai ezagun auen artean eta iturri guren oien aldamenean, ozkirri ta ozpel giro izango dituzu (4). Alde batetik, oi bezela, sarats loretsuz hiblar (5) erleak alaten ditun auzomugako esiak, mur-mur goxo ta biguñez lotarako ots egingo dizu; bestetik, ordea, arkaitz garaipean kimatzailleak bere abestiak aietara iaurtiko ditu. Auek gora-bera, begiko dituzun useok ez ditute beren urrumak etengo, ezta zumar-ondoko uxapalek ere beren minkuriña eguratsa zear.

Titir'k.—Aren irudia (6) gure biotzetik ezaba baiño len orein ariñak ortzian bazkatzen ikusiko ditugu; ibaiak arrain gorriak ertzera iaurtitzen eta Aberri-mugak elkar aldatuta, Partiarrek Arari'ko urak eta germandarrak Tigri'tik edaten (7).

Melibeu'k.—Guárico batzu, ordea, Aprika egartsura ioango gera, beste batzu Eskiti'ra (8), Oaxes ibai lasterraren aldamera (9), edota mundutik bereiz bizi diran breiz'tarretara Iñoiz ikus aal izango ote ditut ene gurasoen mugarteok edota nere etxola txiroaren gaindegia beiarrez iosita? Gero-
ra, nere aginterriok ikustean galburuak miretsiko ote dut? Ain ondo landu luberriok gudari gaiztoen batek ukanen ote? Uzta aukerrotzen batek? (10).
Orientzako eroin genitun soro auker! Orra elkar-aserreak zertaratu ditun erritar errukarriak! Orain, Melibeu, txerta itzatzu udarondoak, mastiak lerrokatu itzatzu. Zoazte ene aldi bateko artalde zorionsuak, zoazte ene auntsok; gaugerero, ez zaituztet ikusiko ieize orlegian etzanda, ezta urrutiko arkaitz goroldiotsutik zintzilika ere. Ez dut geiago kanturik abestuko. Ez zaituztet geiago bazkatuko erratz loretsuz ezta sarats gaziz ere, nere aunts maiteok.

Titir'ek.—Ala ere gau ontan, ementxe, nerekin, ostu muskerren gainean atsedean ar zenezake. Badiut igali umoak, gaztain biguñak baita gaztaiak ugari ere. Basetxe urrunetako gaindegia ke-dario daude dagoneko, eta itzalak, aundituz, mendí garaietatik bera erortzen ari dira.

OARRAK

(1) Oktabi bera zan jainko au, erriak ortakotzat zeukana; ortik, beraz, Titir'en bertsoak.

(2) Gure uria Mantua zan; eta egiazki, Andes bada, Bergili'ren sorterrixka, andik urbitxe aurkitzen zan.

(3) Oktabi zan gazte au. Ta ez diotsa orla goreste ta palakarí; gaztea zan oraindik, ogeitalau urte besterik ezpaitzitan. Orati'k, amar urte geroago ere, gazte deitzen dio (Lib. I, Od. II).

(4) Olerkariak emen bere bizi-eskualdea zeatz-meazten du, ots, Minkita ango muiño egal kotortsuetakaa.

(5) Bibla, Sikili'ko mendia dugu; ango eztiak ere entzute aundikoak.

(6) Oktabi'rena da emen olerkariak aipatzen dun irudia.

(7) Tigri ibaiá zan partiarren muga, ta Arari, gaurko Saona, germandar edo, obeto, galitarrena. Ibai bi aipatzen ditu, bata sarkaldekoa ta bestea sortaldekoa, atzerriratuén naas-maaaa ta barreadura indartzearren.

(8) Eskiti zan iparraldera zegoen lur-bazter otza.

(9) Oaxes, Eskiti'ko ibaia.

(10) Erromatarrak arrotz deitzen zien beren erriko etziran guztieri, naiz germandar, naiz galitar, naiz breiztar izan. Kanta au idaztean ba-ziran noski errornatar gudarostean alakoak ere.

II'gn UNAI-KANTA

Koridon'en deitora

Ezpai gabe, Teokrit ta Menelagru'ren idilietan edan ditu idazleak poema oni darizkion urak, naiz ta besterik esan anrxiñako idazleak. Gai lerra-korra berez, arrigarria ordea, alako gaien Bergili'k darakusgun txukuntasun eta garbitasuna. Iruzkinklari zaharrak Polion eta Bergili'ren arteko adiskidetatasunari doakola diote unai-kanta au. Orra guna; Koridon'en zoritxarreko maitasuna, biotza erretzen dion maitasun doakabea, deitoratzen du; garbai da beste norbait maitatu eza, eta ez dala ain itsusi ere dio.

Alexi berarekin bizitzera ioango ba'litzαιο, txirula, antxume bizkiak, lorak, igaliak eta eskeintzen dizkio. Bat-batean Koridon'ek maitasun ero au gaitzesten du eta bere garrari arratsak ez dakarkiola bare-aldirik aitortzen du. Amets zoroak baztertu nai ditu, on diteken esku-lanen bati ekiteko.

Ugazabaren atsegin zan Alexi ederraren irrikaz erretzen zegoen Rondon artzaia; itxaro gabe, ordea. Adaburu itzaltsuz estali pagadi sarri batera (I) maiz etortzen zan, an bakarrean, asperen auek mendi ta oianei gartsuki, alperrik ialkitzera:

«Alexi anker!, ez al zera nere kantuez arduratzen? ez al zera nitaz errukitzen? Iltzera beartuko nauzu azkenik! Musker orlegiak, elorri tartean ostendu ta artaldeak ozkirri ta itzala billatzen dituten garai ontan, Testüi'k (2) ere berakatz ta txirpotxa —belar urrintsuak— mozten ditu sapa astunez nekatu itailarientzat. Anartean nik, eguzki galdatan zure urratsen iarrai ibilki, zugaztian durundi daragiot txitxarra erlatzak lagun. Obe ez ote zitekean Amarili'ren aserre itsak eta neke arroak jasanya? Edota Menalka beltxarana, naiz ta zu txuria izan? Oi, aur eder! Ez uste larregirik kolorean ezar. Zuandor-lore txuriak bertan bera erortzen dira, ahabi beltzak, ordea, biltzen ditute. Zapuzren nauzu bai, Alexi, ta nor ote naizenik ere ez duzu galdetzen, ez eta zeñen aberats artaldez, zeñen ugari esne txuriz.

Baditut milla ardi Sikili'ko (3) mendietan alderrai: esne berririk etzait peit ez udan, ezta neguan ere. Anpion Dirk'arrak (4) —artaldeak biltze-koan— Akte'ko Arakintu'n kanta oi zitun abestiak kantatzen ditut. Ez nauzu ain itsusi ere. Oixtion, itsasoa aize gabe zegola, ur-ertzean begiratu naiz. Iñoiz irudiak lausotzen ezpagaitu, ez naiz Daphni'ren beldur. Ori zuk erabakiko.

Oi! nerekin bizi nai ba'zenu, bederik, landa zikin eta etxola apaletan, oreiñak zirrikatu ta aker-taldeak ziguin orlegietara akulatzeke! Nerekin, Pan'en antzera, oianetan abestuko zenuke. Pan'ek, lenengoz, txirulak ezkoz elkartui zitun. Pan'ek dauka ardi ta ardi-iabeen ardura ere. Ez, arren, garbaitu balin txirulak zure ezpaintxoak igatu baietza. Zer ez ote zun egin Aminta'k (5) gauza auek ikasteko. Badut nik zazpi odi ezberdiñez egin-dako txirula bat, Dameta'k (6) eskusariz, aspaldi emana. Ara iltzerakoan esan zidana: «Zu zaitu bigarren jabe» (txirulak alegia). Orrela ziñon Dameta'k, eta Aminta ergela bekaitzez zegon. Baditut gaiñera bi antxume, nolabaiteko larre batean arkituak, oraintxe ere larrua orban txuriz iantzita daukatenak; bi-pana ardititi legortzen ditute egunero; zuretzat gordeta dauzkat. Aspalditik Testili'k berari uzteko esaten dit, eraman ditzan; eramango ere ditu zuk nere emanak nardatzen bait-dituzu.

Zatoz onuntz, aur eder! Onatx, Ninpak ere, zuretzako otarre-bete zitoriz. Nai txuriek (7), lili-margul ta urdamatur garaiak bildurik, unanu ta mirubelar usaitsuz naasirik, edota bitxika ta nolanaiko belar biguiñez txortaturik, illerri-lili xamurrak ta ahabi orailak elkartzen ditute. Seska batekin, neonek bilduko ditut sagar-ille leunak (irasagarrak) eta ene Amari-li'k ain maite zitun gazfain ta intxaurrak; baita ezko kolorezko aranak ere bilduko ditut: igali auek ere ospe dukete. Zuek ere batuko zaituzte ereiñotz eta urbilleko gilloria, orrela elkarturik zuen usai goxoa naasten dutzelako.

Basati aiz Koridon: Alexi ez duk emarien aiola, eta emari norgeiokan ez lioke Iola'k berak ere irabaziko. Ondikotz! zertan ari naiz errukarri au! Nere ero-aldi ontan Auster utzi dut lore artean, eta basurdea iturri gardenean. Noren igesi zoaz ero ori? Iainkoak, baita Paris Dardani'koa (8) ere, oianetan bizi ziran. Bego Pala (9), berak eraiki urietan; guk oianak, oroz gaiñetik maita ditzagun. Leoiama betokerrak otsoa billatzen du, otsoak, berriz, auntza, auntsz lizunak erratz-loratua eta Koridon'ek Alexi: bat berderaren atsegiñak garamatza. Ikus: idiek goldeak daramazkite uztarritik, eta eguzkiak, etzaterakoan, aunditzen ari itzalak bikoizten ditu; ala ere ni, maitasunak erretzen nau; maitasunak ba ote duke iñoiz neurririk gero?

Oi Koridon, Koridon: nungo ero-aldik artu zaitu? Zure matsondo ostotsua, erdi-iñausirik, zumarrean daukazu orandik. Ii ta zume biguiñez zerbaiterako on daitekena egiteko gertu zaite. Orrek zapuzten ba'zaitu, arkituko duzu beste Alexi'ren bat».

OARRAK

(1) Sirakusa'ko olerkari Teokrit'ek bere Komeostes lanean egin zun bezela dagi emen Bergili'k; Mantua'n bizi arren, ango lurnaldeetara dioa irudimenez. Pagadi sarri aiek, bada, Mantua aldeak dakarzkigu gogora.

(2) Testili, mirabe bat zenun, itailariantzat jakia apailatu ta ontzen zuna. Berakatz eta txirpotkez egiñiko au ezta kigu noiakoa zanik, baiña Itali'ko nekazarieri atsegin zitzaien belarrez, gaztaez, olloz, ardoz ta iriñez atonduriko zukua (*moretum*) gogorazten digu.

(3) Esan dugunez, toki aldatu ta Sikili'ra doakigu olerkaria.

(4) Anpion eta Zetu anaiak ziran, Iobe ta Antiop'e'gandik sortuak; Zetu ez-jakiña, ta Anpion musika arloan batez ere guztiz jakintsua. Onek jarri zitun, bere lira-soiñuz Tebas uriko esiak urrenez urren. An urbil zegon Dirke'ren iturria, ta origatik deritza Dirka'rra. Arakintu, Etoli'ko mendia.

(5) Arrunta, artzaia, Koridon'en leikide, txirul-jotzaille baitzan.

(6) Dameta ere artzaia, Koridon'en ugazaba ta adiskide ordea.

(7) Ninpak eta Naieak, iturri ta ur-ertzetako neskatx, erdi-jainkosak ziran.

(8) Paris, artzain artean inudetua duzu. Dardani ta Trola berdin.

(9) Atenai, izan ere, Kekrope'k irasi zun, Pala atenaitar edo Minerbe'ren babespean.

III'gn. UNAI-KANTA

Menalk eta Dameta'rena

Gaia: Teokritu'ren IV'gn. Idilian bezela, bukolika ontan ere bi artzaiek elkar-arkitzen dute; batak iñoren artaldea zaitzen du. Ala ere Bergili'k V'gn. Idilitik iaso du elkar-izketa onen mamia; Teokritu'k, Komata eta Lakon'en arteko lipizta bezala, Bergili'k Menalk eta Dameta'ren artekoa idurikatzen du. Elkarrri sekulakoak esaten dizkie. Bakoitzak bere trebetasunak aipatu ondoren, bertso-demarako eupada iaurtitzen die elkarri; Palemon auzoa artzen dute auzi-epailetzat. Aldizka ahapaldiak ialkitzen ditute bertsolarien gisa. Palemon'ek zein ote dan garaile ezin dezakela erabaki aitortzen du.

Menalk'ek.—Esaidazu, Dameta: norena da artaldea? Melibeu'rena ez ote?

Dameta'k.—Ez, Egon'ena baizik: orantsu utzi zian neri Egon'ek.

Menalk'ek.—Zoritxarreko ardi ta artaldeak beti ere! Iabea Neree'n inguruan dabillen bitartean, —bera baiño ni laztanago ez ote naun izango beldurrez— artzai arrotz onek orduko birritan erasten ditu ardiak, abere gaizoak legortuz eta bildotsei esnea lapurtuz.

Dameta'k.—Gogora ezazu, orrelakoak arduratsuago gizonei egotzi bear zaizkiela. Badakigu zu ere norik eta zein santutxotan... (1) akarren begirakun okerpean... Ninpha errexek par zegiten, ordea...

Menalk'ek.—Mikon'en landare ta matsondo berriak itai gaiztoz mozten ikusi nindutenean, agian...

Dameta'k.—Edota ementxe, pago zarren ondoan Dafni'ren uztai-geziak autsi zenitunean; zu, Menalk gaizto ori, emari oriek aurrari eskeñiak zirala ikustean sumindu ziñan; ilko ere ziñan, noski, kalterik ezin egin izan ba'zenezai.

Menalk'ek.—Zer egin dezakete iaubeek, lapurrak orrelakoetara ausartzen diranean? Ez ote zaitut ikusi, gaizto ori, Likiska'ren (2) zaunkak gora-

bera, Damon'en akerrari xedebak edatzen? Eta «nun amiltzera doa? Titir, bil ezak artaldea» oiu egin nizunean, zarmuka artean ostentzen ziñan.

Dameta'k.—Kantuz garaitu nuenez gero; ez ote zidan nere txirul-doiñuz irabazi akerra emango? Ezpadakizu ere, aker hura nerea zan. Damon berberak ere aitortzen zidan ori, alabaiña ezin zezaikedala eman esaten zun.

Menalk'ek.—Kantuz zuk ua (garaitu)?, iñoiz ukan ote duk ezkoz elkartutako txirulik gero? Arlote orrek, txirula motel batez, ez al zenitun gurutz-bideetan doiñuak errukarriro Iardaxkatzen?

Dameta'k.—Beraz, biotan nor ote dan geiago, aldizka ikus dezagun nai al duzu? Nik bigantxa au ezartzen dut (gaitzetsi ez dezazun ere... bi aldiz datorkit erasteko, eta bere errapean bi ume azten ditu). Zuk, berriz, esaidazu zer baituratzen duzun nerekin burrukatzeko.

Menalk'ek.—Artaldekorik ezartzen ez nintzake ausartuko; badut etxean aita bat, badut ere amorde donge bat. Bi-biek, egunero birritan, artaldeak zenbatzen ditute, eta batak edo besteak auntsak ere bai Baiña zeorrek ere obeagotzat etsiko duzuna ezarriko dut —erokeri bat' egin-gogo duzun ezker—, ots, pagozko goporrak, Alkimedon (3) iainkotiarrak landuak: garaikaldean matsondo malgu-errexez inguratu ditu, or-emenka mordoak untz-txurizkaz estalirik. Erdiunean bi zantzu. Konon (4), eta... bestea nor ote zan, gizadiarentzat urte-aroak, —uztabiltzaillearena ta goldari lepomakurrena, alegia—, bere zotzez marratu zituna? Ez ditut oraindik ezpafiñetara urbildu; gordeta dauzkat.

Dameta'k.—Neretzat ere, Alkimedon'ek berak bi gopor egin zitun, ontzi-belarriak akantu guriz baranoan besarkaturik; erdiunean Orpheu ezarri zun oianetan ibiltari. Ez ditut oraindik ezpafiñetaratu, gorderik dauzkat. Bigantxa ikus ba'zeneza, ordea, etzenuke goporrak goraiapatuko.

Menalk'ek.—Gaur iñola ere ez zatzakit itzuriko; noranai iarraituko dizut. Ala ere, guk erasiak norbaitek entzun bitza: onatx ain zuzen, Palemon. Gaurgero ez duk iñor zirikatuko akalde orrek, ala ni!

Dameta'k.—Ekiozu, esatekorik balin ba'duzu; ez nauzu luzakor; ez nabil iñoren igesi. Auxe bai, Palemon auzo; arreta aundiz entzuiguzu, auzi kaxkarra ezpaita.

Palemon'ek.—Emazute: nonbait ere, belar gudan exerita gaude. Garai ontan, soroak oro, zugaitzak oro erdi-miñez daude, oianak ostotzen ari dira;

oraintxe urtearorik ederrena. Asi zaite, Dameta, eta zu ondoren, Menalk. Aldizka esango dituzute. Kamenek aldizkakoak maite.

Dameta'k.—Iobe'gandik bedi asiera, Musek! Iobe'k betetzen du oro: ark lurrak lantzen, ari begokio ene abestien ardura ere.

Menalk'ek.—Ni, ordea, Phebu'k maite nau; ene baitan beti arkituko ditu Phebu'k nai lituken emanak, ereiñotz eta iakintu gorri leunak (5).

Dameta'k.—Galatee (6) nexka ariñak alakoak, sagar bat iaurti dit eta sarats artera iges egin du ateman dudaneko.

Menalk'ek.—Neri, berriz, oldez datorkit Aminta nere mingarra; gure zakurrek Delie (i) baiño ezagunago dute dagoneko.

Dameta'k.—Eskupean ditut emariak ene kutunarentzat; basa-usoek nun kabiak egiten difuten ikusi baitut.

Menalk'ek.—Nik al dudana egin dut: oian-zugaitzean bildu amar urre-sagar biali dizkiot aur maiteari; beste batzu igorriko dizkiot biar.

Dameta'k.—Oi zenbat aldiz eta nola Galatee mintzatu zaidan! (Itz, edor aietatik) zenbait eraman itzatzu, aize, iainkoen belarrietara!

Menalk'ek.—Neri zer, Aminta, zure biotzean zuk ni ez arbuiatzea, basurdeen atzeti zabiltzan bitartean ni xedebak zaitzen baldin banago?

Dameta'k.—Philide, Iola (8), igor ezadazu, otoi, ene urteguna baita: txekorra nere uztaren ordain lepo-egingo dudanean, zatoz zeori ere.

Menalk'ek.—Beste ezer baiño maiteago dut Philide; alde egin nuenean negar egin baitzun, mintzoa luzatuz esanaz: «Agur, agur, Iola eder».

Dameta'k.—Kaltegarria otsoa ukuilluentzat, euri-iasa uzta-zorituentzat, aizea zugaitzentzat eta guretzat Amarili'ren aserrea.

Menalk'ek.—Goxoa, aldiz, ezoa ereintzentzat, gurbiza aume titigetuentzat, sarats biguña ardi ernarientzat, eta neretzat, Aminta sollik.

Dameta'k.—Maite du Poliu'k gure Muse naiz ta basatia izan. Pieridak (9), zuen irakurlearentzat bigantxa bat larratu ezazute.

Menal'ek.—Poliu'k berak ere bertso berriak (10) egiten ditu: adarka dakian eta apatxekin ondarra iñarosten dun zezena larratu ezazute.

Dametá'k.—Maite zaitunak, Poliu, zure zori bera iritxi beza: eztia biñotsola eta elorri zakarrak *amomu* (lore bat) bekarkio

Menalk'ek.—Babiu gorroto ez dunak, zure bertsuak maita bitza Mebiu (11), eta berberak azeriak uztarpera bitza ta akerrak eratsi.

Dameta'k.—Loreak eta lurrean erne marrubiak biltzen dituzuten aurrok: alde emendik, suge otza belarrean itzalgaizka baitago.

Menalk'ek.—Etzaitzeta urrutiegi joan, ardiak: ez urertzean ongi-ustetik ukan: ahariari berari, larru-illea legortzen ari zaio oraindik.

Dameta'k.—Ibaitik aldera itzatzu. Titir, bazkatzen ari diran auntzak; neonek ikuziko (garbituko) ditut guztiak iturriari, garai ditekenean.

Menalk'ek.—Mutillak!, ardiak bildu itzatzute; sargoriak esnea mozten baldin ba'die lentsu bezela, alperrik eskuekin enapeak lauzkitu dizkiegu.

Dametá'k.—Ene! Zeiñen argal dagoen ene zezena sapelar gurian. Maitasuna kaltegarri zaie, era bat, saldoari ta saldoburuari.

Menalk'ek.—Auek ere, larru ta ezur daude, ez, noski, maitasuna dala-ta. Ez dakit noren begiek nere bildots xamurrak zorutzen dizkidaten.

Dameta'k.—Esaidazu zein lurraldetan ortzi zabala iru ukaiz (12) ikusten ez dan, eta aundi izango zakit Apol.

Menalk'ek.—Esaidazu zein eskualdetan loreak errege izenekin (13) erretzen diran, eta zuretzako soilik Philide izango da.

Palemon'ek.—Ez dagokit zuen arteko auzi orren aundia konpontzerik. Zu ta au, edota maitasunaren atsegin-atsekabeak dastatu dezazken edonor, txekorraren gai zerate. Orain, mutillak (14), eten ezazute zuen iarioa, belardiek aski edan baitute.

OARRAK

- (1) Lotsagarri zan zerbait ixildu nai du emen.
- (2) Damon'en abereak zaltzen zitun zakurraren izena.
- (3) Alkimedon, izen au ez daklgu Bergili'k berak asmatua danentz, edo-ta babiliteke garai artako tailu-gille baterena izatea ere.
- (4) Konon, Samos'ko izarfan ta geometri jakituna. Alejandri'n bizi izan zan, Ptolomeutarren esku-zabaltasunak ara eramana.
- (5) Dapne ereñiotz ta lakintu onen izeneko lore biurtuak, malte zitun Apol'ek.
- (6) Galatee, artzai neskatx bat.
- (7) Delie, ots, Diane, Delu'n jaioa baitzan.
- (8) Iola, Philide'k mirabe'zat zeukan artzaia.
- (9) Pieridak, edo maitagarriak, Makedoni'ko ego-sorkaldean dagoen Pieria eskualde malkartsuan jaiio zirafako orrela deituak.
- (10) Zertan ote zegoen Polion'en bertsuetak berritasun ori? Ez dakigu, olerkari au batez ere trajlku zalea zan arren.
- (11) Babi'u ta Mebiu, latindar bertsolari bi ziran, Bergili'ren etsai. Ikus bigarre-nari buruz Orati k (X Epod.) idazten duna.
- (12) Bertsu au ezta argia, ta askoren iritziz, alegika mintzatzen zaigu emen Bergili. Arako mantuar Keli aipatzen du noski, itz erdika bezela; bere etxe-ondorea eralgi zun onek, eta illobiak artzen zizkion iru ukaiak ezik, etzun beste lur-unerik.
- (13) Jakintu erbatzetan, aintziñakoak, gerkar izki A ta I irakur uste zuten, iruletara irakurri ezkeru Ajax, Salamlina'ko erregeren izena, ordun Salamlina'n baitziren ernetzen lorak erregegai-izenez.
- (14) Alor-saillak ureztatzer berarekin etorri ziranei ematen die Palemon'ek agindu au.

OARRAK

- (1) Lotsagarri zan zerbait ixildu nai du emen.
- (2) Damon'en abereak zaltzen zitun zakurraren izena.
- (3) Alkimedon. izen au ez dakigu Bergili'k berak asmatua danentz, edo-ta babiliteke garai artako tailu-gille baterena izatea ere.
- (4) Konon, Samos'ko izarlari ta geometri jakituna. Alejandri'n bizi izan zan, Ptolomeutarren esku-zabaltasunak ara eramana.
- (5) Dapne ereiñotz fa Iakintu onen izeneko lore biurtuak, maite zitun Apol'ek.
- (6) Calatee, artzai neskatx bat.
- (7) Delie, ots, Dlane, Delu'n jaioa baitzan.
- (8) Iola. Philide'k mirabe'zat zeukan artzaia.
- (9) Pieridak, edo rraitagarriak, Makedoni'ko ego-sorkaldean dagoen Pieria eskualde malkartsuan jaiotako ziralako orrela deituak.
- (10) Zertan ote zegoen Polion'en bertsuetako berritasun ori? Ez dakigu, olerkari au batez ere trajiku zalea zan arren.
- (11) Babi ta Mebiu, latindar bertsolari bi ziran, Bergili'ren etsai. Ikus bigarrenari buruz Orati'k (*X* Epod.) idazten duna.
- (12) Bertsu au ezta argia, ta askoren iritziz, alegika mintzatzen zaigu emen Bergili. Arako mantuar Keli aipatzen du noski, itz erdika bezela; bere etxe-ondorea eraldi zun onek, eta illobiak artzen zizkion iru ukaiak ezik, etzun beste lur-unerik.
- (13) Jakintu erbatzetan, aintziñakoak, gerkar izki A ta I irakur uste zuten, iru tetara irakurri ezkeren Ajax, Salamina'ko erregeren izena, ordun Salamina'n baitziren ernetzen lorak erregegai-izenez.
- (14) Alor-saillak urezatzera berarekin etorri ziranei ematen die Palemon'ek agindu au.

IV^ogn. UNAI-KANTA

Goratzarrea

Laugarren unai-kanta onek Bergili'ren poema artean ots andiena iritxi zun. Olerki au zala-ta Laktantiu eta Augustin deunak ere Jainkoak eragindako poeta gurentzat artu zuten Bergili, Mesia'ren iragarletzat.

Aipatu Irakasleei iarraituz erdi-mendean ere Kisto'ren igarletzat aitortzen zuten poema ontan kantatzen dun misteriozko aurraren iaiotza Belen'en sortu Jainko-aurraren iragarpentzat arturik. Egia esan, aur miragarri ori zein zitekean iñork ere ez du oraindik argitu aal izan. Ustekizun ugari ialki ditute ortan ibilli diran ikerlariak, batek ere ez, ordea, egiñik eta zññik. Beraz, Bergili'k iragarri aur arrigarri ori oraindik laiñopean datza. Olerki ontako zenbait neurtitz Isai igarlearenekin ere erkatu ditute. Ortik ikus zer nolako igarle arnasa darion. Izan ere, unai-kanta ontan antas andiagaz ari da olerkaria, txikiak baztertuta, gurenak, garaiaagoak abestu nai ditu. Bizpaitu irudietan ezik, poema onek ez du bat ere unai kutsurik. Onatx laburpena. Garaiaagoak abestu bear dituela diñosku, Kontsularen gai dituzkenak; Kontsul ori Polion duzute. Aur bat iaioko da; mende berrien iarraikuna asiera dioa, urre-aroaren garaipena dator. Igarle antzo, aur iaio-berriaren arrigarritzko bizitzaren izangoa ematen digu. Aurraren leen urratsak aipatzen ditu, giza-izakera ondua, ludi naretua. Aurra azten da, gotortzen da. Aurra gizondu ditekenean urre-aroak oro estaliko du, lan bearrik ere ez diteke. Ikuskizun zoragarri au bi neurtitz gartsuz amaitzen du. Igarkizunaren azken aldia, erri-agintaritzen aroa. Olerkaria aurrari ari zaio mundu zabalaren poza ikus dezan, eta bere bizi-aldia bear bezin luze nai luke gizuren andi onen aipamenak eta egiñak abesteko. Ats-andiko igarkizun onen ondoren, olerkariak amasa apaltzen du etxe-gertari xalo batez poema bukatzeko.

Sikili'ko Musak! garaitxoagoak abestu ditzagun, oroi etzazkie era berean gogoko zuaiztiak eta millazka apalak (1). Baldin oianak kantatzen ba'ditugu, oianok kontsularen gai bitez.

Onatx etorria Kumas'ko igarleak (2) iragarri azken garaia: mendeen iarraikun aundia, oraintxe, bete-betean asten da. Orra or Birgina (3) berri ere, baita Saturn'en iaurrealdia ere; gizaldi berri bat zeru gaindegitik ialkitzera doa. Lukine (4) garbi: burni-garaia itzali ta urregaraia mundu guztiari ekarriko dion aur iaio-berriari lagundu ezafozu, zure Apol (anaia) agintari baita. Zure kontsulgoan ain zuzen, Poliu, deduzko mende onek

asiera duke, eta zure agindupean Urte-Nagusiak len-urratsak emango ditu. Gure gaizrakeriaren lorratzek ba'liraute, utsal gertatuko dira, lur gainetik beldur oro betiko erauzteko. Aur onek iainkoen bizitza ukanen du: gizurenak iainkoekin naasita ikusiko ditu, bere burua ere bai, eta lurbira paketua arbasoen gandiko birtutez iaurriko du.

Eta zuri, aurra, lurrak, landu gabe, nun-nai untz-alderraia, basakara (5), kolokasi ta akantu irriutsuz naasita, asikin bezela eskeiñiko dizkitzu. Aun-tzek ere, oldez, errapeak esnez anpaturik etxera eramango dizkitzute, ta abere-saldoek ez ditezke leoi aundien beldur; zure seaskan bertan oparo er-neko dira lore biguñak. Sugea ilko da, baita belar zital maltzurra ere; nun-nai Asiri'ko amomua (6) erneminduko da.

Gizurenen aipamenak eta zure aitaren egiñak irakur al ditzakezuean, eta azkartasuna zer ote dan ikas dezakezuean, zelaiak, ezarian, galburuz orailduko dira: laparrak mats gorritzak beteko eta artelatzen ezti-intza ixuriko dute. Alare maitzurkeri zarraren zenbait zantzu or izango dira, gizonek Tetis (7) itsasontzietan zirilo dezaten, uriak ormaz esi ta ildoak lurrean urratu ditzaten. Baiñan, autatu gizurenak eramateko, beste Tiphis (8) eta Argu bat izango dira: gudu berriak sortuko dira eta Akileu andia arzara (berriro) Troia'ra igorria izango da.

Arrezkero, adin sendoak gizondu zaitukenean, bidariak ere berez itxasoa utziko du, eta itsas-ontziek ez dute salerosketarik egingo: lur orok, orotavik ekarriko du. Soroek ez dute eskuarerik iasango, ezta mastiek igitairik: lugin sendoak uztarpetik zezanak askatuko ditu; kolore aizunez artilleak ez du geio inor atzipetuko; larrean bertan, aariak, rnasustaren gorritzak edo-ta orikaiaren oriztaz larru-illea aldatuko du; bazkatzen ari bildotsek berez gorrimiñez (sandyx) iantziko dira.

«Laster egizure alako mendeak!» Parkak beuren ardatzei esan die, alaberraren naikari aldakaitzen ariora.

Dedua goietara zabilta, —oraintxe duzu garaia—, iainkoen askazi maitea, Iobe'ren luzapen aundi ori! Ikus itzatzu ganga astunaren azpian mundua koloka, lurrak, itsaso zabala ta ortze sakona; begira nula oro alaitzen diran datorken mendeaz. Nere bizitzako azken-aldia bear beste luzatuko al zait eta arnasik aski izango al dur zure egiñak goraiatzeko. Trazi'ko Orpheu'k ere ez nau bertsogintzan menperatuko, ezta Lin'ek (9) ere, naiz batari bere amak lagundu, besteari aitak, ots, Orpheu'ri Kaliop'e'k, Lin'i Apolon'ek. Pan berberak, Arkadi lekuko, nerekin dernan ariko ba'litz, Pan berberak Arkaki iakile (10), garaitua dala aitortuko luke.

Asi zaite, aur ñimiño, irriparez ama ezagufzen (zure amak, amar illa-betez nekerik aski iasan baitu); asi zaite, bai, aur ñimiño. Gurasoen irriparrerik ukan ez duena, iainkoek ez dute mailcidetzat onesten, ezta iainkosek ere gelakidetzat.

OARRAK

(1) Sikili'ko Musak, au da, artzai-olerkia abestu zun Teokrit'enak. Millazkak (tamaris), ibai ta ezpondetako landareak, Apoli'eskeiñita zeuden. Untzakin batera, olerki-ezaugarri zenun, ereiñotza baiño apalago noski.

(2) Sabile edo iragarle-emeen artean Kumas'koa zan ospetsuena. Elezarrak dionez, au aurkeztu omen zan Erroma'n, Tarkin Zarra'ren garaian, Aginterriaren urre-aroa iragartzen zan *Sibile-liburuak* ari saldurik,

(3) Astere duzu birgiña au, Zeus ta Temis'en alaba. Urezko garaian lurrean bizi izan zan: baiña gero, burni-aroan, gizasemeek zegizkien gaiztakeriz lotsatua, ortzira garatu omen zan, an Neskatz deritzan izar-moltzoa eraturik.

(4) Lukine, sabel-aldien jainkosa.

(5) *Basakara* (bacclar) au, Plini Zarra'k diñoskunez, usaitsua dugu ta aintzi-ñakoak onekin egin oi zuten gantzuki berezia. Kolokasi, ordea, Nil' ibaitertzetako belarra da, erromatarrek Aigipto menderatu zutenean Erroma'ra ekarria.

(6) Amomu, api antzeko landarea; usai goxozko arnaria dakar. Armeni ta Medi'n aurkitzen da geienik.

(7) Tetis, Nereu'ren alaba, ibaien ama ta Itxaso'ren emazte.

(8) Tefis, Argu itxas-ontziaren buruzagia, Grezi-ko gizurenik ospatsuenak urrezko zarpa billa eraman zituna.

(9) Orpheu ta Lin, urre-aroko bi olerkari; Orpheu, Eagru ta Kaliopere'n semea, ta Lin, Apoi ta Urani'rena.

(10) Artzai Arkadi' au Bergili'k berak asmatua izan bear du, zurririk asko,

V'gn.. UNAI-KANTA

Menalk eta Mopsu'rena

III'gn. unai-kantan iru-lau neurtitez labur eta zailu elkarri erantzuten ikusi ditugu artzaiak gure bertsolarien gisa, emen aldiz, luze ta gogara ari zaizkigu bakoitza bereak ematen. An buruak emanez, nolanaiko gaiak ialkitzen zituten pizkor, emen berriz bakarra dute olerki osoaren muiña. Daphni, alegia. Bergili'k beste norbait goraipatu nai zula Daphni'ren irudipean uste zuten antxiñatean. Ez dut uste, emen ere, bestetan bezala Teokritu'gandik ietxi bait du olerkariak pocrnaren mamia. Onatx laburpena: Mopsu ta Menalk artzaiak arkitzen dira. Blkarri txerak egin eta bakoitzaren olerkirako trebetasunak aipatu ondoren arpe balean sartzen dira. Mopsu'k Daphni'ren eriotza kantatzen du eta izadiaren orduko naigabea. Artzai bion arteko elkarriketa laburra, alsarte bezala Menalk'ek Daphni'ren gorapena ta aintza kantatzen ditu, baita aren ospe beteak darion poza ere. Artzai biek esku-sari ta atsegiñak elkarri egiñaz bukatzen da.

Menalk'ek.—Biok emen gertatu geran ezkeru, zergatik ez zuk txistu ariñari putz egin eta nik bertsuak esan, urraitzez naasita dagoen zurnardi ontan escrita?

Mopsu'k.—Zu zera zarrena; zure esanera bear dut, Menalk, Zephir'ek astindu ítzalpe ezbaietan edota arpean sartzeko. So-izu nola astamatsak or-emenka arpea adalka (mordo) bakanez Jantzi duen.

Menalk'ek.—Gure mendietan zuk ez duzu leikide bat baizik, ots, Aminta.

Mopsu'k.—Eta zer! Orrek Phebu'kin ere ez ote lituke bere indarak kantuan neurtuko?

Menalk'ek.—Lenengo asi zaite zu, Mopsu, Philide'ren garra Alkon'en goratzarreak edota Koduru'ren maltzurkeriak esateko balin badituzu; asi zaite: anartean Titir'ek zaituko ditu bazkatzen dauden antxumeak.

Mopsu'k.—Naiago dut oixtion pagondo onen azal ezean, eresiak ere aldizkatuz idatzi nitun neurtitzetan saiatu; ondoren agindu ezaiozu Amin-ta'ri datorrela nerekin neurtzera.

Menalk'ek.—Sarats astiroa oliondo zurbillaren, edota larrosoondo gorraillak ardi-mihi (1) apalaren ondoan bezin bat duzu Aminta zure aldameanean, ene ustez. Baiña, utz itzatzu mutiko, erasiok, leizean sartu gera-ta.

Mopsu'k.—Maitagarriek Erio ankerrak io Daphni'ri negarrez zeuden, —zuek zerate lekuko urraitz ta ibaiak—; amak bere aur errukarriaren illotza laztantzen zuelarik, «Anker ok», deitzen zien iainko ta izarrei. Egun aietan iñork ere ez zitun beiak larratu, Daphni, ezta ibai ozkirrietan eradan ere: abere batxok ez zun larreko belarrik ukitu, ez urik dastatu. Puni'ko leioiek ere, Daphni, zure eriotza deitora zuten; mendi latzak eta oianak ala aitortzen zuten. Daphni'k lenbizikoz, Armeni'ko katamotzak gurdipera beartu zitun; Dapni'k, Bak'en irradak (Thiases) ekarri zitun eta zigor (thirses) zauliak osto biguñez inguratu. Matsondoa zuaitzen, matsa matsondoaren, zezena saldoaren, uzta arloen apaingarri diran bezelatsu, zu, Daphni, zuretarren edertasun zera. Alabearrak eraman zindunetz gero, Apol'ek (2) berak eta Pale'k berak eta, soroak utzi ditute. Garagar-ale mardulak erein genitun ildoefan iraka antzu (3) eta basolo elkorra baizik ez dira sortzen; lili-ubel xamurraren orde, kukupe gorriaren orde, kardulata ta lapar arantz-txorrotza ernetzen dira. Ostoak lurrean iraurri itzatzute, artzaiak, iturriak itzalez jantzi itzatzute (Orra Daphni'k eskatzen dizkitzuenak), illarria eraiki ezaiozute, eta illarrian neurtitz ok irar itzatzute:

*Emen, oianartean, ni, Daphni, izarrak
ere ezagun ninduten; artalde ederraren
artzai are ederragoa.*

Menalk'ek.—Zure olerkiak, olerkari goitar, belar-gaineko lo-kuluxka edota uda-galdatan lats iauzkarian egarria berdintzea bezin atsegin-garri zaizkit. Ez txirulaz soilik, aotsez ere maizuaren beteko zaitugu. Zorioneko aurra zu; aren ordari izango zara. Alare guk aldizka abestiak iaikiko dizkitzugu, zure Daphni izarretaraino iasotzeko: Bai, Daphni izarretaraino iasoko dugu, gu ere Daphnik maitatu bait gindun.

Mopsu'k.—Ori baiño emari obeagorik ar ote nezake? Mutilla bera (Daphni) kanta-gai zan noski, eta zure neurtitz oriek, lenago ere Estimikon'ek (4) goraipatu zizkigun.

Menalk'ek.—Daphni'k, ista-iario, oitugabeko ikuskizun bat miresten du Olinpu'ko ate-subilletik: odeiak eta izarrek dakuzki bere oinpean. Atsegin alai batek artu ditu soroak, oianak, Pan, arfzaiak eta nexka Driadarrak. Otsoak ez dio artaldeari xedebarik iartzen, ez eta sare maltzurrik oreiñari:

maite ditu Daphni onak atsarteak. Mendi iñausgabeak ere izarretara beren lekaioak jaikitzen ditute; arkaitzak bertsu-iaro daude, zuaiztiak kantari: «Iainko, Iainko duzu ori, Menalk!» On eta zorion izkiezu zuretarrei. Onatx lau opal-mai, bi zureztat, Daphni, eta bi Phebu'rentzat. Urtero bi kaiku ---esne apartasuz gainezka— eskeñiko dizkitzut eta bi kutxarro olio guriz kuin-kuin; orritsak ardo ugariz alaituko ditut; sutondoan, otz ba-lego, jtzalpean, uzta-garaia balitz. Ariusi'ko ardo berria (5) —nektar goxoa— ixuriko dut gopcrretan. Dameta'k eta Egon Liktiarrak (6) neretzat abestuko dute: Alapesibeu'k, berriz, Satiruen irradak antzirudituko ditu. Beti ere goratzarte auek opako dizkitzugu, Ninphai eskeñiak urtero opaltzera-koan, eta soroak zipriztinduko ditugunean. Basurdeek mendi gallurretan atsegin ar duketeño eta arraiñak ibaietan; erleak elarrez bazkatuko diran artean eta txitxarrak (7) intzez, zure goratzarre, dedu eta izenak beti diraukete. Bak eta Keres'i bezela beren eskeintza nekazariak urtero egingo dizute; zeorrek ortara beartuko dituzu.

Mopsu'k.—Zer ote, zer emanen dizut bertsu orien ordain? Gain-gainean dugun Auster'an xistua, izpazterra astintzen duten uñen otsa eta ibar arriuzetan ixurtzen diran ur-lasterrak baiño atsegiñago zaizkit.

Menalk'ek.—Txirula auskor au adiguriz emanen dizut; beronexek irakas zidan «Alexi ederraren irrikaz zegoen Koridon» eta berberak irakas zidan ere arako «Norena da artaldea? Melíbeu'rena ez ote?»

Mopsu'k.—Zuk, berriz ar ezazu artzai-makilla au; maiz eskatu zidan Antigenes'ek, ala ere etzidan kendu ahal izan, naizta garai artan maitagarri izan; ederra baike, Menalk, adabegi berdiñez eta borontzez apaindua..

OARRAK

(1) Olerkariak dion *saliunca*, ardi-mihi au, keltar akara duzu apika; belar oso usai tsua, zanpatuz urrin goxoa zeriona.

(2) Apol, gerkarren jaingo-izuna, artzaien babesle, Admetu'ren artaldeak berak baitzitun jagon Tesall'n, bederatzi urtetan. Pale, berriz, italiar Jaingo, larre ta sarobeen babesle, ta Palatin mendiaren zaindari, ango paletar Jaiak bada Erroma Irasi zan egunez ospatzen ziran.

(3) Iraka (lolium) onek izenik asko ditu euskeraz: zalge, zoragari, larbera, orkari ta abar. Kaltegarria da soroentzako, baita abere ta glzonentzako ere, bere azia gariakin geiegi nastu ezkeroz.

(4) Estimikon, artzai baten izena.

(6) Liktiar, Liktos'tik noski, Kerete'ko uri ospe aundikoa.

(5) Ariusl, Kio ugarte iparraldeko itxas-muturra zan.

(7) Hestodu ta Anakreonte'ren idaztietan ere aurkitzen dugu, txitxarrak intzez bazkatzen diralako ustea.

VI'gn. UNAI-KANTA

Alphaniu Varu'ren goratarrez

Poema oni abegi beroena egin zion Erroma'ko erriak Kiteris emakume abeslari ospetsuak teatroan abestu zunean. Ez dakigu zerk iñarrosi zituen entzule aien gogoak Kiteris'en antzeak ala olerkiaren bikaintasunak. Unai-kanta ezik epopeia ere badala esan, diteke olerki au, Kisalpina'ko iaur-laritzan Polion'on ondorengo izan zan Alfeniu Varu'ren goraipatzeko idatzia. Apolon'ren esanetara makurtuz turutotsez baiño artzai-txirulaz ari naiago aula diño. Koromi ta Menasilau satiruek Silenu, larre-iainko bat, arpean etzanda dakuste, aurreguneko moskorra egosien lo. Lorez estekatzen dute Egle naiadetan ederrenak lagunduta. Satiruak bere burua gazte oien atrillo ikusita, amor ematen die ela lenago eskeiñi zizkien olerkiak ialkiko dizkiela esaten. Silenu'ren kantua; kosmogoniz ari da Silenu, aldiz, mitologiz. Izadi lilluratuaren poza laburki azalduz amaitzen du olerkariak.

Sirakusar bertsuz (1) iolastu zedin aurrenekoz gure Thalie saiatu zan; ez zan gainera lotsatu oianeko bizitzez Gudu eta erregek kantatzen ari nintzalarik, belarritik eldu ta onela aolkatu nindun Kintiu'k (2): «Artzaiek ardiak gizendu bear ditute, Titir, eta kanta motxak abestu». Orain ni, seska mengelez basa doiñu bat iotera saiatuko naiz; ez zaizkizu paltako, Var, zure goratarre ta gudu itsak kanta nai litukenik. Eragotzirik ez dut abestuko. Alabaiña norbaitek maitasunez bertsu auek irakurriko ba'itu, gure millazkak eta oianek oro goralduko zaitute., Var. Phebu'k ez du deus maiteago Var'en izenez apaindu orrialdea baiño (irakurgaia alegia).

Aurrera Pieridarrak! Koromi ta Menasilau'k Silenu bat ikusi dute leizean etzanda: zaiñak puztuta zeuzkan aurregunean edan Iakus'en edariz, oi bezela; aren burutik erori lore-aillarak lur gainean zeuden; binbitartean ardo-txanbil zaharra belarritik utsita zeukan. Barneraturik (maiz, bada, agureak bertsuak abestuko zizkielazkoaz atzipetu zitun), lore-sortaz estekatu zuten ain zuzen. Egle etorri zan mutil erabeen lagun, Egle naiadetan (3) ederrena. Agureari, begiak ozta iriki zítuneko, bekoki lokuneak masusta gorrikkaz mazkaldu zizkien. Eta ark, maltzurkeriari parrez: «Zertako lokarri lotzen nauzute?» esan zun. «Aska nazazute, mutillak: aski zait abal izan dimítela ikustea. Onatx nai zenituten olerkiak; olerkiak zuentzat, onentzat (nexkarentzat, alegia) ba'duket beste sari bat» Eta bat-batean asten da:

«Orduan ikus zenitzaken Faunu (4) ta iizeak, saldoka, elkarrekin iolasten, orduan arte-zailak ere adaburuak iñarrosten. Ez zaizkio atsegiñago Phebu'ri

Parnasu'ko (5) arkaitzak; Rhodope tn Ismaru'k (6) ez dute Orpbeu ainbat miresten.»

Utsal aundia barna, lur, egurats, itxaso ta su ixurkorraren aziak nola elkartu ziran kantatzen bait zun; nola lendabiziko ekhai auetatik, oro gatzatu ziran, ortzi borobil xamurra ere; geroago nola legorra sendotu eta Nerre itxasoan leozpetu ondoren, gauzak euren antzak artzen ezarian asi ziran. Arrezkero lurbirak eguzki berria argi-iario nola ikusten dun, euri emankorrak odeietatik iausten, oianak ernetzen eta mendi arrituak zear abereak sakabanatzen.

Geroago Pirre'k iaurti arriena (7), Saturn'en aginterria, Kaukasu'ko txoriena eta Porometeu'ren lapurreta (8) gogorazten dizkie. Baita ere edasten die Hila utzia (4) izan zan iturrian nola nautek oiuegiten zuten itsas ertz guztiak «Hila, Hila» erantzun zezaien. Zorionekoa zitekean, iñoiz abererik sortu ezpazen, zezan, ixuriaren maitemiñez zebillen Pasiphae! (10). Zorigaiztoko neska! Zernolako zoroaldiak io zindun! Pretu'ren alabak (11) muuka aizunez larreak bete zituten, ala ere batxo etzen lizunki aberekin etzan, naiz ta uztarririk lepegaineratuko ote zien beldur izan, eta, maiz, adaxken (adartxoan) aztarnak beren bekoki leunetan xerka. Zorigaiztoko neska! Orain zu mendietan zabiltz alderrai, ark aldiz (zezenak), bere saiets zuriz iakintu guriak lorrinduz, gorosti beltzaren itzalean belar zurbilxkoak ausnartzen ditu, edota saldo aundiko bigantxen bati darraikio: «Esi Ninphak, Dikte'ko Ninphak, esi itzatzute basoetako larreguneak zezan deslaia-aren azterrenik begietara ez dakigun: agian, belar orriñaren usaira,edo beitaldeari iarraiki, bigantxen batek Gortin'go (12) ukulletaradiño erakarriko du».

Geroago Hesperide'n sagarrak ikustean arritu zan neskarena (13) kantatzen du; ondoren Phaeton'en arrebak zuaitz-azal garratz batean oroldiz inguratzen ditu eta lurretik altz lerdenen gisa sortarazten. Baita Permesi'ko ibai ertzean orren dabillen Gal'ena ere kantatzen du: Aoni'ko mendira (14) arreba batek nola eraman zun, eta gizonaren aurrean Phebu'ren abesteli guztia nola zutitu zan. Lin artzai kantari iainkotiarrak irribelar minkaitzez adatsa apaindurik, ialki auek ere bai: «Txirula ok Musek eskeintzen dizkitzue: ar itzatzue. Lenago Askara'ko agureari (15) eskeiñi zizkien, eta ark aien soiñura, zumar zurrinak mendietatik ietxi-erazten zitun. Txirul auekin Griniun'go (16) basoaren iatorria adieraz ezazu, oian artaz baizik Apol arrotu ez dedin».

Nisu'z ala Eskile'z mintzatuko ote naiz? Gerruntza bidutzi zaunkariz inguratuta, Dulikia'ko ontziak (17) gal-zorian ezarri zitun onek, eta zulo

sakonean uzkali omen zitun, mariñel errukarriak itsas-zakurrekin zatitu ondoren. Tereu'ren irudi aldaketak (18), Philomela'k gertu zizkion ianariak, eman zizkion esku-agiriak, zein bidez basamorturatu zan, zelako egakin bere tegiaren gainetik egan ibili zan; ark bezela, nola gogarazi?

Anbiolan Phebu'k abestiz ialkiak —ereñotzei irakasteko agindupean zorionez gainezka Aurotas'ek entzun zizkionak, alegia—, ark (Silenu'k) abesten ditu ibarreko oiartzunak izarretaraño daramazkila. Arratsak Olinpu'tik nagi etorki ardiak artegiatarazera beartu zitun arte.

OARRAK

(1) Sirakusar edo artzaf-bertsu orobat dugu, Teokrit orrela idatzi zuna Sirakusa'koa —gaur Palermo— baitzan. Talie, musa, maitagarri, antzerkiaren babesle, aurrenik nekazaritza asmatu zuna.

(2) Kintiu, edo Apol; Apol bada Delu'n jαιο zan, eta Kintiu ango mendi garai bat dugu.

(3) Egle, edo egun-argia; naiadeak, dakigunez, ur gozo, ibai ta iturrietako neskatx babesteak ziran.

(4) Faunuak —gure basa-jaunak—, jainko, gizon ta abere ziran iratxoak genitun.

(5) Farnasu, Fokide'ko mendia; konkor bi zitun Likore ta Tirote, ta emen bizi ziran musak eta Apol.

(6) Rhodope ta Ismaru, Trazi'ko mendiak; emengo oianetara baztertu zan Orpheu, bere emazte Euridike galdu ondorengo atsekabe gorria negartzera.

(7) Pirre'n arriak; tesalitar elezarrak dionez, Pirre ta Deukalion'ek, onak baitziren, ugoldetik onez atera ta lurra ber-ugaldu zuten, beren gibebez arriak egotzirik.

(8) Prometeu'k sua ostu zien ortziko jainkoen; Jupiter'ek, ordea, lazkiro zigorrazi zun ausardikeri ori, ta Prometeu'ri, Kaukasu'ra eramana, txori anker batek ozkatzen zion gíbela.

(9) Hila, Erkul'en lagun gaztea, argonauten itxas-ibillaldian, aren edertasunez pizturiko ur-neskatxak erakarrita iturri baten ito zana.

(10) Pesiphae. eguzkiaren alaba ta Kerete'ko errege Minu'ren emaztea, zezen baten maite-sutan zebillera.

(11) Argu'ko, errege onek iru alaba zitun, June'rekin berdindu nai izan zutelako bigantxa biurtuak.

(12) Gortin, Kerete'ko uria, laberintu (galgune) ospetsutik urbil.

(13) Hesperidek zaitu bear zizuten gaztaroko urre-sagarrak. Eta Atalante gazteak, Eskiro'ko erregeren alabak, arin ibiltzera erronka egiten zien bere maiteen; irabazi ta, ii egiten zitun, denak; aietan batek, Ipomene'k, Hesperideen baratzera joanik iru urre-sagar artu zitun, eta ariñeketan ziola, bidean bota zitun banan-banan Atalante, txunditua aiek jasotzen gelditu zan poxi bat, eta orrela galdu zun nor-geiagoka.

(14) Permesi, Beoti'ko ibaia, Musak bititoki zuten Helikon oiñean jaioa. Aoni, Beoti'ren izen zarra, Aon ango errege bategandik artuta.

(15) Agure au Hesiodu dugu, Askara'n —Askra'n— sortua.

(16) Grini, Eoli itxasaldeko uria, Asi Txikian, Apol'eri eskeiñia.

(17) Dulikia, gaur Neochori, Ekinadeetatlk bat, Itaka inguruan.

(18) Tereu, Trazi'ko errege, Atika'ko errege Pandion'en alaba batekin ezkondu ta onegandk seme bat, Itis, izan zuna; bere ezkon-arrebakin maitemindu zan, eta aren emazteak, apendua artu nairik, Itis bere semea illazi ta aitari eman zizkion aren aragiak. Tereu, au jakiñik, igesari eman zioten bi aizpaen atzetik atera zan. Jainkoek ordun Tereu basoillar biurtu zuten, Itis kardintxa ta Pandion'en alabak urretxindar ta elai.

VII'gn. UNAI-KANTA

Thirs eta Koridon'ena

Serviu'k ziñonez, unai-kanta au osorik ietzi omen zun Bergili'k Teokrit'en idilletatik. Egia esan, olerki ontan ere, besteetan bezelatsu, aipatu olerkariaren kutsurik ez du palta, baditu ordea, zenbait eskena bizien artetik bizibizirik erauziak diruditenak, batez ere sarrerakoa. Poema ontan olerkaria amebe-eraz ari zaigu. Amebe-kantua, gure bensolariena bezela, iru lau neurtitzeko ahapalditan egin oi zan elkarrri erantzuka: emen lau neurtitzekoetan ari zaizkigu olerkariak. Melibeu'ri gilloriak (mirtuak) zaitzen dagola, saldoko okerrak iges egiten dio: billa ateratzen da ta Daphni arkitzen du bidean, eta Koridon eta Thirs'en artean bertsu-dema ostera dioala adierazten dio: aurrenez zalantzan dago Melibeu zer egingo ote dun, lanean iarraitu ala bertsu-demara ioan. Lana baztertu ta bertsu-demara doa. Larreiainkoei gora- dei dagie bertsolari demazaleek.. Bakoitzak bere maitemñak abesten ditu. Koridon ateratzen da garai.

Melibeu'k.—Beiñola, gorosti arantzatsu baten itzalpean exeri zan Daphni: Koridon eta Thirs'ek beren abere taldeak bildu zituten: Thirs'ek ardiak, Koridon'ek berriz, esnez anpatu auntzak; biak garerdian, biak arkadi' larrak, ein bateko kantariak eta erantzuteko gertu.

Toki artan, gillori xamurrak otzetik babesten nengolarik, nere saldoko ordotsa, akerra alegia, aldendu zitzaidan; orduntxe Daphni ateman nun. Ark, berriz, ikus ninduneko: «Zato lasterka, Melibeu» esan zidan; «zure akerra eta auntzak ere iarei daude, eta astirik baldin ba'duzu, ar ezazu ementxe, itzalpean atsedan. Larreak barna onuntza etorriko zaizkizu edatera zezanak; Minkiu'k (1), emen, bere ugertz orlegiak kaiñabera xamurrez zedatu ditu, eta aritz gurenak erlauntzak bezelako durundia dagi».

Zer egin? Ez zeuden nerekin Alkip ezta Philida (2) ere, errapatik erauzi bildotsak tegiratzeko; eta norlenka aundi bat zan Koridon eta Thirs'en artean. Aien iokoagatik nere zeregiñak baztertu nitun. Beraz, biak asi ziran bertsu-deman, aldizka; Musek aldizkakoak nai zituten. Orratx Koridon'-enak eta Thirs'ek ialkiak, urrenka.

Koridon'ek.—Libetros'ko Ninphak (3), nere maitariak! Emaidazute, arren, Koduru kutunarenak bezelako bertsuak kantatzeko argia (bertsutan Phebus'i ere urbiltzen zitzaion); edota —guziok ezin bait dezakegu ainbeste—, lerrondo guren ontatik nere txirul ozena eskegiko dut.

Thirs'ek.—Artzaiak, sor-berri olerkaria untzorritz apaindu ezazute, Arkadi-tarrak, Koduru'ren meakak bekaitzez apurtu ditezen; edota neurrizgoitik goraipe ba'nindeza (Koduru'k alegia), bas-akaraz bekokia esi ezadazute, mii gaiztoak, olerkari daitekenari, kalterik ekar ez dezaion.

Koridon'ek.—Onatx zuretzat, Delie (4), (Diane), basurde-buru au eta basautz urtetsuaren adar-abartsuok Mikon txikiaketz. Iñoiz al ba'nenza, ordea, atxuridin landuzko irudi bat ukanen duzu, zutik eta purpurazko kotumoz jantzia.

Thirs'ek.—Aski zaizu Priap, kaiku-bete esne eta olata auek (libum) urtero itxarotea: baratz txiro baten iabole zaitugu. Orainarte, gure abalaren ariora, marmorezko egin zaitugu; artaldeak iaioparriz ugaritzen baldin ba-dira, urrezko eginen zaitugu.

Koridon'ek.—Galatee, Nerine'ren alaba, Hybla'ko etarra (thymum) baiño neretzat goxoagoa, kigneak baiño zuriagoa, untzorri zurbilla baiño ederragoa; zezen bazkatuak (gizenak) itasketara datozkeneko, Koridon'ez ardura balin ba'zera, etor zaite zu ere.

Thirs'ek.—Ni, ordea, Sardoni'ko belarrak (5) baiño garratzago izango al nazaizu, gorostia baiño latzago (itsasoak) iraitzi aloka baiño ezegarriago, egun au urte osoa baiño gogaikarriago ezpazait! Zoazte regira, zoazte, bai, larratu zezenok, lotsarik ba'duzute!

Koridon'ek.—Iturri orolditsuak, loa baiño belardi guriagoak, eta zuk, itzal bakanez gerizatzen duzun gurbiz orlegia, babes ezazute bero sapatik ene artaldea; or dator uda kixkalgaria eta aienetan antutzen ari dira ninikoak.

Thirs'ek.—Baditut emen laratza eta ler-abar guriak; emen, sutzar batek, atergabeko kez, abeak bezten ditu beti; emen, otsoek ardi kopuruaz edota ibai lasterrak ur-ertzetaz bezin kezkatu gaituzu Borea'k dakartzin otzetaz.

Koridon'ek.—Zutik daude gaztaina lakatzak eta orreak (iuniperi); igaliak zuaitzpean an-or sakabanaturik datzate; oro dago irriz, baiña Alexi ederra mendi auetatik ioango ba'litz, ibaiak ere legortuko lirake.

Thirs'ek.—Elkor dago soroa; belarra egarriz iltzen ari da aize gabe: Liber'ek (6) mats-aienen itzala munoei ukatu die; gure Philis datorkeen, baso osoa ezetuko da eta Iupiter'ek euri ongaria iariongo du txurustan.

Koridon'ek.—Alkide'k lertxuna maiteen, Iaku'k matsondoa, Vemis ederrak gilloria eta Phebu'k ereiñotza; Philis'i, ordea, urretxa atsegiñen; eta Philis'ek (urretxak) maite dituken bitartean, ez du mirtuak urretxik garaituko, ezta Phebu'ren ereiñotzak ere.

Thirs'ek.—Lizarra oianetan ederren, lerrondoa baratzetan, lertxuna ibaietan, izaia mendi garaietan; Likine eder, ni ikustera maizago etorriko ba' zintzakit, lizarra oianetan, lerrondoa baratzetan baño areago ziñate.

Melibeu'k.—Ara, auxe gogora zait: alperrik ari dala Thirs garaitua. Orrezkero, Koridon, Koridon da guretzat.

OARRAK

(1) Minkiu ibaia Alpeetan sortzen da, Mantua'tik laster, eta Po'ri bere urak eskeiñi orduko Garde —aintzinakoen Benaeus— zingira egiten du,

(2) Alkip, Koridon'en mirabea; Philide, Tirs'ena.

(3) Libetios, Helikon'go arpea, ur gardena zeriola.

(4) Orrela deritza Dlane'ri, izen au daraman ugartean sortua zalako.

(5) Kerdeña'ko belarrak, irri-potoin edo edaska bear bada. Landare onen egosia guztiz garratza duzu, ta edan ezkeroz, muxin, parista, keiñu ta giar-zimurduak ezpain-ertzean, irri antzo, ta ortik datorkio nunbait daraman izena, irri-bezar, irri gaizto.

C6) Liber, latindarrak orla deitzen zioten aurrenik alorbabesle zan Bak'i; jainko-
oni eskeiñita zeuden ardoa ondutzeko erabilli oi zituzten guztiak. Liber, euskeraz azke, ardoek baititu gizasemeak gizarteko ardura ta kezka orotik azkatzen.

VIII'gn. UNAI-KANTA

Damon eta Alpesibe'rena

Zortzigarren unai-kanta au Polion'entzat idatzi zun olerkariak Partiarrek garaitu ondoren gurenda ospatzeko Erroma'ra etorri zanean. Iakingarriene-takoa da. Polion berberak eskatu zion, nonbait Teokrit'en bigarren idiliaren gisa antolatzeko, neurtitzetatik ageri danez. Bi kantutan bereizten du olerkariak Damon'en kantua; Alpesibe'rena. Biak maitemiñez etsita daude, maitariek utzi bait ditute. Damon'ek maita-gaia ezin menperaturik bere burua amiltzea erabakitzen du maitearen azken opaz. Alpesibe'k ordea, aztikeriz, sorgin izaki, maitaria (Daphni alegia) bereganatzen du. Zeatz-meatz aztikeriak aipatzen dizkigu Bergili'k Alpesibe'ren maitegar eroarekin. Kantu bakoitzak amar ahapaldi ditu.

Damon eta Alpesibe artzaien kanta ematera goaz; bigantxa, aien demaz, miretsirik zegon, belarra aztuta: aien kantu otsera lakoiñak (linkeak) (1) ere arriturik lotu ziran eta ibaiek beren ubideak aldatu zituten. Damon eta Alpesibe'rena esatera goaz.

Timabe'ko (2) arkaitzak gainditzen, edota Iliri'ko itsas -ertzean ari zeran ori: iñoiz ukanen ote dut zure egiñak goraipatzeko aukerarik? zure olerkiak— Sopokel'en (3) koturnuaren diñako bakarrak—, lurbira zabalean barreiatzerik emango ote zait? Zu'gandik asi naiz zu'gan bukatuko ere dut. Ar itzatzu zure aginduz asi ditudan bertsu auek eta utzidazu zure (garondan) ereiñotz garaille-tartean, untz-abar au ezarten.

Gaueko itzal-ozkirria zerutik ietsi zaneke, —belar gurian intza artaldean atsegin gertatzen danean—, oliondozko makil batean agondurik onela asi zan Damon:

Sor zaite egunaren aintzindari Lukiper goren, Nise nere emaztearen zoritarreko maitasunez atzipetuta deitorez nagolarik, iainkoei (aien lekukotasuna ezertako izan ezpazait ere) nere azken orduan mintzatu nakien.

Ene txirula, asi zaite nerekin Mendi'ko bertsutan.

Menal-mendik (4) beti izan ditu baso ozen eta lerrondo iztunak; beti entzutuen ditu artzaien maite miñak, eta Pan'en seskak ere lenengoz mintzarazi zitun.

Ene txirula, asi itzatzu nerekin Menali'ko bertsuak.

Mopsu'ri Nise eman zitzaion; zer ez dezakegu maitariok itxaron? Gaurgero zaldi ta griphoak (5) elkartuko dira, datorren mendean, berriz, orkatz izutiak eta zakurrak edaska batean eradango dira.

Ene txirula, asi itzatzu nerekin Mendi'ko bertsuak.

Zuzi berriak (6) gertu itzatzu, Mopsu: emaztea dakarkizue: intxaurrek barreia itzatzu, senar, Hesper'ek Eta (7) uzten baitu (arratsa dala esateko).

Dagokizun senarran elkartuta, oro nardatzen dituzuna, nere txirula gorroto duzuna, baita nere bekain illetsua, bizar luzea eta auntzak ere; iainkoa gizakiekiko arduragabe uste duzuna!

Ene txirula, asi zaite nerekin Menali'ko bertsutan.

Gure esi artean (esparruan), txikiña, intzez bustitako sagarrak amarekin baizen ikusi zindudan (neu nintzan zuen gidari); amaika urtebete doi, amabigarrenean sartzera nioan; orduko, abar auskorak lurretik atzeman nentzaken; ikus zindudaneko galdu nintzan; eta zernolako zoroaldiak io nindun.

Asi zaite, ene txirula, Menali'ko bertsutan nerekin.

Oraintxe dakit maitasuna zer ote dan; arkaitz latzen arteko Tamaru edo Rodope (8) edo lur-ertzeko Garamantes (9); aietan sortua dirudizu; aur ori ez da gure ariko, ezta gure odoleko ere.

Asi zaite, ene txirula, Menali'ko bertsutan nerekin.

Maitasun ankerrak, umeen odolez eskuak orbantzen irakatsi zion amabati; ankerra izan ziñan zu ere, ama; ez ote ama baiño ankerrago aur gaizto hura? Gaiztoa, baike, aurra; ankerra zu ere, ama.

Asi zaite, ene txirula, Menali'ko bertsutan nerekin.

Gaurgero, otsoak igesi bioaz ardién aitzinean, artelatzen urresagarrak bekarzki, eta lilipa altzondoan garatu bedi; millazkak anbar lodia ixuri bezate; ontzak, kigneak baiño areago bitez; Titir, Orpheu bedi, ots, oianetako Orpheu, Arion bat izurde artean (10).

Ene txirula, asi itzatzu nerekin Menali'ko bertsuak.

Mopsu'ri Nise eman zitzaion; zer ez dezakegu maitariok itxaron? Gaurgero zaldi ta griphoak (5) elkartuko dira, datorken mendean, berriz, orkatz izutiak eta zakurrak edaska batean eradango dira.

Ene txirula, asi itzatzu nerekin Menali'ko, bertsuak.

Zuzi berriak (6) gertu itzatzu, Mopsu: emaztea dakarkizue: intxaurrak barreia itzatzu, senar, Hesper'ek Eta (7) uzten baitu (arratsa dala esateko).

Dagokizun senarrari elkartuta, oro nardatzen dituzuna, nere txirula gorroto duzuna, baita nere bekain illetsua, bizar luzea eta auntzak ere; iainkoa gizakiekiko arduragabe uste duzuna!

Ene txirula, asi zaitte nerekin Menali'ko bertsutan.

Gure esi artean (esparruan), txikiña, intzez bustitako sagarrak amarekin baizen ikusi zindudan (neu nintzan zuen gidari); amaika urtebete doi, amabigarrenean sartzera nioan; orduko, abar auskorrak lurretik atzeman nentzaken; ikus zindudaneko galdu nintzan; eta zernolako zoroaldiak io nindun.

Asi zaitte, ene txirula, Menali'ko bertsutan nerekin.

Oraintxe dakit maitasuna zer ote dan; arkaitz latzen arteko Tamaru edo Rodope (8) edo lur-ertzeko Garamantes (9); aietan sortua dirudizu; aur ori ez da gure ariko, ezta gure odoleko ere.

Asi zaitte, ene txirula, Menali'ko bertsutan nerekin.

Maitasun ankerrak, umeen odolez eskuak orbantzen irakatsi zion ama bati; ankerra izan ziñan zu ere, ama; ez ote ama baiño ankerrago aur gaizto hura? Gaiztoa, baike, aurre; ankerra zu ere, ama.

Asi zaitte, ene txirula, Menali'ko bertsutan nerekin.

Gaurgero, otsoak igesi bioaz ardién aitzinean, artelatzen urresagarrak bekarzki, eta lilipa altzondoan garatu bedi; millazkak anbar lodia ixuri bezate; ontzak, kigneak baiño areago bitez; Titir, Orpheu bedi, ots, oianetako Orpheu, Arion bat izurde artean (10).

Asi zaitte, ena txirula, Menali'ko bertsutan nerekin.

Oro, itsaso gerta bedi! Agur, oianak! Mendi gaiñeko ikuspegitik uin artera amilduko naiz, iltzer dagonaren azken-emaria ukan dezazun. (Aski, ene txirula, Menali'ko bertsurik).

Onela Damon'ek. Zuei Pieridarrak, Alpesibe'k iardetsiak esatea: orok ezin dezakegu oro.

Ekardazu ura, eta opalmai au galartzu biguñez ingura ezazu, izusta (ver-bena) guriak eta kedats (intzentsu) arra (11), erre itzatzu, ene maitearen zentzua aztiketaz galeraztera saia nadin; sorginkeriak, ez da emen besterik peit.

Ene aztiketok, ekardazute Daphni uritik etxera.

Aztikeriz, illargia ortzitik erauzi diteke; aztikeriz, Ulise'ren lagunak anzaldatu zitun Kirke'k: aztikantuz ibarreko suge otza lertzen da.

Ene azti-kantok, ekardazute Daphni uritik etxera.

Zure inguruan, iru margoko ari auek, banaka, iru aldiz, biltzen asiko naiz opal-mai billaldean; eta iru bidar, zure irudia ere opal-mai inguruan daraman zenbaki ezak jainkoari atsegin.

Ene azti-kantok, ekardazute Daphni uritik etxera.

Lotu iru korapilloz iru margoak, Amarili; lotu lenbaitlen, Amarili, «Venus'en lokarriak lotzen ditut» esanaz.

Sugar ber-berak lokatza gogortu ta ezkoa biguntzen ditun bezela, nere maitegarra egin beza Daphni'ren baitan. Iriña iraurri eta ereiñotzak pikegarrean kixkal itzatzu. Daphni gaiztoak erretzen nau eta nik ereiñotza Daphni'ren orde.

Ene azti-kantak, ekardazute uritik etxera, ekardazute Daphni.

Basoak eta oian sakonak barna zezenaren atzetik nekaturik dabillen bigantxa, gau beran tari iges egitea oroitzeke, zingirako urbelar oriñetan galduta erortzeko; alako maitasunak ar beza Daphni; neri, ordea, ez bekita hura sendatzeko ardurarik.

Ene azti-kantak, ekardazute uritik etxera, ekardazute Daphni.

Onatx, gaizto ark, arestian utzi zizkidan ondakiñak, bere maitasunaren baituran, orain nik, ate subillean benan zuri damazkizut, lur. Baitura auek Daphni erakar bear didate.

Ene aztiketak, ekardazute uritik etxera, ekardazute Daphni.

Belar auek eta itsasoan bildutako zital auek (12), Meri'k ber-berak eman zizkidan, ugari sortzen bait dira itsasoan. Auekin maiz ikusi dut nik Meri otso biurtzen eta oianean izkutatzen, baita arimak obi sakonetatik ilki erazten ere eta ereintzak auzoko soloetara aldatzen.

Ene azti-kantak, ekardazute uritik etxera, ekardazute Daphni.

Eramaizkitzu errautsok landara, Amarili; lats lasterrean zere buruaren gainetik iraitzi itzatzu, atzera begiratzeke. Oiekin makurtuko dut nik Daphni, hura ezpaita ez aztikantuz ez iaingoaz arduratzen.

Ekardazute uritik etxera, ene azti kantak, ekardazute Daphni.

Ikusi errautsok astiro batzen ari naizen bitartean, opalmaia berez gar dardaritsuz inguratu da. Onerako bedi! Ez dakit zer dan, noski, baiñan Hilax zaunka ari da ate-subillean. Egia ote? Edota maitariek ametsetan ari ote gera?

Ater zaitzte, ene azti-kantak, ater zaitzte dagoneko: uritik datorkit Daphni.

OARRAK

(1) Lakoiña (lynx) Aprika'ko aberea duzu; Bergñli, beraz, irudimen ugela azke ditularik ari da emen.

(2) Timabe, Istri ta Benetzi banatu ta bere urak Trieste itsas-kolkoan ustutzen dituna da.

(3) Koturnu, gerkar antzezlariak olerki itsa oiuzkatzeko jantzi oi zuten oiñetako berezia. Olerkera jaikia esan nai du.

(4) Menal. Arkadi'ko mendia, Pan'ek oso begiko zun abaro ta egon-leku atse-gingarria.

- (5) Gripho edo ega-leoiok, arrano-egtsak eta leoi-soiña zeukaten, asiri ta per-sitarren eroigailuetan ageri diranez.
- (6) Erromatarren ezkontz-erak aitatzen ditu emen. Zuzi-argitara, senarraren etxe-ra eraman oi zuten emaztea. Senarrak intxaurrak egozten zizklen mutikoeri, gure artean —gaur ere bai— «bolo-bolo» esanik, txanponak eta goxokiak bezela.
- (7) Mendia duzu Eta, Tesali'ko sarkaldera zeru-ertza estaltzen duna.
- (8) Tmaru ta Rodope, mendiak, bata Epir'koa ta bestea, Trazi'koa.
- (9) Garamantes, Aprika'ko erria, Getuli araindikoa, gaur Pez,
- (10) Metimna'ko Arion, Lesbos ugartean, Itali ta Sikili'ra egin zun ibillaldi ondo-ren, lira joaz irabazi zun dirua kendu nai zioten mariñelak itxasora egotzi zuten; baiña ark oraindik ere lira jo al izan zun eta itxas-izurdeak lilluratu, ta aukeraman zuten beren bizkar gainean Grezi'ko lur-egaletaraino.
- (11) Kedats arra, edo *estagoni*, ale biribilduna, guztietatik zimail ta eder-etsiena.
- (12) Maitasunezko zora-edari bereziak dituzu auker.

IX'gn. UNAI-KANTA

Likida eta Meri'rena

Lenengo unai-kantan bezela, lurrak kendu zizkiotenean ukan zun naigabea berrizten du bukolika ontan Bergili'k, elkar-izketa nare ta baketsuan. Indarrez lurrak kendu dizkioten lurjabe apalaren etsipena alegia. Meri agurre zarra ta Likida, bertsu-zale gaztea arkitzen dira: zarra arriturik dago gazteak Menalk'i (Bergili bera) gertatua ez dakilako. Artzai biok Menalk gorai-patzen dute eta aren zenbait neurtitz gogorazten ditute. Meri'k, oroimenak uts egiten baitio, ezin du areago abestu; Menalk'ek berak, datorkenean, bere olerkiak abestuko ditula diño.

Likida'k.—Norat zaramate oiñak, Meri?, bide au dioan urira ote?

Meri'k.—Oi Likida, gaurdaño bizi bear izan dut (olakorik ez nun iñoiz uste) nere landatxoaren jabe dan arrotzari entzuteko: «Auek nereak dira; utikan lengo lugiñok (iabeok)». Orain, etsiturik, goibe], zoriak oro itzulazten baitu, auntz auek —onik ez al dute izango—, bialtzen dizkiot.

Likida'k.—Baiki: nik ere entzun nun; muñoak apaltzen eta goldera erneki makurtzen asten diran mugatik ibai eta pago urtetsuetaraiñoakoak (orain abarrakituak), zure Menalk'ek gorde ahal izan zitula bertsuiei esker.

Meri'k.—Entzuna zenun, eta ala zan otsa; baiña, nire olerkiak, Likida, Kaoni'ko usoe (1) arranoaren aitzinean baiño, almen geiagorik ez dute Marti'ren iskillu artean. Arte arro gaiñetik (2) eta ezker-aldetik, edonolako auzi berriak mozteko belatxinga batek adieraz ezpazidan, ez zure Meri zaharra ezta Menalk ber-bera ere, ez zitezkean bizirik.

Likida'k.—Nola izan diteke ain gaiztagin? Zure solas ederrak zurekin batera galtzeko zorian izan gera, Menalk! Nork, orduan, Ninphak kantatu? Nork lurra belar loretsuz apaindu ta iturriak itzal ozkirriz iantzi? Edota gure atsegin dan Amarili gana zinoazela, zuk iakiteke, irakurri nitun bertsu aiek?: «Itzul nadin bitartean (bidea laburra baita), larra itzatzu auntzak, Titir; eta larratuta, eradan itzatzu, Titir, eta kontu ardiak aker-bidetik eraman, adarka egiten bait du (akerrak).

Meri'k.—Are obeki, oraindik borobiltzeke, Var'i abesten zizkion neurtitz auek: «Baldin Mantua gelditzen ba'zaigu, —zoritxarrez Keremona'tik urbi-ilegi dagon Mantua (3)—, zure izena kikneak izar gaindegietara kantuz iasoko dute, Var».

Likida'k.—Zure erlakumeak ez al dira Kirno'ko aginondoetara (4), urbilduko! Eta zure beiak erratza larratuz errapeak anpatuko al ditute.

Alare, esatekorik ba'zenu, asi zaite. Pieridarrek egin ninduten olerkari; nik ere badituz olerkiak; neri ere, olerkari deitzen didate artzaiek, ez diet geiegi sinisten, ordea; oraindik ez dut uste Vari edo Kina'ren (5) beteko naizenik: kikne zolien artean kuatuz ari dan antzarra bezelakoa naiz.

Meri'k.—Nik ere, Likida, oroipenak iraultzen ditut ene baitan, oroitaraz al ba'nentza; ez duzu gaiñera ez-ezaguna olerki au: «Zatoz ona Galatee: zertako uin artean iolastu? Emen istatsua da udalena, lurrak nola-naiko loreak ernerazten ditu ibai ertzeetan; emen lertxun-ondo txuria zintzilik dago leize baten gain-gainean, eta mats-aien astiroak itzalpeak bilbatzen ditue. Zatoz ona; utz itzatzu olatu eroak arkaitzak astintzen».

Likida'k.—Eta gau zoardi batean, kantuz bakarrik ari zifiala entzun nizkitzun beste auek? Eresia gomutan dut: itzak oroit al ba'nentza! Zertako antziñako izar-mordoen zantzuen sorpena begiratu? Onatx Dione'tik ialki Kesar'en izarra (6), uztak igaliz bete ditzaken izarra, eta eguterako mats-mordoak margoztu. Txerta itzatzu, Daphni, udarondoak; ilbasoek bilduko dizkitzute igaliak.

Meri'k.—Adiñak oro darama, baita gogamena ere: oroitzen naiz, aur nintzanean nola egun osoa kantari ematen nun eguzkia ostendu arte; orain, berriz, neurtitzak ahantzi ez-ezen, aotsa ere itzaltzen ari zaio Meri'ri; otsoek (7) aurrenik ikusi zuten, nunbait, Meri. Baiñan oriek (bertsuak alegia) maiz ber-esango dizkitzu Menal'ek.

Likida'k.—Ene irrika luzatzeko erasiak... Ikus: ur-zelai zabala ixillik dago zure zai; aizearen zurmurra ere atertu da. Onatx gu biderdian, Bianor'en illobia agertzen asi baita. Ementxe, lugiñek orbelak irautzen dituten toki ontan, abestu dezagun, Meri; laga ementxe auntzak urira iritxiko gera-ta.

Gauarekin euria ere etorriko zaigulazkoaren kezka ba'geunde, kantari ioan gindezke, (ariñagoa egingo zaigu bidea): kantari ioateko, zure **lor** au neonek iasoko **dut**.

*Meri'*k.—Etzazula areago erasi, aurra; egin bearra oraintxe bete dezagun. Are obeki abestuko ditugu olerkiak, hura datorkenean (Menalk alegia).

OARRAK

(1) Kaoni edo Dodona'ko usoak, auzoan urtzikor artadi bat zeukana; aintziñatean kaonitarrak bizi ziran bertan,

(2) Aztiak esan oi zutenez, belatxingak zugaitz arro edo arraildu batetik egiten zun kantua, beste zugaitzetatik egiña baiño gogoetagarriagoa zan.

(3) Mantua orduko naspil sarean sartua egon ez arren, Bruto ta Kasi'ren aldeko zan Keremona urbil izatea zori txarreko zun. Kikne edo bcltxargak oso ugariak ziran Minkiu ertzetan, Mantua inguruan,

(4) Kirno, Kirne edo Korzega. Agiña zugaitz zltaltsua duzu, ta erleak aren aza bazkatzen baldin ba'dute, kutsu garratza ematen diote eztiart. Ortik etzan ontzat artua Kirno'ko ezti, agin ugariko eskualdea zan-eta.

(5) Vari Rufu Bergili baiño zaharrago zan; eta *Enearena* agertu arte, berak euki zun olerki epiku-sailleko nausi-zigorra. Elbi Kinna, berriz, Katul'en garaikoa, alexandriar eskolako olerkaririk gurenenatarikoa izan zan.

(6) Kegar'en omenez egiñiko illeta bitartean, dakigunez, aillizar bat agertu zan ortzi zear eta guztiak uste izan zuten gizurena bera zala, jainko ta izar. Dione, Venus'en ama zalako, baita Kesar'ena ere, Venus'egandik bait-zetorren, uste zanez.

(7) Plini Gazteak diñoanez, Itali'n uste zan otso bat aurkitzean, au baldin ba'zan aurrenik ikusten zuna, olakoari aotsa itzaltzen omen zitzaion.

(8) Ur-zelai au, ziuurrik asko, Benaku duzu, gaurko Garde zingira; geienik paketsu zan arren, noizpeinka asarre ipiñi oi zan itsas zaratatsu antzo.

'9) Ez dakigu nor zan artzaiak, egiten zuten biderdian bere illobia zeukan Bianor au. Batzuk uste dute Mantua irasi zunarena dala, baiña ba'liteke beste mantuar gizuren baterena izatea ere.

X'gn. UNAI-KANTA

Gal'i goratzarre

Amargarren unai-kanta au Korneli Gal'en goratzarrerako idatzi zun olerkariak. Dirudinez aipatu Gal ori Kiteris zeritzan emakume baten ganako maitasunez erretzen zegoen. Olerkariak emen emazteki orri Likori deitzen dio. Ageri denetik, Likori, Gal utzi ta Rhin ibaiaren inguruetara ioan zan Agripa'ren gudarosteko gudu-gizon baten atzetik, Gal Itali'ko bazterrak Sextu Ponpeiu'ren aurka aldeztan ari bitartean. Aretuse'ri gora-dei. Gal'en maitasun-oñazeak abestu nai lituke. Artaldeek, artzaiek. Apol'ek, Silban'ek maitenaigabeok arindu nai izan zizkion Gal'i, alperrik ordea. Alare baso-zelaietako pake giroa atsartu nai luke. Likori'ren oroitzapenak, ordea, biotz guzia ziztatzen dio. Aantzi nai luke nolarebait, basartean eizean edo bestelako iokoe-tan ibiliz. Ezin, ordea. Azkenean maitasunaren aitzinean amor ematen dio. Olerkariak poema onekin unai-kantok amaitzen ditula diño,

Arnas ;dazu, Aretuse (1), lan au amaitzeko: ene Gal'entzat neurtitz gutxibatzu iarri bear ditut, Likori ber-berak irakur ditzakenak; iñork uka] lezaioke neurtitzik Gal'i? Doris gaziak (2) ez al ditu bere urak zureekin naasiko Sikili'ko ubide izkutueta (3) ixuriko dituzunean! Asi zaite; Gal'en maitemiñak kanta ditzagun auntz soraiok ernemin xamurrak morrozten dituten bitartean. Ez gaude gorrentzat kantari; oianek nun-naitik erantzuten digute.

Nungo oianek. nungo larregunek gel-araz zinduzten, Naiade gazteak, zoritxarreko maitasun batek Gal erretzen zunean?, ez zinduzten bada, geldiarazi, ez Parnasu'ko tontorrek, ez Pindi'koek (4), ezta Aoni'ko Aganipe'k (5) ere. Hura zalata (Gal, alegia), ereiñotzak eta millazkak negarrez zeuden; aitz-gorripeko Menalu lerrondotsuak eta Likeu (6) otzeko mendaitzak ere negar zegiten. Ardiak geldi daude billaldean (aiek ez gaitute zapuizten: zuk ere, olerkari guren, ez dezazula artaldea zapuiz: Odoni ederrak (7) ere ibai-ertzean ardiak larratzen zitun); unaia ere etorri zan; urdezain astiroa ere bai; Menalk neguko ezkurrez bustita etorri zan. Eta guziek galdetzen die: «Nundik nora maitasun ori?» Apol ere etorri zan eta esan zion: «Gal, zertako zoro-aldi ori? Zuk maite duzun Likori, beste baten atzetik dabil elur eta basa-soroak zear». Silban (8) ere etorri zan, burua larre-ostoz inguraturik, abar loretsuak eta lili aundiak astinduz. Pan Arkadi'ko iainkoa ere bai; geok

ikusi genun gorrimiñez (purpuraz) eta andura-ale odoltsuz istatsu: «Dendunik izango ote duzu iñoiz?» esan zion. «Maitasuna da orrelakoetaz arduratzen. Ez da maitasuna malkoz asetzen, ez belardiak urez, ez erleak elarrez, ez auntzak ostoz».

Ark ordea goibel; «Ala ere, Arkadia'rrak, zuen mendi auei nere naigabeak abestuko dizkiezu; arkadiarrak soilik, kantari trebeak. Nere ezurrek bai gozaro atsedean artuko luketela zuen txirulek, noizbait, nere maitemiña go-raipatuko ba-lute! Zuen arteko ai-nintza, artzai edo zoritu mats-biltzaile. Phili edo, Aminta edo, ene lera onen gai den norbait ba'nuke (zer zaio Arrunta beltxaran izan arren? Beltzak dira lili-ubelak, beltzak ahabiak ere) nerekin sarats artean, masfi astiroaren itzalpean etzango litzake: Phili'k lore-sortak bilduko lizkidake, Aminta'k, berriz, abestuko lidake.

Ementxe iturri ozkirriak, ementxe larre guriak, Likori: ementxe oiana; berton, zure aldamenean, urtez akituko nintzake. Orain aldiz, maitasun ero onek, Marti gogorraren iskillupean eta etsaien gezi artean lotuta naduka. Zuk, aberritik urrun —ezin dut orrelakorik sinistu ere—, Alpes eta Rin inguruetakoa elur eta otzak, bakar eta ni gabe, dakuskizu. Ai! ez al dizute otzek kalterik egingo! Ai, izotz gogorak ez al dizkitzu oiñazpiak pitzatuko!

Ioango naiz eta Kalkidi'ko eraz (9) antola ditudan bertsuak Sikili'ko artzai-txirulaz ioko ditut. Egia da; naiago dut oianetan, iize-aitzuloen artean nere maitasunak egari eta zuaitz xamurretan irarri: aziko dira (zuaitzak), aziko zerate zuek ere, nere maitasunak.

Anartean Menalmendi zear Ninphekin naasirik ibiliko naiz, edota basurde zakarrak eizatuko ditut; iñungo otzek ez didate eragotziko Partenos'ko oianak nere zakurrekin ikertzerik. Arkaitz eta baso durunditsuak barna nabillela dirudit dagoneko; atsegin zait Parti-adarrez (10), Kidon'go (11) geziak iraitzea; ioku au nere rnaitagarraren sendagai bai'litzan, edota iainko ark (maitasunak) gizonen eritasunak ibitzen irakatsiko bai'ligun! Hamadiri-dak (12) etzaizkit atsegin orain, ezta olerkiak ere; oianak, utikan zuek ere! Hura (iainko hura, maitasuna) gure naigabe ta lanek ezin dezakete aldatu, naiz ta otz larrienean Hebro (13) ibaitik edan, edota negu urtsuan Sitoni'ko (14) «lurrak egari; ezta, zumar elkorren azala egarritz iltzen ari danean Kanker izarpean Etiopi'ko (15) artaldeak zaituko ba'genitu ere. Maitasunak oro garaitzen du; nik ere etsi dezadan maitasunaren aurrean.

Jainkozko Pieridak; aski bezaio zuen olerkariari auek kanta al izatea, eserita zegoen bitartean ziguin abarrez saskitxo bat egin aal izatea; zuek biur-

tuko dituzute Gai'en beteko; aren maitasarrea orduoro geitzen zait udaberrian lertxun gaztea eraikitzen dan giñoan.

Jeiki gaitezen; ipuruaren itzal astuna kaltegarri zaie kantarieri; itzalak, uztak ere galtzen ditu. Auntz aseok; zoazte tegira; illunabarra dator, zoazte.

Azkena

OARRAK

(1) Diane'ren ur-neskatx laguna. Diane'k iturri biurtazi zun; Aretuse iturria Sirakusa'n zegoen, Teokrit'en sorterrian.

(2) Doris, Aretuse'ren ama, ots, itsasoa.

(3) Elide'ko ibai Alpeu'k, Aretuse'z maite-suturik, itsas azpitik Sikili'raiño eraso zion ari, baita atzeman ere Sirakusa'ko kai aundia aurkitzen zan Ortigi izaroan.

(4) Pindi, Tesali ta Epir'ko muga-ertzetan zegon mendi ospetsua, Musak antxe baltziran batez ere goraiatuak.

(5) Aganipe, Musai eskeiñi iturria, Helikon oiñean,

(6) Likeu, Arkadi'ko mendi-besanga.

(7) Adoni, Kinir Txipre ugarteko erregeren semea. Eder-ederra baitzan, Venus arekin rnaite-mindu omen zan, eta, tltzerakoan, lore itzulazi zun. Ain zuzen, Adoni (odol-xorta) izena darama lore batek.

(8) Silban, oian, larre ta abel-saldoen jainkoa.

(9) Kalkidi'ko eraz, au da, Kalki'ko Euphorion olerkariak egin oi zunez. Sikili'ko artzaia, berriz, Teokrit duzu.

(10) Partini mendia Arkadi'n zegon, Argoli'ko mugetan.

(11) Kidon, Kerete'tik iparraldera zegon uria; gezi-sesak biltzen zituzten batez ere.

(12) Hamadiridak, ots, baso-neskatxak.

(13) Hebro, Trazi'ko ibai aundia, gaur Meritza.

(14) Siloni edo Trazi'ko elurrak,

(15) Etiopi, Aigipto'tik egoaldera, Itxas-Gorri urrunean. Erromarrentzat auxen lurralderik aragoena.


ALQR-KANTAK

(Georgikon)

ΔΙΟΡ ΚΑΝΤΑΚ

ΡΥΒΛΙΝΣ

ΒΙΡΓΙΛΙΝΣ



ΑΝΔΙΜΑ

ΙΒΙΣΤΟΓΑΒΕΙΤΙΑΚ

ΕΥΖΚΕΡΑΤΥΙΑ

LENENGO LIBURUA

Lur-lana

LABURKI: Mekenas'i eskeintza.—Liburu bakoitzaren gaia. Iainkoei deia eta Kesar August'i.—Soroetako lanak, Udaberriz lurra landu bearra: urteko lau lanak. Lurak bakoitzaren gaitasunen ariora landu bear dira. Lurra lantzeko bideak: lugorriak: lur-banaketak; ongarriak, erreketak e. t. Erein ondoko lanak. Nekazarien etsaiak: gorriña, landare gaiztoak, egaztiak, itzala eta nola gaintitu. Nekazarien iskilluak: goldea nola egin. Beste zenbait aolku: zugaitz loratuen adierazpena.—Aziak nola aukeratu eta erabili. ME-TEOROLOGIA: Izarrak ikertu bear dira aiek erakusten baiditute erein-aroak. Zeruko zcnanak eta izar-mordoek erakusten digutena. Euri-egun eta iai-egunetako lanak.—Illargiak adierazten digu zein diren aukerako egunak eta zein ez. Gauzez egin ditezken lanak, goizaldean, arratsan, neguan eta uda-betean. Ekaitzen galbideak eragozteko izarrak ikertu-bearra.—Iainkoak goraldtu bearra, Keres batez ere. Iobe'k gaiñera eman dizkigu eguraldiak iragartzeko bidea: ostotsa, txoriak, argontzietako garra e. t. eguraldi txarra iragartzeko. Izarrek eta txoriek eman bideak eguraldi ona iragartzeko. Illargiak iragarriak; eguzkiak iragarriak.—Eguzkiak iragarri zituen Kesar il-ondoko gudu eta gaitzak oro. Iainkoei otoi-tza Oktabian gazteak pakea zabaldu dezan munduan eta bertan-bera utzitako baserrietan.

Uztaren poza zerk dakarren, zein izar-alditan lurak irauli, noiz matsa-ienak zumartxurietan bildu, beiak eta giberrak nola zaitu, erle gartxuekiko bear diran ardurak, oraintxe, Mekena, asiko naiz abesten.

Ixuriz doan urtea zerugoitik iaurtzen duzuten munduko argizariok (1); Líber eta Keres oparoa, zuen adeiez Kaoni'ko ezkurra galburu mardul lur-rrak biurtu bait zuen eta matsaren zumoa Akeloa'ko edariarekin naasi; baita zuek ere, Paunuak, nekazarien iainko-zaindarioak, zatozte onuntza Dríadar neskatzekin batera: zuen emaitzak abesten ari naiz. Eta zu, Neptun, zeure iruortz aundiarekin legorra iota lenengo zaldia irrintzika ialki-arazi

zenucn ori; zu ere bai, Zee'ko larre guriak morrozten irureun zekor zuri dauzkatzun ori (2); eta zu, Pan, artzaia, zure erriko basoak eta Likea'ko barrutiak utzita, zeure Menal-mendi begiko baldin bazaizu beintzat, zatozkit laguntzera Tegee'ko iainko ori (3); Minerbe, oliondoaren egillea, eta zu golde makurra erabiltzen irakatsi zenigun aurra (4); eta Silban, nekosta zutzarkatua eskuetan daramazun ori; eta alorrak zaitzen dituzuten jainko era iainkosa guztiok, azi gabe ernemindu landarak ianaritu eta ereintzetan euri oparoa zerutik eror-arazten duzutenok.

Baita zu ere, Kesar (5), egunen batean iainkoen batzarrean exeriko zeran ori, noiz iakin ez: errikkak ikusi eta lurren ardua artu nai izango ote dituzu? Eta lurberak uzta eta ekaitzen egille altsu bezala artu nai izango ote zaitu zure lokuneak mirtu xamurrez inguratutik? Edota itsas-zabaleko iainko izatera iritxiko ote zera itsaslariek numen bakartzat iaurets zatzaten? Zuri menderatuko ote zaizu urrutiko Thule? (6) edota Thetis'ek bere suintzat erosiko ote zaitu olatu guztien truke, ala izar berri, illebeta astiroen ondoren etorriko ote zera Erigon eta Arrubiaren tartean edatzen dan utsunea betetzeko? (7) (Dagoneko Arrubia bere besoak biltzen ari da zeru-zati doia baiño geiago zuri emateko): Dena den, (Tartaru'ko erregetza ezpaitago zure zai, alako erregetza gaiztorik zuk ezpaizenuke artuko, naizta Grezia'k Eliseu-zelaiak miretsi eta Proserpine'k amaren etengabeko deadarrari iaramonik egin ez) (8), ernaidazu, otoi, iario errex bat, eta lagun ezadazu egiteko aufart ontan. Eta noragabe dabilten nekazarietaz nerekin batera errukitu ondoren, zatozkit bide-lagun eta oitu zakida dagonetik otoi-deiak entzuztera.

Udaberriz mendi zurietako izotza urtuta ixurtzen denean, eta Zephir'ek sokillak birrintzen dituneko, zezena goldepean muukatzen astea nai nuke, gofde muturra berriz, ildoen igurtziz dirdaika. Lurrak birritan bear ditu egari eguzki beroa eta otz-aroa nekazari irabaz-naiaren gurariak betetzeko: lekarken uzta oparoak, mandioak ler-zorian iarriko dizkio.

Ordoki ez-ezagun bat burniz irauli aurretik, ikasi ditzagun aizeak, zeru-giroak, toki bakoitzeko arbasoen lur-lantzeko oiturak eta eskualde bakoitzak zer eman ala zer uka lezaken. Bear bada emen gari-uzta, an matsondoa aisago emango ditu, aruntzago berriz, igali ondoak edota berezko belardi muskerrak. Temolus'tik saprai urrintsua, India'tik eburra (marpilla), Sabatar guriek beren lurringaiak, Kalibetar larrugorriek burnia; Pontu'k kastor-olio nazkagarria, Epiro'k berriz lasterketan buruntzatu beorrak bialtzen dizkigutela ez al duzu ikusi? (9). Izadiak toki bakoitza lege egin eta betikorren

azpian iarri du, Deukalion'ek gaudi utsalean gizonen kasta gogorra sortu-
arazi zuten arriak iaurti zituenez gero. Ekin., beraz! Lur gizona baldin bada,
urtatsetik asi bitez zezen sendoak lurrak iraultzen, uda auts-iarioak sokillak
eguzki-galdatan egosi ditzan; elkorra balitz, ordea, aski izango zaizue Ar-
tur (10) sortzerakoan lurra gain-gaiñetik urratzea: an, belar gaiztoek uzta
oparoa ondatu ez dezaten; emen, berriz, dadukan ezotasun apurra ondar
legorrak galdu e: dezan.

Bi-urte oroz, uzta bildu ondoren, luberriak atsedenean utziko dituzu so-
ro-zelaia egonean gogortu dedin: bestela, izarra aldatzerakoan, galtzuri
orailla erein dezakezu lenago lekazi dardaritsua, illar-ale kaxkarrak edota
ostoxe zaratatsua erein dituzun soroan. Lio ta olo ereintzek, lurra erretzen
dute, baita Leteu'ko logalez (11) ernari dauden ababoilek ere. Ala ere al-
dizkako ereintzak lur-lana errexten dute; ez bildurtu soro elkorrak simaur
gizenez estaltzen, ezta errauts zikiña arlo akituetan edatzen. Ernemiñak
aldatuz ere soroek atsedean ar dezakete; artean, naiz-ta irauli ez, lurrak eztu
bere apaintasuna galtzen.

Landa elkorrai su ematea ere onuragarria izan oi da maiz, kizki ariñak
garretan kixkaltzea ere bai, orrela lurrak indar izkutu eta iangai guriak
sortzen dituelako; eta surtan zikinkeri guziak egosi ondoren, ezotasun kal-
tegarria iraitzen du, arnas-bide itsutuak zabaldurik landare xamurretara gozo-
tasuna iritxi dedin. Baliteke suak, soroa gogortuz, bide ta zulo irikiegiak
ertsitzea ere euria lasterregi irazi eztedin eta eguzki-galdaren indarra eta
Eorea izoztuarena errexago egari ditzan.

Atxurrakin sokil mokorrek autsi ta zumezko eskuarez orrazten dituenak
laguntasun aundia damaie soroai, eta Keres oraillak ezta Olinputik alperrik
begiratuko; orobat, lurra ebakiz ildo-bizkarrak iasotzen dituanak geroago,
zearka, goldearekin puskatzeko; zer esanik ez, nekatu gabe lurra lantzen
ari danak eta alorrek beti ere bere mendean daduzkanak.

Uda-buru ezo ta negu buru ozkarbiak eskatu itzazu, nekazari, zeure
otoitzetan: Negu legorrak, gari-uzta oparoenak dakartzki ta arloak ere
emankorragotzen ditu. Orregatik dago ain arro iñoiz landugabeko Mysia,
eta Gargara'k berak ere arrituta ikusten ditu ango uztabilketak (12).

Eta zer esango dut erein ondoren oraindik ere elorrek burrukan ari
den artaz soro elkor eta ondartsuaren bizkarrak zapaltzen ereintzetara ur-ia-
rioa eta lats biurriak eramateko? Lur egartsuan landarak ia il-zorian daude-

azpian iarri du, Deukalion'ek gaudi utsalean gizonen kasta gogorra sortu-arazi zuten arriak iaurti zituenez gero. Ekin, beraz! Lur gizena baldin bada, urtatsetik asi bitez zezen sendoak lurak iraultzen, uda auts-iarioak sokillak eguzki-galdatan egosi ditzan; elkorra balitz, ordea, aski izango zaizue Ar-tur (10) sortzerakoan lurra gain-gaiñetik urratzea: an, belar gaiztoek uzta oparoa ondatu ez dezaten; emen, berriz, dadukan ezotasun apurra ondar legorrak galdu ez dezan.

Bi-urte oroz, uzta bildu ondoren, luberriak atsedenean utziko dituzu so-ro-zelaia egonean gogortu dedin: bestela, izarra aldatzerakoan, galtzuri oraila erein dezakezu lenago lekazi dardaritsua. illar-ale kaxkarrak edota ostoxe zaratatsua erein dituzun soroan. Lio ta olo ereintzek, lurra erretzen dute, baita Leteu'ko logalez (11) ernari dauden ababoilek ere. Ala ere al-dizkako ereintzak lur-lana errexten dute; ez bildurtu soro elkorrak simaur gizenek estaltzen, eztare errauts zikiña arlo aki metan edatzen. Ernemiñak aldatuz ere soroek atsedean ar dezakete; artean, naiz-ta irauli ez, lurak eztu bere apaintasuna galtzen.

Landa elkorrai su ematea ere onuragarria izan oi da maiz, kizki ariñak garetan kixkaltzea ere bai, orrela lurak indar izkutu eta iangai guriak sortzen dituelako; eta surtan zikinkeri guziak egosi ondoren, ezotasun kal-tegarria iraitzen du, arnas-bide itsutuak zabaldurik landare xamurretara gozo-tasuna iritxi dedin. Baliteke suak, soroa gogortuz, bide ta zulo irikiegiak ertsitzea ere euria lasterregi irazi eztedin eta eguzki-galdaren indarra eta Borea izoztuarena errexago egari ditzan.

Atxurraikin sokil mokorrak autsi ta zumezko eskuarez orrazten dituenak laguntasun aundia damaie soroei, eta Keres orailak eztio Olinputik alperrik begiratuko; orobat, lurra ebakiz ildo-bizkarrak jasotzen dituanak geroago, zearka, goldearekin puskatzeko; zer esanik ez, nekatu gabe lurra lantzen ari danak eta alorrek beti ere bere mendean daduzkanak.

Uda-buru ezo ta negu buru ozkarbiak eskatu itzazu, nekazari, zeure ofoitzetan: Negu legorrak, gari-uzta oparoenak dakarzki ta arloak ere emankorragotzen ditu. Orregatik dago ain arto iñoiz landugabeko Mysia, eta Gargara'k berak ere arrituta ikusten ditu ango uztabilketak (12).

Eta zer esango dut erein ondoren oraindik ere elorrek burrukan ari den artaz soro elkor eta ondartsuaren bizkarrak zapaltzen ereintzetara ur-ia-rioa eta lats biurriak eramateko? Lur egartsuan landarak ia il-zorian daude-

nean, orra, lasterbide aldapatsu baten bekaiñetik ura ialki-arazten du, arri-rik-arri iauzika, mur-mur goxoena zabalduz, bere ozkirriz soro elkorrak gozatu ditzan. Eta zer, galburu anpatuen pixura lastoa makurtu eztedin, gal-orratz ugariegiak ildo gaiñean agertu orduko erauzten dituen artaz? eta lur idoitsuetan sortu geiegizko ezotasuna ondar legorraz txukatzen duenaz? Zalantz-aroetan batez ere, ibaten batek gaiñez eginda zabalune guzia lokatze² betetzen duenean, istil-une sakonak ur-iario utziaz.

Ala ere gizon eta idien lur-iraulketa auek bukatu-ala, antzar asekaitez, Estrimongo lertzun, oxter-zuri (13) ari garratzdunak eta itzalaren kalteak iasan bear ditute oraindik ere. Iainkoen Aitak berberak nai izan zuen nekazarien lanak zailak izatea. Berak lenengoz lurrak arteziz irauli zituen giza-biotzetan kezka zorroztuaz, bere erreinua lo aztun baten azpian, zurruntzen utzi gabe.

Iobe'ren aurretik, lugin batek ere etzuen lurrik landu; ez zitekean arlorik zedarritu, are gutxiago zatitu; eta lurrak, berez, iñork beartu gabe ugarriago ekartzen zuen zemai. Berak, Iobe'k alegia, zital gaiztoa eman zien suge beltzei, otsoei lapurretarako apeta, itsasoari aserrerakoa; ostoiak zerien ezitia berak kendu zien, berak sua lekutu eta nun-naitik zebiltzan ardozko errekatxoak agortu zituen, bearrizanak, ekifiaren ekiñez eta arian-arian, lanbideak sortu zitzan, gal-orratzak ildoetan billatu eta mugerraren zaiñetatik su bildurgarria ialki arazi zezan. Orduantxe lenengoz, ibaiek sentitu zituten altzondoan erro sakonak; orduantxe itsaslariek izarrak zenbatu ta izentatu zituten: Pleiadak, Hiadak eta Likaon'en Artos argia (14). Orduantxe asmatu zuten basa-piztiak xedebaz arrapatzen eta likiarekin atzematen eta oian aundiak zakurrekin inguratzen: norbaitek ibai zabala salabardoarekin astintzen du goiak artuz, beste norbaitek lio ezoak (sareak alegia) narraz daramazki itsasora. Orduantxe jabetu ziren burniaren gogortasunaz, baita zerraren sorbatz negartiaz ere, antxiñakoez bada, ziriek pitzatzen zituten egurrak; orduantxe agertu ziran lanbide ezberdiñak: etengabeko lan portitzak, oro gainditzen baitu, bearrizan gorriak gogorraldian bezelatsu.

Keres'ek lenengoz irakatsi zien ilkorrei burniarekin lurra iraultzen, oian gurenak ezkur gabe ta gurbiz-aleak urritu zirenean eta Dodona'k azkurria ukatu zuenean. Laister iasan bearke zituen gariak lanak. Gorrín gaiztoak lastoak ian eta kardulatz antzuak alorrak lastu zituen. Orra uztak bertan galtzen; lapar ta naarrezko oian arantzatsua sortzen da eta ereintza argien artean ere bas-olo eta zorigaiztoko loloa ieikitzen dira buru-zut. Baldin eskuarekin belarrak kentzen nekatu gabe ekiten ezpadiozu, baldin egaztiak soñu erlatzez uxatzen ezpadituzu, baldin segarekin, arloa tarteka estaltzen duten itzalguneak mozten ezpadituzu, eta euria arrenka eskatzen ezpaldin-

baduzu, galdua zu! Alperrik ariko zera auzokoaren aletegi okituetara begira; basoetako arteak astinduz berdindu bearko duzu gosea.

Aipabearrekoak ditugu gaiñera, nekazari azkarrei dagozkien iskilluak ere; aiek gabe, etzitekean ez ereintzarik eztare uztabiltzerik: aurrenik golde-muturra eta golde-ardatz makur aztuna, Eleusitar amaren gurdi nagiak, alperrak (lurra zapaltzekoak), narrak eta are astunegiak; urrenik, Zelee'ren zumezko tresna merkeak, gurbizazko zaranak eta Iakus'en bae mistikua, Guzi auek garaiz antola bearko dituzu nekazarien izen onari eutsi nai baldin ba'diozu (15).

Bereala zumar bat artuko duzu basoan eta indarrez makurtuko duzu goldearen tankera kaketua ar dezan; zortzi oiñeko ardatza ezarriko diozu oni sustrai-aldetik, gaiñera belarri bi eta endaitz bikoitza. Garaiz moztu bear da, uztarrizat, erki ariña ere eta pago tantai bat azpikaldeko gurpiilak gibeletik. iraultzeko. Eta sukaldean esegiko dituzu (egur auek) keak zaildu ditzan (goldea osotu aurretik, iakiña).

Antxiñakoan beste agindu asko ere emango nizkitzuke alako txatxarke-riekiko ain muker eta nagi ezpazinduket.

Mandarri aundi batekin berdinduko duzu soroa len-bait-len, eskuz irauli ta kare-arri tenkorrarekin gogortu belarrik erne eztedin edota legortearrekin pitzatuta nola-naiko izurriek adarrrik io ez dezaizuen: sarri, sagutxoek, lurpean. egiten ditute kabiak baita mandioak ere, eta sator itsuek bertan zultzen ditute euren egoitzak; apoak ere zuloetan arkitzen dira ta lurrak dakazkin edotariko xomorrotaldeak, azi-ale pillak ondutzen dituen pipia, ta zartzaro urribiziaren beldur den txindurria.

Orobat, begira ezaiozu arbendolari basoan lorez apaintzen denean eta bere abar usaituak makurtzen. diruenean; zitu-aztarren ugari (16) baldin badakar, ugaria izango da, era berean, gari-uzta ere eta bero aundiak egingo dituenean gari-iotea ere larria izango da. Bañan osto geiegiz itzala lasai egiten baldin badu, alorrek lasto-pilloa besterik eztu emango.

Askotxo ikusi ditut nik ereintzetarako azi-aleak gatzuz, olio-ondakin beltzez bustitzen, azia, leka maltzurretan, mardulago ager zedin baita egosberagoa ere su apalean, Ikusi ditut astiro eta arreta aundiz aukeratutako aziak ala ere andeatzen, gizonak urtero bere eskuz banaka aukeratu ezik. Alabearrak nunbait, txarrera eta atzeraka daramazki gauzak oro! Ibai lasterra gainditu naiez arraunkeva gogorrean dabillen arraunlaria bezela; baldin besoak lasatzen ba'ditu, laister eramango du batelak urak barrena amildegira.

Orrez gaiñera Artur'en izarra, baita Auntzaren eta Hydra argiaren egunak oartu bear ditugu, itsaso ascrrean barrena Euxin eta Abydos ostratsuaren akaideak igaroz aberirantza doazenak bezik ardura aundiz (17).

Aztagak (Librak) lo-aldi eta esna-aldiak berdindu ditukenean eta lurbira argi ta itzalen artean erdibi egin dukenean, zezenei lan eragiezue, gizonak, garagarra erein ezazute soroetan arik eta neguburu zakarrak euriak mugatu arte. Orduantxe erein bear dira lurrean lio-azia ta Kerestar lo-belarra, orduantxe bear duzu goldearen gaiñean makurtu, lur legorrak laketu bitartean eta odeiak zintzilika daudeño.

Udaberriz, baba ereiketa: garai artan zu ere, Media'ko ale ori, ildo arroek onartzen zaitute; ondoren arta-xearen urteroko ardura datorkizu, Zezen argiak urrezko adarrekin urtea zabaltzen duenean alegia eta Txakurra'ren izarra aren atzekaldetik itzaltzen denean (18).

Lurra baiña, gari-uzta, galtxuri mardula eta buruxkadun landarak biltzeko ba'darabiltzu, itxoizu Atlanta'ren alabak izkutatu eta Gnosias'en izarra koroi sutsutik aldendu arte aziak ildoetan ereiteko, lasterka bizian urteko itxaropena lurrari egotzi aurretik. Askotxo Maia etzan baiño len asten dira, baiña aien itxaropena lolo-eroaren uztaz ondatzen da (19).

Alabaiña zalke eta illar arrunta ereiten baldin badituzu edota aldebat uzten eypaduzu Peluse'ko tilistaren ardura, Itailariak emango dizkitzu, etzaterakoan, zantzu argi askoak: asi zaite, beraz, eta negu erdiraiño luza ezazu erein lana (20).

Orra zergatik amabi izar-mordoen artean negurturik dagoen urrezko eguzkiaren urteroko bira. Bost zertanetan zatituta dago ortzea: bata eguzki galdak heti ere goritu eta suz kixkaltzen duena; ezker-eskubi, beste zertan bi edatzen dira aren inguruan, itzal, izotz eta euri beltzez josiak. Oiek eta erdikoaren bitartean, beste zertan bi ere emanak izan zaizkie ilkor gaxoei iainkoen adeiez; bata eta bestea izar-mordo taldeek zearka igaro bear duten bidearekin ebakiak. Zeru-sapaia Eskitu ta Riphea'ko gailur garaietara ieikitzen den neurrian, Libia'ko alderdietara ieisten da, makurtuz. Txuntxur bata beti agiri da garai gurekiko; bestea berriz, oinpean, Estigi beltzaren eta lurpeko iratxoan ikusgarri. Emen iransugetzarra zirkun-zarkun irristatzen da ibaia bailitzan Artzai-mako bikoitzen inguru eta barrena, itxasoan murgiltzeko erabe dauden Artzai-makoak (Arctos). Toki artan, diotenez, betiereko ixiltasuna da nagosi ta gauak bere illuntasunez aizaroak lodiagotzen omen ditu; edota goiznabarrak. gu uzten gaituenean, ara omen daroa eguna; eta eguzkiak ieikitzcraoan bere zaldien arnasa suma-arazten digunean, gau argiak pizten omen ditu toki artan Arrats gorriak.

Orra nundik, ortze zalantzazuz ere, ekaitzak iragarri genitzaken, uztarako eta ereiteko egunak ere, baita noiz sartu litezken arraunak itsaso gaiztoaren marmorezko uretan eta gudu-ontziak olatu artean, eta noiz den garai egokiena lerrondoak basoetan ebakitzeko. Eztiegu alperrik begiratzen izarmordoen sortze-sartzeeri ezta lau aro berdiñetan urtea ebakitzen duten aldiei ere.

Iñoiz euri otzak etxean geldi-arazten baldin badu nekazaria, eguraldi onerako gertakizunak lasai asko egin ditzake: lugiñak goldemutur makurraren ortz gogorra ioten du, zugatz-enborrak lantzen ditu ontzixkak egiteko, artaldean xakia ezarten dio edota uztak zenbatzen ditu. Beste batzuk, pikotxak eta sardak zorrozten ditute ta Amerinen lokarriak gertu matsondo nagientzako; elorritzko otarre malguak ere egin ditezke, gari aleak surtan txigortu eta arrien azpian eio. Iaiegunetan ere zerbaiteri ekitea zillegi da eta gizaeskubideak laketzen dute; eztu iñungo iaurespidek debeketzen ur-askak garbitzerik, alorrek esitzerik, egaztiei lakirioak ezarterik, sasiak erre eta artalde marrakaria ibai osasungarrietan murgiltzerik. Asto nagia iabeak maiz, olio*z* *nai*z igali merkez zamaten du aren bizkarra eta uritik itzultzean maillaz xetutako arria edota pike beltzezko mokorra ekartzen du.

Illargiak berak mugatzen ditu lan bakoitzari dagozkion egunak. Etzazula, alare, boskarren egunean ezer egin, Eumenide ta Orku zurbilla sortu baitziren egur; ortan: Orduantxe lurrak, ertaldi nazkagarri batean Keu eta Iapetu argitara zituen, baita Typho ankerra ta zerua bortxatzeko gorpiztu ziran anaiak ere. Iru bider oldartu ziran Osa Pelio'en gaiñean ezarteko eta iakiña, Olimpu oiantsuz Osa inguratzeko, baiña iru bider Iobe'k zotukatu zuen mendi-pillo ori bere tximistarekin. Amazazpigarren eguna onezkoa duzu matsondoak landatzeko, basa-idiak ezitzeko eta geiagarritzat oialak euntzeko. Igesserako ohea da bedatzigarrena, lapurretarako baiño (21).

Lan asko, ordea, obeto egiten dira gau ozkirrian edota Artizarrak, eguzkia ieikitzerakoan, lurrak intzeztatzen dituenean. Gabaz obeto mozten dira lasto ariñak eta larra agorrek, ezpaita iñoiz palta ezotasun goxorik. Norbaitzuk ernai egoten dita neguko suaren argitara eta burni zorrotzez (aizkorarekin) buruxken antzeko zuziak egiten ditute. Artean, emazteak, lan neketsua kantuz arindurik, oialak orrazten ditu orrazi arantzazuz, edota sutan egosten ardo goxoa indarra gutxitu dakion eta pilpil dagoen eltzearen aparra ostoeekin kentzen du.

Baira Keres'en adats orailla udako sargoritan baizik ezta mozten, eta uda beroenean ain zuzen, arloak egon oi dira uztaz gaiñezka. Golda ezak

larrugorví, erein ezak billutsik! Negua opor-aldi izan oi da nekazarientzat. (itzaldietan, geinbat bildutakoaz gozatu oi dira nekazariak eta elkarren artean, aldizka, oturuntz alaiak egiten ditute. Negu ase-iarioak pozten ditu ta kezak lasatzen dizkie; era berean, itsaslariek ere, ontzi zamatuekin kaia ukitu-ala, ontzi-txopak koroiz estaltzen ditute pozez gaiñezka.

Ala ere orduantxe izaten da arte-ekzurak biltzeko garaia, baita ereiñotz-pikorrak, oli-aranak eta mirtu-ale odol-kolorekoak ere; orduantxe ezarten zaizkie xedebak lertzunei, sareak oreiñei; orduantxe erbi belarri luzeak eiztzen dira, baita Baleares'ko ixtupazko abailari bira eragiñaz orkatzak zaurtzeko ere; elurra lodien denean alegia, eta ibaiek izotz mokorrak daramazkitenean.

Aipatu-bearrak ote ditut udazkeneko ekaitzak eta izar-mordoak? Egunak laburtuz eta uda apalduz doazenean gizonak zer lan bear duten egin esango ote dut? edota udaberri euritsua daiorrenean, soroak galburuz gaiñezka daudenean eta gari-ale esnetsuak ibin-orlegietan antutzen direnean? Maiz ikusi izan dut nik arloak zori zeudela, olo-lasto xamurrak mozteko epailariak sartu-ala, aize zakarrenak ereintzak iñarroston eta orpo-orpotik, burruka izugarri batean, uzta ernaria ateratzen eta urrutira iaurtitzen, neguko aize-zurrumillo beltzak galtzuak bira-biraka daramazkin bezelatsu. Maiz, zeruan batzen diran ur-osteak eta itsasotik ieikitzen diren odoiek ekaitz izugarri bat sortzen dute euri-iasa beltzez eta zeru-goitik erortzen dira ugolde aundi batean ereintza pozgarriak eta idien lanak bertan ondatuaz: errekek betetzen dira, ibai sakonck berriz, gaiñez egiten dute zaratatsu, eta zabaldiak irakiñean dirudi ur-fasterren oldarrez. Iobe berbera, odei beltzezko gau anan, tximistaka ari da bere eskubi dirdaitsuarekin: dardar egiten du lur guztiak, piztiak igesi dabiltz eta giza-biotzak ikaraz apaltzen dira; eta ark (iainkoak, alegia) ekiñean, Atho Rodes eta Kerauni'ko mendi-gaillurrak gezi goriz mozten ditu; Egoa eta euri-iasa bikoizten dira eta aize zakarrarekin basoa eta itsas aldea intzirika daude.

AJakoen beldurrez ondo begiratu itzatzute zeru-ibillaldiak eta izar-mor-doenak; Saturni'ren izar otza nundik izkututzen den, baita Kileniu'ren suzko oboak nundik nora dabiltzen zeruan (22).

Lenen eta bein iainkoak goretsatu eta urtero egizkiozu eskeintza oparok belar gurian, Keres gurenari, negua beeraka doanean alegia, udaberria asterakoan. Orduan ardoak gozo eta bildotsak mardul; loa atsegiñ eta mendietan itzala lodi. Zurekin batera gurtu dezatela Keres baserriko gazteek; urtu itzatzu esnetan, aren omenez, ezti-orrazea eta Bak'en edari goxoa; zorion-opagaiak irutan ingura ditzala uzta berriak, lankide-taldeak osorik,

Keres'i oiuka darraikizula: iñork ez dezala galburu zoritueta segarik sartu aritz-abarrez buruak esita, larre-dantza ta otoi doneak Keres'en omenez egin-gabe.

Eta gauz auek siñale zigurrez ikasi ditzagun, bero-euri-aize aldiak alegia, Iupiter'ek berak erabaki ditu illargiaren illeroko zantzuen adierak, Ego-aizearen eror-aldis, eta beti ere ernai dauden nekazariak zerk beartzen dituen artaldeak artegitik urbillago gordetzera.

Aizeak jeiki ala, itsasoko ur-mendoiak iñarrostoen eta antutzen asten dira, mendi-gaillurretan berriz, abarrots zakarra entzuten da, urrunean kostak ots (22) eta basoen zurru-murrua areagotuz doa. Ontzi tillape makurrak, nekez egari ditzake olatuak dagoneko; kaoak egarin datoz ur-zelaitik euren karraxiz legorra betetzera; kulixkak ere lur-rean kokatzen dira, koartzak berriz, istinga ezagunak utzita, odei garaien gainetik egaldatzen dira. Izarrak ere maiz ikusiko dituzu ortzean irixtaka amiltzen aizearen eragiñera eta gauaren bizkar illuna lerro luze ditziratsuz argitzen; baita galtzu ariñak eta orbelak ere bira-biraka, edota egatsak (lumak) iolasean igari ur-azalean.

Baiña Ipar-alde latzetik oiñeztuak argitzen duenean, Eurus eta Zephir'en etxeak trumoia iotzen duenean alegia, soro guztiak urez betetzen dira eta itsaslariek ere uretan blei biltzen ditute ontzi-oialak, Agetak (kaxkabarrak) eztu iñoiz ustekabean kalterik egiten: eme orduko, kurrilloek egurats zabala utzita ibar sakonetara doaz; bigantxak, zerura begira, sudupil irikiakin aizea sumatzen du; enara txiokariak aintzira inguratuz dabilta; igelek berriz, euren betiko leloa abesten dute lokatzartean. Askotan txiñurriak arrautzak ateratzen ditu tegi sakonetik, bidetxior extuak istikatuz; eta zeru-uztai (ostadar) aundia edaten ari da (itsasoko ura) eta larre-soroetatik lerro-lerro urrunduz, ega-oska ta kuantuz dator bele-oste ikaragarria (23). Itsas-txori luma nabardunak, baita Asia aldean Kaistre ibarreko aintzire ur-goxoetan bizi diranak ere, leiaka ari dira beren bizkarrak bustaldi luzeetan murgiltzen: aldiz burutxoak latsetan sartzen ikus zentzake, aldiz uretara lasterka ioaten atergabeko garbi nai batean. Belatxinga nekagarriak aldarri betean euriari ots-egiten dio ondar legorrean bakar dabillen bitartean. Artillea luzatuz gabaz ardazketan ari diren neskatxak ere laister antzematzen diote neguari, krisallu piztuak olio txinpartaka eta tortx inguruan ontoak ernetzen ikusiz.

Era berean, euri aldietan, adiera ziurretatik igarri zenezazke egun eguz-kitsuak eta ozkarbiak. Orduan ezpaita agiri okertuta izarren ditzira eta illargiak, irteterakoan, eztirudi eguzki amandrearen zordun eta artille illaunik ere ezta zeruan zear ikusten; Thetis'ek ain maite dituen ondar-txoriek ere ez ditute egoak eguzki epeletara zabaltzen itsas-ertzean, eta urde zikiñak ezta-

biltza uzarka. Laiñoak, ordea, geroago eta sakoneragotzen dira landatan edatuz; ontza, berriz, gaillur garaienetik eguzki sarrera oartuz, gau-kantuan ari da. Goi ageri da Nisus egurats garbian, Eskile berriz atsekabetan purpurazko illea dalata; bere egoekin eguratsa ebakiz nora-nai dioala, orra Nisus, aren etsai ankerra, karraxi erlatzez darraikiola; eta Nisus aizean agertu ala, an dioa igesi Eskile egurats ariña egoekin urratuz (24). Orduan beleek, eztarria ondo ertsita, iruzpalau aldiz argi kuartzen dute ta beren oantze garaietan, eztakit nungo atsegiñez gaiñezka, osto tartean abarrotsean ari dira elkarrekin: ioan. euriekin pozten dira noski, kumatxoak eta kabi goxoak berriro ikustearekin. Eztut uste, orregatio, besteak baiño goi argiz iantziago direlako, eztare patuek etorkizuna iragartzeko sen aundiagoa eman dielako; alabaiña ekaitzek eta zeruko ezotasun aldakorrek bideak aldatu orduko, eta Iupiter'ek len estu zirenak lasatu eta lasa zeudenak estutu ondoren, gogogiroa ere aldatu egiten da eta ekaitzaldietan ez bezelakoak gertatzen dira biotz-taupadak: ortik, nunbait ere, zelaietako txorien txintak, abereen poza eta beleen pozkariozko kuartu bearra.

Baiña eguzki lasterrari eta illargiaren aldi negurtuei erne baldin ba'zaude, eztuzu utsik egingo biarko eguraldiaz eta etzaitu bere sareetan atzituko gau ozkarbiak. Illargiak, bere sugar sortu-berriak biltzen asten denean, itzalgune beltzik adar artean baldin badu, euri ugari egingo du nekazari eta itsasoárentzat ere. Alabaiña bere aurpegia birgin-gorritasunez estaltzen baldin badu, aizea izango da; aizeak beti gorritzen baitu urrezko Phiebe. Laugarren sordaldian (igarkizunetarako garairik egokiena) garbi ta adarrak okertu gabe zeruan baldin ba'dabil egun guzi artan ez ondokoetan, illebetae osatu arte, eztu euririk egingo ezta aizerik ere, eta itsaslariek bete al izango ditute legorrean Glaukus, Panopee eta Ino'ren Melikerta'ri egin eskeintzak (25).

Eguzkiak ere, naiz sortzerakoan naiz olatu artean ostentzerakoan, zantzu ziurrak emango dizkitzu; eguzkia, beti dator zantzu ziurrez inguratutik goizean eta izarrak iaiozerakoan eman oi ditunak. Iaiokeran bere sorrera orbanez ziprztindu eta odei artean ostenduta oboaren erdiunean izkututzen baldin badu, euria susma zenezake, zugaitz, ereintza eta abereenzat ain kaltegarria den Notu itsasaldean zemakor baitago. Baiña argi-urratzean odei-moltso artetik erraiñuak bapanatzen baldin ba'ditu, edota Eguantza zurbil eta margul Titon'en urrezko oatzetik iaikitzen baldin bada, ai ene! Orduan nekez babestu al izango ditu mats-ostoak mordo zorituak; ain baita azkarra tellatuetan zirti-zarta pampaka ari oi dan kaxkabar beldurgarria! (26).

Are onurakorragoa dukezu auek gogoraztea Olimpu negurtu ondoren etzatera dioanean (eguzkia): maiz, bada, ikusten ditugu aren aurpegian. margoak aldatzen: urdiñak euria iragarten du, su-gorraitak aizea (Euros); orbanok, ordea, su gorrikekin nasten baldin badira, laister ikusiko dituzu

laiño euritsu eta aizearekin bazterrak irakiten; alako gau batean iñork re, eninduke beartuko itxasoratzen ez eta legorretik unamak (lokarriak) lasatzen. Ala ere, eguna dakarrenean eta ekarri ondoren eguzki-obia istatsu baldin ba'dago, alperrik zindezke odeien beldur: Ipar argiarekin basoak ikusiko dituzu iñarosten.

Guenez, Arratsak (Vesper) zer lekarken, odei ur-gabeak nundiko aizeak daragizkin, zer gogoeta derabilzkin Auster (Ego) ezoak, eguzkiak oartaraziko dizu. Nor ausartu diteke esaten eguzkia gezurtia denik? Berak adierazten dizkigu sarri ixilpeko naspil-aldiak, itzulazketak eta anpatuz dicazen gudu esraliak. Bera errukitu zen Erroma'z Kesar'en eriotzean, bere buru dirdaitsua erdoi illunez estali zuenean eta gizaldi gaizto hura betiko gauaren beldur zenean. Garai artan gaiñera, lurak, itsas-zelaiak, baita zakur lizunek eta adu txarreko egaztiek ere, siñaleak eman oi zituten. Zenbat bider ez ote dugu ikusi Etna irakiñean Kiklope'n soroak ondatzen, bere labeak apurtu ondoren sugar borobillak eta arkaitz urtuak amilduz (irauliz). Zeru guzian barrena iskillu-otsa entzun zuen Germaniak; oi ez bezela kordakatu ziren Alpe-mendiak. Nun nai entzun zen gaiñera oiuzugarri bat iauroianen (oian doneen) ixiltasuna urratuz eta miragorritzko zurbiltasunez inguraturik iratxoak agertu ziran gau illunean eta abereak mintzatu ziren (esankaitza benetan!); ibaiak gelditu ziren, lurak pitzatu ziren: iauretxeetako eburra (marpilla) ATSEKABEZ NEGARREZ dago eta borontzea izerdi-iario. Eridan ibaien erregeak tatarrez zeramazkin uiolaren inguruko aranak, baita ibar guztietako abere-laldeak ere, etxola ta guzti. Aldi berean etzeuden agertu gabe zoritxarreko altzarretan aitziz zemakorrak ez eta odola ere oxinietara iarion gabe, eta gau illunean oiarrots zegiten otsoen uluek mendiko urietan. Iñoiz etzen ozkarbiz ainbat tximista erori ez eta buztan-izar parte-txarrekorik ain usu diztiratu (27).

Beraz Philip'esek berriz ere orrela ikusi al izan zituen Erroma'ko gudu-osteak iskillu berdintsuekin elkar oldartzen; eta begiko izan zitzaizen or nunbait, zerutarrei (iainkoei) Ematia eta Hemu aldeko soro-zabalak gure odolarekin birritan gizontzea. Etorriko da garaia, bearrik ere, lurralde aiek golde-rnuturrarekin iraultzean erdoi-legenak iandako azkonak nekazariak arkituko dituen, edota aitzur astunarekin buru-oskol utsak ioko dituen eta aitzurto obietan ezur aundiak idorotzean arrituko dena (28).

Aberri-iainkoak, Indigetarrak, Erromul eta Toskana'ko Tiber eta Erroma'ko Palatin babesten dituzun Vesta gure ama; etzaiozutela eragotzi gazte orri gizaldi akitu oni laguntzen. Naiko odolik ixuri dugu lenago ere Laomedonen Troia'ko ziñ-atsiak garbitzeko. Aspalditik daude, Kesar, zurekiko-

bekaitzez zeru-iauregikoak erretzen, naigabez giza-garaipenez arduratzen zeralako, gizonen artean zuzenbidea, okerbidea adinbat gertatu baita; ainbeste guda lurbiran, ain ugariak gaiztakeri-tankerak; goldea ezta aintzat ere artzen; alorak xurtuz dioaz lugiñak erauzten dizkielako eta sega makurra ezpata lerdin billakatzen delako. Emen Eufrates, an berriz Germania gudua pizten ari dira: auzo-erriak ere elkarrekiko legeak apurtuz armetan dabilza eia Marti ankerrak lurbira osoa itzulazten du. Zaltegitik igesitako kuadrigak are lasterrago dioaz zabaldietan barrena; alperrik tenkatuko dizkiezu euskarriak; zaldiek daramate galdi-zaia eta galdiak ezti iaramaten ugali.

OARRAK

il) Gora-dei luzeegi au aspergarri gertatzen zaigu egun ainbeste iainkoe izenekin. Geienak ezagunak dira, nekazarien iainko zaindariak izaki. Ez ditugu, beraz, bakoitzaren doaiak emen azalduko gure iruzkiñak luzeegi gertatu ez ditezten.

(2) Aristeu errege ta itzaia alegia, Apol eta Kirene Ninpa'ren semea noizbait Zea, Kiklade'etako izarrea, legorte ikaragarri batetik atera omen zuena.

(3) Likea ta Menal Arkadi'ko mendiak dira, Ean eta artzairen larre atsegiñak.

(4) Triptolome duzu aurra. Demeter'ek irakatsi omen zion lur-lantzea, gari ereiketeta eta gero Italin'tik landa zabaldu omen zituen iakiteok.

(5) Kesar, «Lelo'ren Kanta»ko «*Oktavian munduko jaun*» ber-bera. Jainko mailan iartzen digu emen Bergili'k, lanago «Unai-Kantak»etan egin zuenez. Erriak berak iarri zuen Oktavian iainkoe mailan ogeitazortzi urte bete zituenean.

(6) Iparraldeko izaro urrutiena zen erromatarrentzat Sheland izaroetako bat, agi denez orduan oraindik menperatzeko.

(7) Erigon (Virgo) *Neskatx* ta *Arrubi* (Scorpio). Eztu aukerarik izan Garate'tar Justo'k izarretaz idatzi lana ikusteko. Bear bada obeto itzuliko nituen euskerara izar-mordoan (Konstelazinoen) izenak.

(8) Proserpine, Demeter'en alaba, Pluton'ek berakin eraman zuen eta infernuetako erregin gertatu zen.

(9) Temolu, Lidia'ko mendia.—Sabatar, Saba Arabi zoriotsuko erritarrak. Kalibetarrak. Ponto-euxinuren egoaldean bai ziren olagizonak. *Pontuko kastor-oltoa*, aipatua zen emakumien apainketarako. Ikus Obidi'ren «*Medicamina Faciei*».—Epiro'ko (Eladen) zaldiek aipatuak ziran oso, beorak areago. Lasterragoak omen ziran zaldiak baiño.

(10) Artur, Itzaia'ren izarpilloko jzarrik argi eta aundiena; iraillean ieikitzen da izar au.

(11) Leteu, Infernuetako ibaia; ango urak edanda, oro ahanzen omen zan. *Leteu* gerkeraz, ahantzi da izan ere.

(12) Misia ta Gargara, Asia Txiki'ko mendiak. Gargara'tik Ida'ko zabaldi oparoak ikus zitezken.

(13) *Lertzun*, egatzia: *kurrillo* ere esaten zaio. *Oster-zuri*, txikorearen antzekoa. Landare auen erroak, ari antzekoak, ereintzak ondatzen ditute.

(14) Pleiadak, beren golzaldiko sortzearekin, itsasketa-aldia iragartzen omen zuten; Hiadak, eurien etorrera, orril eta azillean.

(15) Iakus'ek izen aundia zuen Eleusis'ko Misterioetan eta galbaea eramaten zuen eskuetan garbiketeta-siñale bezela,

(16) Arbendol, lenen loratzen den zualtza, urtarrillean, negu biotzean. Urtero ikusi izan oi nituen lore-beteen Portugal'go Algarbeetan. Arbendol itza Orixek uste dut erabilli zuela lenengoz «Mirefo»n.

(17) Artur, gorago aipatu da. Auntzak, Burtzaiña'ren moltsoko izarrak azaltzen ziranean (iraillaren azkeneruntz), eguraldi aldaketa iragartzen zuten,

(18) Zezen, izar-moltsoa, jorraillaren 17'an azaltzen da eta Zakurra'rena 30'ean itzaltzen da. Iorraila zen, ain zuzen, lur-lanetan asteko illabetea.

(19) Atlanta'ren alabak, Pleiadak dira; Gnosias'en izarra. Ariadna Minos'en alabaren kororia Bak'ek ezarri zuen zeruan. Minos, Kreta'ko erregea. Maia, Pleiade'tako izar bat

(20) Peluss, Aigito'ko errixka, tilistaz (lentejaz) ospetsu.

(21) Orku, erio-iainkoa, boskarren egunean sortu omen zen. Keu t. a. Lur eta Uranu'ren semeak. Osa ta Pelion, Thesalia'ko mendiak. *Bedatzigarrena*, egun ortan argi pizkat illargiak egiten duelako naiko iopuen igeserako geiegi lapurretarako.

(22) Saturn izarbela otz-gilletzat zeukaten; Kileniu, Merkuri alegia, Arkadi'ko Kilenen iaio baitzen.

(22) *Kostak ots* «Iraillan Kostiak ots» esaten da nere errian (El. B).

(23) Ostadarrak itsasoko ura zurruputzen zuelako ustea, gero euri biurtuko zana, errian zabal zebillen, eta Euskal-errian ere uste ori umeen artean beintzat ezaguna zen, itsas-errietan.

(24) Eskile basoillar biurtu zen Nisu Megare'ko errege ta bere aitari purpurazko illea ostu ziolako, ille ortan baitzegoen erri artako zoriona. Nisu itsas-arrano biurtu zen eta eten gabe zerraikion Eskile'ri.

(25) Glaukus, itsas-iainko bat. Panopee, berrogeitamar Nereldetakoa. Ino, Atamas'en emaztea, igesi ioan zen bere seme Melikerta'rekin senarra erotu zitzaionean eta ugiñartean amildu.

(26) Eguantza, Titon'ekin ezkondu zen; ortik beraz, «Titon'en oatzetik ielki».

(27) Zoritzarreko *altzarretan aitz*i zemakorrak: tristibus aut extis *fibrae apparere minaces*...

(28) Philipes, ots, Thesalia'ko lurraldea.

BIGARREN LIBURUA

Zugaitzak

LABURKI: Bak 'i gora-deia. — Zugaitz zenbait berez sortzen dira, baita beste modu askotara ere, nekazariak ikasi bear ditutenak.—Betor Mekenas olerkariari laguntzen gai ontan ere.—Zugaitzak lantzeko zenbait agindu. Nola ondu, batez ere txertaketa bidez. Zugaitz-motak nola aukeratu.—Giro eta lur bakoitzak bere landare mota dakar.—Italia, lugintzarako munduko lurralderik egokiena.—Lur-mota bakoitzari dagokion landare mota.—Lurra aztartzeko bideak.—Masti-lantzeak; birlandatzeak, landarak nola iarri, zu-loen sakonera.—Ezta oliondorik mastian jandatu bear.—Ez mats-aienik izotz-garaian landatu; udaberria, lan ontarako egokiena.—Udaberriari goratarre.—Landare gazteak bear duten ardura; iñausketa. Nola mastiak xomorro kaltegarrietatik zaindu, batez ere Bak'i eskeiñi oi zaizkion akeregangandik.—Mastiak, naizta egiña izan, ardura aundia bear du.—Oliondo eta beste zugaitz-lantzeak. Mastiek baiño neke gutxiago eman oi dute oliondoek, igaliendoek eta basa-zugaitz zenbaitek, onuragarriak ala ere gizonarentzat. Nekazarien bizitzaren goratarrea.—Olerkariak baserrian bizi nai luke.—Baserriko bizitzaren pakea eta garbitasuna. Azkena.

Onaño alor-lan eta zeruko izarretaz (ari izan gera); orain berriz, zu go-raipatuko zaitut Bak, eta zurekin batera baso-ernemiñak eta astiro azten den oli-ondoaren aldaxkak. Zatoz onea, Tolare-iainko (dana dago eraen zure emariz beteta; arloak, udazken-aienez abailduta, zuri dagozkitzu uzta be-tean eta maats-bilketak gaiñezka dagi kupeletan apar-iario); zatoz onea, To-lare-iainko, eta koturnoak erantzita, sar itzatzu aztalak mustio berritan nere-kin batera (1).

Era askotara sortu ditezke zuaitzak. Zenbait berez datoz, gizonak ortar-atzake, landa eta ibai-biurgunetan ugarituz; alatsu zume malgua, iñar nagia lertzun eta ostu oridun sarats xuria; beste batzuk lurlean ezarritako azi-pikorretik ernetzen dira, ala nola gaztain-ondo tantaiak, Iobe'ri ain atsegin zaion basoetako zuaitz andi cstotsua, Aritza alegia, eta grezitarrek igarletzat dadukaten artea (2). Beste batzuei errotik sortzen zaizkie ememiñak oian bat iduri, alatsu gerezi-ondo eta zumar-ondoei; baita Parnasu'ko ereiñotza ere, muskiltxo denean, amaren itzalpean azi doa. Bide auek eman zizkien lendabizi izadiak, eta oiexek dira basoak, iauroianak (oian doneak) eta txar-adiak orlegiz apaintzen ditutenak.

Badira beste batzu arian-arian gizonek arkitu ditutenak. Batak ama xamarraren gorputzetik aldaxkak erauziz ildoetan ezarri zituen; besteak txorrenak sartu zituen lurlean, lau epaidun arbastak edota egurrezko ziri punta-zorrotzak; baso landare zenbait zai egon oí dira norbaitek adarrak lurrera noiz makurtuko, oiek ere ama bizi den lur beretik bizi ditezen. Beste landare batzuk eztute sustrai bearrik eta kimatzailea ezta nagi ibiltzen adaburuko kimuak berriz ere lurrera itzultzeko; are miragarriagoa! Oliandoak, moztuta gero ere, erroak ialkitzen ditu enbor igarretik. Maiz ikusten ditugu zugaitz baten adarrak beste batenarekin kalterik gabe ordezkutzen: madariondoa txertoen bidez anízaldatuta sagarrak ematen, eta zuandor arrizuak aranez gorritzen.

Ekin, beraz, nekazariak! Ikas itzatzute landare-mota bakoitza lantzeko bideak; basa-igaliak landuaz gozatu itzatzute, ez lurrik utzi egonean antzu; onuratsua izaten da Ismare-mendin Bak (mastia) landatzea ta Taburnu mendizarra oliandoz apaintzea (3).

Zu ere. Mekrna, zatozkit asi dudan lan au nerekin bukatzera, zu, nere aintza, nere ospearen eragillerik aundiena, eta oialak betean elkarrekin egatu gaitzen itsaso zabalean barrena. Eztut uste nere bertsoekin dena besarkatzerik, eun mingain, aleun ao eta burnizko aotsa banitu ere. Aukera zeorrek itsas-ertzea; lurra eskuor dauzkagu; etzaitut emen geldiarazi nai olerki utsal, itzul-inguru eta atergabeko erasiekin.

Argi lerroraiño berez iekitzen diranak (zuaitzak) antzuak izaten dira noski (fruktu gabekoak), alare sendo ta alai eraikitzen dira lur-barneko indarrarekin. Auek ere norbaitek txertatu ta sakonki aitzurtu zuloetara lurraldatuko balitu, laister utziko lukete basa-tankera eta arduraz landuz gero nai dukezunera erakarriko dituzu berandu gabe. Baita arbola-orpotik sortzen dan altxuma alperrarekin ori bera egin bazeneza lur zabalera aldatuz; orain berriz, amaren abar ostotsuen itzalpean itota dago eta aziko balitz ere igaliak ekarteko indarrik eluke izango eta ekarriko balitu ere, bertan erreko (galduko; lirake).

Azitik sortu arbola astiro dator eta billobentzako baizik ezta itzalik egingo, fruktuak, gozo iatorra aztuta, endekatzen zai2kio; matsondoak ere mordo garratzak ematen ditu txorien ianari.

Gogotik ekin bear zaio, beraz, arbolak lerro-lerro ildoetan landatzen eta neke aundiz ezitzen. Oliandoa obeto dator kimuen bitartez, matsondoa aienetik; Pafos'ko mutua berriz landare osotik. Baita landaretatik sortzen dira urritz gogorra, lizar garaia, Erkul'en koro den zugaitz itzaltsua (zumartxuria) ta Kaoni'ko iaunaren ezkur-ondoa (aritz) (4); orobat palmondo arroa

ta itsasora begira dagoen lerrondo. Elorri arantzatsuari eltzaur-ernemiña txertatzen zaio; platanondo antzuek sagar adar azkarrak daramazkite; pa-goak gaztaiñarenak, zumarra berriz madari-lorepean txuritzen da, eta ordeak ere zumarpetan austen ditute ezkurak.

Eztira bat, ala ere, txertaketa eta nini ezarketa. Niniak ernetzen diren azalaren erdi-unean mintz biguñak urratuz, adabegian bertan alegia, ebaki mear bat egiten da eta beste zugaitz baterik iasotako ninia sartzen aren zur-bigunak darion ezotasunetik bizi dedin. Edota adabegi gabeko enborrak mozten dira eta ziriekin ebaki sakon bat egiten da zur-bizian landare eman-korren aldaxkak bertan sartzeko; berandu gabe zerura iasotzen ditu arbolak adar ioriak bereak ez dituen ostu eta arnariekin arritua.

Alabaiña askotarikoak dira izan zumar sendoak, saratsak, lotuak eta Ida'ko nekostak; oliondo guritik ere eztira ale berdiñak iaiotzen, borobillak, luzexkak eta tolare-ale garratzak baizik; alatsu beste igali-ondoetatik eta Alkinoi'ko oianetatik ere. Ondo bakarrak ez ditzake inola ere eman Krustumia ta Siria'ko udareak ezta eskubeteko madari aztunak ere. Gure zuaitzetatik zintzilika dagoen bendimiña ezta Metime'ko aienetatik Lesbos'en biltzen dutena bezelakoa. Badira Thasos'ko ardantzak eta Mareotis'ko mordo txuriak ere; auek Iur gizenetarako obeagoak, aiek berriz Iur ariñetarako; bada Psithi'koa edari-bixirako egokiagoa eta Lageos ernea noizbait mingañak lotu ta oiñak nagituko dituen: badira gorrixkak eta goiztarrak ere. Eta zu, Retika'ko ardoa, nungo bertsuz goraiapatuko zaitut? Ala ere etzaitela leiaketan asi Falerno'ko ardandegiekin. Badira Aminnee'ko ardo gogorak Tmolius eta Phaneus erregeak berak goresten ditutenak, Argitis txikia, ezta beste ardorik ain iraunkor eta ugari denik. Etzaitut orregatio aipatu gabe utziko Rodia'ko mama, Iainkoek bigarren maian onartzen zaituten ori, ezta zu ere, Bumasta, mordo anpatuduna. Ezin diteke erabaki orde aien mota-kopurua, ezta izenak zenbatu ere; eztago zertan zenbatu gaiñera; iakin nai litukenak, Libia'ko itsasertzean aizeak zenbat ondar-pikor darabilzkin iakin nai izatea bezinbat litzake, edota ontzien gaiñera ipar-aizea sendoen oldartzen denean Ini'ko arkaitzak zenbat olatuk astintzen dituten ezagutu nai izatea adinbat (5).

Ala ere nun-nai ezin diteke zer-nai bildu. Ibaietan saratsak, idoi lokaztuetan aitzak sortzen dira ta mendi arrizuetan zumar elkorrak; idorrean berriz, mirtuak azten dira eta bukatzeko, Bak'ek malda irikiak nai izaten ditu, agiñak berriz, ipar-begi eta otz-begiak. Gain-begiratu bat emaiouzu nekazarien menpean ezita dagoen munduari: sortaldean arabitarren etxeak, baita Gelonitar margoztuak ere, ageri dira. Arbola bakoitzak bere aberria du izan

ere. India'k soilik ematen du ebanu beltza, Sabaitarrek soilik kedats-landarea (intzentsua). Zertako gogoraziko dizkitzut egur-urrintsuek dariten lerdoa eta akezi-ondo beti ostotsuaren pikorrak? Zertako Etiopia'ko ille-guriz zurituta-tako basoak, edota Serestarrek ostoen larru-mintza nola orrazten duten? (6). Zertako zeintzuk diren Indiak itsasotik urbillen dituen oian doneak, munduaren ertzeko kolkoan bertan, arbolak geziek iritxi ez dituten garai-gorak iritxi dituten tokia? Eta alabaiña, iente aiek eztabiltza nagi gezi-ontziak aldean daramazkitenean. Mediak dakartzi urin garratz eta sapore iraunkor-dun igali zoriontsuak (limoiak): eztago oberik gorputzetik berenu beltza irazitako, amorde gaiztoren batek edaria pozoitzen baldin badu azti-belar eta sorgin-itzak naasirik. Aundia arbola, eta ereiñotzaren antzekoa: bestelako usaia emango ezpalu, ereiñotza litzake izan ere. Iñungo aize bolarak ere eztizkio ostoa erazuten; lorea ere tenkorra du. Meditarrek aoko kiratsa kentzeko erabiltzen dute, baita agureen arnas-estua osatzeko ere.

Baiñan ez ain oiantsua den Medoen lurraldea, ez Ganges ederra ezta urre-p"korrez urak arre daramazkin Hermo ibaia ere eztira Italia'kin alderatzekoak; ez Baktra, ez India, ezta Pankaia ere kedats-ondarrez ain aberatsak. Lurralde auek (gureak alegia) sudurretik sua dariten zezenekin etzituten okuntzatu.. iransuge-tzarraren ertzak ereiteko: etziren lastu buru-oskol eta aizta-makillen uzraz, baizik eta galburu iori eta Bak Masik'en edariz bete ziran: oliondoz eta abere gizenez gainezka daude. Emen gudu-zaldia zelaia barrena oldartzen da; emen, oi Klitumne, aitalde txuria eta zezena, opagai gurena, zure ibai donean ukuziak izaten dira erromatarren gurend-egunetan iainkoen templuetara eraman aurretik. Betiko udaberria dugu emen eta uda ere eztagozkion illebet askotxotan; birritan ernaltzen dira ardiak, arbolak ere birritan ematen dute frutua. Eztago katunabar amorraturik ezta legoien azi gaiztorik; irabelarrak (akonituak) ezitu atzipetzen biltzaille errukarriak; eztabil suge ezkatatsurik bere kiribiltzarrak lurretik narrazka. Orrez gainera ainbat iri eder eta lan antzetsu, ainbat gaztelugaitz arkaitz zakarretan gizon-ek eraikiak eta antziñako ormatzarren azpitik ixuriz doazan ibaiak. Edota goi ta be aldetik gure lurra miazkatzen duen itsasoa gogoraziko ote dizut? Ainbat aintzira eder?: zu, Lari, aundiena eta zu, Benaku, itsasoak bezela urmendoiak orruka eraikitzen dituzun ori? Oroituko ote ditut gure kaiak, Lukrinc'ri erantsitako ditxoak (dikeak) eta bertan zaratatsu apurtzen den itsaso aserrea eta itsasoa gainditu ondoren urrunean erots dagian Iulia ibaia eta Avernu'ko errekan ixurtzen den Tirreni'ko erreka? Lur onek berak kuper ta zillarrezko arri-meatzak ostentzen ditu, ta urrea ere oparo ixuri izan du. Ementxe sortu dira giza-iente azkarrak: Marsitarrak eta Sabeli'ko gaztedia, Ligur zailduak, Volskotar azkonlariak; lur onek erne zituen Dekius, Marius,

Kamil eta Eskipion aundiak guduan azkarrak eta batez ere zu, Kesar, guien, Asia'ko Iur bazterrak menperatu ondoren, orain berriki, inditar iskillu gabetuak Erroma'ko mendietatik alderatzen dituzuna. Agur, uztaren ama oparo, Saturn'en lurra, gizurenen kabia: emen natorkizu antxiñako zure egintza garaiak goraiatzera, ta iturri gurenak ausartsuki irikita, Askra'ko poema abestuko dut erromatar iriak barrena (7).

Ona emen, alorren bereizkuntzak aipatzeko tokia: bakoitzaren indarra, kolorea eta bat-bederak berez ekarri dezaken uzta. Lur zaillak eta muiño zakarrak, lur-sasitsu arri koxkor eta buztin pizka batekin naasiak, Palas'en bas-oliondo pizkorrek ditute maite. Izan ere basa-oliondoa Iur orietan sortu oi tía ugari eta aren alez iosita agertzen dira soroak ere. Alderantziz, Iur mardul eta ezotasun goxoz bustitakoetan, landa belartsu ta emankorretan (mendietako sakostetan maiz ikusi oi ditugun ibarrak bezelakoak, aietan bada biurtzen dira arkaitz garaietik errekaetoak buztin ongarria ekarriaz) eta eguterara zabalik goldeak zapuizten duen iratzea ematen dutenetan alegia, matsondo sendoenak, sortuko zaizkitzu Bak'en edaria noizbait, upelka emango dizutenak: ementxe bilduko dituzu mats-mordo antuak, urrezko pateretan ixuri oi dugun edariaren iturri, Tirreni gizenak aldareko eburrean putz egi-tean eta altzar lurrun-iarioak azpil azaletan eskeintzen ditugunean.

Baiñan abelgorriak eta zekorrek zaitu naiago baldin baduzu, naiza bildotsak eta ereintzak erretzen dituten antxumeak, zoaz Tarento oparoaren inguruko baso mearrerara, edota Mantua doakabeak galdu zituenak bezalako landatara, ibai belartsuan kikeak bazkatzen ditutenetara; etzaie, ez orixe, iturri gardenik paltako ezta belar goxorik ere eta abereek egun luzean morroztu-a) berriz ernaraziko du intz ozkirriak gau laburrean.

Golde-muturra errex sartzen den lubeltz gizenak, lur arroak alegia, (lurra arrotu, goldearekin besterik ezpaitugu egiten), onenak dituzu garientzako (eztuzu beste iñungo zelaietan ikusiko ainbat gurdi idi astiroekin etxeratzten); edota nekazari egonarritsuak egurketan garbitutako basoak, aspalditik alegia) orpo-orporik anpor ta guzti erauziaz: txoriak goi-gorantz egaldatu ziren kabiak utzita, luberria berriz, dizdizari dago goldeak urratuta. Pedekarretako lur arnzuek, ozta eman oi dute erleentzako izkaroa (erromerua) eta elar apala: arbel malkarrak eta kelidra beltzez pitzatutako kreta-arriak egokienak izaten dira sugeek soroetan lapurtu uzta goxoak izkutatu eta euren kabi biurriak egiteko. Odei-laiñoak eta ke-mordoak darizkin lurra, ezotasuna edan eta bere naiara iraitzen duena, burnia erdoi zakarrez iaten eztuena eta beti ere aski orlegiz iantzita dagoena, aretxek elkartuko dizkitzu mastia ta zumarrondoa, uraxe benetan olio-lurra eta landuaz ikusiko duzu ona dela

abereentzat eta are obeagoa golde-mutur makurra iasaiteko. Alako lurak lantzen ditute Kapua aberatsean, Vesuvi'ren aldameneko eskualdetan, baita Klanius'en ere, Akerri etzearentzat ain kaltegarria (8),

Orain esango dizut nola ezagutu zenezaken lur bakoitza. Ariña ala gizenegia ote den iakin nai baldin baduzu, (bata garitako ona baita, bestea ardotako; gizena Keres'entzat, ariña Lioo'rentzat, askatzaillearentzat) begi-ukaldi batez, lekua aukeratuko duzu lenengo ta bein, ondoren obi sakon bat eragingo duzu eta bertan sartu-araziko duzu atera duzun lur guztia berriro, ere, gaiñeko ondarrak oiñekin berdinduz. Putzua bete-arin gelditzen baldin bada, lurra ere ariña noski, giberri eta matsondo oparoentzat egokia; gaiñez egiten baldin badu ordea, atera lurrekin, soro trinkoa, nunbait ere: sokil gogor eta lur-lepo gizonak itxaron ditzakezu, idi sendoekin urratu bearrak.

Lur gazia ezagutzeko, garratza deritzaguna alegia, (zorigaiztokoa bihi-landareentzat, landuz ezpaita gozaten, ezpaitu ez Bakus'en ez igalien izen onik zaitzen), onatx ezagupidea: ietxi itzatzu sapaï kedartsuetatik zumezko otarreak eta dolare-baeak eta bete itzatzu lur gaizto onekin, ondoren iturriko ur goxoz busti: ur guztia iraziko da noski eta otarretik tantaka eroriko zumea zear: dastatu ezazu eta saporeak emango ditu ezagupidea: ao txepelenak ere laister okertuko ditu aren garraztasunak.

Orobat, lur apatza zein den, urrengo bidetik ikasi gentzake: eskurik esku iraulka erabilliarren, ezta iñoiz birrintzen atzartean itsatsi baizik, pikea bezala. Lur ezoak belar aundiak alaten ditu eta berez da apatzegia. Oi!, ez ditezela apatzegiak nere lurak eta ez dezatela indar geiegi erakutsi galburuak agertzerakoan.

Pisuak saiutzen du lur aztuna, baita lur ariña ere. Begi ukaldi batez ikusi diteke lur beltza zein den baita bestelako koloretakoak ere. Zailagoa da lurraren otz kaltegarria atematea: lerrondoek soilik, agin-ondo galgarriek eta untzorri beltzak aztarrena eman dezakete noiztanka.

Oriek orrela, matsondo oparoak lantatu aurretik, gomazu ondo egosi bear dela lurra (eguzkitan) eta obi sakonak egin eta ipar-aizetara iarri bear dituzula sokillak. Alorrik onenak lur-xeatu errexak; urrengo lana, aizeari, iñontz izoztuari eta lurak arrotzeko arloak iraultzen dituen nekazari sendoari dagozkie. Ala ere lugin arretatsuek mintegiak egin oi ditute landarak aldatu bearko diren lurren antzeko tokietan, bat-bateko aldaketak lur berria zapuiztu-arazi eztezaïen. Are geiago: zein zeru-alderdiruntz bear duten ere, azalean koxkatzen die bakoitza dagokion lekuan ezarteko; bata egoalde

berorantza, bestea berriz iparrerantza, ain baita garrantzitsua xamur diranetik landarak oituztea.

Muiñoetan aln zelaietan, nun den obeago matsondoak landatzea, orra lenengo galdekizuna. Zelai gizenean arloa mugatu baldin baduzu, landa itzatzu sarri (alkarren ondoan); saman etzaizu urriago izango Bak; alabaiña pedekar mailkatuak edota malda biguiñak aukeraten baldin badituzu, zabal-ki lerrokatu itzatzu; zuzenetara tartetu itzazu arbolak elkar-ebakitzen duten bidexkakin. Gudu aundietan maiz, gudarosre luzeak bere saillak zabaltzen ditu era berean: zelai zabalean alaz egiten du eta burruka-saldoak lerrokatzen dira eta urrunetik lurak borontze dirdaitsuzko ur-zelaiak dirudi; oraindik, baiña, eztira burruka gogorrean asi, ala ere Marti alderrai dabil zalan-tzan gudu-osteen erdian. Izari berdintsukoak bitez bitarte guziak, ez noski ikusiko dituten gogo utsalen pozerako, ezperen lurak eztizkie indar berdiñak matsondo guztiei emango eta matsaienak ere ezingo lirake eguratsean edatu.

Bear bada zuloek zeñen sakon bear duten galdetuko duzue. Matsondoa ildo azaletan landatzen ausartuko nintzake, baiñan aurreratxoago zugaitz bat landatuko nuke lurrean sakon, aritza esate baterako, sustriak Tartaror'aiño barrentzen dituen neurrian adarrak eguratsean goi-gora eraikitzen dituen. Betoz negua, aize zakarra ta euri-erauntsia; eztiote zirkiñik eragingo; geldi dirau, illobaso ta gizaldi askoren sortzea egonean garaturik. Ada; eta beso sendoak inguruetara edatzen dituen bitartean, erdiuneak (enborrak, alegia) itzal aundian eusten dio.

Zure ardantzak ez ditezela sartaldera itzuliak; ez matsondoen artean urraitzik landatu; ez gorengo aienik artu, ezta ere aldaxka garaienik autsi (ain du maite lurra matsondoak), ez ditzazula burni erdoituz altsumak zauritu; ez basa-oliondorik lerro artean ipiñi, sarri bada, artzai aiolakabeek sua uzten dute erortzen, eta ostuka bezala azal-oliotsuaren barnean kokatu ondoren, zur-biotza pizten du eta garrak adar garaienetara ieikitzen dira ika-ragarritzko su-abarrotsean; ondoren arbastarik arbasta, adabururik adaburu, garai ateratzen da eta beresi osoa surtan iartzen du, ke-mordo beltzak zerura eraikiaz, batez ere ekaitz-erauntsiak baso-txokotik aizeak puztuz erre-keta areagotzen duenean. Ondoren mastiek indarra galtzen dute; alperrik iñausiko dituzu, ez dira, len bezela, orlegi lur sakonetik berpiztuko; zorigaiz-toko basa-oliondoa bakarrik ieikiko da bere osto garratzekin.

Iñungo aolkari denik zuurrenak ez zaitzala bildu Boreak (neguko aizeak) putz dagienean lur ormatua iraultzera. Neguak orduan izotzarekin itxita dauzka soroak eta landarak ipiñi arren, erro izoztuak ezin du lurrik artu. Uda berri gurrixka mastiak landatzeko giro egokiena, egazti zuria, suge luze

ondo aseta, berriro datorrenean; edota udazkeneko lenengo otzaldiak, eguzki lasterrak bere zaldiekin negua ukitu orduko, uda-ondarrean alegia,

Udaberriak iazten ditu ostoeekin oianak, udaberriak basoak apaintzen. Udaberriz lurra antutzen da eta azi sortarazleak eskatzen ditu. Orduan Eter aita aloroduna euri ioriarekin batera bere emazte ernankorraren magalera ieisten da, eta besarkada extu batean aren gorputzarekin naasita, aziak oro ernaltzen ditu. Orduan beresi baztertuak ere txoritxintaz betetzen dita eta abrreek, egun ezagunetan, Venus billatzen dute. Erdi-miñez dago ama lurra, eta Zephir'en arnas epelera, bere magala zabaltzen du; gaiñez egiten dio izerdi samurrak, eta ustez beterik, ernemiñak azaltzen dira eguzki berritan; mats-aiena ezta Egoaren beldur, ezta ere Iparrak zerutik igortzen dituen euri-erauntsiena; aitzitik, pipilak lertuz ostoaak oro zabaltzen ditu. Alako-xeak bide ziren, nik uste, munduaren lenengo sortzea argitu zuten egunak ere; udaberriko zegoen bai, udaberriko lurbira guztia; Euru'k negu-aize izoztuak bilduta zeuzkan, lenbiziko abereek argia edan zutenean, lurretik sortutako gizonek alor gogorretik buruak ilki zitutenean, piztiak basoetan eta izar-mordoak zeruetan zabaldu zitutenean. Izan ere sorkari xamurrek ezingo zuten alako nekerik egari, bero ta otzaren artean ain pake luzerik izan ezpazen eta lurak zeruko errukia beretu ezpalu.

Gaiñerakoan, lurrean landatuko dituzun altxumak oro sats gizenez si-maurtu itzatzu, ta ondo gogoratu lur ugariz estali bear dituzula: eortzi itzatzu lurpean arri egartsuak eta maskor ximurrak ere, aien tartetik ura ixuri eta aize piña sartu dedin landarak pizkortzeko. Badira arriz eta teilla aundiz arloa estaltzen dutenak euri-iasen eta lur-egartsua pitzatzen duten sargorien babesgarri.

Landarak ipiñi ondoren, maiz lurreztatu bear dituzu matsondoak, bai laia gogorak erabilli edota soroa landu golde-muturrarekin, zezen soraioak masti-lerrotartean beartuz; ondoren xeska legunak, abar xurituak, lizar m-killak eta urkulu sendoak iarriko dituzu matsondoak aietan gogor itsasten oitu ditezen, aizeak egari eta mailka zumar garaietara igo ditezentzat.

Lenengoz osto-berritzen ari direnean ez landarerik ukitu, xamurregiak baitira; pozez gaiñezka aienak aizetara eraikitzen dituenean eta ugalak aske eguratsera dioazenean, ez ala ere oraindik iñauskaiz moztu; atzazkalekin ostoa kimatu ezazkiotzu. Alabaiña aldaska sendoekin zumar-garaiak besarkatzen ditutenean, adatsa moztu ezaizue, baita besoak ebaki ere: lenago burniaren beldur ziren, orain berriz, zeure almen guztia erabilenezake geigizko abarrak iñauzteko.

Esiak ere egin bear dituzu eta abereei eutsi batez ere mastiak erne-berri daudenean, geroagoko nekeen ardura gabe; eguraldi txar eta eguzki beroaz gainera, basidi ta auntz zitalek lardaxkatu oi dute, eta bazka atsegiña izan oi da ardi ta bigantxa gosetientzat ere. Ez negu gogorrek bere izotz zuriekin, ezta arkaitzak kixkaltzen dituen uda ezтира artaideok bezin kaltegarriak mastientzat; aien ortz zitalak, aien koxkada mats-landaretan. Orra zergatik akerrek il oi dituten Bak'en aldare guztietan, orra zergatik antxiñako iokoak antzokietan agertzen dituten, eta Thesee'ren ondorengoek ere gizon argientzat sariketak antola zituten erri, baserri eta bide-buruen inguruan belar gurian, zaragi gantzutuen gainean iauzika ibilliz txurrut-artean. Ausoniarrek ere, Troa'tiko iendeak alegia, bertsu zakarrekin eta parre-algaraka iostatzen dira; zugaitz-azalakin egindako mozorro bildurgarriak iartzen ditute, zuri Bak orri, ots egiten dizute poema alaiekin eta zure goratzarrez buziñazko iduriak esegitzen ditute ler-ondoetatik. Orduan mastia edonun mardultzen da, ibar sakon ta oian zolak betetzen ditu, iainkoak (Eak'ek) bere buru agurgarria biurtu duen toki guztietan alegia. Oiturari dagokionez, beraz, Bak govaipatuko dugu asaben kantu zaarrekin, opillak eta edariak eskeñiko dizkiogu eta adarretik elduta zutik egongo da Aker sakratua aldare aurrean eta aren altzar guriak urritzezko gerrenetan erreko ditugu.

Bada mastientzat ardura aundiko lan bat, iñoiz ere bukatzen ezten lana: urtero, iruzpalau aldiz soroa aitzurtu bearra ta atergabe sokil io-bearra, baila ostoak kimatu bearra ere. Inguruko bezala etorri oi da nekazarien lana, ta urtea ere lan orren aztarrenetan mugatuta ibili oi da: mastiak bere osto nagiak erantzi dituneko eta Ipar izoztuak basoak billoiz-gorri ipiñi orduko, lugin azkarra datorren urteak arduratzen du eta Saturn'en ortz kakotua (sega, alegia) eskuetan artuta, gogoz ari da mastia murrizten eta iñausiz moldatzen. Aurrena izan zaitez lurra aitzurtzen, urrena baztertu aienak erretzen, aurrena zurkaitzak tegietan batzen, azkena ordea matsa biltzen. Birritan izan oi dira itzaltsuegi mastiak; birritan ian oi ditu belar gaiztoak sasi usuekin; bi-biak lan gaitzak, Goraipa itzak alor aundiak, txikitxoak landu ezak ala ere. Ondoren erkalatz (ruscus) zigorrak basoetan eta ur-sesakak ibietan ebakitzen dira eta basa-sarastia arretaz lantzen du. Orra matsondoak lotuta, orra iñanskaiak pakean geldi, orra masti-iabea, nekeak bukatua, ardantz buruan kantari. Ala ere lurra saratu bear da, apurtu ta dagonetik Ioberen beldur bear dute mats-mordo zorituek.

Alderantziz, oliandoek ez dute alako landu bearrik: aiek eztaude iñauskai makurren zai eztare aitzur gogorren, beingoan lurrean tinkatu ta aizeak ere egari ditutenez gero. Aski lur aitzurtua bera, landereei ezotasuna ema-

teko ta goldatu ondoren uzta beteenak ekartzeko. Landu ezazu, beraz, Pakezalea den oliondo guria ere.

Igali-ondoek ere, beren indar eta enborren sendotasunez iabetu orduko, izarretara eraikitzen dira berez gure laguntasunik gabe. Era berean, basoak ere edotariko igaliz abailtzen dira ta landugabeko txoritokiak (arbolak, alegia) odol-kolorezko bihez gorritzen dira: Kitisak (?) (erratzak) morroztan dira eta baso sakonak zuziak dakarzki, argitasuna dariten gau-suen errekaia. Eta zalantzan oraindik ere arbolak landu eta landatzeko?

Zertan ari naiz aundienak soilik aipatzen? Saratsak, iñar apalak, auek artaldeentzat ostoak eta artzaientzat itzala ematen dute baita ereintzetarako esiak eta eztigaia ere (erleentzat). Atsegiña benetan Kitore ezpilondoetan kulunkatzen ikuslea eta Narikiun'go illarra dakarten oianak; atsegiña baita ere burniareak iñoiz ikutugabeko ta gizonen mendean iñoiz izan gabeko arloak ikustea. Kaukas xoko bazterrean, Euru aizetsuak maiz astintzen dituen igali gabeko oianak ere, zerbait ematen dute: ontzigintzarako lerron-doa, eta etxegintzarako izai eta nekostak; andik ateratzen dira gurpil-izpiak eta gurpil beteak gurdientzat, baita txalupentzat tillape txilbortuak ere. Saratsak mimenak ugari, zumarrak ostoak, mirtuak zigor sendoak, zuandorra berriz gudurako onena; aginondoak Iturea'ko arranbel biurtzen dira. Ezki ariña edota dormían moldatu ditekenez ezpela, landu errexak dira burni zorrotzarekin; Po'ra iraitzi altz ariña, igeri doa ur lasterrean; erleak berriz, zugaitz azaletan eta arte ustelaren zuloan izkututzen ditute erlauntzak. Oien aldean, zer oberik ekarri digute Bak'en emaitzek? Bak'ek gaizpiderako aitzaikiak eman zituen; berak amorrarazi ta uztarpera zituen Kentauroak, Rhoeus, Pholus eta mendi-akalde zabaletik Lapitarrei zemaika zegoen Hyleus.

Doatsuegiak benetan nekazariak, euren ondasunak ezagutuko balitute! Gudu-liskarretatik urruti, lurrak, zintzo aski, berez dakarkie azkurri oparoa. Ate arroz ornitutako etxe aundirik ezpadute ere goizean irikitzen diranean taldeka agurlari aretoetan sar erazteko; naizta miretsi ez ezkata ederrez apaindutako atalarririk, ez urrezko oialik, ez Ephire'ko borontzik; naizta iakin ez artille zuria Asiri'ko zitalean tindatzen ezta ere olio garbia kanela-utsez andeatzen, ala ere pake osoa dute, inizur gabeko bizmodua, ondasun ugariz aberats; ikuspegi zabalak, artzuloak eta urmael biziak, ibar ozkirriak, idien muukak eta itzalpean ere lo kuluxka goxorik etzaie palta. Antxen oianak arkitzen dira eta basa-piztien egoitzak, baita gaztedi gartxu eta langillea ere, iainkoen iauresle eta gurasoen maitale: ementxe utzi zituen noski Zuzentasunak bere azkeneko oñatzak lurretik igesi foan zenean.

Lenen eta bein, ni beintzat, ar nazatela Musa atsegiñak, nere kutunak, euren zantzu gurena daramadan au, eta irakats bezaizkidatela zeruko bideak eta izar-mordoenak, eguzki-illargien askotariko artillunak, nundikoak lur-ikarak, nungo indarrez itsasoak antutzen diren eta beren esiak apurtu ondoren nola lenera biurtzen diren berriz ere; zergatik ibilli oi dan ain azkar Neguko Eguzkia itsasoan murgiltzeko, edota zerk eusten dion gauari ain astiro ibiltzeko. Izadiko gertakari auetara urbildu ezin banendi ere biotz-inguruan dabilkidan odol otza bide dala, baserriak eta ibarrak ureztatzen dituten errekek beñipein atsegin bekizkit; maita ditzadala arrokeri gabe ibaiak eta oianak. Oi!, nun dira landak eta Esperkius eta Teigete bakiar birgin-taldeekin. Oi!, nork lemaidaken Heni'ko zelai ozkirrietan adaburu itzaltzuean etzatea.

Doatsua gauzen zer-nolak ezagutu litukena eta Alabearraren, Akeront asegaiztaren erotsa eta beldurak oro oinazpiratu dituen. Baita ere doatsua, basoetako iainkoak ezagutu dituen: Pan, Silban agurea eta Ninpa aizpatxoak. Alakoa eztute makurtuko ez erriak eman agintaritzak, ez erregeen purpurak, ez fedegabeko anaiek elkarri oldartzen dituen liskarrak, ez Histro gorpiztutik ieisten den Dakus'ek; ez Erromako arazoez ezta erreinu ilbearrek ere; Ark eztu ezeukirik errukiz deitoratzen ez eta aberatsik bekaitzez begiratzen. Zugaitzetako igaliak eta lurrak berez dakarrena billatzen ditu, legearen gogortasuna, auzitegiatoko txorakeriak edota erriko paperzartegiak inoiz ere ikusi gabe.

Zenbait itsaso itxuan oldartzen dira arrauketan eta burrukan naasten, epaitegiak eta erregeen tegiak bortxatzen ditute. Ark erriak eta sukalde errukarriak birrindu nai lituke istarrizko edontzitik edateko eta Sarra'ko purpurartean lo etzateko; urliak ondasunak izkututzen ditu eta urrea lurpean estaltzen du; sandia, txorabilduta, ontzi-brankari (rostris) begira dago; berendia ao-zabaiik, errixumearen mailatatik asi eta senatoreen mailataraino bikoiztuz dioan txalotsarekin; badira anai odolarekin pozten diranak, etxeak eta sukalde goxoak erbesteagatik aldatzen ditutenak beste eguzkipetan aberria billatzeko. Nekazariak berriz, lurra iraultzen du golde-makurrarekin, urteko lanari, aberriari eta illobatxoei eusteko baita idi-talde eta ain onurakor zaizkion zekorrei ere; eztu atsedetik urtea udarez (igaliz) gainezka, aberez iori, Keres'en lastoz ildoak aztun eta mandioak beterik ikusi arte. Negutean Sikion'eko alea (olio-arana) dolarean lertzen da; urdeak ezkurrez aseta te-giratzen ditute, basoek gurbiz-aleak dakazkite; udazkenak askotariko igaliak ialkiarazten ditu eta garaikaldeko arkaitz epelean mats-mordoak eldu-urran daude. Anartean aur maiteek aitaren lepotik zintzilika, aren laztanak biltzen ditute; etxe garbia, garbitasun biurtzen da; bei-errapeak esne iario daude

eta belardi gurian antxume gizenak iolasean ari dira elkarri adarka. Berak (nekazariak alegia) jai egiten du; belarrean etzanda, lagunek suaren inguruan bilduta edontzia koroitu bitartean, zuri, ots egiten dizu Leena orri, ixurketa egiñaz eta ondoren artzai-maixuak biltzen ditu azkon iraizketarako, lizar bat iomuga, eta gorputzak billoiztuta lugin arteko norgeiagoka ospatzeko.

Orra antxiñako sabindarrek zeramaten bizitza, Remu'k eta aren anaiak; ala azi zen sendo Etruria, ala Erroma gertatu zen munduko ederrena, zazpi muno esi baten barruan arturik. Dirteek errege-zigorra iaso aurretik eta gizenda gaizto bat idiak erail eta iaten asi baino lenago, alako bizimodua zeraman Saturn'ek lurreean, urre-geraian. Ikasteko zeuden oraindik adarretan (turutetan) putz-egiten eta ingude gogorretan egindako ezpatak zartatzen ere.

Bañan guk bide luzea egin dugu zelai zabalak barrena; garaia noski, zaldien lepo lurrun-iarioak txalmapetik lasatzeko.

OARRAK

(1) Bak zen mastietako iainkoa baita igali-ondo guztiena ere. Matsondoa eta oliondoa ziren Mediterraneum'eko lurraldeetan zuaitzik aipatuena,

(2) *Aesculus* eta *quercus* neurtitz berean 'agertzen dira; ezтитеzke, ordea, erreze bereizi. Pliniu'k bost arte ala aritz mota aipatzen ditu: *robur*, *quercus*, *aesculus*, *cerrus*, *ilex* elkarren artean bereizteko oso zaliak aren azalpenak gora-bera. Dodona basoko zuaitz-iztunak aritzak ziran noski. Ala dio Garate iaunak «*Cultura Biológica y Arte de Traducir*» Buenos Aires, 1943, 161 or. liburu ernagarrian gai ontaz egiten duen iker-saio iakingarrian.

(3) Ismare-mendiko ardoarekin mozkortu zuen Ulise'k Kiklopa. Taburnu berriz, Sammium'go mendia, oliondoz ugaria,

(4) Kaoni'ko launa, Iupiter alegia, Dodona'n gurtua.

(5) Emen aipatzen dituen ardoak, ezagunak ziren latindarren artean eta garai artako idazleek, Pliniu'k esaterako, amabost ardo-mota izentatzen dituzte.

(6) Etlopiako *ille zuriz* zuritutako basoak; algodoi-landarak alegia, Serestarrek, *sesta* ostotetan biltzen zutela uste zuten garai artan.

(7) Askra'ko Poema, Hesiodo'ren «lan eta egunak» alegia, Askra'n iaioa baitzen olerkari ori.

(8) Agi denez, Klarius ibaiak kalte aundiak egiten omen zizkion Azarri uriari, gainez egiten zuenean.

IRUGARREN LIBURUA

Abereak

LABURKIA: Pales ela aberetaldeen iainkoei deia. — Gai berri onekin garaitu uste du olerkariak; garaile tenplu bat eraikiko du eta Kirol-norlenkak ospatuko ditu Printzearen omenez. Mekenas'i dei, berriz ere.—Abelgorriak. — Ugalketarako nola bigantxak aukeratu.—Arrak nola aukeratu. Ar eta erneak nola zaitu, elkartu aurretik. Emanak nola zaitu. Listorrengandik nola babestu.—Iaio-berriek bear dituten ardurak.—Goldaketarako zekorrak nola ezi.—Zaldiak nola ezi. Zezenak aultzen dituen maitasunetik aldendu bearra. Maitasunaren indarra.—GIBERRIAK: Sail ontan sortzerakoan olerkariak dei egiten dio berriz ere, Pales'i.—Ardi eta auntzen eskortak; auntzak onuragarriak dira.—Artaldeak bear dituen ardurak neguz eta udaz.—Libiako artzai nomadak.—Eskitiarrak aldiz, etxekoi, negu-gau luzean. Artillea.—Esnea eta gaztaia.—Eiza-zakur eta zain-zakurrak.—Sugeekin burrukan. Ardien eritasunak nola menderatu. Timabe eta Norika betiko ondatu zituen izurritearen berri.

Zu, Pales aundi, eta zu, Anphriso ertzeko artzai gomutagarri ori, gorai-patuko zaituztegu, baita zuek ere Likei'ko ibai eta oianak. Gainerako guztiak, gogo-urriak nolarebait bertsuz xoratu ditutenak alegia, aski zabal emanak *han* dira: Nork eztitu ezagun Euriste zakarra eta ospegabeko Busiris' en aldareak? Nork goraiatu ez Hylas gaztea, Delos'ko Latoni, Hipodami eta eburrezko bizkardun Pelops zaldilaria? Ni ere, lurretik iaso eta giza-aoetan garaile ta egalari erabiliko nauen bidetik saiatuko naiz (1).

Lenengoa izan nai nuke, biztaldi aski luzeak laketzen baldin badit, Aoni' ko (2) gaindegietatik nere errira Musak eramaten; lenengoa Idumea'ko palmadarrak zuri eskeintzen Mantua; eta zelai muskerrean marmorezko tenplua eraikiko dut ur-ondoan, Minkius ibaiak itzul-inguruka seska xamurrez apaintzen dituen ibietan. Templuaren erdian Kesar ezarriko dut zaindari. Arentzat, garaile ta Tiro'ko purpuraz iantzita, lau pertikadun (kuadriga) eun gurdi lasterka iarriko ditut ibai ertzeak barrena. Eta nere otsera, Alpheu eta Molorkus'en beresiak aldebat utzita, Grezia oso-osorik lasterketetan eta saski-ioko norlenkan leiatuko da. Neronek eramango ditut opariak burua olio-abarrez esita. Dagonetik dirudit ari naizela iauretxeetara ibildeunak gidatzen eta idi-lepo-egiñak ikusten ere, baita ikuspegia nola agertu ta suntsi-

tzen den eskena-barrenaldean, purpuraz eiotako oialak Breiztarrek iasotzen ditutenean. Ate-ataletan Gargaritarren aurkako guduak eta Kirinus garaillearen armak eta ebur gogorrez kolpoztuko ditut, baita Ni indartsu ta urtsua ere gudu-ontziz iñarrozia ta aldamenean ontzietako borontzez egindako zutabeak, Asian menderatu iriak geituko dizkiot; Ninphate kordokaturik, igesi dioan Partiar siñisbera atzekaldera geziak iraitzika, lur ertzetako etsaiei eskuetatik kendutako trofeu biak eta mundako bazter bietan iarixi garaita bikoitza. Gaiñera, zutik, Pharos'ko arriak, irudi biziak, Asarakus'en oiñordekoak, Iobe'ren leiñu aintzatsua, Troa aitagoia ta Kintiu Troiarren iraslea. Gorrotoa berriz, ondatuta, Furien, Kokiti ibai itzaltsuaren, Ixion suge-kiribildunaren, gurpil izugarri eta arkaitz mendekaitzaren aurrean izu-ikaraz dardar ipiñiko dut (3).

Artean goazen ikutu gabeko Driaden oian eta argiunetara, zuk agindu bezala, Mekena, maiz agindu ere. Zu gabe, gogoak ezin dezake ezer garairik erne. Ea, bada, labur moztu itzatzu luzapen nagiak: Kitheron ari zaigu aldarrika, Taigete'ko zakurrak eta Epidaurus zaldi ezlea ta aien oiua, oianek bikoiztuta, orruka ari zaigu. Laster ala ere lotuko natzaie Kesar' en gudu-aldiei, aren izenaren ospea Titon eta Kesar'en artean ixuri diren urteak adinbat luzatzeko.

Norbaitek Olimpiar-iokoetako palma-sariz txundituta zaldiak bazkatzen al ditu, edota goldaketarako idi-koxkorak? Dana dala, gorpuzkera oneko amagaiak aukera bitza arduraz. Bigantzarik onena, betoker, buru zakar, lepa sendo ta kokotz-azpia aztaletaraiño zintzilika daukatena; alderdiz, luze; dena aundi, oiñak ere; adar- apalen azpian belarri illetsuak ditutena. Atsegin zaizkit orban zuri aundidunak, noiztanka adarkari, uztarri-egari eziñak, zezen arpegikeradunak; alde orotarik garaia, dabilenean isatsarekin oiñatzak astintzen ditutenak.

Lukine ta Himen aldiak onez egari dezaken garaia amar urte bete (4) aurretik bukatu eta lau urterekin asten da; beste garaietan eztira ernalketarako on, eztare goldaketarako bear bezin sendoak. Aldi orretan, abere taldeak gazte diran bitartean alegia, arrak lasatu itzatzu; aurrena izan zaite abereak Venus'ganatzen, ernalketa bidez ondorenka izan ditzazun. Giza-ilkorrei ere egunik onenak lasterren iges egiten die; ondoren eritasunak, zartzaro trixtia ta lorrak datozkie ta errukigabeko erio gogorrak atzematen ditu. Beti izango dituzu aldatu bear dituzun amagaiak; atergabe ordezkatu itzatzu, galdu ondoren damutu eztakizun; urtero aukera itzatzu abere gazteak taldea berrizteko.

Ardura berdiñez aukeratu bear dira zaldiak ere. Gazte diranetik arretaz zaitu eta landu itzatzu ugalketarako aukera dituzun zaldiak. Bereala zaldi gazte Jatorra alorretan barrena sartzen da belaun biguñak bildurik. Aurrena bidez ibiltzeko, ugaldea igarotzeko, baita itsaso ez-ezagunean sartzeko ere; eztu zalapartak izutzen. Lepoa zutik, burua zorrotz, sabel-me, lepo gizen eta bular arnasatsu mardula. Ederrenak gorri ta urdintsuak, itsusienak berriz, ori ta zuriak. Gaiñera, gudu-adarrak urrunean ots-egin duneneko, eztu egonarririk; belarri-ikara eta zain-ikara dabil eta irrintzika sudurretan bildu sua sudupilletatik dariola. Illepil arroa astintzen duenean eskuiko lepaldera erortzen zaio; apatxakin lurra urratzen du azkazal gogorra baitu, ots gogorra ere egiten du. Alakoa zan Polus Amikeles'ek ugalekin ezi zuen Kilarus; alakoak Grezi'ako olerkariek aipatzen ditutenak; Marti'renak alegia, biñaka uztartuak eta Akiles aundiaren gurdi-zaldiak. Era berean Saturni'k ere, bere zaldilepo gaiñean illepilla iñarosten du emaztea datorkionean, eta irrintzi zorrotzarekin Polion-mendi bete zuen igesi zioala.

Zaldi-guraso ori ere, eritasunez makal eta zaarrez aul denean, ukulloan gorde ezazu aren zartzaro ez ain ospegabeari barkatuz. Zaarregi baita otzegia ere da Venus'en lanetarako, naikari antzuetan alperrik luzatuz: eta noiz-bait, gainkatzera iristen baldin bada ere, lastozko sua irudi gartsu baña indar gabe, alperrik oldartzen da. Garaiz oartuko dituzu beraz, aren berotasuna eta adiña, baita beste zernolak ere, aren iatorria eta nola bat bedera garaitarekin pozten edota garaitua denean mintzen den. Ez al dituzu ikusten zelaietan barrena nola oldartzen diran lasterka gorrian tegietatik gurdiakin atera ala, gazteak itxaropenez zoro eta irabaz-griñaz biotzak taupadaka dauden bitartean? Ok (gazteak alegia) zaldiak zaaro okerrez zirikatu, eta aurrekaldera makurtuz, ugalak lasatzen dizkie; gurdi-ardatza egan dioa indarrarekin berotuta; aldiz apal, aldiz gora-goraka zabaldiak barrena eguratsa zear eramanak dirudite: ez arterik, eztare atsedunik; ondar orailezko edoia eraikitzen da; darraizkienen arnas eta aparrarekin bustitzen dira: orren maite dute aintza, orren aundia baita irabaz-irrika.

Erithonius, lasterkan garaille, ausartu zen lenengoz lau zaldi gurdi bati lotzen eta gurpillen gaiñean zutik irauten. Pelitroniun'go Lapitarrek, zaldi gaiñean iarrita, zokoak ipiñi zizkien eta itzul-inguruak egiten irakatsi zien, eta gudu-zaldunei ere zaldiak iauzi-arazi eta lauoinka erabiltzen. Lan gaitzak biak; bietarako zaldi gazte, bero ta lasterkaria billatzen dute maizuek, naizta besteren bat beti ibilli igesi doan etsaiari iazartzen edota iatorriaren arrokeriz Epire ala Mikenaskoa dela esan eta Neptun'enganaiño bere leiñua iaso (5).

Oriek orrela, gerturik bear du garaia urbiltzen denean eta ekiñalak egin bear ditu saldo-buru diteken arra gizentzen; belar guriak moztuko dizkio, ur gardenetan eradan makal agertu eztedin bere lan goxoan eta aitaren baraurik semeetan agertu eztedin. Erneak, berriz, berariz argaldu bear dira eta atsegin ezagunak elkarganatzea eskatu ala, ostoa ukatu bear zaio baita iturri garbia ere; maiz, lasterka erabili oi ditute ta eguzki galdatan nekarazten ditute, larraiñak gari-iotean larri ots dagienean eta aizeak lasto ariñak biraka eraikitzen dituenean. Ori egin oi da gantzu geiegiz umontzia elbarritu eztakien ezta alozak antzutu ere; ernea Venus'en egarriago eta aren baitan barrenago sartu dedin.

Arren ardura utzi ba.ikoz, onatx berriz ere emeekiko arretak. Ernari dauden garaian, azke dabiltzanean, ez ditzala iñork ere uztarpetuta gurdi astuna erabiltzera beartu, ezta bideak iauzika igarotzen; ez ditezela lauoinka belardietan ibilli, ezta ere igari ibai lasterretan. Basoetako argi-unetan bazkaru bear dira, ibai zabal beteen ertzetan, goroldia ta aski muskerra azten diren paraheetan, arzulo estalpe eta arkaitzen itzalpean.

Bada Silari ta Alburno'ko basoen inguruan, lizarrak ostotsu diran tokian, eltxo egalari bat erromatarrek *asilus* esaten diotena grezitarrek berriz *aestros* (listorra); latza, furrundari garratza, oianetatik artalde osoak ikaraz uxatzen dituen; aizea muuka itunez betetzen da orduan, baita oianak eta Tanagre legorren ertzeak ere. Mamutx itsusi ori noizbait Iunoen gorrotoen eskupeko izan zan, Inakus'en alaba bigantxaren ondamena erabaki zuenean alegia. Xomorro ortatik abere ernariak aldenduko dituzu, eguerdiz batez ere, orduan baitira beroarekin kaltegarrien; eguzkia ieiki ala edota izarrek gaua dakartenean bazkatuko dituzu abere taldeak.

Erdi ondoren kumeetan iarri bear duzu arreta guztia; bereala iabearen xakia burni goriz ezarri bear zaie ta bertan bereiziko dituzu ugalketarakoak, aldareetan opaltzekoak ta lurra irauli eta zelai legorak okuntzatzeko erabiliko dituzunak. Belardi gurietan bazkatuko dituzu lur-lanerako aukeratu dituzun zekorrek ez, beste abere guztiak; gaztetandik zaildu itzatzu, adiñez xamur eta iraurriz malgu-errex diran bitartean. Lenengo zumezko oboak lepo-inguruan iarri izkiezu, geiegi estutu gabe, ondoren, len iarei ziran lepoak menpetasunera oituz gero, benetako lepokoak ipiñi ezazkiezu zekorrei, biñaka uztartu izatzu ta urrats berdiñetan ibiltzera beartu ta lur-azalean baizik aztarrenik uzten ez duten gurdi utsaz erabil-arazi izkiezu; geroago pagozko gurdi-ardatzak egin dezala negar lor aztunpean eta borontzezko endaitzak erakar ditzala gurpil biak. Anartean, zekor ezigabeok, belarrez, sarats ostoz eta ur-belarrez ez ezik, zere eskuz ereintzetan bildu gari-belarrez ere

Iarratuko dituzu; gaiñera bei erdi-berriek ez dizkitzute kaiku txuriak soilik esne apartsuz beteko, gurasoen garaietan bezela, baizik eta errapeak zearo uxtu dezazkien kume gaxoei utziko dizkie.

Baiñan gudu eta gudari-talde zakarrak maite baldin badituzu edota naiago baldin zaduzu Pisa'n, Alpheia ibai-ertzean gurpillak irriztatu eta Iupiter'en basoan gurdiak egan erabilli; lenengo ta bein burrukalarien garra ta iskilluak ikusi bear ditu zaldiak, adar-otsak iasan eta gurpillen azotsa; ukulluan berriz, aokoen otsa. Ondoren gero ta geiago poztu bearko du iabearen txerakin eta lepoan egiten dizkion txalo-otsekin. Amaren ugatzetatik erauzi ala oitu bedi orietara, berez makurtu dezala burua *tokare* malguetara, naizta oraindik aul eta izukor izan eta urteen berririk iakin ez. Iru urte bete ta laugarren udaldira iritxi baikoz, inguruka ibiltan asi bedi eta urrats neur-tuz lurrari ots-eragiten; aztalak aldizka kakotzen, nekez bezala; eta bereala aizea arrotu dezala lasterka eta zabaldietan barrena egalari, iarei, ugal gabe bioa ondar gaiñean azterrenik ozta utziaz. Ipar aize indartsua alaxe oldar-tzen da goizaldetik Estikia'ko ekaitzak eta euri gabeko odei legorrak saka-banatzuz: orduan ereintzetako uzta garaiek, kulunka, aize biguiñaren putze-ra ikaratzen dira, baso-gaillurrek abarrots dagite eta olatu luzeek itsas-ertrea astintzen dute. Era berean zaldiak izerdi ta apar odoltsua-iario ekingo dio Elide zabaldietako io-muga iristeko, edota buru makur, Belgika'ko gur-dia karriatu naiago izango du. Ezi ondoren emaezu zaldale guri azi ta gi-zendu ditezten, ezi-aurretik bada arroak dira txit eta menderatuta ere ez lukete zaharo zaillurik egariko ezta aztal-ziztaillu gogorrik ere.

Baiñan idi ta zaldiak, bat-bederak nai litukenak, are sendoagotzeko bide-rik onena, Venus eta maitakeri itsutik alderatzea duzute. Orregatik bada ze-zenak urruti eta bazkaleku bakarretan iartzen ditute mendi eta ibai zabalen bestekaldetik, odota ukulluan edukitzen dira ganbela beteen aurrean. Erneak ikusiaz bada, indarrak apurka-apurka akitzen zaizkie, basoak eta belardiak ere ahanzten ditute aren zirikada goxoekin eta maitari arroak elkarren artean, adarka, burrukan jarten ditu. Orra bigantxa ederra Sila zabalean bazka-tzen; zezenak, aldikal, elkar zaurtzen asten dira; odol beltza darite; ada-rrak gora, talka oldartzen dira muuka izugarritz baso ta Olimpu urrunari oiarrots eragiñaz. Eta burrukariok eztira ukullu batean berriro bilduko: bata, garaitua alegia, urrunera dioa barruti ez-ezagunetara arrotz, bere alkea luzaz deitoratuz; garailleak egin dizkion zauriakgatik, baita ere galdu eta mendeka ezin duen maitagarriagatik ere. Eta begiak lengo ikullura usu itzu-liz, arbasoen erresuma bertan bera uzten du. Arrezkero ezta beste ardurarik bere indarrak nolerebait erabiltzekoa baiño; iñaurri gabeko arkaitz gogorren

artean etzaten da, osto latzak eta zarmuka minkaitzak jaten ditu; gorroto guzia adarretan biltzen du, zuaitz-enborren aurka oldartuz; bere ukaldiek in aizea inarosten du ta lurra ere astinduz burrukarako gertutzen ari da. Gero, indarrak eta kemena bildu ondoren, zelaietan barrena dioa buru-makur, aantzita ere dagoen etsaiarengana, itsasoaren erdian zuritzen asten den olatua bezelatsu; are luzeagotzen da eta magalarrotzen ur-zelaitiko indarrez eta iraulka legorreratzen denean izugarrizko abarrotsa egiten du arkaitzen artean; ala ere ugiña irakiten dago tulunbio sakoneraiño, ta ondar beltza iaurtitzen du azalera.

Gizon, pizti, arrain, artalde eta egazti nabarrak, ots, bizidun mota guztiak sutu ta zorutzen ditu: berdiña maitasuna, guztientzat. Ezta beste garai batean leoi-emea aserreago zelaietan alderrai ibiltzen kumeak bertan-bera utzita; artz itsusiek eztute inoiz ainbat sarraski egin oianetan barrena; orduantxe ankerren basurdea eta katamotza gaiztoen: zorigaiztokoa Libia'ko desertuan orduan galduko litzakena! Ez al duzu ikusi zaldiaren gorputza ikara, usai ezaguna sumatu ala? Orduan ez dute geldiaraziko ez gizonek ugalekin eta zaharo latzekin, ez arkaitzek, ez errekatzotek ezta ibaiek ere, naizta ugoideak mendi-zatiak iraulka eramane. Sabeli'ko basurdea bera ere, uzarka ari da, ortzak zorrozten ditu, oiñekin lurra urratzen du, saietsak zuaitzetan igurzten ditu, eta an ta emen bizkarra gogortzen du zauriak iasaiteko. Zer besterik egiten du gizon gazteak ere maitasun goriak ezur-muiñak erretzen dizkionean? Ekaitz zakarrez naasitako gau itsuan, berandu, ugoideak igarotzen ditu igeri; eztiote atzerarik eragiten bere gainetik ostoska ari zaizkion zeruko ate larriek, ezta arkaitzean apurtzen diren ur-zurrumilloen abarrotsak; ezta guraso errukarrien oroitzapenak geldi-araziko, ezta, bere ondoren, erio lazgarriz ilko den neskatxarenak ere. Eta zer esan Bak'en lakoin nabarretaz, otso mergatz eta zakurretaz? Zer alako burrukak sortzen dituten orein paketsuetaz?

Beorren berotasuna denetan gartsuena, noski; Venus'ek berak eman zien gar ori Potkie'ko behokak launaka uztartuta Glaukus'en lo-adarrak beren masail-ezurrekin zatitu zituten garai artan. Maitasunak Garganus eta Askanius zaratatsuaeren bestekaldera erakartzen ditu; mendiak gainditzen ditute, ibaiak igari zearkatzen eta berala, griñaren garra euren ezur-muiñetan piztu-ala (udaberriz batez ere, udaberriz sartzen baita berotasuna ezurretaraño) zutik iarten dira arkaitz gainean Zephir'en aitzinean aize ariña atsartuz, eta maiz, arrigarria benetan, aizearekin soillik ernari gertatzen dira bestelako ukitu gabe. Eta igesi ioan doaz arkaitz eta amildegiak barrena, ez Ipar eta cguzki-sortaldera, Ego ta Kaurus aldera baizik, edota euriz eta otzez zerua goibeltzen duen Auster beltzaren sortogera. Ementxe, ain zuzen, txuringatik ixurtzen dute gelia bezalako ixurkai likits-

bar, artzaiek híppomanes (zaldi-kara, igela) deritzatena, amorde gaiztoek maiz aztiketarako biltzen dutena sorgin-belar eta mintzoekein naasteko.

Anartean aldia igesi doa, atzeragabeko aldia, gai ontaz zaletuta itzul-inguruka ari geran bitartean.

Aski ordea, abelgorrietaz esanok: orain goazen ondorengo saillera artalde illetsu eta auntz zakarretara. Lan aundia ematen dute noski, alare ortixik atera dezakete lugin azkarrek onurarik aski ere. Ondo dakit zeinen neketsua den alako gaia itzekin menderatzea eta alako gauza kaxkarrak apainki esatea; baiña maitasun goxoak narama Parnasu'ko desertu neket-suak barrena; atsegin zait biziki nik baiño lenago iñungo gurpillek zapaldu ez dituten gallurretatik, Kastaliara maldan beera ioatea. Orain bai Pales agurgarri, orain aotsa iaso bearko dut.

Asteko esan bear dizutet ardiak artegi erosoetan utzi bear dituzutela belarra morrozten udara ostotsua etorri arte, lur zakarraren gaiñean lastoa eta iratze eskukadak ugari iñaurriz, izotzek gaitzik egin eztezaian abere minberai ta zaragarrak eta ezueri gaiztoak io ez ditzan. Ondoren, auntzeta-ri biurtuz, orra zer agintzen dizuedan: gurbiz ostoz alatuko dituzu ta lats ozkirrietan eradango; eskortak berriz, aizearen babesean, neguko eguzkiaren aurrez-aurre iarriko dizkiezu eguerdira begira, Uriario (Aquarium) izoztua ieixten asten denean une-muga euriztatuz.

Auek ere, auntzak alegia, ezтира ardura gutxiagoz zaitu bear; etekiña ere eztuzu txikiagoa izango, ain garesti saltzen baitira, Milesi'ko auntz larruak Tiriari gorrimiñean egosi ondoren. Umegiñagoak dira, esnetsuagoak. Erro lauskitu-pean kaikua apartsuago ta are ugariagoa izango da errapearen iariora. Are aipatzekoak Kinipi'ko akerrari mozten dizkien bizar zuriak eta ille latzak gudu-zelaietarako eta mariñel errukarrien estalgarrizat. Basoetan eta Likee'kc gaillurretan bazkatzen dira auntzak elorri arantzatsuz eta arkaitzak maite dituten sasiz, eta berez, oroimenez iantziak baitira, tegiratzen dira antxumeak ere karriatuz, errape anpatuekin atalarritik nekez igarotzen direla. Arretaz alderatuko dituzu, beraz, negu-aize ta izotzetatik are gizonen ardura gutxiago bear durelako. Azkurria ere ernango diezu ta aldaxka xamurrak ugari; negutean, berriz, eztiezue orregatio belar-tegirik itako,

Alabaiña Zephir'en otsera uda alaiak beresi ta belardietan aberetaldeak sakabanatzen dituenen, alorretara ioan gaitezen Artizarraren aurreneko leiñurupuan, goiz bernan alegia, askida txuri ta abereei ain atsegin zaien intza oraindik belar gurian dagoenean. Gero, eguneko laugarren orduan, egarri ditezkenean eta txitxarra negartiek beren kantuz txartakak lertutzen dituten

garaian, putzu ta urmael sakonetara eraman itzatzu artaldeak artezko odietatik darion ura edan dezaten. Bero galdatan ordea, zelai itzaltsua billatu ezazu Iobe'ren aritz zahar adaburutsuz gerizatua, edota artondoz iositako oian doneak itzala eman. Eguzkia etzaterakoan berriz eramango dituzu urgoxoetara eta bazkalekuetara, arratseko ozkiritz eguratsa biguntzen denean, illargi-intzez mailloak pizkortzen direnean, ots, ondar-txorriak ur-ertzean eta kardantxilloak sasi gaiñean kantari daudenean (6).

Zer bertsuz edasi dezakezue Libia'ko artzaietaz, bazkalekuetaz eta ango urixko bakan etxeztatueta? Maiz, gau t'egun, illebeteak barrera abere taldeak bazkatzen ditute ta etzerik-etze ibili oi dira abarorik billatu ezinda: ain dira edatuak zabalduok! Afrika'ko unaiak aldean eraman oi ditu zer guztiak: etxea, laratza, iskilluak, Amiklear zakurra eta keretetar gezi-ontzia. Erromatar azkarrak ere, aberri-iskilluz iantzita alatsu ibili oi dira, puska-lor aztuna bizkarrean, etsaia eldu baiño lenago gudu zelaian ondo lerrokata egoteko.

Eztago olakorik ur arreeran ondar orailak daramazkiten Meoli eta Ister itsas ingurueta biztanleen artean, ezta, ardatz-erdira iritxi ondoren, beregain kaketzen den Rodope'n ere. An eskortetan itxita iduki oi ditute abereak, ezpaita ermetzen osterik arboletan ezta ere belarrik zelaietan: aitzitik, lurra urrutira edatzen da itxuragabe, elurrez eta zazpi ukaraioko jela lodiz estalita. Beti negu, beti Kauron aize otza puzka. Eguzki zurbillak ez ditu ango itzal beltzak inoiz ere suntsitzen ezta bere zaldiek zeru gorenera daramatzenean ere, ezta bere gurdia itxasoko ur gorrietan murgiltzen duenean ere. Bat-batean azal-izoztuz estaltzen dira ibai lasterrak, eta urak eta burnizko gurpillak bizkar gaiñean egari ditzakete: ontziak zebiltzin lekuan gurdia astunak dabilta orain: borontzezko ontziak pitzatzen dira, soifnekoak gogortzen, ardo ixurkorra aizkoraz ebakitzen eta aintzirak oro izotz gogor biurtzen dira ta arnas-lurrin izoztuak bizarrak lazten ditu. Ala ere atergabe ari da elurra ortzi zabaletik. Abereak galtzen dira, bei aundiak geldirik karraldoiz bilduta eta orein-taldeak eten gabe ari dan elurpean lotuta, adarmuturrak doi ageri zaizkiela. Oiek eizatzeko ezta zakurrik axatu bear, ez xedebarik edatu; eztago luma gorrizko mozorroz izutu bearrik ere; estaltzen dituten elur-mendia alderatzeko indarka ari diren bitartean urbiltzen zaizkie eiztariek eta bertan lepo-egiten ditute burni zorrotzez eta orru goibelen artean iltzen ditute poz lekaioka gero eramateko.

Eurak, gizonak alegia, lurpe sakonean aitzurtu altxabean oporrean bizi **dira**; **aritz** eta lizar enborrak metatzen ditute supazterrera iraulka erama-

teko eta ondoren surtan erretzeko. Gau luze hura iokoan ematen dute ta garagarrez egindako edaria edaten dute, ta makatz garratzekin egindako ardoaren antzeko zerbait. Orra basa-gizonok Goizaldiko Artzai makoaren babesean, Ripeo'tiko Euruk zartatuta eta basa-piztien larruz gorputza es-talita.. daramaten bizimodua (7).

Artilleaz ardura baldin bazera, sasi-moltso, lapatx eta narrak aldera itza" tzu; utikan belar guria ere. Ondoren aukera itzatu ardi txuri larru mami-tsuak. Aaria txuaria izan arren, ao-sapaipean mingain beltza ageri baldin bazaio, astandu e/azu bildots iaioberrien larrua orban arrez iosi eztedin, eta landa zabalean beste bat begiz io ezazu. Elurra bezin zuria zen artiflezko emariz zilibokatu omen zinduen Illargi, Arkadi'ko Pan'ek (siñistu al balitz) oian sakonera dei egin zizunean: eta zuk ez omen zenion muxinik egin dei-tzailleari (8).

Esnekta naiago baldin ba'duzu, zeorrek zere eskuz iarri bearko diezu ganbeletan evratza, pagotxa eta belar gatzituak ugari. Era berean abereek, nango ditute ur lasterra (edateko), ta errapeak ere are anpatzenago zaizkie eta alako gatz-sapore izkutu bat gordetzen dute esnari. Titia kendu ala, askotxok, amarenganatzea eragozten die antxumeai, eta burnizko muturre-koak ezartzen dizkie. Goizaldean eta egunez batzen dan esnea, gabaz kalla-tzer> da: illuntzean, eguzkia etzaterakoan biltzen dana berriz, kantxiñetan eramaten da (artzaiak eraman oi du urira), edota gatz poxi bat emanda ne-gurako gordetzen da.

Txakurrekiko ardura ezpekizu azkena: gatzur guriarekin iñutu itzatu Esparta'ko txakur-kume azkarrak (erbi-zakurrak) eta Melosun'go zakur in-dartsuak: alako iagoleekin etzera gau-lapurren beldur izango artegietan, ezta otsoen eta ezigabeko Iberoen gibel-erasoen ere. Maiz iarriko dituzu laisterka bizian basasto izutiak ere, ta zakurrekin erbiak, zakurrekin orka-tzak eizatuko dituzu: zakurren zaunkaz basurdeak beren zuloetatik atera ta oianetara uxatuko dituzu, eta mendi garaietan ere, oiuka, basauntz aundia sare artera erakarriko duzu.

Ikasi ezazu ukulluetan izai urrintsua pizten eta galbanum-lurrunarekin kelidra kaltegarriak uxatzen (9). Maiz, irauli gabeko iñaurkin-pean zirauna izkututzen da egun argitik igesi, gaiztoa benetan ikutu ezkerok; edote sugea, (idien izurri gorria) estalpe itzaltsuetara irrixtatzen oitua eta abereetan bere pozoia ixurtzen, lurrean kiribilduta egon oi da. Ar itzak, artzai, eskuan arriak, ar zak taket bat eta zemaika ta txistuka lepasamarra antutzen duenean,

io ta bota zak lurrera! iadanik iges egin eta buru erabea sakonki izkutatzen du, alabaiña erdiuneko korapilloak eta isats-muturrekoak askatuta dauzka: azkenengo ozkak soillik narrazten ditu kiribil nagiak.

Bada Kalabria'ko basoetan suge gaizto bat, bularra iasota bizkar ezkatatsua ta natu aundiz orbandutako bere sabel luzea edatzen dituen: iturriek urbegietatik iarioan dirauten bitartean, udaberriko ezotasunez eta Egoak ekarri euriekin lurra uielduta dagoen bitartean, idoietan bizi oi da, eta ur bazterretan bere gose beltza arrain eta igel berritsuekin asetzen du. Istingak idortu eta eguzkiak lurra pitzatzen duenean, legorrera ateratzen da eta begi gar-iarioak irauliz alorretan sartzen da egarriz itota eta bero-galdaz zoratuta. Ez al nau logaleak zerupean belar guriaren gaiñean etzatera eramango batez ere azal berriak eginda gaztetasunez dirdari narraz dabillenean, edota arrautzak naiz kumak zuloan utzita eguzkiari iarkitzen zaionean bere mizto irukoitza dardaratuz.

Eritasunen zergatiak eta siñaleak ere irakatsiko dizkitzuet. Zaragar nazkagarriak ardiak ioten ditu euri otza eta negu latza bere izotz txuriekin ezurmuiñetaraiño sartzen zaienean, baita illea moztu ondoren ere, garbitu ezik, izerdia gorputzean itxastean zaienean eta sasi arantzatsuek larrua urratzen diotenean. Orregatik artzai-maizuek ur goxoetan garbitu oi ditute artaldeak, aharia ur-zurrunbilloan murgiltzen den bitartean eta larrua blei eginda ur-lasterraren mende bere burua uzten du eraman dezan; edota, illea moztu ondoren, olio-ondakin garratzarekin soiña igorzten die, zillar-bits, sulbur uts, Ida'ko pike, ezko likin, itsas- túpula, lupu belar kirats eta zira (bitumen) beltzarekin naasita. Alare eztago osabide obeagorik zauri-ertzak burniarekin erretzea baiño: gaitza, izkutuan, azi ta bizi egiten da; zauriak osagillearen eskuartean artzaiak iarri nai eztituen bitartean edota, lasai eserita, iainkoei arrenka ari baldin bada aiek sendatu ditzaten.

Are geiago: marrakarien ezurretaraño sartuta oiñazeak erretzen dituenean eta sukar legorrek soin-atalak iaten dizkienean, ona izaten omen da berotasunaren aldentzeko oin-azpiko zana ziztatzea odola izuri dezan. Orrela egin oi dute Bisaldarrak eta Geloniar azkarrek Rodopen eta Getesko desertuetan barrena dabiltzanean, esne kallatuz eta zaldi odolez egindako naasketa bat edanaz.

Urrunetik ikusten baldin baduzu ardiren bat usuegi gerizpe goxoak biltzen eta belar muturrak morrozten eta bazka-zelaiaren erdian etzaten gau illunaren zai tegira bakar itzultzeko, burniarekin bet-betan gaitza moztu ezaiozu, talde osoa izurri gaiztoak io ez dezan. Ezta ain usu neguko zurrunbillo zakarra itsasoan oldartzen izurriak abereetan baiño; eta eritasunak ez

ditu banaka ioten, uda-bazkalekuak osorik baizik, itxaropena ta artaldea erabat, zar ta gazteak.

Ori Jakiteko aski duzu inguru bat egitea Alpes aizetsuetara, Norika gailurretako gazteluetara ta Timabe ibaiak ureztatu Iapidi'ko zelaietara: gaur ere, ainbat urte igaro ondoren, artzaien erreñuok etze, eta ango beresiak zearo utsik arkitzen dira.

Beñiola, lurralde auetan, aize ustelak errukarriro andeatu zuen eguratsa udazkeneko garrak oro bilduta, eta mota guztietako abereak sarraskitu zituen, basa-piztiak oro, baita aintzira ere usteldu zuen eta bazka-lekuak pozoitu. Eta erio-bidea etzen bakararra, ez orixe: sukar egartsu batek, zaiñak zear soinalak errukarriro iaten zizkienean, berriz ere, zorna-iario ageri ziran, ezaria-zarian ezurrak deusezten zizkien eritasunak io-ta.

Askotan, iainkoei eskeintzeko aldare erdian zegoen erroparia ere, elurra bezelako artillezko galartuz burua esitzen zienean, apaizen artean erortzen zen il-agiñean; edota iaupariak aurretiez burniz eraildakoaren altzarrak aldare gaiñean ezarrita ezin ziran erre eta azti-igarleari zergatik galdetuta, etzekien erantzuten: aren (erropariaren) lepoan sartutako aiztoa ozta odolez tindatzen zen eta ondar-gaiña zorna pixkatekin doi beltztuten zen. Belardietan taldeka zekor guri iltzen dira ta aska beteen aurrean azken arnasa ematen dute. Zakur otخانak ere amorratzen dita, urde eriak berriz estultxurrun batek iñarosten ditu ta itotzen pautzak audituta. Griñatzen zue-naren aiolagabe ta belardiak aantzita, iturrietatik alderatzen da zaldi garrailea ta azkazal ukaldika lurra apurtzen du sarri; belarriak apal, baiter padako izerdiz bustita eriotza urbiltzerakoan oztenagotzen zaiona; larrua legorra eta ukitzean zailla. Oietxek dituzute lenengo egunetan, il aurretik, ageri dituten zantzuak. Eritasuna areagotuz, gaiztoagotzen baldin bada, orduantxe begiak sututzen zaizkio ta bular barrenetatik arnasa ateratzen zaio noiztanka oska aztunez, era meaka barrenak zotin luze batekin tenkatzen zaizkio; sudupilletara dioakio odol beltza eta mingain latak eztarri aunditua ersten dio. Onurakor zitzaiekelakoan, adarrezko onillarekin ardoa ematen die edaten, ori uste bait zuten il-zorian zeudenentzat osabide bakarra: ala ere, bereala, kaltegarri gertatzen zitzairen: xuspertu bai, baiña erotuta, sutan, iltzeko-zorian (zintzoentzako obeagoak eta gaiztoentzat alako gaitzak gorde iltzarzute iainkook) eurek berak aginka beren loadarrak urratzen zituten.

Orra goldepean lurrun-iario dagoen zezena erortzen da, ta aotik bitsa ta odola okaztatzen ditu, azken intziriak iaurtiaz. Nekazariak, goibel, anaia-aren eriotzarekin naigabez dagoen zezen gaztea uztarritik kentzen du, ildoaren erdian goldnabarra utziaz. Ez baso garaietako itzalek, ez belardi guriek ezta *electrum* baiño gardenago arri artetik zelaia zear doan ur-txirripak ez ditzakc (idiak) goganbeartu; aien alderdiak lurrerañño ieisten dira, begi

aundiak arrituta geldi, lepo aula berriz lurrera makurtuta. Zertako ainbeste lan, zertako ainbat onegin? (10). Zertako golde makurrez lur asuma irauli dute⁵ Alare ezta Masika (ardo) Bak'en emaria kalte egin diotena izan, eztare janari ugariegia; ostu ta belarrekin alatu oi baitira, edan berriz, iturri garbi ta latsetako ura, ta kezkek ezteie iñoiz io osasungamrik eten.

Diotenez garai artan eta eskualde aietan alperrik billatu omen zituten idixkoak Iunon'i eskeintzeko eta idi-aketz ezberdiñak eramane omen zituten opariak gurdian gaillur aietara. Orra zergatik gizonek lurra atxurrekin lantzen duten, atzazkalekin aziak ereiten eta mendi garaietan, lepoa teinkatuta, gurdi negariak narrazten dituten.

Otsoa eztabil, ostuka bezela, artegien baranoan eztare gabaz artaldean inguruan; kezka zorrotzagoak darabilzki. Orkatz izutiak eta orein lasterrak ere zakurren anean eta etxe inguruetan dabilta alderrai. Itsaso zabalaren semeak eta igari dakitenak oro itsas-ertzera iraitzen ditu ur-mendoiak itoen gorpuak bailiran, eta phokak, zentzua galduta, ibaietara doaz igesi. Larrasugea ere ;Itzen da, bere kiribillak itzul-inguruka darabilzkin larrasugea, baita hidra izugarria ere ezkatak laztuta. Eguratsa ere kaltegarria da egaztientzat; edoi garaietan bizia galdu, eta lurrera erortzen dira.

Eztago gaiñera bazkalekurik zertan aidatu, ezta ere osakirik zertan billatu, kaltegarriak dira-ta; noizbait aspertu ziren maizuak, Kiron Philidas'ena eta Melampus Amithaon'ena. Tisifone zurbilla, Estigia'ko aizaroetatik igesi, egun argitara dator (11). Eritasuna eta beldurra eraikitzen ditu bere aurean buru egartsua egunetik egunera gorago iasoaz. Abereen marrakaz eta atergabeko muukaz, ibaiak, ibai-ertze legortuak eta mendi-maldak oiartz:mka ari dira. Dagoneko izurriak taldeka abere iltzen ditu; ikulluetan ere illotz ustelak kirats-iario metatzen ditu, lurrez estali ta obietan lurperatzen ikasi bitartean. Aien Jarruek eztute ezertarako balio ta aien aragiak ezin dituzke uretan garbitu, ezta surtan erre ere; illerik ezin lezaiekete moztu, eritasunez eta zikinkeriz larrua ianda daukate-ta, are gutxiago eundu eskuartean deuseztu ta auts biurtu gabe: alako eunik norbaitek iazten baldin bazuen, zaldar goriz eta izerdi atsitzuz soin-atalak betetzen zitzaizkien eta luzaro gabe su sakratuak (izurriak alegia) gorputz guztia iaten zion.

OARRAK

(1) Pales, artaldean zaindaria. Anfriso'ko Artzaia, Apol alegia. Euriste, Argos'ko erregea, Busiris Egipto'koa, arrotzak lepo-eginda loberi eskeintzen zizkiona. Latona'k, Delos'ko izaroan, Apol eta Diane erdi zituen. Hipodamle, Pelops'ekin ezkondu zen, aizea baino zaldi azkarragoekin lasterketa irabazi zuelako.

(2) Helikon mendi alegia, Musen egontokia. Idumea'ko Palestina Edom'en alegia, palmondoak ospatsuak ziren.

(3) Kokiti, ifernuetako ibaia. Ixion, Lapitarren erregea, sugeekin gurpil bati lotuta zegoena. Hera bortxatu zuelako. Sisifo'ren arkaitza alegia, mendl-gaillurrera iaso eta berriz maldan bera erortzen zena.

(4) Lukine, artaldean iainkosa zaindaria.

(5) Erithonius'ek asmatu zituen kuadrigak eta lasterketak. Pelitronium, Pelion-meiliko alderdi bat; ango eta Epiro'ko zaldia famatuak ziran baita Mikenaskoak ere.

(6) *Aleyon*, ondar-txori, erderaz Martin-arrantzale.

(7) Orra ipar-aldeko abere ta gizonen bizimodua zeatz bezin ederki emana.—Ripeu, Rusia garaikaldeko mendiak, nunbait ere.

(8) Anari zuri biurtu omen zen Pan Illargiaren maitasunez erreta,

(9) Galbanum, Siria'ka landare baten lerdoa, Kelidrak (sugeak) eta ukulluetatik uxatzeko erretzen zuten.

(10) Elektrum, zillar eta urrea naasirik egindako metal dizdiratsu ta argia bide zen.

(11) Kiron'ek antza, belar osasungarriak ezagutzen zituen. Melanpa, azti-igarle sonatua zen or nunbait. Tisipone, Furietako bat.

Erleak

LABURKIA: Mekenas'i ots, ezti eta erleetaz aritzekoan. Erlategiak nun ezarri eta nolakoak bear duten. Erle-zaiaren egin-bearrak erleak loreketan, erlakumea egiterakoan edota burrukarako ateratzen diranean. Erregea nola aukeratu; erle-mota bi. Baratze loratsuetan bear dute erlategiak. Auxe litzake toki egokia baratzeetat antzeko ortarako betarik ba'genu. Erle erria. Lan-eraketa eta banaketa. Erleak nola sortzen diren, guztion onerako iasaiten dituten neke-arriskuak, erregearekiko menpetasuna. Askoren ustez, erleek ba omen dute iainkoagandiko arima, beste izakiak bezala, bizi-arazten dituen. Erlategiak udaberriz eta udazkenez soatsi bear dira.—Bide zenbait erleak lanean zuzpertzeko.—Nola aien eritasunak ezagutu ta zaindu.—Erle-kasta osorik suntsituko balitz, Aristeu'k erabilli bi-deetatik berriz sortu liteke.—Aristeu'ri gertatua,—Galdu erleak berriz eskuratzeo bideak Kirene amari eskatzen dizkio. Onek Proteu'ri galdetzeko dirautso.—Amak lagunduta, Aristeu'k Proteu atzitzen du.—Proteu'ren igarkizuna.—Aristeu'k nai ez-ta, Euridike eriotzeratu zuen; Orfeu aren senarra, inpernuetara ieisten da andik ateratzeko, eta kanpora dakarrenean, baldintzak aztuta, atzera begiratzen du; bereala Euridike infernuko aizaroetan ostentzen da, berriz ere.—Orfeu naigabez gaiñezka, emakume batzuk, bekaitzez, urratzen dute eta galtzen. Proteu suntsitu ala, Kirene'k aren igarkizuna osatzen du, eta nola bear dituen eskeintzak egin semeari esaten dio nai duena iristeko.—Aristeu'k esanak betetzen ditu ta erlakumea ikusten du abere ustelen aragiartetik ilkitzen. Bukaera. Onela abesten zuen Bergili'k Napoles'en.

Beti aurrera, zerutiko intz eta emari goxo den eziaz ariko naiz; zeure begiak, onuntza ere, itzuli itzatzu Mekenas orrek. Gauza kaxkarren ikuspegiak, buruzagi bioztunak, giza-mota guztien oitura ta zaletasunak, erriak eta guduak esango ditut bada, miretsi ditzazun. Xumea lana, ez ordea ospea, baldin numen mukerrak makurtzen badira ta Apolo'k otoi-deia entzuten badu (1).

Lenen eta bein, egoitza iraunkorra billatu bear da erleentzat, aizeak io ez dezakena (aizeak bada azkurriak etxeratzea galeratzen die), ardi ta auntz ibilkoiak lore artean iauzika ari ez ditezkena, edota zelaian alderrai dabillen

bigantxak intza astindu ta belar erne-berriak zapaldu ez ditzakena. Erlategitik urruti beude musker bizkar ezkatatsuak, erleiale ta bestelako egaztiak, batez ere Prokne (enara) (2) bere atzapar odoltsuz bularra markatuta daukana, dana ondatzen baitute mokoekin egan dabiltzan erleak arrapatuz beren kabi asekaitezara iaki atsegin au eramateko. Eego ala ere, (erlategia), iturri gardenez eta goroldio orlegiz inguratutako urmaelez iantzia ta ur-txirripak soropilletan barrena dituela, palmondo edo oliondo aundiaren itzalpean, erregeek, udaberriz. erle-mulko berriak gidatuko ditutenean eta erle gazteok orrazeetan iostatuko direnean auzoko ibietan berotik gerizatu ditezen eta bide ondoko zugaitz ostotsuek babes izan dakizkien (3). Uretan, naiz geldia izan naiz lasterra, sarats enbor eta arri koxkorrak iarriko dituzu erleak kokatu ditezen, udako eguzkitan egoak zabaldu ditzaten, agian, astiro ibilki, Eurusek busti edota Neptun'ek bere iarioan murgildu baditu. Inguruan loratu bitez bitxika orlegia, irri-belar usaitsua, ta elar urrintsua ugari, ta ~~III~~ ubel moltsoek ere edan dezatela ureztatzen dituen iturritik.

Erlategiak naiz zugatz-azalak elkaturik egiñak izan, naiz zume txuriz eioak, sarrera mearrak bear ditute, neguko otzarekin ezta gogortzen baita, beroarekin aldiz, urtzen. Indar biak (otza ta beroa) ain zuzen, bildurgarriak dira erleentzat; eztira alperrik leiatzen (erleak) zirrikitu kaxkarrenak ere ezkoz (argizariz) estaltzen, ertzeak lore-gurin eta erle-gorotzez betetzen; ez dute gaiñera bestetarako bildu oi arbola-negarra, uia bera ta Ida'ko pikea baiño likitsuagoa. Esana egia baldin bada, maiz lurpean zulatzen omen ditu altxábeak etxe beroa izateko, baita arri-arroen zuloartean eta enbor igarren barrenean ere arkitu omen ditute (etxeok). Zuk alaere, gantzutu itzatzu inguruan buztiña leunarekin erlategiko zirrikituok, eta abar ostotsuz estali itzatzu gaiñekalderik: ez agin-ondorik urbillean utzi; ez dezazula xangurrorik surtan erreta gorritu; kontuz gaiñera osin sakonekin, toki kiratsekin eta astindu txikienaz ots, eta oiuaq iota erantzuten duten arkaitz-biziek.

Gaiñerakoan, urrezko eguzkiak negua lurpera uxatzen duenean, eta udako argiz zerua zabaldu, erleek bereala zearkatzen ditute oianak lore gorrietan urrupatuz eta ibai-azaletik egarin edanez. Eta orrela, eztakit nungo atsegiñez gaiñezka, kume ta kabiak antolatzen ditute, ezko berria antzetsuki moldatzen eta ezti tenkorra oretzen.

Udaberriko egurats garbia zear erlategitik irtenda zeruan gora erla-kumea ikusiko duzunean aizeak daraman odei beltza irudi, oartu zakio ondo: beti billatu oi ditute ur gardenak eta babes ostotsuak. Agindu usaiak zabaldu itzazu toki auetan: garraiska txikitua ta *kerinte* belar arrunta; io itzatzu inguruan arranaK eta Amandrearen arratzak; berez kokatuko dira erleak ondu tokietan, berez, oi dutenez, tegietan ostenduko dira (4).

Alabaiña burrukara aterako balira —maiz gertatu oi da bi erregeren artean zalaparta aundiz burruka sortzea: bereala ateman diteke urrunetik faldearen gogo gudu-miñez biotzak pil-pil; berantkorrak Marti'ren borontzeots erlatzak zirikatzen ditu, ta turut-ots itoa bezelako oiua entzuten da; orduan, dardaraz, elkartzen dira, egoak dirdari, ta eztenak zorrozten ditute aztalak muturrekín igurtziz etu erregearen inguruan, iauregian bertan aintuzen, moltsoka biltzen dira etsaiari eupadaka: ta udaberriko egun ozkarbita paketsuan ateak bortxatu ta irtetzen dira; burruka asten da, egurats garaian abarrotsa sortzen da; moltso andi batean naasten dira ta amilka erortzen; ezta eguratsean usuagoa kaxkabarra ta ezta ainbeste ezkur erortzen arte-ondoan iñarosten denean. Erregeak eurak, egoetan bereizi ditezken gudu taldeen erdian, bular mearrak kartsu, kemen aundiz ari dira; etsi nai ezta setati, arik eta, garalieak beartuta, batak edo besteak amor eman ta iges egin arte. Baiña alako gogo-asaldaketak eta burruka gogorak auts pizka bat iaurti ta baketzen dira.

Buruzagi biak gudu-zelaitik gibelerazi ditukezunean, itsusien dirudizuna il ezazu ondabide izan eztedin; utzi ezaiozu onenari bere erreñuan agindu dezan. Bietatik bat (mota bikoak baitira) txinpart iario egongo da urrezko orbanaz dirdari: auxe duzu onena, tankera ta ezkatzen argitasunetik ageridu; bestea berriz, nazkagarria da, alperra, sabel alkegarria errestaka.

Errege bien itxura bana den bezelatsu, orobat taldearen gorputzak ere; batzuk ezain eta izugarri dira, bidez-bide ibilli ondoren autsez beteta datorren bidari egartsuak eztarri legorretik ateratzen duen karkaxa (gorrua) bezelakoak; dirdari daude besteak eta argi-iario urrezko tanta berdiñez iositako gorputzetatik. Auek dituzu iatorrenak: auek, garaia denean, ezti goxoa emango dizute, goxoa bezin gardena, Baken sapore gogorra ezitzeko egokia.

Erlakumea noragabe egin ari denean, eguratsean iolasean daragoionean abaoak ezetsi eta erlategiak otzik bertanbera utziaz, zeorrek eragotziko dizkiezu alako iolas alperrak gogo aldakor auei. Neke aundi gabe eragotzi ere: erregeei egoak erauzi izkiezu; auek geldi-arazita ezta bat ere ausartuko gorako biderik artzen, ezta gudu-zelaiko ikurriñik idokitzen ere. Lore-baratz urrintsuek dei egin dezaiela; Elespontu'ko Priapi'k babestu ditzala saratsezko segarekin lapurretatik gordez eta txorietatik zaituz. Berak ekarri ditzala mendi garaietatik elarra eta lerrondoak erlategien inguruan ugari landatze-ko, alako ardurak baititu, eta bere eskuz egin dezala lan gogor au: sartu ditzala lurrean landare oparoa!' eta euri adizkidetsuz garaztatu ditzala.

Nik beintzat, nere lanaren azkenera iritxita oialak bildu ta ontzi-muturra legorrerantza ezarteko presarik ezpanuke, baratzak nolako arduraz ongarritu

ta apaindu kantatuko nuke, baita birritan loratzen diran Pestun'go arros-ondoak ere; oster-txuriak nola pozten diran erreka ura edanez eta ibai-ertze orlegiak apioarekin; eta nola sabela anpatzen zaion kukubiari (kon-konbroari) belar artean biurrikatuz; ez nuen ixilpean utziko gaiñera lilipa adats nagidunik, akantuaren zume malgurik, ez untz-osto xuriskarik ezta gilori (mirtu) itsas-ertze zalerik ere.

Gogoan dut oraindik Galesus ibaiak ereintza oraillak ezotzen dizkion Obelia uri garaiko dorreen azpian Koriziar agure bat ikusia: bertanbera utzitako golde-lur gutxi batzu zituen, ez idientzako, ez abereentzako ezta Bak'entzat ere egoki etzirenak. Ala ere gizon onek, sasi artean, barazkiak lerro-lerro, lili txuriak inguruka, ihitz-belarra (verbena) ta urdamutur iangarriak landatzen zituen. Bere arrotasunean, ondasunok erregeenekin berdintzen zituen eta gau beranduan etxeratzen zenean, erosigabeko ianariz maia betetzen zuen. Udaberriz berak lenen biltzen zituen larrosak eta udazkenez igaliak; eta negu itsak oraindik arriak otzez apurtzen zituenean eta urak izotzarekin gelditzen, ark lilipen adats guria mozten zuen uda berandutuari ta Zephir nagitari par egiñaz. Bera zen lenengoa erle ernariak eta erlakume ugariak izaten ere, baita abaoetan ezti apartsua biltzen ere; erki ta lerrondoek ugari ematen zuten arentzat, eta lore betean zegoen arbola emankorrak eskeñi aiña fruktu biltzen zituen ark, onduta, udazkenean. Lizar-ondo azixeak ere birlandatu zituen lerro-lerro, madari-ondo gotorrak eta aranak zekarzkiten elorri-ondoak, baita edaleei itzal egiten zien platanondoak ere. Baiña toki mear ontan ibilli bear onek eragozten dit gai oni ekitea; nere ondorengoei uzten diet egiteko ori.

Goazemazu orain, Iupiter berberak erleai eman senari buruz mintzatzeraz; saritzat eman omen zien, Kuretarren soiñu ozenak eta borontze astinduen durundiak erakarrita, zeruko erregea Diete'ko arzuloan alatu zutelako (5). Erleak soilik azi oi ditute elkartasunean beren ondorengoak, eurak soilik bizi dira uri-etxe bakarrean lege egiñen babesean; eurak bakarrik ezagutu oi ditute aberria ta etxe-iainko egiñak; etorkizun dagoen neguaz oroiñuta, udaroz ari dira lanean eta bildutakoak guztien ianaritzat metatzen ditute. Batzuek iatekoaren ardura dute, ta artu erabakien arabera, arloetan ari izaten dira: besteak, etxebarean ertsita, unanu-malkoarekin eta zugaitz-azalari darion negarrarekin orrazearen oiñarriak egiten ditute, ondoren ezko-tenkorra edatzen dutelarik goitik beera; beste batzuk garerdiko erleak indarazten ditute, iatorriaren itxaropena, bestetzuek ezti garbi-garbia batzen dute ta nektar gardenez gelatxoak gantzutzen ditute. Badira zozketan atezaitza ego-

kitu zaienak ere; zeruko ur eto odeiak aldizka oartzen ditute, edo datozenen zama iasotzen dute, edota elkar-lerrokatzen dira erlategitik erlanagian taldea iraitzeko.

Lanak irakin diraki ta ezti urrintsuak elar-usaia dario. Kiklopeak burni mokor malguz tximistak egiten itokarrean dabiltzanean, batzuek zezen-larruzko auspoekin aizea artu ta eman ari dira; besteek borontze txistularia uretan sartzen dute; artzuloak durundi dagi inkudean eman ukaldiekin; norgeiagoka neurri berean iasotzen ditute besoak, kurrika aginkariekin burnia irauliz: era berean, (txikiak aundiekin alderatzea bidezkoa balitz) Krekops'ko erleak, cuki-naiak zirikatuta bakoitza bere arloan ari da. Zarrenari dagokie uriaren ardura, orrazeak egin eta tegiak antzetsuki moldatzekoa. Gazteak, berriz, aztalak elarrez gaiñezka etortzen dira gauze nekatuta; an-or, xurgatzen ibiltzen dira gurbiz-ondoetan, sarats orailletan, izkaro eta zafrai gorritzetan, erkiondo gurietan eta unanu burni kolorekoetan (iakintu) (6). Batera atertzen dira lanetik; bakarra eginbearra ere danentzat; goizean atetik irtetzen dira burrundari oldarka; an eztago nagirik. Urrupaketa utzita landaratik aldentzeko Arratsak ots-egiten dieneko, tegietara dioaz indarrak berritzeko (atseden artzeko); abarrotsa sortzen da ta burrundari dabilta ate ta ertzeen inguruan. Geroago, etzalekuetan kokatu ala, gauarekin batera ixiltzen dira ta loak artzen ditu beren soin-atal akituak. Eztira baiña erlategitik geiegi aldentzen euri-antza somatzen dutenean eta Eurus urbiltzerakoan zeruaren beldur diranean. Uriko (erlategiko) aterpeen babesean, urak ekartzen ditute txango laburrak egiñaz; arri kokorrek ere ekartzen ditute maiz, odeiak barrena leiatzekoan, olatu arteko txalupa ariñei lorra bezela, euskarri dakien.

Erleei atsegiñen zaizkien oituren artean, auxe, batez ere, miresgarriena: eztirala ernalketarako elkartzen, Venuskerian alegia, eztiuela gorputzak aiolababekeriz igatzen, ezta umeak erdi-miñez ernetzen ere. Belar leun ta ostoe-tatik iasotzen ditute iaioberriak muturrekin; eurak euretara, errege ta zalduntxoak egokitzen ditute, eurak eraikitzen iauregia eta argizarizko erresuma ere. Sarri, alderrai dabiltzanean, arri gogorren artean egoak austen ditute ta bizia galtzen dute zamapean: ain aundia baita loreenganako beren maitasuna, ain aundi eztigintzarako duten apeta.

Ala ere. orren bizi laburra izan arren (ezpaita zazpi udaldira iristen), iatorriak ezilkor irauten du aitasoen aitasoak ioteraiño.

Gaiñera ez Egipto'n, ez Lidia zabalean, ezta Partu ta Hidaspe'ko Mediatarren errietan ezture erregerik ainbeste maite. Erregeak onik dirauen bitartean, gogo bakarrez ari dira; galdu ala, egin itunbena apurtzen dute, eztimulkoak sakabanatzen eta orrazeak ere puskatzen ditute. Erregea dute lan-

zai, bera miresten dute, aren inguruan ari dira etengabe burrundari hura iagon-bearrez; maiz soin gaiña iasotzen dute, gudaldian berriz, aren aurrean jarririk eriotz eder batera ioaten dira zauriak zauri. Alako zantzuak eta iarrai-bideak ikusita, erleak iainko-adimenaren zati bat direla uste dute askotxok eta zerutik ixuritako zerbaite: egon ere, Jainkoa, non-nai legoke edaturik, lurtean, itsaso zabalean eta zeru sakonean: ari zor diote giberriek, abelgorriek, gizonek, basa-pizti mota guztiek bakoitzak sortzerakoan iasotzen dituen bizi-indar izkutuak: arengana, beraz, biurtuko lirake diranak oro gorputzak askatu ondoren; ez legoke Erio'rentzat lekurik, baizik eta bizirik izardietara aldatuko lirake zeru garaiena iristeko.

Noizbait erlategi ospatsua ta gordeta daduzkan ezti-ondasunak soatsi nai baldin badituzu, aurrenik urez garbitu zaite, aoa ere xautu ezazu ta zoaz zuzi ke-iariora eskuarteaz duzula (7). Urtean birritan izan oi dira eztiz ernari, ta bi dira izan soazteko garaiak ere: bata Taugeti'k bere aurpegi ederra lurrari erakutsi ta erdeñuz Okean ibaiko urak ostikoaz astantzen dimenean, bestea izar ber-berak Arrain izar molto euritsutik igesi neguko olatuetaza zerutik goibel icisten denean. Erleen aserrea neurriz goitikoia izan oi da orduan; mintzen baldin badituzu, ziztarekin zitala ere ixuriko dizute ta beren ezten ikus eziñak zaiñetan uzten ditute, zaurian bertan arima (bizia) galduz (8).

Negu gogorraren beldur, erleen etorkizunaren arduraz etsaien gogo aulduen erruki baldin ba'zera, aski duzu erlategiak elarrez kezatu ta abao utsak kendu. Maiz bada, iñork uste gabe, muskerrek orrazeak zirtzikatzen ditute ta gelatxoak argiaren etsai diren mamutxez itsututzen dira; erlenagiek, bes-teren bizkarretik bizi nairik, edota listor latzek, iskilluz sendoagoak, sartzen dira; baita negakin (tinea) nazkagarria ere, ta Minerva'k gorroto duen armi-armak sare lasaiak edatzen ditu ateetan. Erleak zenbat eta urrituagoa izan, ainbat gartsuago ekingo diote iatorriaren galera osatzen, gelatxoak betetzen eta lore zukuz mandioak estaltzen.

Alabaiña entasan itsen batek gorputzean ioko balitu (oiek ere guk bezelaxe, ustekabez bizia galtzen baitute), iñolako zalantzik gabe ageri dituten siñaleetatik iakingo duzu; eriek, bereala, bestelako kolore bat arzen dute; argaltasun ikaragarri batez, arpegikera aldatzen zaie; orduan argia betiko galdu dutencn gorpuak (il-otzak) ateratzen ditute illeta goibela egiñaz; edota aztalak elkartuta ate-burutik zintzilika iarten dira, bestela barnean itxita, danak biltzen dira gosez akituta, otzez elbarrituta. Orduan soiñu aztunagoa entzuten zaie zunburrun luzetua, Ipar otzak basoan egin daroan zurru-

murrua bezalakoa, itsaso aserreak ugiñak lertzerakoan egiten duen txistua lakoa, suak Iabe-itxian bezelako. Emen bai, galbanum - lurriña erlategian pizteko esango nizuke, eta seska-odien bidez ezitia aietan sartzeko erle nekatuak xuxpertu ditezen iaki ezaguna ianaz. Onurakorra litzake kuku-sagar eioen saporea geitzea ere, larros-osto igarrak, luzaro egositako ardo goxo gurria, matsumelak, Kekropia'ko elarra ta lubeazun (centaurea) usaitsua. Bada landetan lore bat lugiñek *amella* deritzatena, errex arkitu diteken belarra, soropilletik xorta aundi batean, sortzen baita, urrezko lorez, inguratzen duten lore-osto ugariek ala ere, lili-ubel beltzaren margokera illuna dute. Lore-sortak ere egiten ditute maiz Iainkoen aldareak apaintzeko; sapore garratza dute aorakoan; artzaiek bildu oi dute epaitu landetan Mella ibai biurriaren urbillean. Ardo urrintsutan egosi itzatzu landare onen erroak, eta ipiñi eza-zu erlategi-atean ianari au saskiak betean (9).

Baiña bat-batcan erle-iatorria suntsituko balitz osorik, eta berririk nundik inguratu ezpazenuke, onatx, Arkadi'ko maizuak billatu bidea azaltzeko garaia, ta nola, lepo egindako zekorren odol usteletik erleak sortzen diren esateko. Goitxoagotik asiko dut ordea jardun au, sortogean bertan (gertari onen) aomena iasoaz (10).

Nik ibai bularruak sortu idoi zabaletan bizi da Kanope Peletarren erri zoriontsua, eta ontzixka margoztuetan ioan oi dira euren alorretara; persitar gezi-ontzidunen urbillean, Inditar beltxaranetatik iarioan etorrita Egipto 01-legia ondar beltzez ernaldutako ondoren ibaia zazpi aotan lakaintzen dun tokian alegia, beste osasun bide ziurrik eztaukate urrengoa baiño.

Lenengoz tarte extu bat aukeratzen da, are extuagotzen dena zeregin ontarako; lau orma iaso, tellatu mear batez estali, lau leio lau aizetara irikiak, argia zearka sartu dakion.

Bereala zekor bat billatzen da urte biko kopetean adar kaketuak dituen; naizta indarka ari, sudupillak itxi ta aoko arnasa eragozten zaio ta ukaldika il ondoren, aragiak maillatutzen zaizkio larrua oso-osorik kentzeko. Era ortan toki ondo itxian uzten dute saiets artean elar eta ispillu abar-ezeak ipiñirik. Ori egin oi dute, Zephir ugiñak iraultzen asten denean, larreak kolore berriz gorritu aurretik, enara berritsuek euren kabiak abeetan egin baiño len. Arrean ezur bigunduetan epeldu ixurkaia, artzitzuz doa eta bertan ikusi ditezke tankera arrigarrietako bizidunak; aurrenean oin gabe, laister baiña egotxuak astintzen ditute, igitzen dira ta poliki-poliki aize ariñarekin jabetzen dira, odeiek ixuri udako euria bezela oldartzen direño edota Partiar zailuek gudu-burruka asterakoan arranbel-lokarritik iraitzi geziak bezela.

Nungo jainkoak, nungoak, oi Musak, sortu zigun eginbide au? Nundik zabaldu zen gizonen artean alako oitura berria?

Diotenez, Aristeu alderrai omen zebillen Peneia (ibaiak) ureztatu Tenpe'ko zelaietan barrena, gose-egarriz erleak galdu ondoren. Goibel, ibaiaren sorburuan geldi lotu omen zen intzirika, ta era ontan mintzatu omen zitzaion oiuka bere amari. «Ama, Kirene ama, osin sakon ontan bizi zeran ori; (zuk diozunez Tinbra'ko Apolon aita baldin badut), zertako sortu ninduzun iainkoen leiñu argitsutik, aduek ere muxin egiten bait didate? Nun da nerekiko zure maitasuna? Zertako agintzen zenidan zeruetan itxaropidea nezala? Orra, nere bizi-aldi ilkor onetan iaritxi ospea ere, uztak eta abereak zaitzen ainbat nekez iaritxitako ospea, galdu egin dut, naizta zu izan nere ama. Ea, bada!, ekiozu aurrera ere, ta zere eskuz errozgora ipiñi itzatzu nere baratzetako landarak; su emaezu ukulluei ta kixkal itzatzu uztak; erre itzatzu ereintzak, eta sorbatz biko aizkora gogorrarekin mastiak moztu itzatzu, orren aundia baldin bada nere ospeak damaizun naska!»

Alabaiña amak, ibai sakoneko bere egoitzatik aldarria entzun zuen. Aren inguruan Milete'ko artille iruten ari ziran Ninfak, (orlegi illunez tindatua): Drimo, Xanto, Ligea eta Pilodoke, adatsa lepo zuri istatsuetan lasai (Nesea, Espio, Talia eta Kimodoke) Kinodope eta Likorie, bata nexka, bestea lenengoz Lukine'ren naigabeak egaria, Klio ta Eoroe aren aizpa, bi-biak itxastiarak, biak urrez inguratuak, biak larru nabarrez estaliak: baita Epire, Opis eta Asia'ko Deiopea ere ta Aretuse zailua, bere geziak aldebat utzita. Aien erdian Klimene ari zen kontatzen Vulkanus'en alperreko ardurak, Marti'ren maltzurkeriak eta lapurreta goxoak eta Kaos ezkeroko iainkoen maitakeri zenbakaitzak aipatuaz. Kantuarekin lilluratuta artille biguna ardatzean biltzen zutelarik, berriz ere Aristeus'en deitorak amaren belarriak zulatu zituen eta denak gelditu ziren zurtuta kristalezko alkitan; baiña beste aizpak baiño lenago Arehuse'k bere buru oraila ur artetik atera zuen, inguruetara begiratuz; bertatik ots egin zuen: «Kirene, ene aizpa, etzera alperrik izutu orren oi uundiekin; bera duzu, izan ere, ardura aundiena; Aristeu daukazu Peneertzean goibel negarrez eta «anker» ori esaten dizu». Eta ikara berriz gogoa iñarrosita, amak erantzun zion: «Ekar zan, ekar zan gure artera; badin eskubiderik iainkoen atalarriak ukitzeko». Erabat, aldcratzeko agintzen die ibaiko ur sakonei gazteari bide egiteko; cta ur-Iasterra mendi baten antzera bilduta, baranoan lotu zaio geldi gazteari, ta bere galtzar aundian artuta ibai sakonera eraman zuen.

An zioan amaren etxea ta erreñu bustia miretsiz, leize-zuloetan ostandu-tako aintzirak eta baso zaratatsuak. Bazioan eta moldearen mugimendu ikaragarriaz zurtuta, toki banatara lurpetik, zioazen ibai guztiak ikusten zituen: Phasia, Likus eta Eripeus sakonaren sorburua; Hipanis arkaitz artetik abarroska doana, Misia'ko Kaikus, Tiber Aita ta Anio iariotsuaren sortzaillea,

ta zezen-kopetean adar bi daramazkin Eridamus; eztago au baiño oldartsuago ereintza oparoetan barrena doan ibairik, itsaso gorrailean gero galtzeko.

Legarrez sapatutako gelara iritxi zaneko, ta Kirene'k semearen alperreko negarrak atenian zitueneko, aizpak, ondorenka, eskuetarako ur garbia ta illegabeko zamauak zeramazkiten; batzuk maiak ianariz estaltzen ditute ta edontzi beteak eskeintzen; artean Pankaia'ko suak ari ziren gartsu aldareetan. Eta amak: «iaso itzak Meoni'ko Bak'en antuxiñok: Okean'i egin dezaio-gun ixurketa!» Esanaz batera, bera ari zen Okean'i, izadiaren aita, eta eun oian ta eun ibai babesten dituten Ninpa aizpai arrenka. Iru bider ixuri zuen Vesta'ren surtan nektar gardena ta irutan iaso zen sapairaiño garra erlantza zabalduz. Eta gertakari onekin biotza sendotuta ola mintzatu zen Kirene (11):

«Bada igarle bat Neptun'en Karpatos'ko leize-zuloan, Proteus oztiña, erdi-arrain, erdi-zaldi diren ankabidunak gurdiari buztartuta itxas zelaietan barrena dabillena. Oraintxe bertan Ematie'ko portua ta Pallene bere sorterría ikustera ioan da: guk Ninfok iauresten dugu, baita Nereus zaharrak ere: igarle orrek, bada, denak dakizki; diranen, ziranen eta ditezkenen gertabideak oro, Neptun'ek orrela erabaki zuelako, aren bidutzi-taldeak bait-ditu; itxas-otso (phoka) nazkagarriak leize-zulo sakonean. Lenengo ta bein orixe bear duzu seme, lokarriartean atzeman, eritasunaren zergatiak oro azaldu ditzan osabidea errexteko. Indarrez ezik, ez dizu ezer irakatsiko, ta ez duzu ez, arrenka makurtuko: gogor ekiozu ta atzitu ondoren, gogor lotu ezazu, bide ortatik soilik aren maltzurkeriak alperrekoak gertatuko baitira. Neonek, eguzkiak eguerdiko suak pizten dituenen, belarrak egarri ta abereak itzalmiñez daudenean, neonek eramango zaitut agurearen ixiltokira, itsasoan nekatu ondoren babestu oi dan tokira, lo datzala errexago eraso dezaiozun. Baiñan eskuekin eta lokarriekin ertsita eukiko duzunean, orduantxe ekingo dio, zugiandik itzuri naiez, itxura ezberdin eta pizti antzak artzen: bat-batean urde latz, katamotz beltz, erensuge ezkatatsu ta leoi-eme lepo oridun biurtuko da; edota sugarravena bezelako abarrotsa egingo du orrela lokarriak askatzeko edo urtxirrio segail biurtuz suntsitu naiko du. Alabaiña zenbat eta antzaldeka geiago ainbat eta sendoago ekiozu, seme, lokarriak ersten, arik eta itxuraldatu ondoren, !o-berrian begiak itxita zegoena bera berriz ere ikusi dezazun arte».

Auek esgn eta ambrosi ixurkorraren usai ona zabaldu zuen semearen gorputz guztian iarionaz; eta illeak atondu zituenen usai goxoa zabaldu zuen eta azpegiak indar zaila batez bete zitzaizkion. Bada arzulo aundi bat mendi-ezponda baten alboan: araxe biltzen ditu aizeak itsasoko olatuak bertan ozka biribilletan apurtu ondoren, atzeraka berriz ere urzabaleratzen diranak; babes ziuвра, gaiñera, antxiñatik ustekabeak atzeman itsaslarientzat.

Aren barnean Proteus aitz aundi baten atzekaldean babesten da. Ninpak antxen iarri zuen gaztea, izkutuana, argiaren kontra; artean, bera, bazterturik zegoen urruti xamar odeiez lausotuta.

Dagoneko inditar egartsuak kixkaltzen dituen Sirius zeruan zegoen dir-dari, ta eguzki sutsuak bide erdia eginda zeukan: belarrak idortzen ari ziren eta ibaiak ubidean bertan, suzko izpiz egozten ziran urbegi legorrak barrena, olatu artetik Proteus oitu artzulora zetorreanean: aren inguruan itsas-zabaleko iente bustiak oro iauzika intz gazia ziprizontzen zuten. Ur-otsoak (fokak) banaka etzaten dira lotarako itsas-egian: Proteu, arkaitz baten gainean exerita bere artaldea zenbatu ta ikuskatzen ari da, Arratsak idiskoak tegira biltzen ditunean eta bildotsen marrakarekin otsoen belarriak zorroztenagotzen mendiko ikullu zaitzalleak bezela.

Aristeu'k orduan, aukera ezin ohea zetorkiola ikusita, agureari loadarrak lasai luzatzen doi uzten dio eta oiuka erasorik eskuak lotzen dizkio lurrean datzanari. Hura ordea, bere arteziak aantzi gabe, miragarriro antzaldatzen da, su, iize bildurgarri ta ur-iario biurturik, Baiña maitzurkeri guztiokin iges-biderik eztaukala ikusita, garaiturik, bere zantzura biurtzen da berriz ere ta azkenean gizon-aotsez onela mintzatzen zaio: «Nork agindu dizu gazte arro orri, gurea etortzeko? Zer billatzen ari zera emen?» esan zion. Ark berriz: «zeorrek dakizu, Proteu, zeorrek, ezpaituzu iñoiz utsik egiten; utzizkitzu, beraz, maltzurkeriok. Iainkoen aginduz gatozkitzu gertatu zaizkigunetaz igarkizun billa». Etzuen besterik esan. Azkenean, igarleak, oiek entzunda, indarka biurritu zituen begiak, argi oriz sutan, eta ortzak karraskatuz aoi iriki zuen urrengo igarkizuna emateko:

«Ezta nornai gorrotoz zarabilzkin jainkoa: utsegin aundiak ari zera garbitzen. Merezi gabe errukarri den Orfeu duzu zigor ori leporatzen dizuna (patuek eragozten ezpaldin badute beintzat), bere emaztearen galera gogo.c-kiro mendekatuz. Nexka gaxoak etzuen ikusi belar aundiaren azpian, ilko zuen sugetzar ikaragarria zuregandik igesi zebillenean ibaietan barrena. Orduan aren adiñeko driada-taldeek oiuz bete zituten mendi-gaiñak: Rodope'ko gaillurrak, Pangea garaiak, Marti'ren Resus lurraldeak, Getarrek eta Iber'ek eta Arikits Oritiarrek, negar egin zuten. Orfeu'k berriz, bere maitasun samiña arindu gurarik, bere lirarekin zuri abesten zizun emazte maite orri, zuri, bakar ísas-egi bakarrean, zuri eguna urratzean eta zuri eguna itzaltzean ere.

Tenare'ko akaldeetan ere sartu zan, Iainkoen ate sakonak, baita izu beltzez illundutako basoan ere: Manes'etara ere ioan zen eta aien errege bel-durgarriarengana giza-otoitzekin iñoiz ere beratzen etziren biotz gogor aien-gana. Ala ere aren kantuekin iñarrosita Erebi'ko tegi sakonetatik itzal segai-

llak eta argi gabeko irudiak ari ziren ilkitzen, Arratsak naiz ekaitz euritsuak mendietatik dituenean ostu tartean izkutatzen diren millaka txoriak bezin ugari: amak, senarrak, gizuren zenduen gorpuak, aurrak, neska ezkongabeak eta gurasoen aurrean arakiñek lepo egindako mutil gazteak; inguruan bere ur zikiñekin lotuta dauzkaten idoi gorrotogarriak, lokatz beltzak eta Kozi-te'ko seska nazkagarriak eta bere magalean bedatzi bider atxillotzen dituen Styx (infernu). Baita Erio'ren etxea ere arritu zen Tartarus'en sakonenean; suge urdiñak adatsean naasita dituten Eumenideak; Zerberus'ek, ao zabal-ka, bere iru eztarriak ixildu zituen eta aizeak darabillen Ixion'en errota ere gelditu egin zen.

Orfeu'k galbide guztiak garaitu ondoren oiñak atzeratu zituen: Euridike biurtua izan zitzaion eta bere atzetik zetorren egurats zabalera (Proserpine'k lege ortara beartu bai zuen) bapateko eroaldiak maitari gaixoa io zuenean, barkakizuna noski, Manesak barkatzen balekite; gelditu zan, ia egun argira iritxi zenean; oro ahantzirik ondiko, eta biotz gabetuta, atzera begiratu zuen. Bertan ondatu ziran aren lan guztiak, tiranoarekin egin egiunea bertan eten zan. eta iru aldiz ieiki zen ots aundi bat inpernuko leizetik: «Nork galdu gindun ni errukarri au eta zu Orfeu? Nungo eroaldik? Orra, adu gaiztoek berriz ere deitzen didate, ta nere begietatik lo aztunak argia esku-tatzen dit. Agur, bada!; inguratzen nauen gau beltzera naramate ta zure-gana luzatzen ditut nere beso ezinduak: ez naiz zurea iñoiz geiago izango!» Esan eta bereala, aize meearekin naasten dan kea bezala begietatik suntsitu zitzaion; alperrik ari zen itzalak atzeman naiez, alperrik ari zerbait esan naiez; etzuen gerotik ikusi ta Orki'ko atezaiak elkar-bakantzen zituen aintzi-ra igarotzen etzion utzi. Zer egin? Nora jo bi bidar ostu zioten emaztearen billa? Nungo negarrekin xamurto aal Manesak?, nungo oiuz iainkoak? Ua (Euridike) noski, otz-otzik, Estigi ontzian zioan urak ebakiz.

Zazpi illabete iarraituetan, diotenez, Estrimor'ko desertuan arkaitz aundi baten irzalpean negar egin omen zuen eta leize izoztu auetan auznartu omen zituen bere naigabeak, bere kantuekin katamotzak lilluratuz eta arteondoak makurtuaraziz. Aalatsu deitoratzen ditu urretxindorrek galdu dituen umeak lertxunaren itzalpean, nekazari biotz gogorrek oraindik lumatu gabe zeudela kabitik kendu zizkionak: gau guztian ari da negarrez eta adarrean kokatuta bein ta berriz asten da bere kanta negartian zabaldu guztia intziriz beteaz. Iñungo maitasunek, iñungo ezkontzak eluke aren gogorik makurtuko. Bakar zebillen Iparreko izotz, Tnain elurtsu ta iñoiz iñontzik galtzen eztuten Ri-pee'ko zelaietan barrena, bere Euridike ebatsia eta iainkcn alperreko la-guntasuna deitoratuz. Alako goratarrearekin, beren ustez zapuztuak, biziro aserretu ziran Likonitar emaztekiak, eta iainkoen iai ta gabeko Bak'en orgeietan gizon gazte bat urratu ta aren aragi-puskak alorretan sakabanatu

zituten. Aren marmorezko lepotik erauzi burua Iber Eagriarraren urek trumilka zeramatenean, berez aren mingain izoztuak oraindik ere Euridike'ri ots egiten zion eta «Euridike» berresaten zuten ibai-ertzeek beren luzean».

Oiek esan zituen Proteu'k eta itsasora bota zuen bere burua ur zurrumillor apartua inguruan eraikiaz.

Kirene, ordea, etzen aldendu ta izu-ikaraz ola mintzatu zitzaion semeari: «Seme, aldera itzatu biotzeko kezka illunak. Ori guzia duzu eritasunaren iturria: orra zergatik Ninpak, Euridike dantzaburu zala oianean dantzatzen zirenak, erio errukarriz zure erleak il zituten. Zoaz arrenka, emariak eroanaz, eta pakea eskatu ezaiezu; iaurets itzatu Napeak barkatuko dizute bada, eta zure otoiitzek aien aserrea baretuko dute. Baiñan, lenengoz, nola otoi egin bear diezuen esango dizut mailka. Aukera itzatu gorpuzkera ederreko lau zezen Likea'ko gaillur ezeetan bazkatzen dituzunen artean, eta iñoiz uztartu gabeko beste ainbeste bigantxa. Laurontzat lau aldare eraiki itzatu iainkosen Tenpluen aitzinean: ixur-arazi ezazu aien lepoetatik odol sagaratu ta utzi itzatu aien illotzak oian itzaltzuan. Ondoren, oilaritea bedatzigarrenez ieikiko denean, Leteeko lo-belarrak eskeiñiko dizkiezu Orfeu'ren Manesei oparitzat: Euridike baketzekc aldiz, bigantxa ilko duzu, baita bildots beltz bat ere lepo egindo duzu, ta baso sakratura biurtuko zera berriz ere».

Luzatu gabe, bat batean amaren aginduak betetzen ditu; esan tenpluetara doa, agindu aldareak eraikitzen ditu, gorpuzkera ederreko zezenak daramazki ta beste ainbeste bigantxa uztartugábeak. Gero, bedatzigarrenez oilaritea ieiki zanean, Orfeu'ri opalketa egin eta baso sakratura itzultzen da. Emen berriz, benetan mirari arrigarria, idien aragi urtuen artetik erleak ageri dira burrundari, erleak sabeletik eta lertu saietsetatik igesi: edoi tzarren antzera pillotzen dira ta laldeka zugaitz gaiñean kokatzen adarrak abailduz.

Oiek abestu nituen, alor, abere eta zugaitz-lantzeaz: artean Kesar aundiak Eufrate sakonaren aurka gudu-tximistak irazitzen zituen, eta garaille, ala nai zuten erri guztiei bere legeak ezarten zizkien eta Olinpu'rako bidea urratzen zuen.

Garai artan Partenope amultsuak alatzen ninduen ni, Bergili, pozik alajaiña, ezelako ezbearrik gabe nere naikariak oro bakartegi apalean beteaz; ni, lenago unai-kantak io nituena, eta gazte ausart, zu, Titir, «pagondo zabalaren adaburuplean etzanda» gorai pa zindudana (12).


OARRAK

- (1) Aristotel'en ustez, ezta erleek biltzen duten zerutiko intza omen da.
- (2) Prokne'k Itis semearen aragi puskak eman zizkion Tereus bere senanarl iateko, eta enada billakatu zen.
- (3) Erregeak, eto ez erregiñak, ziran erlakumeen gidariak garai artakoen ustez.
- (4) Kibele da Amandrea, ta Iainkoen Ama ere deitzen zioten. Onen apaizek kinbalak io oi zituten Amandrearen omenez, ortik *amandrearen arratzak*.
- (5) Saturn'ek, semeak laten zituen, Rea'k baiña Iupiter Saturn'en eskuartetik gaizkatu eta Kuretar apaizei eman zien zaitu zezaten, eta apaiz oiek dunbalak eta ioten zituten aurraren karraxiak entzun ez zitezen.
- (5) *Casia*; zenbait landare mota adierazten ditu Bergili'k itz onekin: emen *izkaro* itzuli dugu, *ros marimum* alegia, Olabide zenak sortu itza.
- (7) *Soatsi* aditza Xuberoan erabilli oi dute, ta erlategietatik ezta atera esan nai du. Orix? zenaren aotik entzun nuen lenengoz itz eder ori ta Azkue'ren iztegi nagosian ere antxen dago.
- (8) Taugete. Pleiadetako izar bat, iorrailean azaltzen zun bere aurpegia; Arraiña izar-mordoa agertzen denean, Pleiadak itsasotlk ezkututzen dira Azillaren aurregunetan. Orra erlategiak soasteko garaiak: udaberria eta udazkenez.
- (9) *Amellus*, eztakigu gaur egunean zein landareri dagokion, naizta zeapen ain ugariak eman Bergili'k.
- (10) Aristeu, Arkadi'ko errege izana, Apol eta Kirene ninparengandik sortua, len ere aipatua; geroago ikusiko ditugu Aristeu'ri gertatuak.
- (11) Pankaiako suak, intzentsua alegia, lurralde artatik ekartzen baitzuten.
- (12) Partenope, Napoles'en antxiñako izena alegia,

ENEARENA

ENEĀRENĀ

*PUBLIUS
VIRGILIUS*



*AITA
ONAINDIA'K
EUZKERATUTA*

ITZ BI

Amabi liburutan idatzi zun Bergili'k bere poema nagusia. Gaiez ezta zailenetakoa ere. Adur edo alabearrak Enea bakaldun-gaiaren abespeluan ipiñi zuten, Troia jausi ondoren, ango aberri-jainkoak Itali'ra aldatzea; Enea'k, gaiñera, troiar beste gizaseme bulartsu batzuekin batera, antxe, Itali'n irasi ta jaso bear zun Ilion berri bat. Auxe zan bere egitekoa. Enear edo troiarrak, Erroma'n aoz ao zebillenez, erromatarren aurretikoak ziran. Elezar onek pozez gaiñezka jarri ta asko arrotzen zitun Erroma'ko andiki-erraldiak, Juli errege-jatorrikoak batez ere, jainkoen leiñutik zetozela uste baitzuten. Juli Kaiser'ak esan oi zunez, Juliar sendia —*gens Julia*— Enea'ren seme zan Jul'egandik omen zetorren; Enea, berriz, Ankise'ren eta Venus'en seme zenduan. Ipuì ra elemele auk arras zabaldua zeuden Erroma'n; kondairazale ta olerkariak oso ziurtzat zeuzkaten, beren olerlan eta edeskizunetatik ageri danez. Eta guzti au, Bergili'k illezkortu zigun bere poema nagusia, Enearena osatzean.

Bergili, irizleak diotenez, Omer'en lanetara joan zitzaigun egur-billa. Ta, izan ere, Bergili'k bere poemaren lenengo sei idaztietan Enea troiar gizurenak egin zitun ara-onako ibillaldiak jaiki ta aipatzen dizkigu, Omer'ek Odiseu'renak bezela; beste seiretan, ordea, Lati'n izaniko larrimin ta burru-kaldiak edestuz, Iliarena'ren antzeko gertatzen da. Alare, egintza epikua orrela zatiturik egonda ere, ba-du batasun betea, gerkar ipuia ta italiar us-tea antze-joko bikaiñez nastu-eraturik. Eta auxe dugu, izatez ere, Bergili'ren lanak duen doerik ederrenetarikoa.

Esana gelditu danez, *Alor-kantak* dira Bergili'ren lanetatik osoena. Berak alare *Enearena* zeraman biotz-muiñean, Orixe'k bere *Euskaldunak* bezela edo. Maite zitun, txit maite, Erroma ta Itali; ta auxe da Bergili'k bere olerki garaian kantatu duena, Erroma'ren jatorria, apala bezin aintzatsua. Ona gaia, laburki: Enea'ren ontzidia, Juno jainkosak aizatzen duen ekaitz ikaragarri batek sakabanatzen du, kresalaren zabaldi zear. Troiarrak, katazka bizian lerrenak eginda gero, Kartago'ra eltzen dira; txera ona egiten die ango erregiñak, ots, Dido'k (I'go Lib.). Dan-danak ixillera diranean, ainbat gertaera arrigarri entzuten ditu erregiñak, Enea'ren agotik: zurezko zaldia-aren iruzurra, Troia erretzea, ta Enea'ren igesa bere gudaroste apurrakin,

Mediterraneu zear (II ta III'gn. Lib.). Dido Enea'z maite-berotu da guztikoan, baiña gizurenak, jainkoek esana burutzearren, arpegi ematen die gogor maite-zirikaldieri. Dido'k, etsia, bere burua iltzen du (IV'gn. Lib.). Sikili'ko itxas-egaletara irixtean, jai aundiak ospatzen ditu Enea'k Ankise bere aitaren omenez; gero, berriz ere Itali'rantza. Su-leizera ta Eliseu-zelaietara jetxitzen da, ta emen Sibila'ren agotik entzuten du bere ondorengo gurenei buruzko igarkizuna, baita Errcma'k lurbira edatuan izango duen aginpidearena ere (V ta VI'gn. Lib.). Tiber ibai aora eltzen dira azkenik. Seigarren kantu au dugu amabietatik ederrena,

Urrengo sei kantuak, troiarrak lur-zati bat iritxi ta bertan uri bat eraiki bearrez izan zituzten neke ta alegiñei eskeiñiak daude. Labiñe'kin ezkondu bear du Enea'k, Latin erregeren alabakin; baiña errutuldarren buruzagia, Turno, Labiñe'ri ezkontz-itza emanikoa kendu bear da bitartetik: guduaren ler-otsa. Troiarrak ortarako, Lati'ra eldu ala, Latin erregeakin alkartzen dira; onek bere alabaren eskua eskeintzen dio Enea'ri. Turno'k, alare, ez eta bai gudu-zelaian liskartu bear du dedu ori (VII'gn. Lib.). Geroago Erroma jasoko zuten lekuan errege 2an Ebander Enea'kin itundu ta alkartzen da. Enea'k, ostera, Bulkan'ek berak egiñiko ezkuta, erromar edestiko egintsari aundienak margozturik zeuzkana artzen du Venus bere amagandik (VIII'gn. Lib.). Ez ur ta ez ardoko burrukaldi batzuen ondoren, Turno'k azkenez Palante, Ebander erregearen semea iltzea lortu du. Enea'k jazartzen du, baiña Juno'k, troiarren arerioak onez ateratzen (IX ta X'gn. Lib.). Palante'ren eortz-illetak arrandiz ospatutakoan, Turno'k eta Enea'k aurrez aurrezko burruka latz?, dagie; errutuldarra ilda gero, Enea'k eskuratzen du, Labiñe'kin, Lati'ko nagusitza (XI ta XII'gn. Lib.).

Galdu-gorde ta norezeko mintza-kanta, gudu-poema duzu *Enearena*; Omer'en lanak —*Odiseurena* ta *Iliarena*— ditu euskai bezela, baiña aiek baiño beeragoko duzu zertxo batzuetan, Bergili'k ezpaititu ark, Omer'ek, ditun bakuntasuna, yalkitasuna, zar kutsuzko goiargi berezkoa, naiz-ta bere lana ere antze aundiz egiña izan.. Egilleak, bai batak bai besteak, bakoitzak bere erritarrak euki zitun gogotan beren poemak egitean: Omer'ek eladetarrrak orduko ekandu ta oitura latzakin; Bergili'k, erromarrak, askoz ikasiago ta barne-eragiñez mee segaillago; biak jator marrezturik utzi zizkiguten beren poemaetan batzuk eta bestea idatzi ziran gizaldietako izakera, sen, nurrei ta edegiñak. Omer'ek bere garaiko gauzak —elezarrak, jainkoak, uz-kurtzak, edeskizunak, egite arrigarriak— baten bildu ta goraipatzen ditu maixuki; Bergili'k ere berdin, August' en sasoiko gauzak —oiturak, kirol-jokuak, erri-jaiak, ikuskarriak—, orduko erromar erriak aintzat artu ta txalotu oi zitunak dakazki txairo ta dizditsu bere olerki garaian. Omer'en aldiko basa-indarra, gogo suarra aipatzea utzi ta alegi-gezurrezko gai erreza-

kin biotz-zauskada samurrez ornidu ta jantzi zigun bere oler-lana: aren idazkortzak zeatz oso eman zizkigun izaditik artutako anitz edergaillu. Gutxi dira munduko ele-eder guztian ere ark bestean izadia margoztutakorik.

Idazkera barrutian ere ezta Bergili lakorik. Azalez eztu ark akatzik, eztu bertso maketsik; aren sei-oiñeko edo exametruak durundi goxozko igurtzia dute gure belarrientzat. Mamiñez, orde, beti du ark esaera argia, betea; goxo, bipil, bizi lenengotik azkeneraiñoako guztian. Eztu iñork, diotenez, ez bere aurretik, ez gero, ark bezin ederki izkerarik erabili; naiz biotzaldi eztiak, naiz esan zurrak borobiltzen maixu duzu, oberik eziña. Oarmena du lendabizi, gero asmamena; beratasuna lenen, indarra gero. Olerkari-izateak lirikura darama epiku-saillera baiño len. Lurrera doaz ostoa, aize eragiñez; zumarrak intziri dagi egurginaren aizkorapean; elaiak, beren kabiak uzten dituzte; Bergili'k ba-daki au ta idurikizun auek darabilzki bere poeman: Troia'ren erorikoa, mendi beera zarataska datorren zumar-enbor antzekoa duzu; Dido'ren dardar-erasoa, orein zaurituaren pareko; Laokoonte'ren garraxi izugarriak, opamaitik zaurtua iges doan zezenak dagizkin orroe zakarren iduriko; kartagotarren lan-eragiña, erlauntz zaratatsu baten antzekoa; gudari-saillen joanak, kisne-andana dakarkio gogora; Enea'ren gain erortzen dan gezi-kazkabarrak, soro-zabal-di batera xetzaille jausten dan arri-jasa.

Poema zear biotz-eder dagerkigu Bergili, samur-ezti, kaden zale, giza-aultasunaren berridun. Ikara mee jartzen digu barrua, Andromake alargunaren neke-lorra azaltzean; Kasandere'k, bere lilluratzailleak atzeman, zerurontz jasoten ditu begi malkoztuak, alperrikako otoian. Gazterik iltzen diran gudariak erruki ditu: Korebu bere emaztegiaren aurrean iltzen da; Eurial, Nisu'ren aurrean; Palante, negar zegian gudarostearen begietan; Lauso, bere aita gaizkatzearen jausten da. Eurial'en amaren negar-zotiñak eta Ebander'-enak eztira errez adieraztekoak.

Gerkarren olerkia lasai argitsua duzu, erromatarrena garbots errutsua; ta bion artean Birgili, txangilla eskuan, maitasuna, biotz-zabaltasuna, gizar-teko anaitasuna opaka dagerkigu, Segura Mungia'k dionez. Bizitzari buruz, bere gogarketa samintsuekin eta urko-lagunarekiko rñaitasarre indartsuarekin, kristau-egoera iragartzen du; giza-gaitzak ulertu ta eurak sendatu naiez leiatsu, gaur eguneko larrimin, kezka ta ezin-egon urduriaren aintzintoki dugu. Sarkaldeko aita da Bergili, sarritan deitu zaion bezela; antziñateak duen zerik bikaiñenez lauki bat osotu du, arras yaukala; ta, erabat, oraiñaldiak duen eder, omentsu ta oberenaren aurrelari dugu. *Enearena*, goi-eragitez gerkar, barne-atsez erromar, biotzez ia kistar, Erroma'k gogo zun joana, orain aintzatsua ta Gizadiaren geroa, gizonaganako maite-suz txingartua, abesten duen poema da.

Bergili'ren lana txera ederrez artua izan zan. August'ek ez-ezik, orduko olerkari aundienak ere —Obidi, Propertzi, Kintilian— txalo-joka artu zuten.

Ikastetxeetan bera zan ikas-libururik aipatuena. Irartaldirik asko egin ziran, baita beste izkuntzetara itzuli ere. Pizkunde-garaian, latíñez idazten ziran poema danak *Enearena* zuten eredu. Arrezkeroan, ainbat eta ainbat iruzkin eta itzulpen egin izan dira; Menendez y Pelayo'k diñoanez, *Idazteuna*, *Kempis*, *Kixote* ta *Jainkozko Antzerkia* atera ezkeroz, ezta beste idaztirik onek beste itzulpen lortu duenik.

Guk oindiño egiteko geunkan, osorik beintzat. Etxeberria'tar P.'ek *Eneis*, Birjilio'ren *Eneida* euskeraz, idazpuru onekin argitaratu zitun Donostia'ko *Euskal-Esnalea'n Igo*. Idaztiko 612 bertso, (1928, 24, 39, 81, 116 ta 193 orrialdeetan). Besterik ezta, nik dakidala, aren poema jakingarria euskerara itzultzen ausartu. Merezi zuen, alare. Ta orrela egin dugu. Ondo ala ganora gabe? Ori geroak esango. Nik au eskatuko nioke irizle zorrotzari; berak egin dezala beste ainbeste; askoz errukiorrago bait-litzake maxio-lanean. Lendik ere emanak ziran kantu batzuk OLERTI'n; aiek, geienez, ikutu gabe dauzkazu emen. Latíñetik itzultzeko erabilli dugun argitalpena au izan da: P. Virgili Maronis *Opera*, cum Interpretatione et Notis Caroli Ruaei. Parisiis, typis J. Barbou, 1768.

A. O.



I

KANTA-GAIA: Poema ontan zer kantatzen dan.—Goitar Musa'ri laguntza eske.—Enea zazpi urtez itxaso zear ibilki, Troia'rrak Sikili izarotki Itali'runtz zoaztela, June'k ekaitz gordiña sortzen du, Eol aize atxilotuen erregek lagunduta.—Ontzidi sakabanatua.—Neptun, itxas-erregeak ekaitza baretzen du.—Zazpi ontzi, Libi'ko itxas-ertzetako kai-babes ezezagun batera irixten dira.—Enea'ren eiza ta basa-okela jatea.—Venus Jupiter'gana doa alaz ta espaz, Enea bere semearen zori gaiztoa dala-ta.—Jupiter'ek gogo-alaitzen du, Enea'k ortik izango duan aintza ta Erroma'tarren dirdaia iragarrik.—Merkuri'ren gaztigua.—Venus'ek,tiritar eiztari jantziz, Enea bere semearekin topoz dagi bidean, au oian uzuan alderrai dabillela: alkarren arteko itz-aspertua: Dido erregiñaren berri ugari.—Enea ta Akate, laiño barruan ikusgaitz, Kartago'ra doaz; emengo etxe ta jauregi ederrak ikuskatu ondorean, jauretxean sartzen dira.—Bertoko ormetatik dindilizka dauden laukietan margoziuta Troia'ko edesti ta gertaerarik irtenenak ikusirik, itxaropentsu gelditzen dira.—Beuren ontzidiko lagunak ere, itxas-miñetik onez irtenak, Dido'gana dioaz abegi on billa.—Ilioneu'k itz.—Enea'k laiñoa eten: Dido'ren izu ta arrera txeratsu.—Enea'k, bere Akate zintzoa ontzidira bialtzen du, Askani ara ekartzeko aginduz.—Maitagarri'k, ots, Cupido'k, Venus'en aztikeriz Askani'ren antza arturik, maite-sua pizten du Dido'ren biotz barnean.—Askani'ren loa Ida mendian, izpiko usai artean.—Enea'k Dido'ri egiñiko bezuzak.—Erregiñaren biotza maite-mindurik.—Orritsa: Jopa illetsuaren bertso-kantak.—Dido'ren gdde-itaunak eta azken-eskaria.

Ni naiz beste orduz, txirul-ots bigunean, unai-eresi-joka jarduna; **nik** gero, oianetatik irtenda, biran ziran atorra irakatsi nien lur-langilleari, naizta au asegaizt izan, eder ta esaneko izaten: nekazariantzat lan bikaiña, ziñez. Orain, ordea, Marte'ren ankerkeriak abesten ditut.

Guda-iskilluak kantatzen ditut, eta Troia'ko itxas-egalak ala-bearrez utzirik, Itali ta Labini'ko (1) ur-bazterra aurrenengo iritxi zun giza-seme urena gorensten dut; ark,bada, asko eroan bear izan zun ur ta ur, June zitalaren gibelmiñetik igeska, urtzitarrak ortaratua noski. Bai, amaika neke-lor izan zun gudartean, uria jaso ta etxe-jainkoak Lati'n jarri arte; emetik bai datoz latitar enda ta albanitar arbaso ta Erroma burgoiaren arresi zutiak.

Oroi ezaizkidazu, ene Musa, gauza aiek: zein jainko irainduk edo zer asarrek aizatu zun urtzien erregiña, giza-sume on errukitsua ainbat oker gaiztoz naasitu ta ainbat neke-min ari ar-erazteko. Nork usteko zun orren-beste sumin goikoen erraitan?

Antziña ba-zan uri bat, Kartago zeritzana, tiritarren egonleku, Itali'tik aurrez-eurre ta Tiber agotik urruti samar: antze-lanez jori ta guda-arazoetan oso latza. Uri auxe jantzi ta babestu omen zun June'k, beste eskualde guztien gaiñez, Samo (2) bera ere saiets utzita. Ementxe zeuzkan bere iskilluak, ementxe bere zalpurdia; orduan ere, adurrak ortan ba'zetozten beintzat, uri auxe erri guztien buru egitea opa zun arduraz. Baiña baita entzuna zun troiar odoletik jalgiko zala Tiri-tarren gaztelu ta arresiak noizbait bekoz-gora irauliko zituan enda; andik etorriko zala, Libi'tarren kalterako, jenderri oso ugarria, gudaritzan ezin azkarragoa. Orrela ardazkatu omen zuten Balbeak (Parkak).

Orren bildur zan Saturno'ren alaba, ta gaiñera gogoan zeukan oraindik Troia ondoan argutar maiteen alde berberak leia biziz egindako gudaketa zarra; bere barnetik etziran oindiño aienatu, ez, orduko aserre-zio ta neke-isi gaiztoak. Gogoan ondo barrendua zeukan Paris'en erabakia; baita bere eder-dirdai ezetsia ta jenderri aiertua ta Ganimedede ebatsiari eskeiñitako gorespenak ere. Onela, aserretan supizturik, Troiarrak, danaotar eta Akileu bulartsuaren puskak, itxas zear osoro banatuak, Lau mugatik albatanez saiesten dendatu (alegindu) oi zan: auek, berr;2, urteetan zebiltzan ur-gaiñez alderrai, aduen jostailu. Astuna zan nunbait erromar jendeari asiera ematea!

Sikuli'ko lurra ikusbidetik doi-doi galduta, galtzairu-brankaz gezal-bit-sak zirrikaturik, Troiarrak pozik itxas-zegiten ur aundirantza. Baiña aspaldiko zauri-eztena bular azpian zeraman June onela mintzo zan berekiko: aNik, azpiratua bear bada, ez ote diot asi-arloari eutsiko? Ezingo ote dut Teukro'tarren errege ori Itali aldetik urrunterazi? Aduak debekatzen didate noski! Pala'k ez ai zuan, Ajax Oilei'ren seme bat-beraren erru ta asarrengatik, avgutar ontzidia erre ta denak itxas-barnean murgildu? Jobe'ren su lasterra odeietatik egotziz, berak sakabanatu zitun ontziak; baita gezal sabela aize burrunbatsuz naspil-azi ere: berak, bular zulatutik sua zerion Ajax zirimol nasian artu ta aitz-mutur zorrotzean maspildu zun. Eta nola ni, urtzien erregiña ta Jobe'ren arreba ta emazte naizen au, ainbeste urtez erri batekin giidaketan? Eta, onen ondoren, nork gurtuko du June'ren ala, edo nork aren mai done aurrean eskale, opari-gaiak eskeiñiko?».

Gauza auek biotzean gar-iraulka, Eoli (3) ekaitz-sorterrira, zear-aize biurritz beteriko artzuloetara doa urtzitar emakumea. Eol erregek emen, arpe zabalean, esku latzez menderatzen ditu aize zakar ta ekaitz-eraso orrulariak, lokarri ta morroilloz galgaturik. Auek, ezigaitz ta asarre-astalka, marrao bi-

zi ari dira mendi-sabelean, baitegi guztia dardar dutela. Gaztelu garaian exerita dago Eol, agint-makilla eskuan duelarik; andik arindu ta paketzen du oro. Eta orrela ezpa-legi, aize oiek beren ekin latzean itxasoa ta lurra ta ortze sakona, oro nasturik, goiak zear amilduko lituzkete. Baiña aita guztialtsuak, onen bildurrez, leize-zulo beltzetan atxilotu zitun; mukulu astuna ta menditzarrak gain jarri zizkien; baita, agindurik, ao-ugelak estutu ta lasaitzen arau zuzenez zekian nagusia eman ere,

Aren aurrean ordun June'k itz auek ebaki zitun, otoitzka: «O Eol, urtzitarren aita ta gizonen errege danak, uñak naretu ta aizeak zirimoltzeko eskua eman zizuna: Tirren (4) uretan zear dabil eder etzaidan erri bat, Iliion eta etxe-jainko goituak Itali'n sar erazi nairik. Indar emaezu aize auei, ta urpera itzazu osoan ontzi erdi-estaliak, edo beintzat banakatu itxaso zear, aien gorpuak gezalpera egotzirik. Amalau ur-neskatx ditut, oso soin-eder, ta auetatik etsegingarriena, Deiope, emaztetzat emango dizut, neri zuk egiñiko on-ordaiñez, ta zurea dukezu, urteetan alkarrekin bizirik, seme-alaba lerdenen aita izan zakizkidan».

Eol'ek, berriz, onela jardetsi zion: «Zeure lana duzu, o erregiñ!, zer nai duzun ikustea; neri, zuk naia betetzea dagokit. Erreiñu au, izan ere, zuri zor dizut; baita agint-zigorra ta Jupiter'en adiskidetza ere; zure bitartez exeri oi naiz jainkoen maiean, zuk egin nauzu euri-jasa ta ekaitzen zuzentzaill».

Itz auek esanaz batean, zigor-erpiñez jotzen du Eol'ek mendi konkorra saietsean, eta ango aizeak, gudari-saldoa iduri, irikiko zulotik astrapalada gorrian urtenda, lur zabalean zear doaz zurrunbillotsu. Itxasoraiño ere edatu ta Euro, Notu ta ekaitz-aizeak alkar nasturik, gezal guztia asaldatu ta bekoz-gora jartzen dute, lur-ertzeko ondartzetara bildurgarrizko olatu-bagak konkortu ta amil-aziaz. Laster da gizakumeen garraxia ta txikoten karraska. Odeiak, bat-batez, zerua ta eguna kentzen dituzte Teukro'tarren begietatik: gauak egal beltzez estaltzen du itxasoa. Trumoi-ots daude zeruadatzak, eta tximista, dizdiz maiz berrituz ortzi-alde guztia: orok eztie gizonei gainbeerrako eriotza besterik iragartzen.

Enea'ri. bertan, otzak eten zizkion gorputz-atalak. Intziri dagi, ta bi eskuak izarretara jasoaz, onela mintzatzen da: «Oi, iru ta lau bidar zoriontsuak, gurasoen begi aurrean, Troia'ko arresi jaikien azpian eriotza izan zutenak! Oi, Tideu-seme, danaotarretan indartsuena!, nola ez nintzan ni ere Iliion'go zelaietan erori ta nere gogo au zure eskumapean ez nuan egotzi? An bai datza Ektor zangarra, Akileu'k geziz il zuna; antxe baita Sarpedon zaintsua ere. Oi, Simois (5) ibaiak ainbat beso-ikurdi ebatsi ta ainbat buru-askol ra ainbat gudari bizkorren gorputzil zaramalka daramazkin toki aietan ezin egona!»

Enea'k era ontan ziarduala, ekaitzak, iper-aizez kirrinkari, aurretik zauritzen du ontzi-oiala, ur-bitsak zeruraino jasoaz. Arraunak austen dira, ta ontzia aurrez atze jartzen da, alboa uñai eskeñirik; mendi eskerge iduri, izugarritzko ur-meta dator ondoren. Ontzi batzuk orren erpiñean gelditzen dira zintzilika; beste batzuei, olatu bat zartatu dalako, uin artean azpia ageri zaie. Gezal-barneko ondar-eragin bizi! Iru ontzi, Notu'k, biurrian arturik, azpiko aitz-mokor gordeetara jaurtitzen ditu: Itali'arrak *mai doneak* (6) deitzaie uin artean bizkar eskerge antzera itxas azal dauden urpeko arkaitz auei. Euro'k beste iru itxas urrunetik ur-ertzeko etaka ta ondar-moltsoetara dakazki —ikuskezun arrigarri!—, an uberetako zulu-muluetan erats-eratsi ta ondar-lubakiz inguratzeko. Beste bat, Liki'tarrak eta Oronte zintzoa zeramazkina, Enea beraren begi aurrean, izugarritzko itxaskiak goitik beera erasoten dio atzekaldetik: lemazaiña gogor astinduta, buruz beera egotzi du itxas-barnera, ta ontzia, olatuak an bertan iru aldiz inguruan kirimildu ta zurrunbillo zakarrak irunsten du gezal-erraietan. Banaka batzuk ageri dira itxas zabalean igeri; gudarien iskilluak eta ol-zatiak eta Troia'ko ondasunak ere uretan zapart. Bitartean Ilioneu'ren ontzi bikaiña menderatu du erasoak, baita Akate azarriarena ta Abante zioana ta Alete zarrarena ere: denak, zirristuetan brintzatuak, alboetako une lotzagetatik ur etsaia artzen dute.

Neptun' ek ba-dakusazki, tarte ontan, itxasoa iskanbil aundiz nahasia ta gain lertu dan ur-tulubio zakarra ta barren-barrendiko zingira-irakin itzul-erazoa; sumiñak oso arturik eta itxas zabalera so-egiañaz, ur gaiñean agertzen du bere buru ederra. Uretan oso edatua dakus Enea'ren ontzidia, eta troiarrak estu ta larri olatu-naspil ta zeru-triskantzapean. Anaiari ez zitzaizkion ezkutatu noski June'ren iruzur ta sumiñak. Euro ta Kepir beregana deitu ta onela diotse: «Ainbesteko ustea al duzute zuen baitan? Noiztik ausartu zerate, aizeak, nere baimen gabe, ortzi-lurrak naspildu ta ainbesteko urmendiak jaiki-erazten? Zuei nik... Baiña obe dut lenengo uin eragiñak naren: Gero, berdiñik izan ez tun zigor-nekez ordainduko didazute egiña. Emaiozute igesari, ta au esan zuen erregeri: «Ari ez, neri baizik, emana izan dala zozketan gezaleko agintea ta iruortzeko zorrotza. An ditu ark arkaitz galantak: ire estalpeak, noski, Euro! Jauregi artan bizi bedi Eol nasaiki, aizeen baitegi goibelesko nagusi».

Onela dio, ta esan bezin azkar uin arroak baretzen ditu, ta odei alkar-tuak uxaturik eguzkia jartzen du ñirñir. Batera, Kimotoe'k eta Triton'ek, alkarri lagundurik, ontziak askatzen dituzte aitz-tuturru zorrotzetatik; berak ere iru-ortzekoz jasotzen ditu, ta barneko ondar-pillak agerian jarririk, itxasoa baketzen du; ta, azkenik, gurpil arin dabilkizu ur bizkarrez txairo. Eta askotan uri nagusi baten, zalaparta sortu dala-ta, bertako kaxkarrak su-bero dabil-tza, zuzi ta arriz sekulako barbuilla egiñik, ezin-ikusiak esku bakoitzean iskillu bat jarriaz; baiña olakoetan gizaseme zentzundun eta agurgarri bat

apika azaldu ba'ledi, asaldatauk ixillera datoz ta olakoari entzuteko adi-adi daude, ta bere itzez gogoak narotu ta biotzak ezti biurtu oi ditu. Era barean ixil-erazi zun Neptun aitak itxasoaren zalaparta, biurrialdi osoa, ur-zelai zear begiak edatu ta ortzi garbipean bere zaldiei eragiñik, ao-ugelak jarei, gurdi ariñean egaz abiatu zanean.

Enea'ren lagun aulduak, urreneko ur-ertzetara eldu nairik, Libi'ko murretara jotzen dute. An ba-da toki bat bakartegi zabalean, ugarteia noski, bi bizkar luzeak diotela kaia egiñaz an lertzen da ur aunditik datorren uin oro, kolko medarretan banakaturik. An eta emen arkaitz aundiak eta bi ugarri daukazu, goiari zemaika; auen azpiko ura, berriz, txit narot ta ixilla dago. Goi aldetik, gaiñera, antzoki antzeko oian urduri dirdaitsua agiri da, basarte zurbilla itzal ikaragarri zintzilika daukala. Beste aldetik leiza bat dago, aitz-mutur esekiekin; ur gezak ditu barruan, eta jarlekuak arri bizian; ur-lamien etxea duzu. Ontzi abailduak an eztute lokarririk bear, ezta ortz makurdun aingurarik ere. Onaxe jotzen du Enea k' gelditzen zaizkion zazpi ontziak bildurik; eta troiarrak, lur-min gorritan aietatik irtendakoan, ondar leiatuaz jabetu ta kresalak iñarturiko gorputzak ur-ertzean egokitzen dituzte. Eta Akate'k, lenbizi, suarritik txiñar bat jalki-azi du; ta sua ostoz batzuetan bilduz, errekin legorra eman dio inguruan ugari, sugarrak indar aundia arturik. Orduan ainbat zorigaiztok nekaturiko aiek, urak iroldutako garia ta Kere'ren tresnak atera ta itxas-erasotik jasotako gari-aleak sutan erre ta arri gaiñean zeatzen diardute.

Enea'k, bitartean, aitz baten gaillurera igota, itxas urruna begiztatzen du oso, aize-eratuak jaurtitakoen bat agiri ote dan, noski: Anteu ta Pri-gitar izontzi arraun bikoizdunak, edo Kapi, edo Kaiku'ren iskilluren bat ontzi-atze zutietan. Eztu ontzirik begiz jotzen, baiña iru orein, bai, dakuzki ur-ertzean urduri; atzetik auen jarrai, ordea, abere-talde aundia, ta ibarrean ere an ta emen pilloak bazkatzen. Emen gelditu da Enea, ta arranbela ta gezi ariñak, Akate zintzoak zeramazkin iskilluak, eskuraturik, aurrenen adar abartsuz zuzendari bezela doaztenak erasten ditu; ta gero, gezi-jaurtika bes-teen ere oian ostotsuan zear erasorik, larria jartzen du orein talde osoan. Eta ezta berean asperten, zazpi gorputz aundi, itxasoan ditun ontzi aña, lurrean zerraldo utzi arteño. Emendik kaira jo ta nekekideen artean banatzen du eskuratutako eiza; baita, ondoren, Akeste gizuren onak Trinakri'ko (7) izpaz-lerrean upelatan ipiñi ta andik alde egin zutenei emaniko ardoa ere.

Eta aien biotz itunak itzokin gozatzen ditu: «O lagunak! (eta ez daukagu aiztuta, gero, lendik izandako neke-lorrak); o zuok, gorriagoak ikusi du-zutenok! Gaitz aueri ere Jainkoak azkena emango die. Zuek, egiaz, Eskile aserratura urbildu zerate, ta barnean ots-dagiten arkaitzetara; baita Kiklope' tarren arpeak ere somatu dituzute: biotz on zaitezte, bildur goibela uxatuaz; neke auek gogoratzea ere iñoiz, bear bada, atsegin izango zaigu. Ainbat

gorabera, ainbat estutasun ta galzori artean, Lati aldera goaz; aduak antxe derakusazkigute esertoki lasai nareak. An aizu gera berriz ere Troia'ko erreinua piztera. Sendo zaitezte, eta gorde zeuen buruak abagune egokietarako».

Onela itz dagi, ta, kezka aundiak naigabetu arren, arpegiz itxaropena erakusten du, bere oiñaze gorria biotzean itorik. Aiek (troiarrak) eiza gertatzen ari dira, ta ondorengo ianari-gaiak; oreiñak alboetatik larrutu ta erraibillois uzten dituzte; batzuk, zatitan ebaki ta burduntzietan jartzen dituzte pilpilka.; beste batzuk, pertzak ondarrean atundurik, sua ezartzen diete. Gero, janez ederki indar-berritzen dira: belazean zabal etzanda, ardao zarrez ta oreinki gogoz asetzen. Jatekoz gosea il ta maiak jaso ondorean, luzaro ari izan dira izketan galdutako lagunuen buruz galdezka, bildur ta itxaropen artean zalantzaz: orain uste dute bizi dirala ta gero illak dirala, edo-ta, dei egin arren, beren deirik ez dutela aditzen, iruditzen zaie. Enea biotz-onak, batez ere, Oronte azkarrari ta Amiku'ri gertatua, Liku'ren zori gaiztoa, ta Gia ta Kloantu kementsuen adu gordiña negartzen ditu bere baitan.

Eta autu auen azkena zan, Jupiter'ek, ortzi goitik, ontziak oial-zabal dabiltzan itxasora ta lurralde etzanetara, ondartza ta erri edatuetara begiratuz, zeru-gangan orrela gelditu ta bere betarte dizditsua Libi'ko erreinuetan tinka jarri zunean. Eta olako arduraz eragiña barrua zekarrela, Venus doakio ta, oso naigabetua ta begi ederrak nsgar-anguluz beterik, onela diotsa: «O, zu, gizonen eta jainkoen gora-berak betikoalez zuzendu ta jutzuriz ikaran jarri oi dituzuna: zer txarrik egin lezakean zurekiko nire Enea'k? Zer egin izan dizute Troia'tarrak, ainbat zori-nekez lorpetuta, lurbira guztian Itali'rako bideak itxitzen ba'zaizkie? Zuk, ordea, urteak joan urteak etorri, erromatarrak emendik sortuko zirala agindua duzu; emendik irtego zirala, Teukro'ren odola berriturik, buruzagi zangarrak, noizbait ur ta lur aginpide betea izango zutenak. Iritzi ortatik, zerk aldatu zaitu, ene aita? Onekin, egiaz, Troia'ren erortze ta ango ondamendi zurbillaz ere zerbait poztutzen nintzan adu gaiztoen aurka adu onak jarririk. Eta orain ere adu gaizto berbera dute jarraika, ainbat gertaerak sarnindutako gizon auek. Zer azken damaiezu, errege aundi, neke oiei? Antenor, akibitarren artetik igeska, Iliri'ko itxas-kolkora jo ta ezertariko kalte gabe Liburni'tarren errialderaiño iritxi zan, eta andik Timabi'ko iturria goitu al izan zun, bederatzi ur-agotik mendiz beera, itxaso zaratatsu antzo, jauzika amilduz, inguruko zelai-lauak dardaratzen dituna, noski. Berak, alare, antxe eregi zun Padua'ko uria eta antxe ezarri zitun Teukro'tarren egoitzak; baita angoeri izena eman ere, Troia'ko iskilluak bertan tinkaturik: orain, antxe obiratua, pake gozotan du atsedena. Gu, ostera, zure semeok, zeru-jauregian erkide gerala, ontziak galduta —au lotsaria!—, gaizkin baten asarreagatik, arat-onat gabiltza galduak eta Itali'ko iz-bazterretatik gero ta urrutiago jauertiak. Au ote erruki-sari? Onela nai al duzu gure aginte-makilla piztu-erazi?».

Gizonen eta jainkoen aitak, irri-barrez, ortzea ta ekaitzak baretzen ditun arpegi alaiz, pa goxoak eman zizkion alabari; gero, onela mintza zaio: «Ez bildur izan, Kiterar maite: aldakaitzak dituzu zuretarren aduak; ikusiko dituzu nik agindu nizkizun Labini uria ta bertako arresiak, eta Enea biotz-aundia gora, zeru-izarretaraino jasoko duzu; etzait asmo ori aldatu. Ta onek (esango dizkizut, ardura orrek ozkatzen dizun ezkeru, urruti samarretik nrtuta, etorkizun dauden gertaera ixillak ere) guda izugarria egingo dizu Itali'n; erri ezigaitzak eskuratuko ditu, lege ta arresiak gizonei ipiñirik, irugarren udaldiak Lati'n agintari ikusi arte, ta errutuldarrak menderatu ondoan iru negu igaro arte. Eta orain goi-izenez Jul deitzen dioten Askani aurak —Il zeritzan Ilion'go errialdea bere jaube zala— illabeteak itzulika, ogeitamar urte luze beteko ditu bere agintaritzan; errege-aulkia aldatuko du Labini'tik, Albalonga'ri indar aundia ezarriaz. Emen, berriz, irureun urte osoz Ektor'tarren gain izango da erreñua, Ilia (8) erregiñ opaltzailleak, Marte'gandik izar, aur bikoitzak argitara dakarzkin arteño. Gero Erromul'ek, otseme bere iñudearen larru gorapean pozik, jende aiek artu ta Marte uriko nrresiak irasiko ditu, erromatarrai bere izenez deituak. Nik ez diet auen ez agintze-rnugarik ez eperik jartzen; azkenik ez dun eskubidea emana diet. June gordiña ere, orain itxaso ta lur ta ortze bildurgarriro naspiltzen ari dana, erabakiz oneratuko da, nerekin nasi gauzen artezkari diran erromatar jende togadunei lagunduko die noski. Ona ene gogoa. Gero, urteak igazirik, Asaraku etxeak Ptia lurraldea ta Mikena argia ta Argu azpiratua menpean izango ditu morroe-zurrian. Jatorri eder ontatik sortuko da troiatar Kaisar, Juli, Jul aundiagandik arturiko izenekoa noski; bere aginteriak itxasoan izango du amaia, ta izarretan bere ospe-entzuteak. Zuk au, noizbait, Sortaldeko garaitz-irabazkiz ornitua, bildur gabe artuko dozu zeru-goian; gizonak, ordea, eskeinka dei dagiokete. Orduan, gudaketak utziz, gizaldi latzak samurtuko dira. Siñiste ille-zurik eta Besta'k, legeak emango dituzte, baita Krin'ek ere bere anai Erremu'kin naste; Guda'ren ate ankerrak burniz ta zarraila estuz itxiko dira; Sumin zitala, barnean, iskillu gaizto-belt2 gainean eseria, ta sorbalda atzetik eun galtzairuzko lokarritz korapilloturik, murruza dagike izugarri, aotik odol-jario».

Au dio, ta Maia'ren semea —Merkuri— bialtzen du goitik, lur-inguru ta Kartago berriko gazteluak iriki zitezen, Teukro'tarrai abegi ona egiñik: Dido'k bear bada, esanaren berri gabe, bere lur-mugetatik bota etzitzan. Egaz dagi ark goi zabal zear, egoak arraun, ta laster baten Libi'ko ondartzetan kokatu da. Eta beingoan betetzen du agindu zaiona, ta, kartagotarrak, Jainkoak ola naita, beuren biotz ankerrak samur-erazten dituzte; erregiña, batez ere, barne paketsu, osoan urrikaltzen da teukrotarren zorigaitzo.

Enea onak, berriz, gaua gauza asko irauliz igaro arren, argi bizigarria agertu danekoxe kanpora irtenik, lurralde berri aiek ezagutu nai ditu; zein

ur-ertzetara aizeak ekarri zitun, nortzuk ziran ango biztanleak, gizonak ala piztiak, landu gabe bait-dakuzki toki aiek; eta gero, lagunen iragarri ikusia oro. Aitz sabel zapalpean, oian tringu zugatz eta itzal izugarritz itxian gordezten du ontzidia; bera oiñez doa, Akate bakarrik lagun dularik, mutur burnidun gezi dardari bana biak eskuan. Eta oni, basoaren erdirantza, bere ama agertzen zaio bidera, neskatz jantzi ta irudiz: espartar neskatzta ematen du iskilluz, edo-ta Treisa'ko Arpalitze zaldiai eragiñaz, ta Euro lasterrari ere igesean aurea artuz. Izan ere, eiztari artean oitura danez, lepotik txintxilika darama arranbel egokia; illeak, berriz, nasai zeuzkan aizeari emanak; belaunak utsik, ta soiñekoaren aloz arroak korapilloz bilduta. Eta, aurrenik, berak diotse: «Kaixo, gazteak: esaidazute ikusi ote duzuten emen alderrai nere aizparen bat, gezi-ontzia aldean eta larra nabar antzeko jantzi-az, edo basurde lerdetsua atzeman naian oiuka».

Onela Venu'k, eta Venu'ren semeak bere aldetik jardetsi *zion*: «Ez dut, ba, zure aizpaetatik iñor ikusi, ezta ezer entzun ere. O neskatz!, ze izen emango dizut?; zure arpegi ori ez bait-dirudit ilkor balena, ezta abots ori ere gizakiarçna. O, jainkosa zera, ziurki! Poibu'ren arreba ote, ala Nmpaen odolotikoren bat? Zerana zerala, lagun zakizkigu ta gure nekea lasaitu; esaiguzu, bai, nungo ortzipean gauden, munduko zein alderditan gabiltzan egotziak. Aizeak eta itxas zirimol zakarrak zoko ontaratuta, alderrai gabiltza emen ez gizonik ez tokirik ezagutu gabe. Zure omenez, geure eskuak zaurituta, opari-gai asko eroriko dira zure aldare aurrean».

Orduan Venu'k: «Ez naiz, iñolakoz ere. orren dedu-gai. Oitura dugu tiritar neskatzok, bai gezi-ontzia erabiltzeko, bai oiñetako gorri apain-goituak jazteko. Dakuskizun lurralde auek kartagotarrenak dira, ta tiritarrenak, eta uria Agenor'ena; mugateak, ordea, libitar enda oker ta guduan oso biotz-gabeenak dituzu. Dido, bere nebagandik igesi, Tiri uritik ona iritxikoaren mende daukazu guztia. Aundia noski ari egindako iraiña, ta esan gaitzak aren gora-berak; baiña gauzarik irtenenak esango dizkiizut gainaiñez. Sikeu zan onen senarra, penitzitarretan aberatsena lurrez, ta gaixoak maitasun beroz laztan zuena; aitak ikugea eman bait-zion, zorion-izar bikain pean arekin uztarturik. Baiña bere neba Pigmalion zan Tiri'ko errialdeetan agintari, makur gaiztoa oso, lur gainean beste iñor ez aiña. Aserrea sartu zan bion artean. Eta Pigmalion dongeak, urre-miñez itsuturik, Sikeu zur-eza opolmaiaren aurrean erail zun ixil-gordeka, arrebaren maitasunari muzin egiñaz; egindako likiskeria luzaro gorde zun maltzurak, baita aitzaki-maitzaki itxaropen zoro ziria sartu ere arreba maitale gaixoari. Bein, alare, ametsetan, senar eortz-gabearen sunbiila agertu zitzaion Dido'ri; arpegi bildurgarriro larutua jaso, ta opalmai odoldua ta bular burniz zauritua erakutsirik, etxeko belzkeriaren ixil guztia iragarri zion. Igesari emateko diotsa, aberri-mugak utzirik; eta, bide aringarri, aspaldiko altxor ezkuatuak atera-

tzen dizkio zoko batetik, konta ezin-alako zillar-urre meta. Dido, oiekin biotz-ikutua, igesari emateko asmuz, bide-lagunak gertatzen ari da. Eta or laster bilduta otoa begitan zutenak, edo-ta bildur latza ziotenak. Kaiean, alabearrez, gertu zeuden izontzi batzuek ere berengandu ta urrez bete dituzte. Or itxas zear Pigmalion zekenaren ondasunak, eta emakume bat dugu egiteko ontan buru. Orain dakuskizun toki auetara, ots, arresi garaitsu ta Kartago berriko uri indar-kementsu ontara iritxi ziran iges zetoztenak. Eta zezen larruz artu zezakean besteko lur zatia erosi zuten: ortik gero Birsas (9) (malkar, larru) izena. Baiña zuok, noizbait, nortzuk zerate?: zein itxas aldetik zatozte?: edo noruntz zoazte?

Enca'k, intzirika ta bular barren-berrenetik abotsa aterarik, onela erantzun zion galdezka zeukanari. «O, jainkosa: gure neke-arazoen goraberak asieratik esan bear ba'nizkizu, etzenuke noski entzuteko astirik izango, gure neke ta gertaera guztiak iragarri orduko Arratsak eguna iruntsiko luke-ta. Gu, aintziñako Troia'tik jaurtiak (Troia izena bederen zure belarrietatik igaroa baldin ba'da), irxas-azal askotan zear amilduta, ekaitzak ekarri gaitu adu-eragiñez Libi'ko ur-ertz auetara. Enea biotz-bera nauzu, izarrez goitik aipua dutana: etsaien eskutik onez ateratako etxe-jainkoak nerekin daramazkit ontzian. Itali, ene aberri billa nabil, eta Jobe garaiaren endakoa naiz. Ogei ontzikin itxasoratu nintzan Prigi'ko ditxoan; ene ama urtzitarra bide-erakusle izanik, emandako adueri jarrai izan diet; doi-doi gelditzen zaizkit zazpi, eta auek ere baga ta ipar zakarrak naiko erbaldurak. Nerau ere, ez-ezagun cta beartsu, Libi'ko eremu zear nabil, Europa ta Asia'tik iraitzia».

Etzun Venu'k biotzik intziri geiago entzuteko, ta, ala-jarduna etenik, onela diotsa: «Zerana zerala., tiritar urira etorri zeran orrek, ez duzu arnasten —nik uste— urtzitarrak iguin duten bizitz-aizerik. Zabiltz pixkat, ta zoaz emendik erregiñaren jauregiraiño. Zure lagunak bada, neuk diotsut, osasunez daude, zure ontzidia babes onean aurkitzen da, ta aise zakarrak ere baretu dira, gurasoak erakutsiriko azti-jakintzak ziririk sartzen ezpa-dit beintzat. Begira or amabiko antzar-sail atsegintsua, Jobe-ren egaztiak goi urdiñetik jexirik ozkarbitan nasi-erazten zuna: orain lerro luzean lurra artzen dutela dirudi, edo-ta armaren gain ikusmiran dabiltzala. Arriskurik gabe, egats-oska jolas dagite; kanta-urubi ari dira, saldoan goiak arturik. Era berean zure ontziak eta zuretarren gazteak ere onezkero kaiean daude, edo kai-agera irtxi zori, aize-oialak zabal. Zoaz, bada, aurrera, zaramazkin bideari ekiñik».

Au esan zun, ta alboratzean, didiz egin zion arrosazko lepoak, ille-mototsetik ere olako usain zorakorra zeriola; oiñetaraño erori zitzaion jantzia, ta ibilkeran egiazko jainkosa ematen zun. Enea, ama ezagutu zuneko, deika asi zan, iges zijoanari esanaz: «Zergatik, biotz-ikol orrek ere, iruzur

dagiozu seme oni, ainbat gezur-irudiz jostaketan? Zergatik etzait eman oi nere eskuia zure eskuiz alkartzea, ta egiazko itzak entzun eta erantzutea?» Onelako oiuz ama salaturik, uriko muruetara doa urbilduaz. Baiña Venu'k egurats beltzez estali zien bidea, baita laino nasia estalki antzo inguruan ixuri ere, iñork ez ikusi, ez ikutu, ez berant-azo, ez etor-zioaz galdegin etzezaian. Bera, goiak zear, Papu'ra (10), biurtzen da, ta an ber-ikusten ditu pozarren bere egoitzak: antxe du bere jauretxea, Saba'ko kedatsa antxe lurrinkatzen da eun oparnaitan, loretxorta bildu-berriak antxe ixur-tzen dute usai eztia.

Onebestez artu zuten aiek zidorra agertzen zaien bidea. Baita igo ziran uria osoan gaiñezkatu ta bestekaldeko jauregiak gainbera ikusten diran gaillur-lepora ere. Txunditu zaizu Enea, beñola artzai-txabola besterik etzan toki artan ain mukulu aundia ikusirik; sor ta lor dakuski ango ate, bidarri ta jendeen iskanbilla. Gartsu diardute Tiritarrak: batzuk muruak eta gaztelua eraikitzen ari dira, arriak eskuz iraulirik; beste batzuk etxetarako orua aukeratu ta zotaskaz mugatzen: berezi dute auzitegia, lege-etxea ta aldundi donea nun jaso. Emen auek kai-obia zulutzen dute; an aiek azpi sakonak egokitu dituzte antzokiak eraikitzeko: arkaitzetatik zutarri eskergak ebakitzen dituzte ortarako, geroko antzezkiunetarako apaingarri dirdaitsu bezela noski,

Ona erleak uda berriz: lanak darabiltza eguzki galdatan, zelai loretsu zear, beren endako kuma-moltso azia ateratzen dutenean, edo-ta ezti jario-korra tinkotu ta abaraskak gurin gozoz anpatzen dituztenean, naiz itzuliz datozenen zama-sortak artzerakoan, naiz taldea osoturik, listor pizti nagiak erlauntzetatik baztertzean. Borborrean diraki lanak, ta ispillu usaia ematen du eztiak. «O, zoriontsu zerate zuok, orma oiek gora dijoaz-ta», dio Enea'k; eta uriko dorre-buruak begiz jotzen ditu. Gizartean sartuaz doa, lainoan estalia, —gauza arrigarria benetan!—, ta ez du iñork ere ikusten.

Uriaren erdian ba omen zan onako zabaldi atsegingarri ta itzaltsua; kartagotar uin ta aize-erauntsiz ondatuak antxe atera zuten June erregiñak erakutsitako len-agiria, ots, zaldi suhar baten burua; orrek adierazten zun, bada, iendem ura oso izen aundikoa ta lur ura ere jakiz txit aberatsa izango zala gizaldi luzeetan. Dido sidonitarrak emen ziarduan June'ren omenez jauretze galanta jasotzen, doaiz ta goi-argiz txit joritsu: mailladi erpiñean atari ederra, azpi ta abe burni orizko; burni urtuzko ate-orpoak ere ots-kirriska zegiten ibiltzean.

Oian ontan begiperatu zitzaion gauza berri batek arindu zion bildurra aurrenik; ementxe asi zan Enea biziuz ausartzen, eta bere ezbearren uste obez azkortzen. Izan ere, erregiñaren zai dagola, gauza oro ikuskatzen du jauretze aundipean: uriaren aurrerapena ta langilleen esku egoki antzetsua begizatzerakoan, antxe dakuski iliatarren burrukaldiak saillean jarrita, antxe

entzuteak lurbira zear oso zabaldutako gudaketak, antxe Atereusemeak, eta Priamu, eta Akileu, bientzat anker. Gelditu zan pixkat, eta negarrez diño: «Onezkero, Akate, zein leku ala zein eskualde dugu lurrean, gure zoritxarrez gainezka eztanik? Ona emen Priamu: emen ere on-egiteari bere saria; zoritxarrari maikoak ixurtzen zaizkio ta gauza ilkorrak biotza ikutzen dute. Astin ezazu bildurra; ospe au bizigarri izango zaizu, zerbait bederen».

Orrela dio, ta margo-irudi utsalez bazkatzen du barnea, intziri bizitan, malko-ibai luzez, arpegia ezkoturik. An ikusten zun bai, Pergarnu inguruan, gerkar gudariak burrukan eta andik igeska, ta troiar gaztedia aiei jarraika; an ikusten zitun prigi'tarrak, Akileu kukurduna gurdiaz atzetik zirika zutelarik. Andik ez urruti baita ba-dazauzki, negar-jario, Resi'ren oial zurizko ctoxolak; lenengo lo-aldian saldukeriz auek arturik, Tidei'ren seme odol-zaleak izugarrizko eraiketaz ondatzen zun oro, zaldi sutsuak ere Troia' ko alorretan bazkatu ta Xantu (11) ibaian edan aurretik, gerkarren guda-etzauntzetara eramanez. Bestekaldetik, an agiri zan igeskari Troil gazte gizaixon, Akileu'kin burruka ez-berdiñean iskilluak galduta: zaldiak daramate gurdi utsari aoz-gora itsatsia, oraindik ere ugelak eskutik ditula; buru ta illeak narraz ditu lurrean, eta aren pikotx itzuliak autsa erretentzen zun.

Bitartean, Palas berdin-ezaren jauretxera zoazten Ilion'go emakumak, ille-adatsak nahasi; soin-gaiñeko bat zeramakioten jainkosari, arpegi zurbil eskaritsuz ta bularrak eskuz joka. Jainkosak, asarre antzo, beian zeuzkan begiak tinko. Akileu'k iru bidar erabilli zun iliatar arresi inguruan tatarrez Ektor'en gorpua, gero urretan salgai ipiñiez. Baiña Enea'k orduan, gudu-ondakiñak, gurdia, ta bere adiskidearen gorpu il-otza, ta Priamu bere esku iskillugeak luzatuz ikusirik, intziri sakon bizia bota zun bular-barrendik. Antxe ezagutu zun bere burua ere, akeitar buruzagiekin naste; antxe ezagutu zitun sortaldeko gudarosteak eta Memnon beltzaren guda-tresnak. Pentesele sutsuak zuzentzen du illargi antzeko ikurdidun Amazona taldea; ta or dabil millaka askoren artean, oso kementsu ta gudari, bere bular billoizpean urrezko galartzuak korapilloturik; neskata izanik ere, gizonakin liskartzen ausarta.

Enea dardanitarra, gauza arrigarri auekin zurtua ta lilluratua, ikusgai bati loturik begira dagon bitartean, jauretxera etorri da era txit ederreko Dido erregiña, gazte-sail aundia inguruan lagun duela. Eurota (12) ibai er-tzetan edo Zintu (13) mendi bizkarrez orrelaxe atera oi ditu Diane'k ere bere dantzari-taldeak, milla mendi-neskatx ortik eta emendik jarraika dilu-fañle; iskillu-zorroa darama berak bizkar gain, eta ibilkeran, beste jainko-emeen gaiñetik nabarmentzen da: atsegin ixillak dardarazten du Latone'ren barnea. Onelaxe zenduan Dido ere, orrelaxe zetorren pozik guztien erdian, zegiten Janari ta etorkizun ziran erreñueri bear zuten leia emanik. Ordun, jainkosaren ateetan, jauretxe erdiko ginga azpian, lirain apainduriko

aulki goi baten exeri zan, iskilluz esitua. Erritarrai andik ematen zizkien erabaki ta legeak, baita berdintsu banatu edo zozketan atera ere bakoitzari zegokion izerdi-lana. Ontan, or nun dakuskin Enea'k Anteu ta Sergestu, lagun-talde aundiakin datoztela; or baita Kloantu indartsua ta beste teukrotar asko, ekaitz beltzak kresalean sakabanatu ta beste ondartzat batzuetara osoan eraman zitunak. Bat-batean arri egiñik gelditu zan Enea; bat-batean pozak eta bildurrak eragiña zan Akate ere; irritsez zeuden alkarri bostekoa luzatzeko, baiña gauza gereiño ta ezjakiñak barrua kezkarazi oi du. Laiño arropean koko jantzia ezkutaturik, euren lagunak nola ibilli diran, nungo itxas-bazterretan utzi dituzten beren ontziak, zertara etorri ote diran, jakin nai dute biak; ontzietan buru zegiten guztiak, bada, an zoazten baimeneske, poz-oiuka jauregira urbilduz.

Barruan sartu ta aurrean itz egiteko baimena izan zutenean, Ilioneu txit agurgarria onela asi zan, biotz-samur: «O erregiñ, Jupiter aundiak uri berria irasi ta jende uzuak zuzenki ezteko almena eman dizuna! Gu troiatar errukarriak gaituzu, itxaso guztiak zear aizearen mende ibilli ondoren, arrenga gauzkazunok: su gaiztoak ez beza gure ontzirik erre, onbera zakizkio enda zintzoari, ta begira itzazu samurki gure gauzak. Gu ez gatoz, ez, Libi'ko etxe-jp.inkoak burniz ondatzera, ezta arrapaturiko ondakiñak itxas-ertzera eramateta ere: eztago olako indarririk gure barruan, ezta bear ere ainbesteariñoko arrokeririk menderatuetan.

«Toki bat ba-da gerkarrak Esperu deitzen diotena, lurralde zarra noski, iskilluz indartsu ta sokillez aberats. Lenago Enotri'arrak bizi izan ziran bertan; orain aomen danez, aien ondorengoak Itali deitu zioten lurralde oni, auxe baitzan beien buruzagiaren izena. Arako bidean ginjoazen gu... Baiña Orion ekaiztiak, bat-batean itxasotik jaiki ta lazturik, urmegune izkutuetera jo-erazi ta ego-aize setatsuz inguratuaz, ur-gain zear osoan zabaldu ta kresalaren mende bidegabeko aitz-muturretan ondatu gindun; gutxi batzuk gera emen, zuen ur-ertzetara igeri eldu geranak. Zein gizaki dugu au?; ta zein aberri basatik dauka ontzat olako oitura? Ondarra ez digute eman nai ostatu; guda dagigute, ta aurki-berri dugun lurrean egonez irautea eragotzi. Gizadia ta lur-iskilluak ezesten ba'dituzte ere, ona sariz ta txarra zigorrez ordaintzen dakiten goiko-jaunei bildur zakizkiete bederen.

«Enea genuen errege; ezta au baiño zuzen ta errukitsuagorik iñor izan, ezta ere gudan ta iskilluetan ospetsuagorik; zoriek bizirik gordetzen baldin ba'du, bizi-azetan arnas artu ba'dagi ta oraindik itzal gordiñetan ez ba'datza, etzaite bildur izan ta etzera damu izango aurrenengo gure alde zer-bait egiñaz. Ba-ditugu guk oindiño Sikuli lurraldeetan uriak eta iskilluak, eta troiar odoletiko Akeste argia. Laket beldgu aizeak birrinduriko ontzidia Iegorreratzea, ta zure basoetan zura egokiturik, adabaki ta arraunez apaintzea; al ba'dugu, lagunak eta erregea berriz artu ta daramakigun bideari

ekiñik, Itali ta Lati'rantza pozarren jo dezagun; osasuna itzalia ba'da ere ta zu, Enea, Teukrotarren aitarik onen ori Libi'ko itxasoak ba'zauzka ta Juli'ren itxaropenik ez onezkero, utzi iguzute beintzat ona etorri geran bidetik ekiñez, Sikani'ko itxas-bazterretan gertu dauzkagun bizileku ta Akeste erregegana biurtzen».

Onela mintzatu zan Ilioneu; eta dardanitar guztiak, era batera, ao-marmaraz baiesten zuten ark esana.

Dido'k orduan, burua makur, laburki itz egin zun: «Jarei biotzetik bildurra, Teukrotarrok; jaurti itzazute kezkek. Gorabera latzak eta nere aginpide berriak beartzen naute onela egitera, ta orrela arduraz neure muga-ertzak osorik zaintzera. Nork ez ditu enearrak ezagun?; ba al da iñor Troia uriaren berri ez dunik?; nork ez ditu ezagutzen aren on-egiteak, ango giza-semeak eta ango gudu ta suak? Kartagotarrok ez dauzkagu, beraz, onen biotz gogorrek; eia eguzkiak ere ez ditu bere zaldiak Tiri uritik ain urrun lotzen. Naiz Espera aundira ta Saturno'ren zelaietara zoatzela, naiz Erix (14) mendiko mugetara ta Akeste erregeareneko irritsez zabilatzatela, neronek gizonez ta diruz lagundurik, ezeren arrisku gabe bialduko zaituztet. Edo-ta obeki nere erreñu auctan egotez gelditu nai duzutela? Ortakoz jasotzen ari naizen uria, zuena duzute; atera uretatik ontziak; naiz Troiar naiz Tiritar alde gabeko zaizkit neri. Eta obe emen ba'lego Enea zuen errege ori ere, aize berdiñak ona ekarria! Izan ere, neronek bialduko ditut aztertzaile bizkorrek itxas-ertzak eta Libi'ko muga-muturrak oro iker-tu ditzaten, baso itsu zear galdua edo uriren baten bidekatua ba'lebilke ere».

Esan auekin kemendurik, biak, Akate indartsua ta Enea aita, aspalditik zeuden laiño-estalkia austeko griñaz. Akate'k aurrena jaiki dio Enea'ri: «Jainkosaren seme, zer erabaki duzu orain? Gauza guztiak eskier dakuski-zu, ontzidia ta lagunak emen bai-ditugu berriz ere. Bat ezta agiri, uññaren erdian ondatzen geuk ikusi genduna, alegia. Gaiñerakoak, zure amak esan bezela, zuzen daude». Itz auek egotzi zitunekoxe, biran zabalarazia zeukaten laiño ura bat-batez urratu ta egurats utsean urtu zan. Agirian zegon Enea, argi islatsuan dizdizka, musu ta lepo jainkotiar gisan, amak baitzion semeari bere arnasa ezarri illedi dirdaitsuan, gaztaroko argi bikaiñean eta begietako aintza pozkorrean: eskuak boliari dizdiza geitzen dion antzera noski, naiz zillarra edo Pari'kc arria urre oriz biratu oi dan bezela.

Orduan erregeñari itz dagio, ta, ustekabekoa danentzat, bertatik au diño: «Billatzen duzutena aurrean daukazute, ona ni Enea troiarra, libitar olatuetan iges eginda. O zu, erregeñ on, Troia'ko neke-lor ezin esanakin errukitzen zeran bakar ori! Zuk, gu danautar ondakiñok, ur ta lur ain-beste ezbearrez abailduok, ezer-gabetuok zeure uri ta etxean artzen gaituzu. Gu ezker a iñor, Dido, ezta lurbira zabalean edatuta or-emen bizi dan

dardaniar jende guztia ere, zuri bear aiñako esker ona agertzeko. Jainkoek emango al dizute merezi duzun saria!, zintzoak begiratzen dituzten goitariik baldin bada, zuzenzale danik iñon baldin bada edo gogo artezez jokatzen dunik aurkitu ba'dadi beintzat. Zein gizaldi zoragarrik sortua zera? Nortzuk dira zure guraso prestuak? Ibaiak itxasora doazten bitartean, itzalak mendi-zurkulu zale diran bitartean, ipar-burua izar-saldoa bazkatzen ari dan bitartean, edonongo lurraldetan aurkitzen naizela ere, zure deduak eta izenak eta goralpenak beti-beti iraungo dute». Onela mintzaturik, adiskide Ilioneu'ri luzatzen dio eskubia, Serestu'ri ezkerria; gero besteai, ta Gias kementsu ta Kloantu indartsuan batez ere.

Arriturik gelditu zan Dido sidoniarra, lenengo ikusten zunakin, ta gero gizaseme ari gertatu zitzaionarekin; eta onela mintzatu zan azkenez: «Jainkosaren seme, zer zori txar dabilkizu jarraika ainbat galbidez? Zer indarrek urreratzen zaitu zintzur erruki-gabeetara? Etzera zu Enea ura, Venus ederrak dardaniar Ankise'gandik Simois frigitar ibai ertzean erdibitua? Egiz oroitzen naiz bai, Teukro, bere aberri mugetatik jaurtia, nola etorri zan Sidon'a, Bel lagun zula lur ta erri berri billa. Garai artan nire aita Bel'ek erautsia zun Kiper joria, ta garaisu bere agindupean zeukan. Ordutik eza-guna nun nik Troia uriaren itzul-amil gorria, ta zure izena ta pelasgotar erregeak ere bai. Arek, ba, naiz-ta etsai, aintza betean goratu oi zitun Teukrotarrak, eta bera ere jatorriz teukrotar enda zarreako zala esan oi zun. Orregatik zabilzate, o gazteok!; sar zaitezte ene aterpean. Ni ere, neke-min askoren ondoren, zori berdiñak egotzi nindun onera, azkenez Iur ontan ni tinkatzea nai izanik. Ezbearren berri badut, eta ortik ikasi dut aurki beartsuekin erruki izaten».

Eta, oroipen-jardun onen ostean, bakaldun jauregira darama Enea berakin batera; orobat, jauretxeetan opariak eskeiñi ditzatela agintzen du, jainkoen omenez. Baita anartean, arreta aundiz, lagunentzako itxas egalera bialtzen ditu ogei zezen, eun txerri lepo illetsu aundi, eun bildots gizen beren amakin; esku-ernkutsiak eta jainkoaren (Bak'en) poza. Jauregi barnea, berriz, naiz-ta berez b.kaiña, jai-edergailluz apaintzen dute; baita gizategi erdietan oruruntzarako bear dana eratu ere: antzez landuriko zamau ta purpurazko miesa jaikiak; zillarrezko ontzi ugari rnaietan, ta auek daramazkite gurasoen egintz kementsu arpikoz urretan josiak, gertakizun-sail oso luzea noski, enda zar asieratik belaunez belaun erakarria.

Enea'k (aita-maitasunak, ba, eztio luzapenik eman nai) Akate bizkorra bialtzen du ontzietara, gauza auek Askani'ri iragarri ta bera ere jauregira ekarri dezan: aita maiñekorrek Askani'gan jartzen du bere ardura guztia. Onezaz gaiñera, bitxi batzuk ere ekartzeko agintzen du, Troia'ko ondamentitik ateratakoak noski: urrezko iduriz sarezturiko soingaiñeko bat eta akantu gorritz eiotako zapi bat, biak Elene argutarraren edergailluak; ark eraman baitzitu

Leda bere amaren emaitz zoragarri auk, Mikena'tik galazotako ezkontza billa Pergamo'ra jo zunean; gaiñera, Priamu'ren alaba nagusi Ilione'k beiño-la eraman zun esku-makilla, eta samako pitxi-zarta bat, eta arri-pitxia ta urrez egiñiko koroe bat. Aueterako arik lasterren egiñez, ontzietara zijoan Akate.

Venu'k bitartean atzi-sare berriak, aolku berriak darabilzki barne: ots, Askani samurraren ordez, arpegia ta itxurea aldaturik, betor Maitagarria; esku-erakutsi aien bitartez piztu beza erregiña, onen ezur-muiñetara bere su bizia ixuriz. Bildur da, izan ere, etxe ura zalantzazko ta tiritarrak ele-biko dira-ta; June larriak darda gaiñean darabil, ta kezka orrek eztio uzten gau-ordu ixilletan ere. Beraz, Maite egodunari esan auekin mintzatzen zaio:

«O seme, zu zera bakar-bakarrik ene indar, ene adore aundi! Ene seme, aita goikoaren tipeutar iskilluak ezesten dituzuna: zuregana nator, eta otoizka deskatzut zure goi-kemena. Enea zure anaia ba-dakizu nolako zoriz dabillen, itxaso zear, June zitalaren asarrea dala-ta, izpazter guztietara eramana; eta gure miñean zu ere erdikide izan zaitugu sarri. Au Dido peniziarrak berean dauka orain, solas gozo-etziz luzerazten diola. Bildur naiz, bada, ostatuz egotze au nahasiko ez ote dan, June ez baita gorabera auen abagune ederean nagi egongo. Beraz, aurrea artu nai diot maltzurki, erregiñaren biotza su-garrez inguraturik; beste jainkoren batek aldatu gabe, Enea nerekin batean maitasun aundiz kutun izan dezan. Au bete dezakezun, ar orain ene onua: ardura bizitan naukan Askani gaztea, bere aita laztanak dei eginda, sidoniar urirako irten-zori aurkitzen da, Troia'ko sutetik eta itxasotik onez atera zituzten emaitzak berarekin daramazkila. Neronek au, lozorro ipiñi ondorean, Kitera garaira eramango dut, edo-ta Idali mendi gaiñean toki do-ean gorde, nire iruzur auen berri egungo ez izan edo oztoporik jarri al ez izateko eran. Zuk, gau batez beintzat, ar zazu iruzurrez aren antza; aur biurturik, jantzi zazu aur aren arpegikera berezia, mai guren ta ardao-ixur-tze bitartean Dido pozez lilluratuak zu altzoan artzerakoan, besarkatu ta musu gozoz sutu zaitzanean, zuk su ixilla ixuri ta ortiko edenez atzipetu dezakezun».

Maite'k zintzo betetzen ditu ama kutunaren esanak: egoak erantzi ditu ta Juli'ren antza du ibilli poz-erakutsian. Venu'k, ordea, Askani'ren gorputz-ataletan atsedean ezta ixurtzen du, eta, bere magal beroan, Idali'ko (15) oian garaietara darama jainkosak; txipak an, lurrun ezti jario, lorez ta itzal leunez biran estutzen du.

Kupido ba-zijoan ortan, txit esaneko, ta Akate eskutik zula, pozik zera-mazkien tiritarrei bakaldun emaiak. Ara iritxi zanean, orduantxe egokitu zan erregiña bere oial zardaiñezko etzan-oe dirdaitsuan, apal-tokiaren erdi-erdian. Enea aita ta troiar gaztedia ere or datoz, aurrera, ta kurtxoin gorritzka gaiñetan etzaten dira danak. Esku garbiketarako ura dakarte morroiak, baita

otarretatik ogia atera ta artille moztuz egiñiko mai-zapiak edatu ere. Berrogei ta amar neskame daude barnean, erreskada luzean jatekoak atondu ta su biziz etxe-jainkoak lurriñetan iraun-azi bear dituztenak; baita beste eun neskame ta eun otsein adin berdiñeko ere an dira, maiak janariz bete ta edontziak ardoz ornitu ditzaten. Tintar asko ere, jauregi-atarian ikusmin ziranak, orrits-aretoan sar-erazten dituzte, aunitz margodun etzan-aulkietan egokituz. Arrigarri zaizkiete Enea'ren emaitzak, arrigarri Juli ta jainkoaren arpegi dizditsua ta aren itz estaliak, arrigarri baita soingaiñekoa ta akantu gorrizkaz margozturiko buru-zapia.

Etokizun dun maite-pozoitutako feniziar gaixoak batez ere ezin iñolaz bere gogo asetu, ta gero ta geiago piztutzen zaio barnea bai emaitzak bai aurra begipean dauzkalarik. Aur au, Enea'ren beso arrean eta lepotik dindil, ezin-allagiñako maitasunez bere aitatzakoa ase ondoren, erregiñagana doa; onek, begiak eta biotza aurragan jartzen ditu oso, baita noizik bein bere magal barruan laztandu ere; Dido'k ez daki gaixoak nolako jainko dun alboan zelataka. Eta aurra, Akidale bere amaz oroiturik, Sikeu'ren gomuta astiro murrizten asi da, ta maitasun gartsutan ixio nai ditu aspaldi motel zegon gogo ura ta maite-oitura galdua zun biotza.

Aparitako len egotaldia egin ta mai-zapiak kendu ondoren, kantxin aundiak dakarzkite erdira, ertzetaraiño ardoz beterik. Jauregi-barneak ordun birbizten dira iskanbillez, ta atari nasaietan bizi dabil erasi-aro; urrezko age-tatik zintzilika daude goian argi-untzi irazekiak, eta zuziak argiz aizatzen dute gaua. Erregiñak ontan txonil bat eskatzen du, urre ta arri-pitxiz astuna, Bel'ek eta onen ondorengo guztiak bete oi zutena, ta ontzi ori ardoz betetu ostean, jauregiko guztiak ixilleraizirik,

«Jupiter! —diño Dido'k—, arrotz-eskubideak, ospe danez, zuk emanak diran ezker, eiguzu arren egun au alaitsu dakigula naiz Tiritarrai naiz Troitar arrotzai, eta gure ondorengoak ere ospatu dezatela orobat onen oroitzapena. Bego emen Bak poz-banatzaille, ta June ona; eta zuok, tiritarrok ere, aintzat ar ezazute batzar au». Au esanaz bat, lobel oparia ixuri zun maiean, eta ixuritakoa, berak ikutu zun lenen ezpain-ertzekin soilki; Biti'ri eman zion gero, edateko eskatuz; onek, nagikeri gabe, edan zun ardo apartsutik, osoan usturik urrezko ontzia. Ondoren beste aundikiak edan zuten. Jopa illetsuak, berriz, urrezko kitaraz kantatzen du, Atlante gurenak baitzion ortan irakatsi, illargi ibilkorra kantatzen du, ta eguzkiaren illunaldiak; gizonak eta piztiak nundik datozen, nundik euri ta oiñazkarrak; Artur ta Iade euritsuak eta Trion biak; ain bizkor zergatik doan neguko eguzkia itxasoan murgiltzera, edo-ta zergaitik dabilzan onen berandukor gau geldiak. Amaitu zunean, nolako txalo-zartak berriztu zituzten tiritarrak, troiarrak ere lagunduta!

Dido gaixoak ere itz-aspertuan igaro zun gaua, maitasun-ontzitik sendoro edanez; gauzarik asko galdetzen zitun, jakin-min, Priamu ta Ektor'etaz: orain nolako iskilluz etorri ote zan Eguantzaren semea, gero nolakoak ziran Diomede'ren zaldia, eta noiakoa Akileu. «Ea, esaiguzu, arrotz orrek —dio azkenez—, konta itzazu asieratik danaotarren malmuzkeriak, zuretarren gertakizunak eta arat-onat egin dituzun ibiltaldia; udate au zazpigarrena duzu, ba, ur ta lur oroz alderrai zerabiltzana».

OARRAK

- (1) Labini edo Labina, Lati'ko itxasaldeko uria, Laurente ta Ardea bitartean.
- (2) Samo, Egeu itxasoko ugarte.
- (3) Eoli, Omer'ek uste zuenez, ur-gaiñeko izaroa; geografiz, Lipari ugarteetako bat, Stromboli bear bada.
- (4) Tirren, Kerdeña ta Korzega bitartean aurkitzen dan itxas-ataka.
- (5) Simois, gaur Doumbrek, ur oparotsuko ibaia; Troia'ko zabaldia igarorik, Eskarnandro'n ustutzen ditu bere urak trumilka.
- (6) Mai doneak, ur-arri ospetsuak aintziñatean; gaur, Kartago'ko izpazter sarreraren dauden Egimore ugarteak.
- (7) Trinakri, onela deritzaio Sikili'ko ugarteak iru mutur ditulako, ots Pakimu, Peloro ta Silibeu.
- (8) Jaupal-erregiña, edo errege-odoleko jaupalemea. Onela izan zan Rea Silbe, Alba'ko errege Numitor'ren alabea.
- (9) *Birsa*, Kartago'ko gaztelupearen izena; fenikeraz *Borsa*, muiñoa; baiña gerkeraz *Birsa'k* «larru» esan nal duenez, emendik sortu zan zezen-larruaren elezarra.
- (10) Fafu, Txipre ugarteko uri, gaur Kukla.
- (11) Xanto, beste izenez Eskamandro, gaur Menderé,
- (12) Eurota, Lakomi'ko ibai.
- (13) Kinto, Delu'ko mendartea.
- (14) Erix, Sikili'ko mendia, gaur Julen deuna.
- (15) Idali, Txipre'ko mendia; onen tontorrean eraikia zegoen aintziña Venu Afroditaren jauretzea.

ENEARENA



II IDAZTIA

Kanta-gaia: *Enea'k, Troia'ko itzulipurdi edo erorkoa edesten du.—Ger-karrak; amar urtez uria alperrik esitu ondoren, itzalpekari, Tenedo ugartean ezkututzen dira, Minerba'ri eskeiñi zurezko zaldi aundia uriko ate aurrean utzirik.—Iritzi ez-berdiñak.—Sinon maltzurak urian sartu bear dala esaten die angoeri.—Laokoonte'k Neptun'i zezena eskeintzen dio; ontan ari dala, itxasotik urtendako bi suge aundik oratzen diote.—Dantza ta kantuz urian sarrazten dute zaldia.—Sinon'ek, len-gauean, aren saietsak idikitzen ditu, ta andik irtetzen dira gerkar gudaririk azkarrenak.—Ektor, ametsetan, Enea'ri agiri zaio, uria utzi ta etxe-jainkoak gorde ditzala agindurik.—Su-garaitza.—Pantu, Apol'en apaiza, ta onen aztikeri galgarriak.—Enea ta troiatar bana-kak.—Korebu'ren jo-bide alperrikoa.—Piriamu'ren jauregiratu ta au Pirro'k iltzen du, erruki gabe.—Elene.—Venu dirdaitsuaren agerpena: jainko gaiz-toak.—Ankise zarraren mukertasuna.—Zorionezko iragarkiak.—Enea'k Ankise zarra, emaztea, semea ta troiatar etxe-jainkoak gaizkatzen ditu.—Kreus-dren eriotza ta agerpena; Esperu izendatzen du etorkizunerako aginterri.—Enea, Ida mendi-babesera doa, onez atera diran troiar guztiekin.*

Ingurukoak oro mintzul, begi-zoli ta adi zirala, Enea aita bere jarleku jasotik onela mintzo zan: «Itzik ez dun oiñazea berritzeko diostazu, ene erregiñ; au da, troiarren aunditasuna ta aginte erdiragarria nola eratsi zituzten danaotarrak; geiago, ortan luzez ibillia nauzu-ta, neronek ikusi nun zoitxar guztia berriz ere gogora ekar dezadala.

Nork, izan ere. Mirmidon, Dolope (1) naiz Ulise gogorraren gudariei jazoa entzunik, malkoari eutsi? Eta, gaiñera, gau ezkotua zerutik beera dator eratzia, ta izar erorkoiak loa aolkatuz daude. Baiña, onen gartsu gure ez-bearrak jakin nai ba'dituzu, ta Troia'ko lor-neke itzala laburki entzun, naiz-ta oroipenez soilki barnea lastu ta min-alak itza eten, gertatua edesten asiko naiz.

Gerkar buruzagiak, guda gordiñak auldu ta zoriak ezetsirik ainbat urte igaro ondoren, mendi gisako zaldi bat eraikitzen dute, Palas jainko-emearen antzez, saietsak izai-zurez egokiturik; itzuli-eskeintza dute, itxuraz, ta orren ospea bala-bala dabil arat-onat. Bitartean, ixil-mixilka, zotzean irtendako gudariak sartzen dituzte saiets itsuetan, zaldiaren sabel zokoak oro ainbat eta ainbat guda-gizon iskillodunez beterik.

Andik ikus-menean dago Tenedo, aomen aundiko ugartea, zemai aberas-kiz oso joria batez ere Priamu'ren agindupean; gaur, izpazter soil ta ontzientzat ere babespe ala-olakoa dan arren. Aragiño eldurik, itxas-ertz ba-karrean gordetzen dira gerkarrok. Joan zirala guk uste genuan; aize mea lagun, Mikena'ra arraun egin zutela. Ortakoz, Teukri osoa min-naigabe lu-zea astintzen asi zan; atepak zabaldu, ta atsegin zaigu uritik irten eta dorita-rren guda-etzauntzak eta itxas-egi bertan utzia begiztatzea. Ementxe zelairu zan Doloperen gudaroztea, ementxe izan zun Akileu ankerrak bere etzaleku, auxe zan itxas-ontzien lekua, emen burrukatu oi zuten guda-saillak gordin-ki. Minerba ezkongeari eskeiñiriko doai ilkorrez zurtzen dira batzuk, zaldia-ren mukulua goratzen dute beste batzuk. Eta Timete'k (2) aurreneko, edo maltzurkeriz edo Troia'ko aduak jadanik orla erabaki zutelako, muru ba-rruan sartu ta uri erdian egokitzeko eskatzen du. Baiña Kapi'k, eta beste iritzi obekoak, danaotarren iruzur eta ala-olako emaitzak edo itxasora bota edo azpitik su-eman ta erre edo sabel-sakonak laztabindu ta barne-zokoak azterkatzeko diote. Erria, ezpaian, etzan iritzi berdiñekoa. Ontan, Laokoonte sutsua dator, talde aundia lagun, arin ere arin, uri goialdetik beera, ta urru-netik oi u dagi: «Zer zorakeri duzute au, erritar mukulak? Etsaiak joanak uste dituzute? Ala, danaotarren emaitzak ez ote dute gero iruzurrik? Orrela ezagutzen duzute Ulise? Entzun: egur onen barnean sartuta gorderik dau-de gerkarrak, edo gure arresien kontra jaso dugu tramankulu au, etxeak begiztatu ta uri gain amiltzeko, edo beste era ortako biurrikeriren bat du barrenean. Kontuz, troiatarrak, zaldi orrekin. Dana dala, ez dut usterik danaotarretan, ezta emaitzak eskeintzen dituztenean ere»,

Au esanik, igun eskerga jaurti zun txit indartsu piztitzarraren saietsera, uztarduraz makurra zan gilbor zabalera. An gelditu zan ura tinko ta dar-darti, eta, erraia latz-arazirik, barneko zurkulu-murkuluak ots egin zuten, intziri bizitan. Eta, jainko-aduak trebe izan ba'lira ta gure iritziak egoki, argutarren izkutu-lekuak burniz erasotzera eragingo ziguten, eta gaur zutik legokean Troia, eta zu ere, Priamu'ren jauregi erpiña, buru-zut eta dir-daitsu 1

Bitartean, iskanbil uts, dardanotar artzain batzuk or zeramaten errege-gana gazte bat, eskuak sorbaldan lotuta; ez-ezagun au, aiek urbiltzean, bere oldez eman zitzairen menpekotzat, zegiana sendaeraziz Troia gerkarrei iri-ki, eta, maltzurkerian uste ona jarririk, naiz belzkeria aurrera eraman, naiz noraezeko eriotzari lepoa makurtu, edozertarako ere beti gertu. Ikus-zimi-koz, ara doa astrapaladan troiar gaztedi guztia, ta aren biran egokiturik, leia biziz isekutzen dute atxilotua. Entzun orain, erregiña, danaotarren iruzurrak, eta gai?.akeri batetik jakingo dituzu beste guztiak.

Gizatalde izutu ta iskillu gabearen erdian bere burua ikusi zunean, bada, frigitar gudari-saillera begiak zorroztu, ta: «Ai —diño— zein lur edo itxa-

sok artuko nau orain? Egia, zer itxaron dezaket onezkero gaixo onek? Danaotarren artean, ba, ezutut geiago tokirik; dardanoarrak eurak, berriz, txit suminduta, zigorra ta odola eskatzen dituzte niretzat». Intziri onekin samur aldatu ziran aien, gogoak, eta oldarkeri oro neurriratu. Ordun azaltzeko diotsagu, esan dezagula zein odoletik sortua dan, zertara etorri dan, eta, atxilotua dagon ezkeru, zer asmok azkortzen dun. Ark, azkenez, bildurra erantzirik, au esan zigun:

«Nik ziurki, o errege!, egi guztia, dan bezela, aitor bear dizut. Ez dizut ukatuko gerkar gudarostekoa naizenik, au lenengo; ez, zori gaiztoak kupigarri egin ba'du ere Sinon, eztu utsal ta gezurti aterako. Bear bada zure belarrietara iritxin da iñoiz Bel'en seme Palamede'ren (3) izena: aintzak urrez tu zun aren ospea; edonolako gudaren aurkakoa baitzan, pelasgotarrak, gezurrezko saldukeriz, erru gabe, eriotz-zigorra ezarri zioten, eta orain, argirik ez dunagatik negar dagite goibeltsu. Aide nulako, uraren laguntasunean gudara bialdu nindun ona ene aita txiroak, gaztetxo nintzala. Eere erreñuan ezeren kezka gabe ta ondo aolkatua zegon bitartean, guk ere egintza omengarri batzuk izan genitun; baiña, gero, Ulise zitalaren inartxiz (ez diñot gauza ez-jakiñik) beste bizitzara aldatu zanean, illun ta malkotsu bizi nintzan ni gaixo, adiskide erru-gabearen zori txarra nere barnean eiagoraturik. Eta, ero, ez nintzan ixildu; zoria lagun ba'zetorkidan eta iñoiz asaben Argos'era itzuli, aierkor izango nintzaiola zin-egin nun, eta itz-esaka gibelmin gordiñak sor-erazi nitun. Auxe, noski, nire gaitzaren lenengo laban-arria; Ulise ordun asi zan ni belzkeri berriz izutzen, ordun asi zan gezur-esamesak gizartean edatzen eta, jakiñez, ni galtzeko iskilluak billatzen; eta etzun atsedenic artu, Kalka (4) lagun... Baiña, zertako lardaskatu alperrik gauza gogaikarri auek? Zergatik luzatzen naiz onela? Edu berean ba'dauzkazute akitar guztiak, eta onezkero au aditzea naikoa baldin ba'da, zigorrazi nazazute bertatik. Itaka'koak (Ulise'k) ori naiko luke, eta Atereu-semeak esku-zabalki sariztuko lukete».

Orduan ere guk, jakin-nai bizitan, pelasgotarren ainbat okerkeri ta maltzurkeriren berri ez genunok, asitako azalkizunean jarraitzeko diotsagu. Orrela dagi bildur samar, sabel-zuri esanaz: «Danaotarrak, burruka ain luzez mutildurik baitzeuden, sarri nai izan zuten Troia utzi ta andik alde egin. Eta, ai orrela egin ba'lute! Neguko ekaitz zakarrak maiz ertsi zioten itxasorako bidea, baita ego-aizeak izukor igesa ebaki. Batez ere, astigar-abez eiota-ko zaldi au emen jaiki-erazi zanetik, goi guztiak ots egin zun, zurrumilloz izor. Laborri-kezkatan, Euripil bialdu genun Poibu'ren aztietara, galdezka noski; eta erantzun goibel au dakarkigu ark jauretsetik: «Danaotarrak, iliar lur-ertzetara lenbizikoz jo zenutenean, odolez ta neskatxa eskaiñiz bare egin zenituzten aizeak; itzulia ere odolez iritxi bear dezute, jainkoen eder zaien argutar anima bar eskaiñirik». Gizataldearen belarrietara berri au eldu zane-

koxe, uzkur biurtu giñan guztiak; dardar otzak igaro zizkigun ezur-muiñak, ez bait-genekian nor eskatuko zuten aduak, nor aukeratuko zun Apol'ek. Ontan geundela, Itakarrak (Uiise'k) zarraparra aundiz Kalka aztia dakar guztion erdira, jainkoen erabakiak zeintzuk ziran esatera bearturik; eta askok aurretiaz neri iragartzen zidaten gaizkiñaren okerkeri beltza, eta ixil zeudena ere ba-zekiten zer zan etortzekoa. Amar egun luzetan etzun ezer esan aziak, eta, bakarrean muker, eztio iñori azaldu nai, ezta ere eriotzan bekoz eztu iñor izarri gogo. Nekez azkenik, Itakarraren deadar-oiuak eraginda, arekin bat abotsa etenik, ni autatzen nau opamairako. Denak buru-makur onetsi zuten, eta bakoitzak beretzat nai etzuna, ni gaixo onen kaltez ilzulia etzuten gaizki ikusi. Iritxi zan, beraz, egun aipatu eziña; asi ziran gertakuntzak egiten, ni oparigai eskeintzeko: irin gatzatua ta lokarriak ene bekoki biran. Egiz diñot, eriotzan iges egin nion, lokarriak ausirik; eta, gauez, aintzira lokaztu bateko belar artean gorderik egon nintzan, ontzi-oialak aizeari eman arteiño, iñoiz emateko ba'ziran beintzat. Orain eztu geiago ez lengo aberririk, ez seme laztanik, ez biotzez maite dutan aitarik ikusi al izateko usterik: nire igestea, bear bada, aiek zigorkatuaz zurituko dute, ene errua gaixo aien eriotzaz txauturik. Beraz, egia dakiten jainko ta goi-indarren izenean, auxe daskatzut: siñiste kutsugearren, ilkorrontzat oraindik iñun baldin ba'da bederen, erruki zaitetz ainbat atsekabez, erruki bai merezi ez ditun zoritxar auek daramazkin onetaz».

Malko-intziri auengatik, biotz-ikututa, bizia eman genion urrikariz. Priamu'k berak agintzen du aurrenik gizon urari nasaitu dezaizkiotela esku-esteka ta gaiñetiko lotura korapillotsuak; eta ondoren, adiskide-itzez onela mintzatzen zaio: «Zerana zerala, aitzu itzazu onezkero galdu dituzun gerkarrak; geurea zerake aurrerantzean, eta eder bekizu, arren, galdeera auei egia erantzutea: zaldi-mukulu eskerga au, zer dala-ta egin ote dute? Nork eratu zun, eta zer asmoz ote? Opagai dugu ala gudurako tresna?» Au esan zion Priamu'k. Eta berak, pelasgotarren antze ta iruzurretan eskolatua, loturarik gabeko bi eskuak zerurantz jatorik: «Zuok, su betikorrak —dio—, ta zuen goi-indar kutsugea, zaituet lekuko; baita zuek, opamai ta aizto makur nik iruzurtuak eta opari-zur eraman nitun lokarri doneok ere: zillegi bekit gerkarren ixil-zifñitzak azaltzea, zillegi bekit gizon aiek gorrotatzea, aiek barnean dituzten asmoak oro argitara ekarriz, orain ezpaitut aberri-legeak gorde bearrik. Zuk ere gero, Troia, eutsi zeure aginduari, ta, gaizkatua zeran ezkeroz, zaindu zeure itza, nik esana egia baita ta ziñez aundia dagitzudan ona».

Danaotarren itxaropena ta asitako guduari buruzko uste osoa, Palas jainkosaren (5) laguntasunean errotu zan beti. Baiña Tideu'ren seme sabelgorriak eta gaitzen asmatzaille Uiise'k Palas'en irudia jauretze sagaratutik ausardiz erauzi ta ango zaitzaileeri eriotza eman ondoren, irudi donea ere inda-

rrez eraman eta esku odolduz jainkosaren galarru ikugeak orbanazi zituzte-
nean, orduantxe asi zan gutxitzen eta galtzen danaotarren itxarokizuna: ke-
menean auldu ta narriatuz atzera egin zuten, eta urtziemeak ere etzitun eder
arrezkero. Ezta Tritondarrak (6) zalantzazko arrigarriz etzitun ezaugarri
oiek eman. Aren irudia guda-zelaian jarri zutenekoxe, aren begi izugarriki
zabalduak sua zerien zemaika, gatz-izerdia zebilkiola soin-ataletan barruna;
eta zegon lekutik ere —arrigarria, ziñez!— iru aldiz jaiki zan, enredola be-
soan ta iguna dardarri. Kalka aztiak, bat-batean, itxasoz iges egiten saia
bear gerala dio; Pergamo etzuten, ba, argutar geziak suntsituko, iragarkizun
billa berriro ere Argos'era jo ta ontzi makurretan itxasoz ekarri zuten jain-
kosa lengo lekura itzuli arte. Eta orain, aize meez beren sorterri Mikena'ra
biurturik, guda-tresnak gertatzen eta jainkoak lagun emerazten ari dira,
ta berrien berriz kresal igarorik ustekabean agertuko zaizkigu emen. Onela
askatzen du Kalka'k igarkizunen aria. Goitiko aolkuz, Paladion ostuaren
ordez, jainkosa irainduaren ordez, zaldi au jaso dute, gaiztakeri itsusia or-
daindu rezan alegia. Dana dalarik, mukulu au oso aundia egiteko agindu
zun Kalka'k enbor alkar eunduekin eratua ta aidean lerden jaikia: atreetan
zear ez igaro ez arresi barruan sartu ezin zitekeana, ezta erriitik gorde ere
aintziñako uzkurtza magalpean. Ark zesan, bada, zuen eskuak aurki Miner-
be'ren emaitza loituko ba'luketan, ausiabar ikaragarria gertatuko zala ordun
(goikoak itzul bezate esan au aztiaren aurka!) Priamu'ren aginterri ta prigi-
tarren kalterako. Baiña zuen eskuz zuen urira jaso ba'zan, Asia osoa nun-
bait, guda zalaparta latzean iritxiko zan Pelope'ko atalondoetaraiño: gure bi-
llobak zori au zeukaten zemaika».

Onelako zitalkeriz ta Sinon gezurtiaren arteziz atzipetuta, siñetsi genion,
eta or iruzurpean eta sasi-malkoz gaiñezka ez Tideu'ren semeak, ez Akile
laristarrak, ez amar urteko gudak, ez milla ontzik ezi etzituztenak.

Ordun beste gauza aundi ta arrigarriago bat jartzen zaie troiar gaixoeri,
aien gogo gertugeak ixurbaturik. Neptun'en apez zotzean autetsitako Lao-
koonte'k, zekor aundi bat iltzen zun opamai garaietan. Eta ortan zebillela
-ikara naiz esaten—, Tenedo'tik irten eta itxas bare erdian zear bi suge
kiribil eskergadun datoz uger, biak batera ondartzarantza aurreraturik; be-
ren bular-aurreak zutik baitauzkate ur-gaiñez, motots odolkaraz goitzen
dituzte olatuak; gaiñetik alderdia, berriz itxasoak leun-erazten die atzetik,
bizkar itzala kiribil luzeetan makurtuaz. Oskarria sortzen da bitsa darion
kresalean, ta lurra artzear daude piztiak, eta begi irazekiak odol-suz zetaka-
turik, ago xixtulariak izpi dardarkorrez miazkatzen. Ikuskari arekin zurrupil,
igesari eman genion. Oiek, ordea, ibiltze seguruz, Laokoonte'gana doaz; eta,
lenengo, sugeak, alkar kiribiur egiñik, bere seme bien gorputz txikiak ingura-
tu ta ozka urratzen dizkiete soin-azpildura gaixoak; gero, aien laguntzera
geziekin zetorren aita bera ere artu ta kurubil itzalez lotzen dute; eta aren

gorputz-erdia bira bitan estutu ta beren bizkar ezkatatsiak aren lepoari bi aldiz eman ondoren, buru ta garondoz goi ageri dira oraindik. Ark batera, odol batuz ta pozoï beltzez loi, orapillo aiek eten nai ditu biziki, deadar izugarriak izarretaraiño bialtzen ditula, zauritu ta opamaitik igesi doan zezenak, aizkora erdi-sartua garondotik astindu naiean eman oi ditun marru antzekoak noski. Bi bidutziak, baiña, labankor, jauretxe garairantza irrist egiñik, Tritondar biozogorraren jauregira zuzendu ta jainkosaren oiñetan ta babeskiaren ingurupean estaltzen dituzte beren buruak.

Ordun, egiazki, lendik ere dardar zeuden galtzar-barru guztietan izu berria sartzen da, eta diotenez zigor merezia ordaindu du Laokoonte'k, abe santua zauritu bait-zun erpiñez, igun dongea aren bizkarrera egotzirik. Iru-di ura urian sartu bear dala diote denak, eta jainkosaren aunditasunari eskariak zuzendu.

Muruak ebaki ta uriko arresiak iriki genitun. Denok lanari loturik, laban-txirringak jartzen dizkiogu zaldiari oinpean, baita muillozko lokiak saman ere. Muruetara igotzen du tresna eriozkiñak, iskilluz izar; eta neska-mutikoak inguru ereserki doneka dabilta, beren eskuekin lokia ukituz poz-esnetan. Larderiatsu doa zaldia barrura, uri erdiraiño eldurik. O aberri!, jainkoen egonleku zeran Ilion!, guduz leiñargi zeraten dardanotar arresiak! Ate aurrean bertan geldi lotu zan lau bidar zori-gaiztoko tresna, ta lau bidar baita soiñu egin zuten iskilluak aren erraietan; guk alare aurrera, esanari arreta egiteke, zoramen itsuan, eta gaztelu donean egokitu genun bidutzi izarra. Ordun baita, teukrotarrak egundo siñetsi etzioten Kasandere'k, jainkoaren aginduz, bere agoa iriki zun gero gerta-bearra iragarteko. Guk xingailok, egun ura atzena genunok, jai-ostoz apaiñazi genitun uri zear jainkoen elizak.

Bira dagi bitartean ortziak, eta gauak itxasoa destal bertatik, zeru-lur ta mirmidondarren maitzurkeri oro, bere itzal nahasietan bildurik; teukrotarrak, uriko zokoetan barreatuta, ixil daude; lo-zorroak dauzka aien gorputz aulduak. Eta ortan, arkitar gudal-taldea, bere ontzi eratuekin Tenedo'tik irtenda, illargi mutuaren adiskide ixillen erditik irristan, ur-egal ezagunetara urreratuz doa. Eta errege-ontziak txopan sua piztu ta jaso ordukoxe, Sinon'ek ere, jainkoen itzal kaltegea lagun, izaizko baitegiak zabaltzen ditu ixilka, barnean diran danaotarrei irten-bidea egiñez. Zaldi irikiak aize garbitara itzul ditu aiek, eta pozarren kanpora datozki egur arrotik, lurrera ipiñitako loki batetik irristan: Tesander eta Estenelu buruzagiak, eta Ulise zintzoeza, eta Ataman eta Toant, eta Peleu- seme Neoptolemu, eta Makaon aurrena, eta Menelau eta Epeu, malmuzki ura egin zuna. Burrustan artu dute ardoak eta loak jotako uria; illazi dituzte zaiak, eta ateak irikirik lagun guzieri sarrera emanaz bi talde jakiñak alkar artzen dute.

Ilkor nekatuontzat len-loa asi ta, jainkozko emaitzez, gili-gili gozoz soin-barren lerratu oi dan ordua zan. Eta ona, ametsetan, Ektor goibeltsu begi aurrean nuela iruditu zitzaidan, malko-ari luzean urtua, zaldi-uztarriak narrastazi beñola antzo, auts odoltsuz itsusi, ugel-lotuzko oiñak puzturik. Ai ene, ta nola zegoan! Akileu'ren iskilluz jantzia edo prigitar sua danaotarren ontzietara bota ondoren itzuli zan Ektor ura, etzan noski, bestelakoa baizik. Baldatx du bizarra, odoletan trinko illeak, aberri muru baranoan artu zitun zenbatu-ezin alako zauri aiek erakutsiz. Neronek ere negarrez —iruditu zitzaidan—, gizaseme arengana zuzendurik, itz ertun auek esaten nizkion: «O Dardani'ko argi!, o teukrotarren itxaro sendoena! Nolako beranketa luzeak atxiki zaitu? Nungo lurralderik zatoz, Ektor opa izana? Nola so dagitzugun, aunatuta, zuretar askoren eriotz ostein, gizasemeak eta uriak izan dituzten askotariko neke-min ondorean! Zer gauza duin-ezek itsusi jarri dizu betarte bare ori? Edo zer dira dakuskizudan zauri oiek?» Ez du ark ezer ere erantzuten, ezta ez diot galdeera utsalak dagizkiodan onek axoliek ematen. Baiña, bere bular barrenetik antsi sakona ateraziaz, au diño: «Ai!, iges egizu, jainkosaren seme, ta onez atera zaito sugar auetatik! Muruak etsaiak dauzka, ta beera dator Troia bere erpiñenetik. Naikoa eman zaio aberriari ta Priamu'ri; Pergamo, giza-besok aldeztu ta jagotzekoa izan ba' litz, onek ere aldeztu izango zukean. Troia'k 2uri goraintzi bere gurgailu ta etxe-jainkoak; ar itzazu oiek zeure gertakari-lagun, eta billa izkiezu itxasoz luzaro bide-egin ondoren, azkenik ere, eraiki ta jasoko dituzun arresi garaiak». Onela dio, eta jauretzeko barren-barrenetik bere eskuz ateratzen ditu Vesta altsua, onen galarruak eta su betikorra.

Bitartean, or-emengo negar-garrasi naspillak artegatu du uria; Ankise nere aitaren etxea zugatzez estalitako toki ezkutun egon arren, arrabotsa gero ta ozenagoturik, iskilluen barbar-izuak surmintzen du an ere. Loa astindu ta gorantz ekiñik, etxeko egonleku guenera igo ta antxe jarri naiz entzun-min. Zer dantzut? Ego-aize zatarrez uzta-saillari suak oratzean, edo ugoldeak, mendi-beerako urez azkar, alorrek eta erein arlo joriak eta idi-lan bi-kaiñak estali ta bere oldarrean oianak ere eurrez daramazkiala, artzain ez-jakiñak, sor ta lor, aitz-gaillur jaititik entzun oi dun zalaparta izugarriaren antzekoa noski. Ordun azaldu zan egia, ordun estalgetu ziran danaotarren marra ta kirik-gordeak. Suak gauditutu ta erroiztu du jadanik Deipobu'ren jauregi (7) zabala; su aundi da urrean Ukalegon'ena ere; Sigea'ko itxas-konkorrak, zabal ta sakon, suaren dizdiz-mendean daude oso. Or bertarik giza oiua ta turut-deadar zolia. Iskilluak eskura ditut zoro, eurok zertarako nitun ondo ez nekian arren; sutan dut barnea, eskubete gizon gudarako bildu ta aien lagun erabat gazteluratu naian: sumiña ta asarrea zakar ditut gogoan bultzaka, ta eder derizkiot iskilluetan iltzea.

Eta ona Pantu, gerkar gezi artetik igeska, Otri'ren semea, Poibu'rena ta gazteluko apaiza; eliz-gaiak, jainko garaituak eta billoba tikia aldean narraz, ero antzo, ateetara jotzen du azkar. «Nolatan dugu auzi au, Pantu? Zein gaztelu guk artuko?» Ozta-ozta nik itzok, eta berak intzirika erantzun zidan: «Emen dugu zorigaiztoko eguna, Dardani'rentzat ondamendi itzuri-eziña. Izan giñan troiarrok, izan zan Ilion eta teukrotarren ospe gurena; Jupiter ankerrak Argu'ra aldatu digu gauza guztia; danaotarrak dira garaille uri sutarazian. Arresi barruan zutik dagon zaldiak gizon iskillotuak erditzen ditu, eta Sinon, garaille, guri iseka, sugarrak alkarrazi ta nahasten ari da. Batzuk, diran bezin zabal dauden ateetara datozki, millaka ta millaka, Miken aunditik iñoiz etorri etziran beste, aietarik barruna sarturik; beste batzuk, gogor egiñik, kaleetako bide medarrenak itxita dauzkate; burnimutur sail estua da, zorrotz, ditzikor eta eriorako gertu. Ateetan aurrenengo dauden ertzaiñak ere doi-doi eraso nai dute, burruketa itsuan zaildurik». Pantu'ren itz auekin eta jainkoen gogoz iskilluetara ta sugarretara eragiña naiz, ara bait-narama Erínnis zurbillak, ara bait-naramate izarretaraiño jaikitzen dan liskar-gaillu otsak eta gizasemeen garraxiak. Lagun datozkit Erripeu ta urteetan aundi dan Epit, illargiak eskeiñita, baita Ipani ta Dimas ere gure alboan alkartzen dira; berdin migdondar Korebu gaztea: au egun aietan albearez Troia'ratu zan, Kasandere'tazko maitasun eroan sutua, ta geroko suin bezela Priamu'ri, frigitarrei erabat laguntza eramanez. Zorigaiztoko noski, bere emazte goi-argituaren esanak entzun etzitulako!

Auek bat-eginda burrukarako ausardiz ikusi ditudanean, onela mintzo natzaie: «O gazteak, bular alperrik adoretuak!, azkeneraiño jo nai dun. oni jarraitzeko leia bizitan ba'zaudete, ba-dakusazute gure gauzen zoria. Jauretxeak eta opamaiak bertanbera utzirik, aginterri au zutik zeukaten jainko guztiak aldendu dira; txingar-uts dan urian daramakiozute laguntza; il gaitezen obeki, iskillu artean amildurik. Menpetuentzat osabide bakar, osabiderik ez itxarotea». Orrela sumiña erantsi zan gazteen gogoari. Ortik, gau illunean sabel-gose asegaitzak eragiñik itsu-itsu atera ta leizean utzi dituzten kumeak autz legorrez zain dauzkaten otso arrapalarien antzera, gezi artetik uri zear erdiko bidetik goaz gu, eriotz ziurrera. Gau beltzak egaz dagi, inguru, bere itzal zapalakin.

Nork itzez azaldu litzake gau artako triskantza ta eriotzak? Edo-ta, nork malkoz berdindu al izango neke aiek? Erori zan aunitz urtez nausi izandako uri zarra; an eta emen, kaleetan naiz etxe ta jainkoen atari doneetan, konta-ezin ala gorpu daude, luze ta illotzik. Eta ezтира teukrotarrak bakarrik odola damatenak; noizean bein azpiratuerei ere indarra itzultzen zaie erraietara, ta danaotar garailleak jausten dira, erabat. Nainon illeta negargarria, nainon izua, ta eriotz-irudia ugari ere ugari.

Androgeu da, talde aundia biran dula, danaotarretan lenengo aurrean jartzen zaiguna, ustekabeen noski, gu ere bere burruka-sailleko gaitulakoan; eta, adeitsu, itz adiskide auekin agurtzen: «Zabiltzate bizkor, gizonak; izan ere, nolako nagi luzakorrak zauzkate sor? Beste batzuk arpillatzen dute Pergamo su tua, ta bertako arrapakiñak daramazkite; zuok, ordea, orain zatozte lenbizikoz ontzi garaietatik?» Au esan zun, eta bat-batez —ez genizkion bada erantzun siñisgarriegiak ematen— etsai artean jausia zala konaturatu zan. Arrituta, itzakin bat atzera bota zun oiña. Sasi-nar zorrotz artean lurra ikutu ta itsumustuan suge bat zapaldu dunak, bildurkor, sumiñazi ta zeru-margozko iduna puztu oi dun pizti arengandik ots-otsean iges dagi: orla zioan Androgeu ere igesi, gure begitartez izutua. Zakar oldarturik, iskillu nasi-betezko ingurua osatzen diegu, eta or-emen lurtean ziplu uzten, ditugu zein toki ura ezagun etzutenak, zein izuak jota zeudenak: lenengo saioan beintzat eder izan zitzaigun zoria. Eta Korebu'k ordun, jazo zoritsu onekin alai ta gogo-pizturik, au dasa: «Goazen, lagunak, aurreneko zori onak erakusten digun osasun-bidetik, onezko azaltzen zaigu-ta. Truka ditzagun ikurdiak, danaotarren ezaugarriak geure egiñaz: iruzur ala kemen, nork igarri ote etsaiarekiko? Eurak emango dizkigute iskilluak».

Onela itz egin ondorean, Androgeu'ren kaskoskol gangardunez burua ta aren babeski-apaindura ederrez bularra estalirik, bere saietsean egokitzen du argibutar ezpata. Au dagi Ripeu'k ere, au dagi Dimante'k, auxe dagi gaiñetiko gaztedi pozkorak: nor bakoitza etsai-ondakin berriz iskillutzen da. Eta ba-goaz danaotarrekin nahasi, adua gure ezalarik; alkar artuta, gau itsu barruna ainbat erasoketa izamen ditugu, zanpa-zanpa zenbait danaotar Suleizera egotziz. Batzuk ontzietara ere igesi doaz, beren itzurian ondarrera seguruak billaturik; beste batzuk, izu ezaiñez, zaldi eskergara katamar igo ta aren txilbor ezagunean izkututzen dira.

Ezin dezake, ai!, iñork uste onik ezertan, jainkoak aurkako izanik! Ona emen Priamu'ren alaba, Kasandere neskatxa; Minerbe'ren jauretxe atarietatik narraz atera dute, adats-barraiatua ta begi kartsuak alperrik zerurantz biurtzen ditula; begiak diñot, esku biguiñak bada girgilluz loturik zeuzkan. Ero ta sumin ezin zun Korebu'k ikuski ori eraman, ta iltzeko gertu jendetza erdian amiltzen da. Denok, ari jarraiki, iskillu nasi artera io degu laister bai laister. Ordun zapalazten gaituzte geuretarrak jauretzeko erpin guenetik jaurtiki geziekin batez ere, iskilluen itxuraz eta gerkarren gangar okerrez alkar-iltze negargarria sorturik. Danaotarrak bete-beteen, oiui patarraka ta kendu zieten neskatxagatik su zeriela, nainondik bateratu ta erasotzen digute: Aiax setatsuak, eta Atereu-seme biak, eta Dolopetarren gudarozte osoak.

Zurrunbillo tertegiñean iñoiz bestelako aizeak alkar jo oi dute, ots, Zepir'ek eta Notu'k, eta Eguantz-zaldi gaiñeko Euro alaiak; orru dagite oianak, eta Nereu apartsuak, aserre, bere iruortzekoz itxaso igitzen du ondarrik

ondarreanean. Aiek ere, itzalak lagunduta, gure iruzurrez gau illunean nastarazi ta uri osoan zear sakabanatuak izan arren, berriz azaltzen dira; ta berak ditugu aurrenik ikurdiak eta gezur-iskilluak ezagutzen dituztenak, baira aien eta gure izkera bestelakotzat artu ere. Beraz, sostean dugu gain aietariko mokoillo aundia, ta Korebu da lenengo Peneleu'ren besoak era-xia, iskilluz altsu dan jainkosaren opamai aldean bertan; beera dijoa Ripeu ere, teukrotarretan artetik artetik eta neurribidearen gordetzaille zintzoeneta-riko bat. Jainkoeri, antza, ez zeritzaizen orla! An iltzen dira baita Ipanis ta Dimante, lagunak aldez alde iskilluz erasanda; zu ere, Panteu, etzinduzan, erortzean, zenun jainko-zale beteak ez Apol'en galarruak gerizatu. Iliar autsak eta neretarren sugar guena!, lekuko zaituztet zuen itzalaldian; ez nuen nik gerkarrak emaniko gezirik itzuri, ez beste arrisku ta goraberarik; eta aduak erabakia ori izan ba'litz, nik merezi nun danaotarren eskuz erortzea. Andik jaurtzen gaituzte oldarka: Ipitu ta Pelias nerekin doaz; Ipitu, adiñez agitz astundua dagoneko, eta Pelias, Ulise'k egiñiko zauriagatik ibil-zor.

Bat-batez ei-deadar batek ots dagigu Priamu'ren egonlekura. An, ordea, burruka itzala dakusagu, beste alderdi baten ez aña erre-sumindua, uri osoan beste iñor ilko ezpalitza bestean odolkorra. Edu ortan dugu, bai, Gudu ezigaitza; ta danaotarrak etxe-gaiñetara igorik eta jauregi-ateak esitzen, xaberrama eginaz. Esku-zurguak ormetan jarri eta aien mailletan tinkotzen dituzte oiñak ateetan bertan, eta, zaindurik, ezkerrez besobabeskiak eskeintzen dizkie geziari, eskubiz gaiñarriak oratzen dituzten bitartean. Dardanitarak, berentzat, etxeetako torre ta alderdi goren guztiak lurreratzen dituzte, eta, jadanik beren buruak il-zori uts ikustean, lerkailu aiez berberak aldeztu naita, zurrun urreztuak, guraso zarren apaindura eder aiek amillazten dituzte; beste batzuk, ezpataz ornidurik, beeko ateak inguratu ta moltso estuan zaitu-bearrean dabilta. Au ikusiz neri errege-jauregia sorotzi, gizuren aieri laguntza eman eta azpiratuari kemena erantsiteko sugalda piz-berritu zitzaidan barnean.

Priamu'ren jauregi ostean ba-zan etarte bat, eta emen albate bat, etxeko beste gela ta gizategietara zeramana: Andromake (8) errukarria, erreñua oiñean zegola beintzat, maiz igaro oi zan emendik, iñork ere lagundu gabe, bere aitagaiñarribaengana, Astianakte aurra aitonari eramane. Bertotik igo giñan gu ere teukrotar gaixoak esku geldoz gezi-jaurtika ziarduten gainki goienetaraño. An zegoan amiltzari gain zut eta izarren pareko torre jaiki bat, bere gaiñetik lenago Troia guztia, danaotarren ontzi oituak eta akaitar kapardiak ikusi oi zirana. Elkar-une kolokak ematen zitun abe-moltso garaia burnipuntaz jo ta gorgoiñaturik, bere jartoki sakonean dardarazi ta bultzada zailla ezarri genion; batetan beera eroria, ausiabantza ta oskara daramazki berekin, zan bezin zabal ta astun danaotarren gain ez-ustez amildurik. Aien

ordain, baiña, beste batzuk jartzen dira, ta ater gabe ari da arrezkero arriz-ko ta lerkai oroko euri-iasa biurria.

Sarreran bertan, lenengo atean, Pirro daukagu arroputz, iskilluz dizdiz, galtzairuzko islatan. Belar txarra janda negu otzak lurpean kukuilduta euki dun sugeak, orain, larru-zarpailak utzirik, berri ta gazte lerdan, bularra eguzkitan tente jaso ta bizkar-ezur igeskorra kiribiltzen du, aoan dun iru izpizko mingaiña dardaraziaz. Era berean doaz aren jarrai Peripante erraldoia ta Akileu'ren zaldia zuzentzen ditun Automedonte eskutaria; eta auen ondorik eskiriar gaztedi osoa jazar gogorrean sartu ta sua jaurtikitzen dute egats arkolatuetara. Pirro aien buruak, bizar biko aizkora eskuan dula, atalzapata sendoak ausi ta burnizturiko atea orpoetatik erauzten ditu; baita, gero, olak printzatuz, aritz giarrak azpitik zulatu ere, ao zabaleko leio aundia idekirik. Or agiri-agirian jauregi-barnea, larrain ta aterpe sakon luzeekin; or Priamu'ren eta len-erregeen egonlekuak ondo zabal; or ikusten dituzte atarian aurrenik gizon iskillotuak zai.

Jauregi-barnea, berriz, intziri ta barbailla negargarriz nahasia dago; emakumezkoen alaru ta marrakaz ots dagite barru-aldeak sakonki: urre-izar-kiak zauritzen dituzte aien garraxiak. Izu-larri ta itsu arat-onat dabilta emakumeak areto zabal zear; beso artean dauzkate atea, auetan musu beroak ezarriz. Gogor jazartzen du Pirro'k, aitagandiko kemenez; aurreko txan-tek eta jagoleak eurak ere deus eztira aren oldarrari eusteko: ariagaren sarri joarekin kolokan jartzen da atea, eta errotik eraginda laster doaz beera aterdiak. Indarrak bide dagi; sarrerak puskatzen dituzte; eta danaotarrak barruratu ta aurkako dituzten lenenak illaziz gero, jende iskillotuz betetzen dira toki aiek osoro. Ez derakusa ainbesteko sumiñik ertz-luebanak ausi, aurrean dauzkan eragozpenak oro ugolde-zartaka azpiratu ta, soro-ordeka guztietan zear zabaldurik, abelburu ta abeletxeak berekin arrapazka daramazkin ibai bits joritsuak. Neoptolemu neronek ikusi nun ilketa-ordi, eta Atereus-eme biak ataurrean; Ekube (9) ta aren eun erraiñak neronek ikusi nitun, baita Priamu ere berberak eskeiñiriko suak opamai artean odolez orbantzen. Ainbat billoben itxaro ziran oetza aiek eta guda-ondakiñez ta atzerri-urrez apaindurikako gela-ate aiek, jausi ziran tutarrak; suak utzia, danaotarrak daukate.

Eta bear bada Priamu'ren aduak zeintzu ziran galdegingo didazu. Bere iria artua, jauregi-tako atalask azpikoz gora ta etxe-barneetan zear etsaiak ikusi zitunean, errege zarrak urteen buruz dardar zegiten bizkar aien gain aitzen ditu alperrik luzaroan erabilli gabeko iskilluak; gerrian, ere, ezertako eztan ezpata lotzen du, ta orrela, iltzeko gertu, etsai usi tartera abiatzen da.

Jauregiaren erdi-erdian eta ortze-gingape garbian, opamai aundi bat zegoen, eta aldamenean noizbaiteko ereiñotz zarra, opamai gafiñeruntz okerturik etxe-jainkoak itzalpean estaltzen zituna. Emen zeuden Ekube ta bere alabak, ekaitz beltzak zarrapastaka amilduriko uso-talde antzera, aldare inguru deus-ezean bilduta, jainkoen iduriak besarkatzen zituztela. Ekube'k, baiña, gaztetako iskilluak jantzita Priamu bera ikusi zunekoxe, au diotsa: «Zer gogo ankerrek eragin dizu, ene senar, iskillu oiek jaztera? Gizagaixo ori, nora zoakez? Olako laguntzarik ezta bear garai onek, ez oietariko aldezerik; ezta, ene Ektor orain bizirik ba'lego ere. Erdu noizbait onera; aldare onek gerizatuko gaitu denok, edo-ta emen ilko gera batean». Onela mintzatutakoan, bere ondora eraman zun agure aula, ta aldare donean exeriaz.

Eta or Polite'k, Priamu'ren semeak, Pirro'ren ilkintzatik eta etsaien giezetatik aterpe zabal zear igesi, jauregi-barneko Jarrain utsak zearkatzen ditu odol-jario. Sutan jazartzen du Pirro'k burni kaltekorrez, ta doi-doi esku aitean dula igunakin erasotzen dio. Eta, azkenik, gurasoen begi aurrean bertan lurrera erori ta odol askorekin bizia ixuri zun. Priamu'k ontan, erdi-illik zegoen arren, ezin zun etsi, eta bere abots ta asarreari eutsi eziñik, itun jalgi zun: «Zuri ere jainkoek —gauza auen kezka biotz onik baldin ba'da ortzi-goian— ordain berdiña, gaiztakeri ta ausarkeri auek merezi duten saria eman dezaizutela; zuri, bai, nere semearen eriotza nere begiz neri ikusi-azo ta aitaren betartea aren odol-tantoz ezaindu duzun orri! Akileu ura —zuk arek sortua zerala diñozu gezur-ontzi— ez, etzan bere etsai Priamu'rekin olakoa izan; eske zegokionaren eskubide ta siñismena gogoan izan zitun ark, eta Ektor'en gorpua itzuli zidan obiratzeko, baita neri aginterrira berriro biurtzen utzi ere». Onela itz eginda, gezi aul bat egotzi zion kemen aundirik gabe; beingoan ezetsi zun borontze kurrunkak, eta ikurdiaren erdi-erdian zintzilika gelditu zan alperrik. Oni erantzun zion Pirro'k: «Oa, bai, mezulari ene aita Pelida'gana, ta edestu gauza auek; oroi ta esan ari nere egite zurbillak, eta Neoptolemu gizatxar endekatu bat dala. Orain, baiña, il adi!» Au esanaz, dardar zegoen zarra semearen odol-istil gain aldare bertaraiño narraztu zun, eta ezkerrez illetatik eldu ta eskubiz ezpara ditzikorra aterarik, saietsean sartu zion bera kirteneraiño. Ona Priamu'ren gorabera; amai au eman zion zoriak: Troia sutan Pergamo zuzituta ikusirik il zan beiñola Asia'ko ainbat erri ta lurretan agintari gailen izan zana. Itxas-ertzean datza aren enbor eskerga, burua sorbaldatik erauzia ta izenik gabe gorpua ederra.

Orduantxe, bene-benetan, esitu nindun lendabizikoz izu-laborri zaka-zak. Batetik bestera ikareak joa gelditu nintzaizun: zauri gordiñetik bizia zeriola zegoen adin berdiñeko errege ura ikustean, aita kutunaren iduria etorri zitzaidan aurrera; Kereuse (10) gogora zitzaidan utzia, eta nere etxe ar-

pillatua ta nere Jul txikiaren zoria. Begiak biran zorrotz, ingurumari zer jende dudan azterkatzen dut. Denak utzi naute nekatirik, jauzi batez lurrera bialdu dituzte beren gorputzak, edo miñetan suari eman. An bakarrik nagola, bada, jauretxe zokoan ixil ta mutu Tindar-alabea (11) dakust Vestá-ren arteak zaintzen; sutzar dizdikorrak argia ematen diote alderrai ta begiak ara-ona zernaitara nerabilzkian oni. Ura, Pergamo zuzitua izan zalako, teukrotar etsaien eta danaotarren bildurrez eta bere senar utziaren sumin izu, Troia ta aberri Asarre erabat, bere burua gorde naiean, aldare erdian exeririk zegon ezin-ikusia. Su zakarra piztu zitzaidan barnean eta erresumin nere aberri ondatua apendu nai izan nun odol deungea zigor-azirik. «Onek alegia —esan nun— Esparta ta bere aberri Mikena berriz ikusiko ote ditu ezertariko gaitzik gabe? Ta, garaitza lortzean, erregiñ gisan ara ote doake? Ta senarra, etxea, gurasoak eta aurrak ikusiko al ditu berriz, iliatar laguntaldez ta Troia'ko otseñez inguratua? Priamu burniz illa dala? Sutan kiskaldua Troia? Danaotarren ur~ertza ainbat aldiz izerdi-basatan odol naroz? Ez, orrela ez! Emakume bat nekatzeak ez dakar ospe oroigarri aundirik, ez garaitze orrek eztu esateko gorapenik; goratua izango naiz, ala ere, odolzale bat itzali ta merezi zun zigorra arrazi niolako, ta egoki izango zait nunbait nere gogoia su asperkorrez puztu ta neretarren autseri ase-betez poz ematea».

Onakoak jalgirik, nere gogo su-piztuaren mende nenbillela, lenago iñoiz ez bezelaxe aratz, gauean argi uts ditzikor, nere ama ederra agertu zitzaidan ikusgarri, jainkosa-itxura aitortuz noski, zerutarrak ikusi oi duten bezin ospetsu ta aundiki; eskubitik oratu ta eutsirik, itz auek gaiñeratu zizkidan bere arrosa-aoz:

«Seme, nundiko oiñaze aundik aizatzen du zure asarre ezigaitza? Zerk jartzen zaitu sumin bizitan? Edo, nora baztertu zaizu gurekiko axola? Ez al duzu Iendanez begiratuko nun utzi duzun Ankise zeure aita, adiñez astun? Kereuse zeure emaztea ta Askani aurra oindiño bizi ote diran? Guzti auek, ba, gerkar gudari taldez esituta daude nainundik; ene arduraren laguntzarik izan ez ba'lute, suak artuko zitun onezkero, ta etsaien ezpatak garbitu. Ez bekizu izan iguingarri Lakedemoni'ko Tindar-alabaren arpegia, ezta Paris maiz errutua ere; jainkoen errukirik eza duzu, egiazki, indartze ao suntsitu ta Troia goenenetik erauzten duena. Begira: oraintxe kenduko dizut begirakun ilkorra lausotu ta ezko inguruan illuna sortzen dizun laiño oro; etzaitez zeure amak agintzen dizunaren bildur izan, ezta ez egizu arek esaniko ezer ere bete gaberik utzi. Emen mukulu lurrera eratsiak eta aitzetik ateratako aitzak eta ke lurriñez nahasitako autsa ikusten dituzun tokian, Neptun'ek, iruortz eskergaz muruak eta zutoiñak azpi-dardarazi ta uria oso etroetatik idiki ta azpikoz gain jartzen du. Emen lazki June'k dauzka aurrenik eskear atek, eta burniz gerrikoturik, sarninkor, gudarozte alkartuari dei

dagio ontzietatik. Bestetik, ikus, nola jarririk dagon jauregiaren galdor-gal-dorrea Palas tritoniarra, argi-aillaraz dizditsu ta Gorgonaz izukor. Aitak berak (Jupiter'ek) kemen-indar goitu-eziñez adoretzen ditu danaotarrak; gaiñera berak su-bermatzen ditu jainkoak ere dardanitar iskilluen kontra. Zoaz igesi, seme, ta ipiñi azkena zeure nekeari. Iñun ere ez naiz ni zure-gandik urrunduko, ta zeure aitaren ate aurrean seguru jarriko zaitut». Esan zun, eta gauaren itzal lodietan izkutatu zan. Ta orduantxe nabari izan zitzaizkidan Troia'ren etsai ziran jainkoen betosko ikarakorra ta aien aunditasun eratsi-eziña.

Ordun Ilion guztia sutan zegola iduritu zitzaidan egiz, ta neptundar Troia ondo-ondotik irabiatu ta nahasia zala. Onan edo: egurgina, mendi garaian ametz zarra, bi bizarreko aizkora-burnia aren inguruan setatsu erabilliz, ebaki ta eratsi nai dutenean, arek, luzaro zemaika ta adatsean dardar, klunka dagi kukula inarrosian, eta azkenez geldiro zauriz azpiratua, garrasi bizia jaurti ta ondoz erauzirik, ausiabatza zabala edatzen du mendi-egaletan. Beera jeixten naiz, ta, jainkoa lagun, bidea dirikit sugar ta etsai artean zear: geziak tokia dagidate, ta sugarak baztertu.

Eta gurasoen aintziñako etxe atartera eldurikan, mendi garaietara eramateko iñor baiño len. billatzen nuen aitak, ezta Troia zuzitu ondoren luzarago bizi nai, ezta atzerri-bizitza eramaterik ere. «Zuok —diño— gazte odolez sendo ta kementsu zeraten zangarrok, zuok bai, iges egizute azkar. Nerezat, ordea, jainko ortzitarrak nai izan ba'lute nik bizia luzeagotzea, zaituko zizkidaten ziur asko egoitz auk. Sarraskirik naiko ikusi izan dugu, ta geiegi da uria artuta ere bizi izatea. Utz onelaxe, dei egin didazutenok, utz onelaxe ene gorputz eroria. Nik nere erio didoroket, edo etsaiak erruki izango didate ondarrak billatuz. Eraman-errez dizu obi gabetzea. Aspaldi onezkero jainkoen naskagarri nakioe ta alperrik daramazkit urteak luzatuz, jainkoen aitak eta gizonen erregek bere inar-aizez iraunsi ta suaz ikutu nindunetik batez ere».

Au lakoak gogora ekarriz, muker zegon Ankise ta etzun ikerarik egin nai. Gu ordea, negar-jario, nere emazte Kereuse, Askani ta etxe osoa saiatu giñean ez zezala, arren, nai ortara bultzerazten zigun zoriari indar geiago emanik, dana ez zezala berekin alperrik galdu aitari esaka. Arek baiña ezta beretik irten nai, ta esanari eutsirik aulki berean dirau sorai. Ni berriz ere iskilluetara noa bizkor, ta eriotza opa dut doakabe. Izan ere, zer autamen edo zer gaizka-zori ematen zitzaidan onezkero? Bear bada uste zenuen, aita, zu bertanbera utzirik, oiña atera al izango nuela etxetik? Eta nolatan jauki aitaren agoak birao ain gaitza? Uri gailen ontatik ezer ez uztea goikoeri eder ba'zaie, ta zu artu erabakian ermo ba'zaude, ta Troia'ren galpenari zeurea ta zeurtarrena ere gaiñeratu nai ba'dizkiozu, erio orrendako zabalik dago ate au. Bertatik or duzu Pirro ikuspegi, Priamu'ren odol

ugariz Joitua, semea aitaren begi aurre ta aita ondimai biran laster lepo-moztuko dituna. Onetarako, jainkotiar ama, gezi-sutik onez atera nauzu neure egoitz barnean etsaia ikusi dezadan? Askani ta aita ta Kereuse, alkarren ondoan, bata bestearen odol-istillean illaziak begiztatzeko? Iskilluak, ene gizonak, ekar iskilluak! Azken-argiak dei dagie azpiratuerei. Biur nazazute danaotarrengana; utz, arren, burruka berriturik ikusi dezadan: gaur ez gera denok galenik gabe ilko».

Onekin, burniz jazten naiz bigarrenez; ezkerrean babeskiña egokitu ta irten naiz jauregi-aterpetik. Baiña, ona, emaztea, nere oiñak besarkatuz, atarian bertan geldi, ene Jul txikia aitari eskeiñiz: «Iltzera ba'zoaz, gu ere eramán gaitzazu naiñora zurekin; baiña, ikas-oitua, iskillu artuetan usterik jartzen baldin ba'duzu, etxe au zaintzazu lendabizi. Noren ardurape uzten al dituzu Jul txikia, zure aita eta ni, iñoiz zure emaztea deitua?»

Gauzok oiuz esaten etxe osoa betetzen zun bere antzi erdiragarriekin; eta, it/etik ortzera, ikuskin nabarmen bat begiperatzen zitzaigu. Ain zuzen, Jul bere guraso naigabetuen beso ta musu artean zebillelarik, ona aren buru gain suzko mingaiña, argi-dario; izpi leun belatza, miñik eman gabe aren illeak miatzkatuz, aren lokune biran bazkatzen zan. Gu, ikararen ikaraz izu ta dardar, illedi irazekia astindu ta su done aiek urez itzaltzen leiatu giñan. Ankise nire aitak, ala ere, izarretara jaso zitun begiak alai, baita eskuak ere goirantza edatu zitun, abots onekin: «Jupiter guztialtsu, iñungo eskez makurrazten baldin ba'zera, begira gaitzazu, auxe bederen; eta, gure maite-errukiak merezi ba'du, emauguzu, aita, bertatik laguntza ta se.ndet.si itzazu aurre-zantzu auek!»

Zarrak au esanaz bat orru egin zun ortziak ezker aldera, ta zerutik narrasturiko izar batek itzal artean luzatu zun, ibilliz, bere zuzi argitsua. Jauregi gaillur gaiñez labandu ta Ida'ko oianean izkututzen ikusi gendun ditzikor, bidea erakutsiz edo; aren ildoak ikuspegi luzean argi ematen du; gero toki aiek ingurumari sulburrezko ke beltz dira zabalkiro. Ene aitak ontan, azpiratua nunbait, aizetan jaikiaz, jainkoen mintzo dakiela, izar do-eari agur dagio «Orain ez, ez geiago luzatzerik; atzetik noakizue, naiñora zuzendu or nauzute ni. Aberri jainkoak: jagon etxea, jagon billoba. Zuenta iragarki au, ta Troia zuen magalpean dago. Amor dagit egiazki ta zurekin, seme, lagun joatea ez dizut ukatzen».

Au esan zun ark, eta dagoneko argiago entzuten da uri zear suaren barbailla, baita aren bero zakarra ere urrago sentitzen da. «Ea, ba, aita laztan, jarri zaitez nere lepondoan; neronek, bizkar gain jasorik eramango zaitut, eta neke orrek ez nau aulduko. Ara naiz ona gauzak irauli, arrisku bat bera dukegu, gaizkabide bat bera biontzat; lagun bekit Jul txikia, ta emaztea betor urrunago, gure oiñatzen jarrai. Zuok, otseiñok, ar gogotan esango di-zuedana. Uri-irteieran ba-da mendixka bat eta Keres utziaren jauretze zar

bat, eta onen ondoan, urte askotan gure gurasoen eraspentak jagoniko nekosta zarkul bat andik eta emendik, toki ontara jo bear dugu guztiak. Zuk, aita, artu eskuan gauza sagaratuak eta aberri-jainkoak; neri, ba, gudaketa zakar ta odol-ixurtze biurritik oraintsu irtena naizen oni, etzait zillegi auek ukutzea, ur bizia dun ibai baten nere burua ikuzi arte». Au esanez, nere bizkar zabalak eta samea soin-gaiñekoz estali ta leoi gorri baten larrutan bildurik, nere sorta artzeko makurtzen naiz; Jul txikia ene eskubira itsastan da ta aitari jarraitzen dio oinkada ez-berdiñean; atzetik dator emaztea. Illun nahasiz beteriko lekuetatik giñoazen; eta neri, ez gezi jaurtiak ez aurrez aurre pillaka neuzkan gerkar alkartuak len ezertariko beldurrik sartzen etzidaten oni, orain aize orok izua dakarzkiz; edozein zumurrek gelduta uzten, daramakidan lagunaren eta sortaren beldurrez noski.

Eta doi-doi atेतara iritxiz ninjoala, ta ibillaldi osoa onik egin nuela iruditu zitzaidanean, oiñots sarri berritua entzun bide nun bertatik, eta aitak, itzal barruna begiratzuz, diosta: «Seme, zoaz igesi, seme; emen dira; dizdiz dagiten babeskiak eta borontze istargituak ikusten ditut». Aztoratu oni orduan ez dakit zein adur etsaik eramán zidan gogo naspil-azia; ni, bada, nere ibillian bide galduz ta zador ezagun oroz aldendurik nenbillela, ai!, ene errukarri!, Kereuse ene emaztea atzera gelditu zitzaidan. Adurrak kendu al zidan? Bidea galdu ote? Ala, nekatu rik, eseri egin zan? Ez dakit; gure begiak beintzat ez dute geiago ikusi. Ni ez nintzan oartu, ezta ua galdu zanik gogotan artu ere, mendixkara ta Keres zarraren jauretxe donera eldu arte; emen noizbait denok bildu giñanean, bera palta zan soil-soilki, lagun-en ta semeari ta senarran uts-egiñik. Nik, zoratua, nor ez nuen errudun egin, zala gizona, zala jainkoa? Ikusi ote nun ankerragorik ezer uri sakabanatuan? Askani, Ankise ene aita ta teukrotarren etxe jainkoak, lagunkideen ardurape jarririk, ibar sakonean gordetzen ditut. Ni, ordea, urira itzuli ta nere iskillu dirdaitsuz jazten naiz. Erabakita dagonez, Troia'ra biurtu bearra dut, lengo gertakari guztiak berriztu ta nere burua galzorian ipiñirik.

Arresiak ikuskatzen ditut lendabizi, ta oiñak erabilli nitun ate aurre zurbillak; utzitako lorratzak atzera ere ibilli ta illunetan berriz arakatzen ditut argiakín. Biotz-ikara ta izua nainun, ixiltasun berdiña; barnea latz-erazten didate. Etxera noa andik, ark oiña ara zuzendu izan ba'lu ere. Orduko sartuak ziran danaotarrak zairapastaka, ta etxe guztia zeukaten. Bat-batean, aizeak boladaka jaurtzen du goi-goietaraiño su laiotza; garrak ditu gaiñaldeak; bero-galdea dabil suminkor aidean. Aurrerago joanik, Priamu'ren jauregia ta gaztelua dakusazkit berriz. Baiña ordukoz June'ren jauretzeko aterpe zabal utsetan, Penix'ek eta Ulise biotz-gogorak, jagole autetsiak, guda-kiña zaintzen zeuden. Emen dut meta azarrian Troia'ko aberastasun osoa, jauretxe gartuetatik eramanda: jainkoen maiak, urre sendarrezko eltze ta tirisak, eta berendutako jazkiak. Ingurumari daude aurrak eta ama izutuak

erreskada luzean. Ala ta guzti ere, itzalak zear oiuka, deadar-uluz kaleak betetzen ausartu nintzan; abots goibelez, bein ta berriz ta askotan, alperrik oles egin nion Kereuse'ri. Aren billa beti, azkenik etzun naigabez uriko etxeak arakatzen nenbillelarik, Kereuse berberaren ikuskari ta geriza doakabea agertu zitzaidan begi aurrean: oikoa baiño andiago zan aren irudia. Arri ta belarri egiñik utzi nindun, illea lastu zitzaidan, ta abotsa eztarriari lotu.

Ondotik, neri kezkek arindu naiean, itzez asi zitzaidan onela: «Nola zaizu ain atsedean, senar maite!, min ero orri oben egitea? Auek ez datoz jainkoek nai izan gabe: etzaizu lege Kereuse lagun eramatea, Olinpu garai-an errege danak ezpaitizu ortarako baimenik ematen. Erbestaldi luzeak burutu bear dituzu, baita itxasoz ur-zabaldi galantak arakatu ere. Esperu lurraldetaraño elduko zera, liditar Tiber (12) bere joate barean, erri-alor jotetan zear zilingatzen dan lekuraño. Gertakari alaiak dauzkazu an: erreiñu bat, eta emazte erregiña. Aizatu, onezkero, Kereuse maiteagazko negaruluak. Nik ez ditut mirmidontarren eta dolopetarren bizileku arreak ikusiko, ezta ez naiz joango gerkar etxeko andreeri mirabe izatera ere: dardanalaba ta Venus jainkosaren errena nauzu; besterik da, jainkoen ama zabalak geldi-erazten nau lurralde auetan. Eta orain, agur, ta gorde egizu gu bion semearen maitasuna».

Itz auek emanaz bat, ni negarka ta asko esan nairik utziaz, aize leunetara alde egin zun. Orduan iru aldiz nere besoak aren lepo inguruan eman nai izan nitun, baiña beste iru aldiz aren irudi alper oratuak eskutik iges egin zidan, aize ezti erako, amets egalari bat bezela. Orla gaua igarorik, nere lagunengana itzuli nintzan berriz ere.

Era, sor ta lor, igesle berri askok eta askok ara jo dutela, ikusten dut: emakume ta gizaki, atzerrirako bildu dan gazteria, zori gogorreko erri xea. Alde guztietatik berton bildu dira, gogoz ta onez, nik itxasoz eraman nai ditudan edozein lurraldera joateko gertu. Ta goiz-izarra orduko Ida ton-toretik ateratzen asia zan, egunari ots emanez; danaotarrak, berriz, esiturik zeuzkaten ate-zubiak; ez gendun ezertariko laguntzaren itxaropenik. Beraz, eman nun nere burua ta, aita besagain arturik, mendiruntz zuzendu nintzan.

OARRAK

(1) Alegiazko Mirmidon'gandik artu zuten izen au Akileu'ren gudariak, *Illas' enean* ageri danez; Dolope'arrak, ordea, Tesali'ko ego-sartaldear. bizi ta Penix zuzendari zutela Troia'ko gudara joan ziranak ditugu.

(2) Timete, Troia'ko zar bat; semea illazi ziolako Priamu'ren aurka irritua, ari nola gaitz egin zebillen aspertu gabe.

(3) Eube'ko errege Naupli'ren semea zan, Egipto'ko errege Bel'en jatorrikoa.

(v) Bere garaiko aztrurik trebeena, noski, Troia'ren aurkako ateraldian esku artu zuna.

(5) Palas (Minerba) gerkarren jainkosa babeslea zan,

(6) Palas'i eman zitzaion izengoiti au, Beoki'ko Triton zingira egalean, Alalkomena'n gurtua zalako.

(7) Priamu'ren seme, ta Paris'en eriotz ondoren, Elena'ren senar. Trola erori zan gauean, Menelau'k il zun.

(8) Ektor'en emaztea.

(9) Priamu'ren emaztea.

(10) Enea'ren emaztea.

(11) Elena, Leda'ren alaba, ta au Tindar'en emaztea.

(12) Liditar naiz etruskotar, berdin dituzu; etruskotarrak, Jatorriz, Lidf'koak baitziran.

EN





III IDAZTIA

Kanta-gaia.—Kontakizun arloan aurrera doa Enea, bere zorigaitzak eta itxas-zearko ibilte etxaiñesak edesturik. Troia errautsi ta ango ke-kiratsa iraungi ta itzalazten dan bitartean, Enea'k, Ida mendi oiñean, ango egur sagaratuekin ogei banakoko ontzidia eratu ta itxasora dagi. Ankise'ren esanez aterarik, goi-erantzunak eta aizeak nai duten bidez dabilta.—Trazi'ra iritxi ondoan, Enos uria jasoten dute; baiña Polidoro'ren illobian ikusten dituzten zantzu —mirtu odol-ixurlea ta barrenetiko aren abotsa— arrigarriekin izuturik, bideari lotu zitzaizkion berriz ere; Delu'ra doaz, Apol'i iritzi eske, ta onek ots: «Billa ezazute aintziñako ama».—Ankise'k argitzen erantzuna, ta Kerete dala dio ama zar ua: Naxo jai-zale, Donuse orlegi, Paron zuri, Kikladen burestun.—Kerete'ratzen dira, baita uts-egiña ezagutu ere.—Etxe-jainkoak Enea'ri bere endaren jatorria erazagutzen diote.—Eguraldi asarreakin, troiarrak Esperirantz bidez bide.—Estropade ugarteak, Arpien egonleku; Kcleno'ren biraoa.—Zazintu oiantsua, Nerito zailla ta Itaka, Ulise'n anta ta iñude; jokuak Akti'n; Epiro'n lur artu; Eleno ta Andromake, Troia berriztatua, azti-aolkuak.—Itxasoz dabilta Akrozerauni mendien ikuspegi-an.—Itali'ri agurka.—Eskila ta Karibdis.—Etna sutan; Kiklopetarrak.—Ake-menide, Ulise'ren laguna; Polipemu.—Ankise'ren eriotza Drepano'n.—Sikili'tik alde egiterakoan, Aprika'ko ur-ertzetara egozten ditu ekaitzak.—Emen amaitzen da Enea'ren kontakizuna.

Asia'ko jaurgoa ta olakorik merezi etzun Priamu'ren jendekia porrokatzea goitarrak ontzat eman zuten ezkerero, Ilion burgoia erori ta Neptun'ek irasi zun Troia guztiak kea zerion bitartean, askotariko erbeste ta iñor gabeko lurralde soillak billatzera bultzera ginduzten goi-zantzuak. Ortarako guk, ez nora jo ez nun geldi zoriaren mende ez genkianok, Antandru (1) ondoan, frigitar Ida mendien oiñean ontzidi bat atondu ta gizon sakabanatuak bilduaz ginjoazen. Udalena asi berri zan, eta Ankise aitik zapiak adurrei emateko agintzen du. Negar patsetan nik, orduan, aberriko kaiak eta itxas-bazterrak, eta Troia egoniko alorrak uzten ditut. Atzerrira aizatua, itxaso sakon zear noa nere lagun, seme ta etxe-jainko aundiektu.

An, ikus-ala urrun, lurralde zabal landu bat edatzen da, Marte'ri eskei-ña. Beiñola Likurgo (Z) latzaren mende egona, trazitarrak aratzen dute gaur; troiatarren aintziñako arroztegi, eta zoria irrikoi gendun bitartean, ango etxe-jainkoak ere lagun genitun. Uñak araxe naramate; eta, adur gaiztoz an sartu arren, ur-egi makurrean uri baten len-asoiñak jartzen ditut bertan, nere izenez Enos (Eneatar) deiturik.

Ni, Dionetar Benus amari ta asi lanen onulari diran jainkoeri opariak eskeiñirik, zerutarren artean errege nagusi danaren omenez, ur-ertzean bertan, laru oneko zezen bat ¡Itzen ari nintzan. Andik urrean nunbait muiño bat zegoan, eta onen erpiñean gerize-ondo ostrotsuak eta abar ugariko mirtu lazquila zeuden. Urbildu nintzaion, eta opari-maiak abar-orritz jazteko mulu berdea lurretik atera naian nenbillela, ikuskari izukor bat —esateko ere geigarri nunbait— begi aurrean jarri zitzaidan. Sustriaiak eten eta lurretik erauzia dan lenengo mulua, izan ere, odol beltzeko tantak ixurtzen asi. zan, bere zorne-apirikaz lurra loitzerañño. Ikara otzak danbaka ipiñi zizkidan soiñatalak, eta odola izu-izotzez gogortu. Beste ondoko bat, mimena bezin biguna, atera rai nun oraindik, eta aren barne-erraiak sakonki azter-azi; beste ari ere odol beltza zerion, azaletik. Gauzarik asko gogoan iraulka ditudala, basamaitagarriei ta trazitar alorren buru dan Marte aitari oles dagiet, ikuskari aiek oneko biur zitzaten, zantzua emarazirik. Baiña, irugarren abetxo bat gar-ate?u aundiagoz zusterkatu nairik, belaunekin ere arearen aurka burrukan diardudala —esango ete dot, ala ixillik egongo?—, muiñoaren erraietan olako intziri erdiragarri bat entzuten da, ta itz eman auek datozki ene berrietara: «Zer dala-ta, Enea, urratzen duzu zori-bako au? Asketsi onezkero obiratuari; ez itzazu gaizkiz loitu zeure esku onberak. Troia'k ez nindun zuretako arrotz sortu: odol au abetxoak ez dario. Ai!, iges egizu lurralde biotz-gabe auetatik, utzi egizu urertz zikoitza. Ni bada Polidoru nauzu; gezizko burni-uztak emen josi ta ezkutatu nindun, gerora abar zorrotz biurturik». Orduan, berriz, bildur ezbaikorrez gogoa astun, sor ta lor gelditu nintzan; illeak laztu zitzaizkidan, eta abotsa eztar-zuloan mistillutu.

Priamu gaixoak beiñola Polidoro au, urre-zisku aundiakin, ixillik, trazitar erregeren ardurapean jarri zun, ark azi ta janaritu zezan; au egin zun, batez ere, bere uria gogor inguratua zala ikusi ta dardanitar iskilluetan uste ona galtzen asi zanean. Trazitarrak, ordea, teukrotarren kemenak oro auldu ta zoria ere aietatik baztertuz zioala ikusirik, Agamenon'engana ta onen gudaroste garaillera itzuli ta, zuzen-lege guztiak zapaldurik, Polidoro illazi zun, onen urrearen jabe egiñaz. Urre-gale madarikatua, zertara ez dituzu giza-biotzak beartzen? Izua soin-ezurretatik aldendu zitzaidanean, nere erriko nagusi autueri, ta nere aitari aurrenik, jainkoen arrigarriak iragartzen dizkiet, eta beren iritzia eskatu. Aburu bateko dira denak: arroztegi loitu ura laga, eguaizearen mende ontziak ipiñi ta lurralde gaizto artatik iges egin

bear dala diote. Ortarako, rolidoro'ren omenezko ilkizun eta otsakiak berizten ditugu, lur-meta itzela muiñoan gaiñean egokiturik; aren il-gerizei ere zeru-lotura ta nekosta beltzez opalmai zurbillak eraiki ta iliatarrak oitura zanez adats-azke inguruan jarri genizkien. Baita esne epelezko ontzi apartsuak eta odol deunezko txangillak ere ixuri genizkion gain; illobi barru ezkutatu genuan, azken-agurra abots zolitan egiñik.

Gero, itxasoa uste onez agertu ta aizeak marmar goxo ur baretsua eskeintzen ziguten bezin laister, nere lagunak ontziak atera ta ur-ertzak betetzen zituzten. Irten genuan loietik; lur barruak eta uriak urruti gelditzen dira. Itxaso erdian ba-da lur done zati bat, Nereutarren amari ta egeutar Neptun'i atsegin zitzaiena; ustaia eskun daraman jainko onak lur au, bein ur-egi ta jzpaterrak zear alderrai zebillela, Mikon ta Giaro garai artean lotu zun, eta igitua ez, baiña oillo-lur izateko ta aizeak arbuiazteko ala eman zion.

Ona narama aizeak; eta gu aunatuok, ugarte legun onek artzen gaitu bere kai eskierrean. Ontzietatik irtenda, Apol'en uria agurtzen dugu. Ani errege, gizonen errege ta Poibu'ren apaiz baita, lokun-giltzetan galartzuak eta koroï antzo ereiñotz donea ditula, aurrera datorkigu; Ankise zarra bertatik ezagutzen du berak. Arrotz-legez bostekoak alkarri eman ta aren aterpean sartzen gera. Arkaitz zarrez eraikitako jainkoaren jauretxeak agurtu nitun nik onela: «Emaiguzu, o tinbrar orrek, erarako bizitegi bat; eman bai erri nekatu oni arresi batzuk, erroialdiak eta uri iraunkor bat; Troia'tik iraunazi ezazu bigarren Pergamo bat, iraun-azi bai mozkiñok danaotarren sumiñetik era Akileu kupi-gabetik. Nori jarraituko ote? Edo nora joateko dioskuzu? Nun jarriko egoitzak? Igarri bat emai guzu, aita, ta jario zakizkigu gogomuiñetan».

Itzok esanaz bat, atarteak eta jainkoaren ereiñotza, denak dardaraz asi zirala iduritu zitzaidan; mendi guztia igitzen edo zan nere biran, eta jauretxe irikian orru zegien krispiñak. Lurra jo genduan apal, ta abots au iritxi zitzaigun belarrietara: «Dardanitar bipillak, itzultzerakoan, guraso-entatik len-sortu zinduzten lurraldeak, aretxek artuko zaituzte magalpe alai emakorrean: billa ezazute aintziñako ama. An Enea'ren etxea izango da eskualde guztietan nagusi, baita aren semeen semeak eta aiengandik jaioko diranak ere». Auek jalgi zituen Poibu'k; naasmen zarraparratsua sortu zan ordun pozaren pozez, eta arresi aiek zeintzuk ote ziran jakin nai zuten guztiak; Poibu'k nora itzulazi gura zitun, alderrai zebiltzanei ots egiñik.

Nere aitak ordun, aintziñako giza-semeen oroigailuak gogoraziaz: «Entzun, o andi-mandiak! —diño—, ta ikas zeuon itxarokizunak. Itxas erdian datza Kerete, Jobe aundiaren izaro; antxe dago Ida mendia ere, ta gure endaren seaska. Eun uri bizitz-erri dira, erreñu oso joriak; Teukro aita garaia, aditu nuna ongi gogoratzen baldin ba'dut, andik etorri zitzaigun lenbizikoz erretear ur-ertzetara, ta toki ura autetsi zun aginterritako. Ilion ta

pergamotar gazteluak etziran oindiño jasoak; aran-zelai sakonetan bizi ziran egonez. Emendik etorri zitzaigun gero Kibele ama babeslea, eta koribantar borontzeak, eta idatar oiana; emendik elizkizunetako ixil gurena, ta jainko-saren gurdipean leoi uztartuak joatea. Biotz on, bada, ta gabiltzan jainkoak agindu bidez; baretu ditzagun aizeak eta goazen Gnosiar aginterrietara. Emendi!; ez daude urruti ere; Jupiter lagun, irugarren argi-goraldiak keretetar lur-ertzetan ipiñiko digu ontzidia».

Onan mintzatu ondoren, eskein-azi zitun opamaietan merezi il-omenak, zezen bat Neptun'i, zezen bat zuri ere, Apol ederra; ardi beltz bat, Ekaitza, ta beste zuri bat, zuoi onezko Aize eztioidi. Egazlari duzu omena, ta ark dionez, Idomeneu buruzagiak, bere aitaren jaurerrietatik egotzia, igesari eman dio: Kerete'ko ur-ertzak, beraz, utsik daude, etxeak eta egoitzak erabat utziak eta etsairik gabe. Ortigi'ko (3) portua laga ta kresal zear arin dagigu, bakotarrak bizi diran Naso (4), Donuse (5) orlegia, Olearon, Paron zuria, ur-barruna edatu Kikladak eta lur askoren artez kordokaturiko itxas-arteak atzera utziaz. Leia bizi barbail gogorra sortzen da ontzitarren artean; lagunak aolkuz ots: «Goazen Kerete'ra, geure arbasoen supazterrera». Atzealdetik jaiki dan aizeak ibillian sakatzen digu ta, azkenez, kuretetarren aspal-diko lur-ertzerara urbiltzen gera.

Nik emen, olde-gutartsu, iri opetsiaren arresiak eraikitzen ditut, eta Pergamo deitzen diot izenez; eta izen orrez poztutzen dan ene jendekiari aolkatzen diot, oin-etxe aiek maite izanik, gaillur galanteko gaztelu bat ere eragin dezatela. Ain zuzen, ontzi guztiak orduko ondar gorrian zeuden uretik at; gaztedia ezkontz-itunak eratzen ta alor berriak goldez iraultzen ari zan beingoan; nik, ordea, legeak eman ta bizilekuak atontzen niarduan, eta orretan, ez bat ez bi, zeru aldea likisturik, adu txarreko izurri beltza eratxi zan soin-ataletara ta urte ilkorra zugatz eta ereintzetara. Nire lagunak beren anima eztiak uzten zituzten, edo-ta gorputz-narras zebiltzan geixorik; Siri'k bitartean alor etzeak kiskaltzen zizkigun: belarrak idortuz zioazten ta ereiñak laru etzuten azkurririk ekarri nai. Aitak onu damakit: itzul nadilla, berriz itxasoa egiñik, Ortigi'ko Poibu'ren erantzun-lekura, parkeske, ta galde dezaiodala zein izan bear dun gure neke-lanen azkena; norantza oiñak zuzendurik, nundik jokatu bear dugun laguntza billa ainbesteko lor artean: jakin dezagula beintzat zer agintzen digun.

Gaba zan; eta, lur barna, loak zeuzkan izaki ilkorrak. Jainkoen irudi doneak eta prigitar etxe-jainkoak, Troia'tik gaizkatu ta sutan zegon uritik nerekin atera nitunak noski, lo netzala, begi aurrean neuzkala iduritu zitzaidan, leio zabaletik sartzen zan illargi betearen didiz-zerrenda agitz opa-roan. Orduan, ene barne-grifiñak ausi ta goxatu naiean, mintzoz asi zitzaizkidan onela: «Apol'ek berton diragartzu Ortigi'ra itzulirik esango lizukena; eta ona gu, berak bere kabuz zure ateetara bialduta. Dardani kiskaldu ondo-

rean, guk ere, zuri ta zure gudarosteari jarraika, zure mendeko ontzietan neurtu dugu itxaso puztua, geronek jasoko ditugu izarretaraiño atzetik dartzoken illobak, zure uriari aginpide oso zabala emanez. Zuk atondu arresi garaiak untar aundientzat, eta ez utz, arren, igesaren neke luzea. Egoitzez aldatu berrra duzu. Etziran, izan ere, ur-ertz auk Deli'ko Apol'ek burutara eman zizkizunak, ezta Kerete'n errikotzekorik ere etzizun esan. Ba-duzu toki bat, gerkarrak Esperí deitzen diotena, eskualde zarra, iskilluz indartsu ta nare aberats zoruz; enotriar giza-semeak bizitz-erri izan zuten aintziña baten; orain baiña, omen danez, Itali deitzen diote aien ondorengoak, beren nagusiaren izenez. Oiek dira dagokizkigun egoitzak; ortxe jaió zan Dardano, baita Jasi aita ere, ta buru ortatik dator gure jendekia. Ea, jaiki onezkeró, ta esan alai zure aita zarrari alote kutsurik ez duten itz auk: billa ditzala Korito ta ausoniar lurraldeak. Dikte'ko alorrak ukatzen dizkitzu Jupiter'ek».

Onako ikuskariz ta jainkóen abotsez dardar-joa —etzan ametsa gero, ez; aien aurpegiak eta galartzuz estal adatsak eta aurrean neuzkan antz-taiuak ezagun nitula zirudidan, ta izerdi otzez neukan ordun gorputz guztia—, brastakoan ogetik jaiki ta, esku itzuliak zerura jasoaz oiuka, emai aratzak ixurtzen ditut sutaldean. Omena alai bukatu ostein, gauza otaz jakitun jar-tzen dut Ankise, zan bezela gertatua azaldurik. Laister ezagutu zitun ark gure sendia ta aita bizkiak, cta bera ere bai, oartu zan, eskualde zarren oker berriz atzipetua zegola. Ta, croituz bezela, diño: «Ilia'ko zoriak dardarazita-ko seme, Kasandere'k bakarrik jalgi oi zizkidan olako gertakariak; orain bu-ruak ematen dit nola ark aurrez iragartzen zitun gure endari zegozkion gauzok sarri ere sarri agotan artzen zun Esperí izena, baita italiar erreñua-rena ere. Baiña nork uste izango zun teukrotarrak Esperí'ko lur-ertzetaraiño iritxiko ziranik? Ala nor biotz samurtu bear zun orduan Kasandere goi-argituak? Poibu'ri gakizkion menpeko, ta, jakiñean jarriak, gabiltzan gaur-gero bide obeagóz». Orrela dio, ta denok pozarren aren esanetara jarri gi-ñan. Utzi genduan toki ura ere, ta, gutxi batzuk bertan lagarik, oialak aizeari eman ta zurrun txolkonean arin neurtua dagigu itxas edatu barruna.

Ontziak itxas zabala artu ta ianadik ikuspegian lur-izpirik gabe, nainun or-tzia ta nainun kresala geundela, gaua ta ekaitza berekin zekarren goitiko euria jarri zitzaidan buru gain; ur zabala, berriz, laiño izukorrez jantzi zan. Iraiz batean, aizeak itxasoa naspildu ta olatu ikaragarriak iraul-azten dituz-te, ta gu sakabanatuak, ur-leza neurgaitzean gabiltza. Odei adarrak matasatu zuten eguna, ta gau ezko batek ostu zigun ontzia; laiño ausietan dizdizka bein ta berriz tximistak. Bide zuzenetik jaurtigiak gabiltza, uin utsi gaiñez alderrai. Zeruan ez omen du Palinoro berak ere eguna ta gaua bereizten, ezta itxas-erdian zeraman bide-arloa ere eztu gogoratzen. Iru eguzkitan, bai-lo, ezpai ta illun beltz ibilli giñan ur artega zear, ta iru gauetan izarrik gabe. Laugarren egunean, ala ere, lurra jaikiz zioala begitandu zitzaigun lenbizi-

koz, mendiak urruti ta kea itzulika. Erori zaizkigu oialak. eta arrauneri eldu bear; ez dago luzatzerik, itxas-mutillak bipil ta ermo bitsak biurrizten dituzte ta ur oztiña garbitzen.

Olatuetatik begiratu, Estropade (6) ur-egiak artzen naute aurrenik; Joni aundian daude gerkeraz Estropade deituriko ugarteok; emen bizi dira Keleno izukorra ta beste Arpia (7) batzuk, Pineu'ren etxea ertsi ta lenmaieak bildurrez utzi bear izan zituztenetik batez ere. Ezta bidutzik auek bezin itunik, ezta jainko-izurrik ez asarrerik sulezako oxin kiratsetatik iñoiz jaiki aiek bezin odol-zalerik. Egazti dira ta neskatz arpegia dute, jasan eziña da beren sabel jarioa; kakoturik dauzkate eskuak, eta laru arpegiak ater-gabeko gosez.

Ara eramanak kaiean sartu giñanekoxe, ona nun dakusazkigun or ta an zelai barna idi-saldo yaioak, eta belardietan ere auntz-taldeak jagole gabe. Aieri burniz eraso ta eize egiñik, jainkoen ta Jupiter berari dei dagiegu atzemaana zatitu zezaten; eta gero, ur-ertz makurrean oe-etzauntzak egokituaz, aragi guria jaten dugu oparo. Laister, baiña, egara zakar Arpiak jetxi zaizkigu mendietatik, eta garraisi zoli egatsak astindu, jatekoak arrapatu ta likits ikutuz oro zikintzen digute; aien urubia, izan ere, kirats ustelez gain, bildurgarria duzu. Bakarrune izkutu baten, zugaitzez ta itzal izukorrez esituriko arkutx baten azpian egokitzen ditugu berriz ere maieak eta sua opal zizailluetan. Eta ostera ere, izkilimili ozenak, ortzialdeko illunbe itsuetatik jetxiaz, eize inguruan egaztu ta zango-ago makurrez jakiak loitzen dizkigure. Lagunei agintzen diet crduan iskilluak ar ditzatela, talde basati arekin burrukatzeko. Agindu bezela dagite aiek; ezpatak eta erredolak eratu ta belar artean gordetzen dituzte. Orrela, Arpiak goitik jetxi ta uregi okerrean ots zutenaz bat, borontze arro" (adarrez) zantzu dagi Misenu'k ere arkaitz galdorretik. Aiengana doaz ene lagunak, ur-txori naskagarriak burniz zauritzeko burrukaera berriak asmatuz; aiek, orraitio, ez dute indar-zartarik egatsetan artzen, ez zauririk lepoan, eta arrapakiak erdi-janda ta kutsu loiak itzurik, izarperuntz egaz dagite abiada azkarrean. Aletako batek, Keleno'k arkaitz erpiñean ezarri ta, zori gaiztoko igarle, onako garraisiz barrena lertu zun:

«Laomendote'ren semeok, liskarra sortu nai diguzte emen ere; liskarra emen ere, etzandako idi ta txal-zekor auengatik? Arpi errugabeak ere, beren gurasoen aginterritik, aizatu nai ote dituzute? Entzun, bada, ta ar itzazute gogoan ongi ene esanok. Aita alguztidunak Poibu'ri aurrez esana, Poibu Apol'ek neri iragarri zidana, uraxe bera nik ere, Asarreetan nagusi naizen onek iragarten dizuet. Itali billa zabiltzate zeuen bidean, eta oles egin aizeekin Itali'ra iritxi ta ango kaiean sartu ere, bai, onez sartuko zerate; baiña eman uria ez dezute ormaz esituko, guri egiñiko ilketa iraiñen ordez, biran

karraskatutako maieak gose anker batek zeuen ortzekin irunstera beartu artean beintzat».

Esan zun, eta egoak eramana oianean sartu zan. Nire lagunei berriz, bat-bateko izu-otzez odola gogor-azi zitzaien; biotz auldu ziran gaixoak, eta ez onezkeru iskilluz, arren ta eskariz baizik, pakea eskatu nai diete aieri, naiz jainkosak naiz egazti gaizto satsuak izan. Ankise aita lenen urertzetik, besoak zabal, goiko indar itzalari deika ari da, oituzko opariak eskeintzeko agindurik: «Jainkoak, galazo zemai oiek! Jainkoak, uxa guregandik zoritxar ori! Goxo ta nare, begira itxazute onak!» Geroz, ur-egaletik, unamak ebaki ta tenk dauden sokak askatzeko agintzen du.

Ego-aizcak oialak puztuz igesi goaz ur apartsuan zear, aizeak eta gidariak bidea erakusten diguteiarik. Or ageri dira kresal erdian Zazinto (8) oiantsua, Duliki ta Same, ta Neritu (9) bere arkaitz mokorrakin. Itaka'ko ugarriei aldera egiten diegu, Laerte'ren aginterri, ta ondoren Ulise ankerra inñudetu zun lurra biraokatzen dugu. Baita gero ageri zaizkigu Leukate mendia ganguren odeitsuz ta Apol'en jauretzea, itxastarrentzat izukor. Nekaturik onera zuzendu ta bertako uri txikian sartu giñan. Brankatik bota aingura, ta ur-ertzean kokatzen ditugu ontziak. Ortara, azkenik ere, itxaro gabeko lurrez jabetzen gera, ta Jobe'ri garbi-eskeintzak egiñaz, mai opari-gaiz beterikoetan sua piztutzen dugu, baita Aki'ko (10) lur-muturrean Troia'ko jolasak ospatu ere. Nire lagunak berriz, soin-as ta olio-patsetan, aberriko leia-jokuak atsegiñez saiatzen dituzte; eder zaie, noski, ainbat argur aruri albora utziz, etsaien artetik onez iges egiña.

Bitartean, eguzkiak urte osoa betetzen du biraka; negu otzmozak, berriz, ipar-aize birundaz zakartzen ditu itxas-ufiñak. Eta nik, Abante gurenak eraman zun borontz utsezko babeskia josten dut ateko zapatetan, gertatua ere bertsuz adierazorik: «Enea'k eskeiñi zun danaotar garailleengandiko iskillu au». Bertatik kaia utzi ta tostetan exeritzeko agintzen diet lagunei, ta auek kresala zigortu ta uin zabaldia garbitzen dute, zein geiagoka bezela. Laster eskutatzen zaizkigu peakutarren (11) egurats gazteluak, eta Epiro'ko ur-egiak zear aurrera joaz Kaoni'ko ditxoan sartu gata, ondoren garai baten dagon Butrotu urira igonik.

Emen ezin siñistuzko berri batek arrotzen dizkigu belarriak: Eleno, Priamu'ren semea, eakitar Pirro'ren emazte ta aginpideaz jabeturik, errege zala gerkar uri aietan; eta Andromake, berriz ere, bere sorterriko senar bati emana zala. Arritua geratu nintzan; ta gizon urari itz egin ta gertakari bakan aiek ezagutzeko iski-gale arrigarritan piztu zitzaidan gogo. Beraz, portutik irtetzen naiz, ontziak eta nasa utzirik. Une aretan, ain zuzen, uri sarrerako oianean, Simois aizunaren ertzean, ospe aundiko oturuntzak eta illeta emaiak Ektor'en autseri eskeintzen ari zan Andromake; etxeko jainkoen dei zegiten aren illobi utsaren aldamenera, belartza ezean —negarbide noski— bi opalmi

bait-zitun berberak eraiki. Ni urbiltzen ikusiaz ta Troia'ko iskilluak biran, aurrean zitun gauza gelgarriekin sorgortu ta zoro, otz-ausi ta konorte gabe gelditu zan so berean; beroak utzi zitun aren ezurrak. Lurrera eroria, epe luze ostean, azkenik, doi-doi diño: «Egizko itxura ote zaitut, egizko mezulari zatozkit, jainkosa-seme ori? Bizia ote zera? Ala, bizi-argiak utzi ba'zaitu, nun dago Ektor?» Au esan zun, ta malko-auria ixuriz inguru osoa bete zun oiuka. Itz erdiak baiño ez nizkion gaiñeratu korde gabetuari, totel mintzaturik: «Bizia nauzu, bai; alare, bear gorritan nabil. Ez izan zalantzik, dakusazuna egia duzu-ta. Ai, nolako alanbearrek artu zindun, ainbesteko senarrez gabetua? Edo zer zori, naiko duin, berriz ikusi duzu? O Andromake, Ektor'en emazte zera, ala Pirro'rena?»

Beera eratxi zun arpegia, ta abots meetan eralgi: «O zu bakarrik bestek baiño zoritsugo, Priamu'ren alaba neskatz, Troia'ko arresi garai azpian, etsaien illobi ondoen iltzera beartua! Arek etzun ezertariko zorigaitzik orraztu bear izan, ezta ugazaba garaillcaren oerik ere etzun atxillo ikutu. Nik, ordea, nere aberria kiskali ondoren itxaso askotaz eramana, jasan dut, mirabetzan aur-egiñik, Akileu sendi gazte aren arrokeria; onek, bada, gerora Leda'ren illoba Ermion'ekin lakedemonitar ezkontza osatuz, ni mirabe au Eleno morroiaren emazte egiñazi nindun. Oreste'k, baiña, ebatsi zioten emaztearekiko maite-suz berotua ta ortiko gaizkin-asarreak eragiña, ustekabean oratu ta aitagandiko opalpnai ondoan burua moztu zion. Neoptolemu'ren eriotza bide, aren erreñuen zati bat Eleno'ri etorri zitzaion ordenuz; eta onek troiar Kaon'en izenetik kaoniarrek dei egin zien alor oieri, ta Kaoni lurralde osoari; muiño gaiñean Pergamo jarri zun, ta iliatar gaztelu au. Zu, ordea, zer aizek, zer zorik erabilli zaitu bidez bide? Edo zein jainkok, zuk jakin gabe alegia, bultzerazi dizu gure itxas-mugetara? Zer diño Askani aurrak? Bizi ote da, aizea arnastuz? Arek zuri izan ere Trota galtzean... Txiki oindio, ama galdu izanak ba al dio kezkarik sortzen? Naiz Enea aitak naiz osaba Ektor'ek, axukatzen ote dute zerbait, lenagokoen. giza-adore ta leia aregan su-pizturik?»

Zotin luzeak alperrik atarez malkotan gauza auek esaten zitula, Priamu'ren seme Eleno giz-urena, uritik irtenda, aurrera datorkio, eralde aundiakin. Bereak ezaguturik, pozez gaiñezka bere jauregira garamazki, itz-erdi bakoitza negar-intziriz ezkotuaz. Aurrerago noa ni, ta Troia txiki bat dakust, eta aundiaren itxura bereko Pergamo bat, eta Xanto izenezko ibaiño legor bat; Eskea atearen aurre-zangoak besarkatzen ditut, azkenez. Gaiñetiko teukrotarrak ere, erabat, uri adiskidea jastatzen dute. Erregek bere aterpe nasaietan artzen gaitu, aretorik ederrenean Bak'en ontzitik txurritatu, urrezko azpilletan jan eta txangillak goi topa-azirik.

Egun bat igazi da, baita bi ere; oiaiei deiez daude aizeak eta egoe puztuak arrotzen ditu liñabera zapiak. Eleno aztiarengana noa ni mintzoz, gau-

za auek galdeka: «Jainkoen adierazle, troiar seme, Poibu'ren goi-argia, krispiñak, Klari'ko ereiñotzak, izarrak, egaztien mingaiñak eta ego ariñen zantzuak artu oi dituzuna: tira, esaidazu; azti-erantzunak, ba, ibillaldi goxoa iragarri zigun, jainko altsu guztiak ere Itali'rantza jo ta zegozkidan larrak billatzeko agindu zidaten; Keleno Arpia'k soilki, gose zantar ta asarre itsak jakin-eragiñaz, zantzu berri naskakor esangaitz bat aldarrikatzen dit. Beraz, zeintzuk arrisku saiestu bear ditut lenengo? Zer egiñik, gainduko ote nituke olako neke-lanak?»

Eleno'k ordun, aurrenik oitura zunez zekorrak ilda, jainkoen baimena eskatzen die; ta gero, bere buru doneko estugarriak askatu ondoren, berberak narama eskutik oratua zure jaurettxera, oi Poibu!, zure aunditasunak izu-laborrian zeukan gaixo au. Bertatik, apaiz bezela, gauza auek jalgiarazten ditu aren azti-agoak: «Jaikosa-seme, goitar gurenen oldez ur zear zabiltzana: zure ori niretzat gauza argia da noski, ta jainkoen erregek adu, gertakari, uts-bete ta goraberak olan neurtu ta irabiotzen ditun ezker, gauza askotik gutxi batzuk baiño ez dizkizut itz-labur azalduko, itxas arrotz zear ziuurrago ibilli ta ausoniar kaiean atsedena obeki ar dezazun; Erio'ek ezpaitute nai Eleno'k beste ezer jakin dezanik, ezta saturnar June'k ere eztio iñori uzten oiek iragartzen. Batetik bat, lurralde zabal ibil eziñezko bide luzeak banatzen dizu urruti zuk ur-ur uste duzun Itali ori, ta ez-jakiñean ortxe-ortxeo kaieok indarrez ere artzeko gertakizunak egiten ari zera. Ara orduko, baiña, trinakriar (12) uretan oker-azi bearko duzu arrauna, ta ondoren ausoniar (13) itxas laua zearkatu, ta sulezeko zingira ta eatar Kirke'ren (14) izarora ibilli bearko dute zure ontziak, lur seguruan uriaren arraiñak ezartzera baiño len. Ezaugarriak ere esango dizkizut: bil itzazu gogoan josirik. Zu ibai gorde baten ur-egian zear kezkatu ta gogoetatsu zabiitzalank, txerri-ama zuri eskerga bat, ogetamar kume zuri bere erro biran ditula, ur-egaleko itzalean etzanda aurkituko zendukean tokia, axe dukezu uri-leku, axe zure neke-miñen amaia. Ez larritu geiago mai- ertzak maukatu bear dituzula-ta. Aduak idoroko dute bidea, ta Apol ere, dei egin ezkerotz, lagun dukezu. Baiña alde lur auetatik, utz bizkor gure itxasotik urrean dirakin italiar izpazterra; oietako uri guziak gerkar gaiztoz beterik daude. Eraen, Narike'ko lokriarrak (15) ipiñi zituzten beren bizitokiak, eta liktiar Idome-neu'k gudari-taldez inguratu zitun salentotar (16) alorak; an, Piloktete (19) melibear buruzagiak arresiz biratu zizun Peteli txikia. Au olan dala, ontziak urez bestalderatu, opalmaiak itxas-egalean jaso ta eskintzariak betetzera koan, purpur zapi estalgi² kukutu itzazu zere illeak, su done jainkodeduz egin artara betarte etsaieren bat urbildu ta iragarkizunak artagazi ez ditzan. Zuk eta zure lagunak beukate opari-ekandu au; zure illoba garbiak ere iraun bezate uzkurz-era ontan..

«Baiña, emendik alde egin, aizeak Sikili'ko ugaldeetara eraman ta Peloro (18) estuaren medar-uneak gordez gutxiturik, lur ta itxaso ezkertera inguru luzez ibilli dabiltzanean, itzuri itzazu eskuiko egal-urak. Toki auek aintziña - diotenez—, bata ta bestea, etenik gabe, lurralde bat bera zirala zeuden; baiña gero barne-ikara aundiz ta lur-erortze zabal indartsuz ondora omen ziran —aldi zarkin luzeak ainbesteko alda-kemena du noski—, itxasoak, bere urakin tarteturik, Esperi alderdia Sikili'tik banakatu zun, ta orain ura oldarrez banatu alor ta uri erdietan zear dabilkigu ubide estu-ertsiz. Eskile'k dauka eskui alde, Karibdis ibikaitzak ezkerre; ta onek, bere osin amilkor sakonean, irutan iruntsiten ditu arrapastaka uin eskergak, eta ondo-oren, orain-geroka, eguratseraiño berak jasorik izarrak ere zigorrazten ditu ur-jasaz. Eskile, ordea, leizeak dauka zirkin-zula itsuetan, ago-zabal, ontziak bere bizkar gaiñeko aitzetara erakarriaz. Giza-tankera du aren goi-aldeak, ta gerriraiño neskatx bular eder batena, izan ere; be-aldea, ostera, itxas-arrain gorputz itzalekoarena da, izurde-buztenak basurde urdaillari erantsita. Emen obe zaizu, pixkat atzeratu arren, trinakriar Pakin'eko (19) muga muturrak biratu ta, Eskile eragabea ta ur-zakurren gisako auliz arramaka dauden ugariak osin zabalean ikusi baiño len, ibillaldi luze samarrak arana egitea. Onez gaiñera, Eleno'k ba'du ezertariko jakiterik, igarleari siñistu bear ba'zaio, Apol'ek egitan gogoa betetzen oi ba'dio, danen artean bakar auxe iragartzen dizut, jainkosa-sume, ta bein ta berriz esanik barnean sarerazi nai nizuke. otoitzez gur ezazu, leen-leenik, June aundiaren garaitasuna; ogutz atsegiñez berari eskeintzak ere, ta emari-eskariz garai zakioz andera altsuari; orrela, gero, garaitzaille, Trinakria utzirik, Itali mugetara igorriko zaituzte. Ara eramana, Kume (20) urira ta jainkozko aintzirara ta oian durunduzko Sulezara eltzerakoan, olerkari goi-argitua ikertuko duzu, arkaitz zulo sakonean zori igarle ostoetan ezaugarri ta izenak jartzen dituna. Neskatak, ostoetan idatziriko oler-esakun guztiak urrenez urren eratu ta arpean uzten ditu gorderik. Aiek geldi daude beren era-bideetan zirkiñik egiteke. Ateari orpoz eragiñik, aia ere, aize meño batek bultzatu ta osto leunak artegarazten baldin ba'ditu, ura ez da geiago arduratzen arkaitz ertz mokolean egan dabiltzan esakunak barriro atzeman, bildu ta len bezela eraz ipintzen. Erantzun gabeak ere ba-dioaz andik, eta Sibila'ren egoitza birakatzar dute gero. An, bira orren luzapena ain galera aundikoa izan ez dakizun, naiz lagunak ari-arazi, naiz ibilliak itxas aundira saka, naiz bel-aizez oial-magalak anpatu, ez utzi zuk iñolaz ere iragarleangana jo ta ari erantzunak eskatu gabe; berak azaldu dezazula dena ago-ezpaiñak gogoz irikirik. Berak ikas-aziko dizkizu Itali'ko errialdeak eta gudu gerta-bearrak, baita zuk nola eraman eta itzuri bear duzun estualdi bakoitza ere; eta, zuk agurtua, ibilpide onak emango dizkizu. Auxe da neronek itzez zuri esatea lege dana. Zoaz, ba, ta Troia aundia jaso ezazu zeure egitez izarretaraiño».

Igarleak, ago goxoz gauzok esan ostean, bertatik eraman ditzatela agintzen du urre ta boli landuzko bezuza pilloak ontzietara; berak ere zillarra metatzen du ugari izontzi-barruetan, eta dodonar konketak, bular oskol bat gakoz gurutzatua, iru urre bilbeduna, buru babeski eder baten txuntxurra ta motots illetsua. Neoptolemu'ren iskilluak agian. Nere aitarentzat ere ba dut zerbait esku-erakutsien artean. Zaldiak eta bide-erakusleak gaiñerutzen dizkigu, baita arraunlariak ordeztu ta nire lagunak iskilluz ornitu ere.

Ankise'k, anartean, ontzidia antolatzeke aginduz zebillen aizeari oialak eman gabe etzezatela beranketa geiagorik egin esaten die. Poibu'ren adierazleak oni, itzal aundiz, diotsa: «O Ankise, Benu'rekiko ezkontz ospetsuz omcndua, iainkoek maitetsia ta pergamotar ausiabantatik bi aldiz jaregiña: or zuretzat Ausoni'ko lurraldeak, zoaz aien jabe egitera zere ontziekin. Ta, alarik ere, ara orduko ertzez ertz saieska ibilli bearra duzu: Apol'ek erakusten dizun Itali alderdia urrutixe baitago. Zoaz —dasa— o aita, semearen onagatik zoritsu! Zertako geiago ekiñik, aize jaiki boladak nere autuarren gerorako utzi?»

Andromake'k ere, aiek bezin zurbil azken agurratik, urre irazkiz gain loreturiko jantzi batzuk eta prigitar txabux bat dakartzki Askani'rentzat, aren aunditasunari ongi dagozkienak nunbait; eta, miesa bezuzaz betetzen dula itz auek egotzen dizkio: «Ar auek ere, gazte, nere eskutiko oroigai bezela, Ekror'en emazte Andromake'ren aspaldiko mait-suaren ezaugarri izan ditza-zun; artu, bai, zuretarren azken emaiok, o zu!, ene Astianakte'ren iduri bakarra zaitudan orrek! Orla zeuzkan ark begiak, orla eskuak, orla aurpegia ere; ta onezkero, adiñez berdin, mutil egiña zan ura ere, zure antzera». Nik, alde egikeran, au esan nien negar zotinka: «Bizi zaitze zoritsu, zuok, dagoneko zori betea duzutenok. Gu, aduz adu eramana gera. Irabazia duzute atsedena; ez duzute itxas-lauak zearkatuz ibiltzerik, ezta beti atzerantzta dagiten Ausoni'ko alor billatzerik ere; Xanto'ren iduri bat ba-dakusazute, baita zeren eskuz osaturiko Troia bat ere: zori obepean eta gerkarren esku-mendetik urruti xamar, nik nai. Alango baten Tiber'en eta Tiber au-zoko zelai-alorretan sar ba'nadi, ta nere jendekiari eman arresiak ikus ba'nitza, beiñola senide ziran uri ta auzo erriekin, Darano sortzaüle ta gorabera berdiñak izan zituzten Epiro ta Espera bi Troia oiekian, gogoz Troia bat bera osatuko dugu: bedi au gure illoben ardura ere».

Itxas zabalean gabilta Zerauni mendiri; ur-bide laburra noski emendik Itali'ratzeke. Eguzkiak bitartean bea jo du, ta itzal nasiz jantziaz doaz mendiak. Arraun-zaintzea zotz egiñik, ur-ertz etzaten gera, lur biziki opatuaren magalean; ondar idor gain zabal, gorputzak lasai gozatuz gaude; soin-giltz abaildu barna laster ixurtzen zaigu loa. Gaua oraindik, orduak eramana, bere ibil-erdira gabe zegoala, Palinuro nagi-ezak, bere etzangotik jaiki, aizeen bidea azterkatu ta belarriz artzen ditu surmurrak oro; izar guztiak ere

ortze íxillez labainkor oartzen, Arthur, Iade euritsuak, bi Trionak; Orion urre-argiz jantziari so dagio batez ere. Ozkarbian dana ondo doala ikusi dunean, zantzu argia ematen du ontzi-txopatik; gu, bada, ontzidia mugí-azi ta bideari lotzen gatzazkio, aiz-eunen egoak zabal,

Eta izarrak aienatu ta egun-xinta margo gorri zetorrela, Itali'ko mendi mukulo arrea ta lau zabalak begiz jo genitun, urrutira. «Itali», oiú dagi Akate'k lenengo, ta irrirtzi alaiz Itali agurtzen dute lagunak ere. Ankise aitak, ordun, edontzi eskerga bat koroetu ta ardaoz bete ondoren, txopa goratuan zutik, onela dei dagie jainkoeri: «Ur ta lur ta ekaitz altsu zeraten jainkoak, emauguzu ibilte erreza ta arnas iguzute aldeko aizez! Aize opa izanak sarriagotuz, dagoneko urbillago ageri da kaia; bai mendi-kukutzean Mínerbe'ren jauretzea ere. Lagunak, aize-zapiak bilduz, lur-egalera biurtzen dituzte brankak. Sorkalde-aizeak joriko uíñez, ustai antzera makurtzen da kaia, ta aurreko arkaitzak bits dariola daude kresal iztalditan; portua bera gorderik; torre iduriko ugariak, bi orma bezela zabaltzen dituzte beren besoak, eta ur-ertzetik gibelerat egiña lez ematen du jauretxeak. An ikusi nitun —len zantzua noski— lau zaldi elurra bezin zuriak, lasa-lasa zelaiko asida mozten. Eta Ankise aitak onela ots: «Guda daramazu, o lur arrotzai-lle! Gudarako ornitzen oi dira zaldiak: guda-zemaika daude abere ok. Alaz ere, lau zangoko auek sarritan, gurdi-agara egin ta uztarriakin galga egokiro eramaten oitu ezkeroz, pake-itxarokizun ere ba-ditugu». Ordun aurrenik garaille artu gaitun Palas iskillu osgilledunaren jainkotasun donea otoizten dugu, aren opalmai aurrean buruak prjgitar zapiz estaldurik; lege danez baita, ta Eleno'k axola aundiz eman zizkigun esanak beteaz, agindutako opariak eskeiñi ere egin genizkion argutar June'ri.

Ta eskeintzak eraz amaitu ostean, geiago luzatzeke, bela-zurrunen muturrak edo goiak itzulazi ta gerkarren bada-ezpadako bizitoki ta alorrek saiets uzten ditugu. Emendik ageri da, surmurra egi baJdin ba'da, Erkul'ek irasi zun Tarento'ko iz-kolkoa; aren aurrez aurre altxatzen da laldnitar jainkosaren jauretzea, baita Kaulon'go gazteluak eta Eskilake ontzi-zartatzai-lleko gotor-lekuak ere. Onetaz gaiñera, an urruti, itxasotik agiri da trina-kriar Etna, ta entzun genitun urrin itxas-orro izugarriak eta labarreko arri alkar joen intziri ausiak; dantzari duzu gezala poz anker, bere irakin zakar-rean areak loiaziz. Eta Ankise aitak dio: «Auxe dugu, iñondik ere, Karib-dis ura; ugari auek, aitz ikaragarri auek ao-miñean erabilli zizkigun Eleno'k, Ken zaitezte emendik, lagunok, arraunean batera bezin leber kementsu saiaturik». Denak dagite esana, ta branka kirrinkaria Palinuro'k biur-azo zun lenengo czer aldeko uretara, ta enparau guztiak ere arraunen eta aizeen indar bidez ezkerreara io zuten bipilla. Ur-leza kizkur nabarmendurik, zeru-raiño jasoak gera; uin palasta berriz beeraturik, gu ere barne-osiñeraíño

garamazki. Ugarraki iru aldiz garraisi egin zuten arkaitz arro artean; iru aldiz ikusi genirun aparrak egotzita, izarrak intz-jario.

Aizeak eta eguzkiak, bitartean, pot egiñik uzten gaituzte, ta biderik ez gcnckilako, Kiklopetarren (21) eskualdera iritxi giñan. Aundi ta geldia da emengo portua, ez baita berton aizerik sartzen; baiña aldamenean, aitz-mokor izigarriak goitika, ots dagi Etna'k; batzutan onek, pike-burrunba ta geldo gorizko kea darion odei arre beltza bialtzen du eguratsera, bere sugar-borobil itzalekin izarrak berak ere miazkatuz; beste batzutan, ok eginda, mendi-errafetatik erauzi morkaitzak eta arribizi austuak orroez pillatzen ditu airepean, bere barne-muiñean irakin dirakilako. Esan oi danez, Enkeladu'ren (22) gorpu iñaztura batek erdi-errea mukulu onek dauka azpian, eta gain ezarri zitzaion Etna eskergak, bero-gelak printzaturik, sua aizatzen du azkarki; ta alderdi aunatua aldarazten dun bakoitzean, Trinakria osoa daradarazten digu barbar-otsez, bere ke nahasiz ortzia ere beltz-beltz ipiñirik. Oianean kuku jasan genitun gau artako ikuskari esangaitzak, eta ez gendun iskanbil-burrunba aiek zergatik ziran jakin. Izarrak ez baitzuten surik, ez zeruak goi-dirdir garden berezirik; odei zegoen ortzi zurbilla, ta gauak, ere, ez orduko, laiño-larriñean atxillo zeukan illargia.

Eta garai anako ba-zetorren urrengo eguna gorantza, lenengo goiz izarra-kin, eta argiaren begiak ere izerdi zeuden itzalak uxatuak zitun ortzi azpitik. Ortan, bat-batez, gizaki ez-ezagun baten larrantza agertzen zaigu oia-netik urtenda, jas makar mee ta itxura oso akituan, eskuak eske bezela ur-ertzerantz luzatzen zitula. Ari ezarri genizkion begiak: bere bizar azi ta elorritz jositako kapelotz izurtuan, loi zatar zegoen; baiña gafñerakoetan gerkar bat gendun, eta beiñola bere aberri-gudarostean Troia'ra igorria. Eta dardanitarren soiñekoak eta troiar iskilluak urrunetik ikusi bezain sarri, ikusten zunaz arriturik, zertxobait tenk egiñaz urratsa geldi-erazi zun; ondoren, ur-egalera zuzendu zitzaigun irrika bizian, negar-eskarika: «Izarrakatik, jainkoakarren eta arnagarri zaidan zeru-argi augatik eskatzen dizuet, eraman nazazutela, teukrotarrok, zein-nai lurraldera: naikoa litzakit au. Danaotarren ontzi-taldeko bat naizela ba-dakit, baita iliatar sukaldeak iskilluz eraso nitula be ba-daitort. Beraz, nire gaiztakeriaren iraiña orren aundia baldin ba'-da, bota nazazute uretara itxas barrenean amildurik. Iltzen na'naiz, bizkorgarri izango zait noski gizonen eskuetan iltzea». Au esan zun; eta lurrean belaunikoturik nere belaunak besarkatzen zitun setatsu. Nor eta zein odolletikoa zan esan zezaigun aixa ematen genion; orrez gain iragar zezaiquila, arren, nundik nora eragiña zebillen zoriak. Ankise aitag ere, bertatik, esku-bia eman zion gazteari, txera-erakutsi eragikor onekin bere gogo zindoa adie-razorik.

Ark, guenean, bildur oro gibel-erazi ta au diosku: «Ikatarra naiz, Ulise zori gaiztokoaren kide, Akemenide izenez; Adamastu zan nire aita, ta au

beartsu zalako (ai, oraindik ere zori ark iraungo ba'lit!) Troia'ko gudara joan nintzan. Nire lagunak, aizturik edo, Kiklope'ren leize eskerga ontan utzi ninduten, beroen eskape ankerrak izu-laborri laga bear izan zituztenean. Barruz beltz illuna duzute etxe aundi au, bireka zikiñez ta jaki odoltsuz betea. Berak (Polipemu'k), tantaitzar da-ta, izarrak ere ikutzen ditu (jainkoek, ken itzazute lurretik olako izurriak!) Ezta iñorentzat ikus-erreza, ez mintzo-bera. Giza-erriak jaten ditu, ta odol zurbilla edaran. Neronek ikusi nun leize erdian etzanik, gure bi lagunen gorputzak bere esku itzalakin arkaitzaren aurka zatitu ta aien odol edatuz nola zipristindu zitun atarteak; neronek ikusia dut, bai, nola jaten zitun ark zorne beltza zeriola zeuden soin-atalak, eta aren ortz zakar azpian nola dardarazten ziran ezur-muin epe-lak. Baiña, ez arean, zigorrik gabe; Ulise'k etzun olakorik egari, ez itakarra etzan aitzu bere antzez galzori ain larrian. Ura, ba, jakiz okatua ta ardaoz obiratua, lur gain makurtu ta leizean zan bezin zabal etzanik, lo tartean zorne naskagarria ta ardo-odolez nastaturiko aragi-zatiak ok-eginka zegoelarik, gu, jainko altsuari deitu ta bakoitzaren egitekoa zotzean atera ondoren, anemen denok batera inguruan egokitu giñan, eta aga zorrotzez betondo ikaragarrian gorderik, argutar erredola edo poibutar argontzi antzera, zeukan begi aundi bakarra sastatu genion; noizpait ere asper-azi genitun alai geure laguneren itzalak. Baiña zoazte emendik, o errukarriok!; ur-egaleko lokarriak etenda, zoazte emendik!

«Arpeko zulo sakonduan bere artalde illetsuak itxi erroak estutu oi dizkienen Polipemu'ren antzekoak eta ura bezin aundiak, beste eun kiklope (begi-bakar) ere aipa-lotsagarri bizi dira pitean pitean ur-egi biurgunetsu auen ondoan eta mendi garaietan zear alderrai. Argiz osotzen dira dagoneko illargiaren irugarren adarrak, piztien egonleku, leize bakarti ta oianotan bizi naizenetik; aitz-troska batetik ikuskatzen ditut kildope eskergak, eta bildurra damakidate aien orroe ta zango barbaillak. Jateko kaldarra, garauak eta arri antzeko ezkurra, damazkidate zugatz-adarrak, eta belar erauziak beren sustraiak. Ara ta ona begiraturik, ontzidi auxe ikusi dut aurrenik itxas-egalerantza etortzen; edozein izanda ere, bere eskuetan jartzen dut nere burua: naikoa zait, alegia, enda iguingarri aren mendetik iges egitea. Zuok, ark baiño obeki, itzalazi ene gogo au, zergurako eriotzan».

Itzok esanda bereala, mendiaren erpin-erpiñean zear, Pelifemu artzaia bera dakusagu itxura aunditan, bere artaldeak lagunduta itxas-egi ezagunerantza datorrela; morko zatar itsusia da, erarik gabe, oso eskerga ta argizurtza; eskuan daraman ler-piñu moztu bat du gidari, dagizkin oin-urratsak irmotzen dizkiolarik; ardi illetsuak jarraitzen diote aintzin-gibel, eta bere gaitzean auek ditu poz-atsegin soil; samatik zintzilika dakar xirola.

Itxasora eldu ta bertako ur aundia ikuturik, antxe garbitu zun begi utsetik zerion odola, ortz-karraska ta orroez noski; gero itxas-barrura jo zun,

baiña etzitun uñiak aren saiets jasoak busti-azi oraindik. Guk, izututa, eske geukan Akemenide ondo merezi zuna gerekin arturik, ixil-ixillean lokarria ebaki ta igesari eman genion andik; eta, arraun gaiñean makur, itxasoa zearkatu gendun alkarren leian. Asmatu ginduan ark, eta itzaren otsera oinkadak biurtu zitun. Baiña esku-irrikaz atzemateko ahalik etzun, eta gure ondoren joniari uñiak neurtzeko aiña etzala ikusi zunean, itxasoa ta ura oso dardaraz jarri zitun irrintzi ikaragarri bat bota zun; ortan, Itali'ko lurra ere errotik iñarrosi zan, eta Etna'k berak marraka egin zun bere arpe makurretan. Orduan Kiklopetarren endakoak, oian eta mendi garaietatik eraginda, arrapaladan kaiera jetxirik, ur-egia oso betetzen dute. Tente ikusten ditugu, alperrik betillun ta izugarri, etnatar anaiak, burutzarrak goirantza jasoaz; bilkun gelkorra noski, arte ortzizaleak edo nekosta lerkariak —Jupiter'en oian garaia edo Diane'ren basarte— galdor jaiki saillean gailtentzen diran antzera.

Izu biziak iges gogorragora akuillatzen gaitu, ta aize egokienari zapiak emanik, ara naiz ona ito-itoka arraun dagigu. Eleno'ren aginduak, ala ere, Eskile ta Karibdis tarte ditugula oar-azten digute, ta bi bide oietan eriotza urbil dugun ezkeroz, ez oiñik jartzeko; beraz, zapiak atzerantza ematea erabaki dugu. Baiña ona aurretik Iparra, Peloro'ko itxasarte estutik bialduta, lagungarri; orla, Pantagia'ko (23) arri bizi ago aurretik igarotzen naiz, Megare'ko (24) kolkoa ta Tapsu etzana ere bizkar utzirik. Akemenide'k, Ulise'ren lagun zori gabeak, lendik ere alderrai ibilli ur-egi aiek berriz zearkaztean, azkar edestu ta erakusten zizkigun bazter auek.

Sikani kolkoan, Plemiri urtsuaren aurrez aurre, izaro bat dago etzanik, aurretikoak Ortigia deitu ziotena. Elide'ko ibai Alpeu'k, entzutea danez, bide ezkutu bat egin omen zun itxas azpitik zear araxegiño; eta orain, au zure agoz, Aretusa!, jalkirik, sikulitar urekin nastutzen da. Gurtu genitun, orrela egiteko esanak bait-gaude, toki artako itzal aundiak, eta emendik Eloro (25) ur-lo askodunaren lur-sail naro ugarietara igarotzen gera. Emendik, berriz, Pakin'go arkaitz jasoak ta azpi-ugarriak ikutuz ibilli giñan; eta urrunera ageri zaizkigu aduak iñoiz ere igitzen uzten ez dioten Kamariñe zingira, gelatar alorrek eta ibaiaren izenez deituriko Gela (26) uri aundia. Gero, beñiola zaldi eder sortzaille zan Agraga (27) garaiak bere arresi zabalak erakusten ditu urrutixago. Eta, aizeen menera, saiets uzten zaitugu, palmondotan jori zeran Salino ori ere, ta lilibeitar ubideak miazkatzen ditugu, igarri ezkutuz gordin. Deprano'ko kaiak eta ondartzta zurbillak artzen naute ondoren. Eta emen, ainbat itxaso-erasok eraginda, au samina!, Ankise aita galtzen dut, nere ardura ta gorabera guztietako gozagailu bakarra. Emen uzten nauzu, aita on, nekatua; ainbat galtzoritik, ai, ene!, alperrik jagona. Ez gauza izugarri asko esan zidan Eleno oler-zaleak, ez Keleno ankerrak, etzidaten iragarri oiñaze gorri au. Auxe nunbait nere lor-nekeetan larriena,

ta auxe nere ibiltze luzeen amaia ere. Andik irtenda, jainko batek ekarri nau zure lur-bazterretara.

Era ontan, guztiok adi ta zur geundela, Enea aitak soil-soil, jainkoen zoriak eta bere atzerri-aldiak jalgi-azten zitun. Ixillera zan gunez, ta azkena emen egiñik, atsedena artu zun.

OARRAK

- (1) Antandru, Troia'tik sort-egora aurkitzen zan uria, Ida mendi ostein.
- (2) Likurgo, edondarren errege, Trazia'n. Ez zion urrean Bako'ri Jaurespenik eman nai, ta itsu-eriz zigortazi zuten.
- (3) Ortigi, Delu'k izenik asko baitzitun, oietako bat, galeperrez ospetsu.
- (4) Kikladetako bat, gaur Naxia, maastiz ugari.
- (5) Donuse ta Olearon ere, Kikladetako ugarteak.
- (6) Estropade, gaur Strivali, Joni itxasoko ugarte txiki moltsoa.
- (7) Arpiak iru ziran, Aellu, Okipete ta Keleno, Taumante ta Elektore'n alabak. Lendabizi Salmideso'ko errege Pineu'ren malean asebate ziran; gero, Borea'ren seme Kalai ta Zete'k Estropade ugarteetara amillazl zituzten,
- (8) Zazinto, gaur Zante, Joni'ko ugarte bat, balta Duliki ta Same ere.
- (9) Itaka mendiko ugarte,
- (10) Aki, Akarnani'ko lur-adarra, gaur Azio. Apol akitarrari jasoriko jauretze bat zan bertan, eta bost urtetik bost urtera, antxe ospatu oi ziran Akitar Jokuak.
- (11) Peakutar, aintziñako erri batzuen izen-laguna; gaurko Korfu ugarte bizi izan zirean, diotenez.
- (12) Sikili edo Trinakri'ko urak.
- (13) Itali edo Ausoni'ko itxasoa.
- (14) Kirke bizi zan alegitar izaro Ea'tlk datorkio izen ori: Tirren itxasoan zegoen eta gero lurrari itsatsirik, Laki'ko Kirke lur-muturra osatu zan. Kirke, ordea izen aundiko aztrua zenun, Ulise'ren lagunak txerrl biurtu zituna.
- (15) Lokriar auek Lokre urikoak ziran, Aiax'en lagunak.
- (16) Salento, Kalibri'ko uria, Idomeneu'k irasia.
- (17) Gerkar gizurena; Erkul'ek, adiskide baitzun, bere geziak utzi zizkion eta Troia'ko moltso edo esi-aldian aiekin eratxi zun, beste askoren artean, Paris. Andik itzuli zanean, Peteli uria jaso zun.
- (18) Peloro lur-muturrak, Mesina itxasarteko ur-ertzetariko bat egiten du.
- (19) Pakin, Sikili'ko lur-muturra, gaur Passaro
- (20) Kume, Kanpani'ko uria, gerkarrak Itali'n euki zuten maizter lurrik aintziñakoenetaiko.
- (21) Itxas-ertz zear, Katani ta Akinu bitartean, Faraglioni ugarteak aurkitzen dira, ots, itxura bakaneko zazpi basait-arri morko; antxe ageri da Kiklopeen artzuloa.
- (22) Enkeladu, Lurra'ren seme erraldoietatik bat, zerura igo nai izan zutelako, Jupiter'ek Etna azpira amillazi zituztenetarikoa.
- (23) Sikili'ko sortalderantza doan errekaztoa.
- (24) Megare, gaur Augusta Tapso, Bagnoli'ko lur-milan.
- (25) Eloro, gaur Tellaro edo Abisso, Pakin lur-muturraren iparralderuntz itxaroratzen da.
- (26) Sikili'ko uria, Gela ibaiak andik eta emendik ureztatua.
- (27) Agraga, gaur Girgenti, Sikili'n sorkalderantza muiño Jaiki batean dagon uria.

E

NA



ET IDAZTIA

Kanta gaia: *Dido Enea'z maite-minduak bere aizpa Ane'ri azaltzen dizkio barnean ditun kezka limuriak. Ane'k, troiarrak Itali'tik urrutiratzearen, Venus'ekin bat egiten du. Eiza ta ekaitza. Omena.-Yarbas, Getuli'ko erregea.—Merkuri'ren mezua.—Enea'k, Kartago'tik aldegitako agintzen du. Dido'ren kezka, oiñaze, alaka ta eskariak.—Enea'k bere burua zuritzen, aduindar garai-eziñez ta Ankise aitaren itzal-adorez.—Dido'k berriz ere otoitz, oso setati.—Enea, ostera, ez du ezerk makur-erazten.—Gauza gelgarriak eta ametsak; Dido'k bere burua iltzea erabakitzen du; azti-opariketarako zirala-koan, aren aizpa atzipetuak egiten ditun gertakuntzak.—Enea'k bere irtera aurreratzen du.—Dido'k, ordea, birao izugarri erasotzen dio.—Sikeu'ren inude zarra.—Dido'k, aizpak gertatu dion txondorrera igorik, Enea beraren ezpataz, bularra zauritzen du.—Ane ta uri osoa negar-garrasika.—Iris'en agerpena; Dido'ren erio.*

Baiña, aurretik ere axola astunez zebillen Erregiña, maite-zauria elikatzen ari da zainbarru, ta aren txingar ezkutuak kiskaltzen du gaixoa. Bein ta berriz gogora dakarzki gizurenaren sendotasuna ta onen endakoen leia ospe aundia. Bular barrun josiak daramazki aren betarte ta itzak; arekiko ardurak ez dio noski soin-ataletan ere atsedean goxorik eman nai.

Urrengo egunak sutargi dirdaitsuz lurra joritu ta eguantzak itzal ezkotua ortzipetik uxatu-ala, maite-minduak onela itz dagio bere aizpa gogaideari: «Ane aizpa, zer ote ditut txundioz naukaten kasketaldi izukorrok? Nor ote dugu, jauregian sartu zaigun kanpotar berri au? Aren betartea bai lerdin! Bularrez adoretzu ta iskilluz suar! Nire ustez —ta ez da uste utsala—, jainkoen ariko dugu. Ez-axolak gogo mekoa salatu oi du. Ai, ene!, nolako aduak eraso dioten! Nolako gudaketak edestu dizkigun, goiargi-euritan! Lenbiziko maitasunak erioz atzipetuta uts-egin zidan ezker, beste inñori ere ezkontz-buztarriz ez biltzeko erabaki amil-eziña barnean txit tinko jarria ezpa-nu, ots, ezkont-oe ta zuziak gogait eragin ezpa-lidakete, argalkeri oni bakarrik bear bada amor egingo nion. Bai, Ane, egiz daitortzut: nire senar Sikeu zori txarpean itzali ta gure jainkoak anai-odolez gorritu zirane-tik, onexek bakar-bakarrik menderatu dizkit zentzuak, eta gogoarta artgaz amil-azi. Aintziñako suaren aztarna nabari dut barnean. Ala ere, naiago nuke lurak sabel beltza idekiko ba'lidake, edo aita alguztidunak oiñazkarri-

zartaz illunbetara, au da, Erebo'ko (1) itzal margul ta gau sakonean amilaziko ba'nindu ere, zu, oi garbitasun!, orban loitu edo zerorren eskubideak autsi baiño. Ni beretzat lenbiziko aukera nindun ark eraman zitun nire maite-lorrak. Beuzka berak, obi-barru gorderik». Onela mintza ondoren, mal-ko ugaritan busti-azo zun magala.

Ane'k darantzuo: «Oi zu, aizpak argia lain maite zaituen ori! Gaztaro soil luzean aituko al zera, negar-jario? Ez seme laztanik, ez Venus'en sari-rik, ezagutu gabe? Onen ardura dutela, zuk uste, itzal-auts obiratuak? Bedi: etzaitu sekula, naiz-ta miñez, iñundiko senarrek makur-erazi, ez Libi'kok ez aurretik Tiro'ko iñork; Yarbas (2) ezetsi zendun, baita Aprika'n garaitz-lur aberatsak janaritzen dituzteneko beste buruzagi batzuk ere; baiña, alan ere, maite-su atsegintsu orri uko egingo? Ez ote zera konturatzen nortzuen zelaian egotez zauden? Alde batetik Getuli'ko (3) uriak inguratzen zaitue: emengoak gudaketan garai-eziñak dituzu: baita sarrantxa gabeko numiditar-rrak eta Sirte gordiña ere zure biran daude; lekaro zabal egartsua ta Barka'tar (4) ankerren eskualde edatua duzu, bestetik. Zer esan, berriz, Tiro'tik sortu-gudatzaz ta zure nebaren zemaiez?

«Zigur uste dut nik, jainkoen eta June'ren zaipen iliar ontziak aize onarekin bide egin dutela oneraño. Noiakoa dakusazu zuk, ene aiz pa, erri au? Nola ugaritzen? Olako ezkontzatic, Teukro'tarren iskilluak lagunduta, zenbateraño iaikiko litzaken Kartago'tarren dirdaia! Eska zuk orain jainkoen baiezkoa, ta egin abegi xeratsua opariak eskeñiz ta eio errazoi akiakulluak oiek emen geldi-azteko: negu gordiñak eta Orion urtsuak izu-errakor dagitela itxasoa, ontziak printzatuta daudela, zerua berriz erruki gabe». Esan auekin are geiago irazeki zitzaion bularte maitez sutua, ta aikolo-maikolo zegon gogoari itxarokizuna emanik, bere garbi-nai ta erabea ausi zun,

Jauretxera doaz lendabizi, ango opa-mai aurean pake-eske auzpazturik; belar biko ardiak eskeintzen dizkie, oitura danez, Kere legelariari (5), Peibu'ri ta Lieu aitari; baiña June'ri aurrenik, ezkontz-lokarriaren ardura duna berau baita. Dido liraiñak berak, eskolan azpil zapala, bei adar zuri artean ixurtzen du gantzuki joria; opamai inguru-biran dabil arat-onat jainkoen bepi aitziane, il-eskintzaz eguna asirik; edo-ta, abereen bular iriki gaiñean makur, aien errai dardaratieri doakie onu billa. Ai!, azti-asmamen utsal erruki bageak zertako ote ditu eskintsari ta jauretxeak? Bitartean suari bigun zaio muiña ta bular barnean zauri ixilla bizirik; Dido gaixoa erretzen dago ta urian barna dabil zorabildua. Begira: keretar oian zear dabillen artzaiak urrundik gezia jaurti ta, ustekabez, orein uxua zauritu du, burni egalaria aren saietsean dardar utzirik: ark iges, diardu azkar, basoak eta dikte-utar ixurkiak zearkatuz; ala ere, saietsean tinko daraman gezia ezin du erazi. Berdintsu dabil Dido zoragarria ere: orain, iriko toki babestuetan zear darama Enea, sidoniar aberaski ta txukuntasunak erakutsiaz, bidez doaztela,

solas-nai ta itz erdia esan orduko, ixil; gero, illun-abarrean, orritsean opa du atsegiña, Ilion'go neke-lorrek berriz entzun nai ditu, ta or dogu asperetzeka edeslariaren agotik dindil. Azkenez, alkarri agur egin ondorean, illargia pixkaka argia zurbilduz doalarik, eta izar-jausiak lotara daragiten garaian, bakar ta goibel geratzen da egoitz utsean, eta ark utzitako egotegietan datza ameskor. Urruti dala, urrundua dakusa, urrunduari dantzuio; edo-ta Askani bere altzoan artzen du, onen aitaren irudi-lilluraz barneko maite-sua zerbait moteldu nairik. Dorre asiak ez doaz geroztik gora; gazteak ez dagine iskilluzko saiorik; ez dute kairik atontzen, ez gudarako babeski ta zainperik; etxe asiak, arresietako gainkalde eskergak, zeruraino eltzen diran in-darkiñak, dana dago geldirik.

Dido izurri orrek artua zegola ta izen ona ere ez zitzaiola orren eragozpen, Jupiter'en emazte laztanak jakin zunean, Venus Saturno'ren alabari au diotsa: «Ospe garaia ta guda-ondorengo ugari irabaziak dituzue, egiaz, zuk eta zure semeak; aundi ta aitu-eziña zure aomena, emazteki bat bera jainko biren amarruz atzipetua baldin bada. Etzait ez-ezagun, ez, gure arresten bildur ziñala ta Kartago ots-aundiko egoitzak txepel samartzat zeuzkala. Baiña, zer atzen izango du onek? Edo norako, orain, ainbeste liskar? Obe, ondo ba'deritzaizu beintzat, ezkontzaz itundu ta betiko pake-alkartez lotazi; eskuan daukazu, beraz, zuk biziki opa izana. Garretan dago Dido maitezauri aundiz, ezurretarañño sartu zaion suak bait-darabil estu ta larri. Biona bedi, bada, enderri au, ta jaurri dezagun itzalpe berdiñez; on bekizu frigiari senarran men egitea, ta nik, ordaiñez, eskuetan ipiñiko dizkitzut tiritarrak, ezkonsari bezela».

Venus orduan (ba-zekin bada maltzur zurrean ari zala, Itali jaureria Libi bazterretara aldatu minean), onela mintzatu zitzaion June'ri: «Ni bai xoro orrela ba'neza! Zurekin batera, nork gurako luke liskarrean sartu? Batez ere, zoriak, zuk diozu, zerorrek aolkatzen duzuna ederretsi bear ba'du? Aduak, baiña, zalantzan naukate; ez dakit ziur Jupiter aundiak nai dun ala ez; tiritarrentzat eta Troia'tik irtendakoentzat iri bat bera nai ote du gero? Erri biak bat-batu ta itunez lotzea, gogoko al zaio? Zu zera aren emazte: zuk eskarika bederen, aztertu zenezake aren barne-muiña. Zoaz aurreko ta orpoz natorkizu ni».

Artan June erregiñak erabat jaiki zun: «Bego nere gain neke ori. Adizakit orain ta neronek erakutsiko dizut, itz-labur, egoki dana nola burutu. Enea ra Dido gaixoa basora joateko dira alkarrekin eiztari, goizetik noski, eguzkia izpi-jori atera ta lurbiran zear zabaldu danekoxe. Odei beltz kazkarrez nasia ixuriko diot goitik beera ta ortzia oro trumoi-dardare inarrosi, ain zuzen ere eiztariak urduri bizitan oian osoa sarez inguratu dutenean. Gau zurbillak estaliko ditu ondoren, eta eiztari lagun guztiak igesari emango diote, noraezean; naspil ortan, leze-barne edo artzulo bat-batera joko

dute Dido'k ta troiar buruzagiak. Ordun ni ara noake, ta nik bezela zuk nai ba'duzu, neronek alkartuko ditut egiazko ezkontzaz, senar-emazte egiñik. Imeneu doke an». Kitere'k ordea, nasai-nasai, ontzat eman zun ziotsana, baita bere baitan parrelore eten ere, maitzurkeri utsean zebillela ba-zekin eta.

Eguantzak bitartean jaiki ta itxasoa uzten du. Gazte-samalda autatua, eguna txirristuz batera, ateetara doa joranez; sare meatz, lokarri, azkon burni zabaldun ta abar, pilloka dakarzkite; jauzi ta saltu dagite urduri masilitar zaldizkoak, eta eize-zakurrak erne dute begia. Kartago'ko aundizkiak zai zeuzkan erregin berandukorrak etzanguko ate aitzinean: gertu dago aren zaldia ere, urre biziz estalia, irrintzika, aokoak bitsetan. Azkenik ba-dator bera, lagun askoz inguratuta; txartes sidonitarra dakar soñean, biran mendel apainduz; urrezkoa du gezi-ontzia; illedia ere urre du korapillo?, jantzi kerexa ere lazuz gorri-biziz jasotzen dularik. Ba-datoz frigitar jarraigokoak ere, ta Jul alai. Aietarik lerdenen ta aurrenengo, begira or Enea, giza-talde biak batera bildu-aziz. Apol jainkoak, Liki elurtua ta Xanto'ko ixurkiak utzi ta bere sorteri Delo ikertzerakoan, dantza-taldeak eratu ta keretar, driopetar (6) eta agatirsotar (7) margotuak oro jauzi ta artasika ari oi dira, opamai biran barbail ta naste-uts; bera, alare, Zinto'ko bizkar gaiñetan dabilkizu oso lasai, geziak oska lepoan, ille joria osto bigunez batu ta urre-galartzuz estuturik. Aren gisara Enea ere, ez zebillen azkar-ezago. Txit diztikor bai dakar betarte zardena.

Mendi-tontor ta zear-bide gabeko une trinkoetara iritxi diranean, ona auntz basatiak aitz gaiñetatik, ikotika, malkar beera abiatzen; beste alderditik, ere, orra orein ariñak zelai agiriak zear astrapaladan: beuren joan azkarran 3ursa arrotzen dute laiño antzo, ta azkenez mendiak utzirik, saldo aundietan biltzen dira. Au ikusiz, pozez gaiñezka dabil Askani aurtxo, an beko j̄barraren erdian, bere zaldi bizkorrean lau-oinka; abere artean dabil alai, orain oni, gero ari aurrea arturik: giberru otzanen artean basauntz bits-jario bat idoro nai luke, edo obeki oraindik, leoi gorri bat mendi beera ba'letorkio.

Goi zabala, ontan, ots aundiz naspiltzen da. Ekaitza dator txingorrez nasia. Zelai-lauetan barreiaturik, uzkur daude tiritar, troiar ta Venu'ren illoba dardanitarra; an-orke arpeetara doaz lei bizitan. Ibaika dator ura menditik. Arkaitz-arru bat-baten aterpetu dira Dido ta troiarren gidaria. Zantzu dagie bertatik lurrak eta June ezkontzailleak: dizdizka tximistak, egurtsa ezkontz-lekuko; gorengo gingan neskatz taldeak parre-algara. Egun uraxe, noski, gaitz guztien asiera, baita eriotzarena ere; Dido bada ez du ezerk biotzikutzen, ez itxusi ez izen on; ez du ere barne-sua ixil-erazteko asmorik. Egiña ezkontza dala dio, ta izen onekin estali nai du uts egiña.

Itzetik ortzera, Omena ba-doa Libi'ko uri nagusietan barna. Omena!, gaitz azkarra, eze: ez bezin azkar zolia; igi-ala sendotu ta ibilliz indar-be-rritzen omen dana; ñimiño lenen bildurrez, aizetara gero puzturik; iraulka goi ta bee, ta azkenez odei tartean gordetzen dizu burua. Lur amak sortu zun, diotenez, jainkoen sumin gorri, Keu ta Enkelado'rentzat azken-arreba, oin-arin ta ego-bizkor. Mamu dezu izukor ta eskerga; ta, arrigarri ziñez, gorputzean egaki aiña begi zoli ditu aien azpian, eta beste orrenbeste min-gain; aoa itz-ontzi ta kont-ala belarri aditzeko. Zeru-lur bitartean egaz dagi gaez, illunean ortz-karraska jardunik; ez ditu iñoiz begiak itxitzen lo goxo ta atsedinari emanez. Jagole antzo, exerita dago egunez teillatu erpiñean edo dorre-buru batean; ikara sartzen du uri aundietan, naiz gezur asmatua naiz egia orobat iragartzen ditularik. Omen au izan zan orduan ere, poz-zeztitan, zenbait esamesez erriak ase zituna; zana ta etzana era berdiñean barreia zun: Enea, troiar odoletikoa, etorria zala, ta Dido liraiña arekin al-kartu zala; orain, ordea, nega luze guztian, aginterriko menpekoen ardura gabe, gurikerietan ari zirala, irrirts lizunak jota, aurki. Auxe edatzen du jain-kosa ziztriñak, parra-parra.

Eta begien itxi-edegi baten Yarbas erregeganakoa artzen du egazka ta bere esan-jardunez aren gogoa asaldarazten du asarre-sua biziagotuz. Errege au, Amon'en (8) seme dugu, neskatxa garamantitar (9) bategandik indarrez izana. Bere jaurerri zabaletan eun jauretxe eder opatu zizkion Jobe'ri; baita eun opamai eraiki, jainkoen etengabeko jagole dan su donetsia eskeiñi, azpi joria abere-odolez zipristindu ta atari loratuak ostoto-txorta eze margo asko-dunez ornitu ere.

Yarbas osoro subiztu omen zan zurmur garratz au aditzean, eta sengal-dua opamai aurrean auzpez, bi eskuak jainkoen irudi erdian gora jasorik, onela otoitz egin zion Jupiter aundiari: «O Jupiter algutziduna, zure ome-nez orain mauritar jendeak, oe margotuetan jan ondoren, ardo-dedua ixur-tzen dute... Ez ote dakusazu? Zu, aita, ortzian tximist-jario zaukagunean, alperrik izutzen ote? Itsu ote dugu odei tartean kuzkurtzen gaitun sua?, eta utsalak trumoi-durundi ta alkar-jotze zakarrak? Ona emakume au, gure lur-mugaz alderrai zebilela, ordain kaxkar batez uri medarra irasi zuna; neronek eman nizkion itxas-egalean lur zati bat goldatzeko ta legeak bere jaurri ta zuzendu zezan; uko egin zion, dakizunez, nire ezkontzai berari, ta orain Enea jarri du bere erreñuaren jaun eta jabe. Oraintxe bertan, Pa-ris berri ura, bere emakumezko jarraigo arekin, bizar ta illedi usaintsua bu-ru-babeskiz azpitik lotuta, ebatsiaz gozartzen da. Eta neri, zure jauretxee-tara opa-gaiak eraman besterik ez dagidan oni, etzait ezertarako onek da-makidan ospea».

Onako esanez opamaiak besarkaturik otoitz zegionari entzun zion Ju-piter altsuak, eta bertatik errege-jauregietara ta omen obeaz aiztuak ziran

maitaleengana zorroztu zitun bere begiak. Ordun Merkuri'ri itz dagio, onela agindurik: «Zoaz bizkor, seme, dei aize meeri ta labain zaitez beuren egoz; itz egiozu dardanitar buruzagiari, orain Kartago'n tiritar lurrean dagonari, aduak emaniko urien axola gabe noski: eraman ari nik esana, aize azkarren bizkar. Ez zigun guri aren ama ederrak olakorik agindu, ezta etzun orretarako bi bider gerkarren iskilluetatik onez atera; aitzitik, Itali, enderriz astun ta guda-orroz barbar, berak jaurriko zula agindu zigun, baita bera izango zala Teukro leiñargiaren luzapen, lurbira guztia bere legepean jarri-rik. Aldiz aurretik erabakitako ainbat gauza ta aintzak gogo-berotzen ez ba'du, eta bere goratzarrez ezer egin nai ez ba'du, iñartxiz dago bear bada, aita izanik, bere seme Askani erromar jauregietaz jabetuko ote dan? Zer asmo du?, edo zeren itxaropenez luzatzen du jende etsai artean? Nola ez du kezkatzen ausoni-ariak eta labinitar zelai-landak? Bebil ur gaiñez! Auxe duzu guztia. Onen mezulari, zerori zakizkigu».

Onela mintzo zan. Eta Merkuri bere aita aundiaren agindua betetzeko gertatzen da; eta, aurrenik, urrezko oiñetakoak jazten ditu: auek eramango dute egan, tximista bezin arin, bai itxasoz bai leorrez. Makilla eskuratzen du ondoren; onekin Su-lezatic deitzen ditu arima laruak, baita beste batzuk Tartar itunera bialdu ere; ametsak ar-kentzen ditu, ta il diranen begiak ikurraztu. Aizez doa arek autsita, gain goibleko gandua zearkatuz; eta dagoaneko, egaz beti, Atlante latzaren erpiña ta saiets-saillak ikuskatzen ditu: Atlante onek ortziari eusten dio buruz, ta erpin goi lerditsua laino beltzez estalia, sarri ikusi oi dugu aizeak eta euriak iñarrosia; an jausitako elurrak ere bizkarrak estaltzen dizkio; onezaz gaiñera, zarraren bular beera errekek labaintzen dira azke, ta jelak maskurtzen du aren bizar ikaragarria. Emen kokatu zan lenbizikoz Kileni jainkoa, egada berdin neurtuekin; eta emendik, soin-indar guztiz, uretara oldartu zan; ur-ertzean, itxas-egalez, arraiez beteriko uarri inguruetan, oso bee, egaz dagian txilinpurtaren antzera. Bai, Kilene'ren semeak ere, era berdiñean zirrikitzen zitun aizeak zeru-lur barna egazka, Atlante bere amaren aitonagandik urrutiratuaz, Libi'ko itxas-egi ondartsuetara zioalarik.

Kartago'ko ardi-saroiak bere oin egodunez ikutu zituneko, Enea lanari lotua dakusa, ots, uri berriko goitura, gatzelu ta bizitegiak eraikitzen ari da. Eta ona, ezpata bat darama aldean, izarra bezin diztikor, jaspi gorrizka iduri; tiritar gorri-biziz dirdir zegian sorbalдан dindil zekarren longaiña ere: Dido aberatsak egiñiko bezuza au, urre meez ariak banaturik. Bertatik inguratu ta au diotsa: «Zuk orain Kartago garaian oiñarriak ezartzen dizkiozu, ta, zeure emaztearen sen eta kasketaldien jopu uri eder bat jasotzen ari zera, aantzirik, tamalez!, zerorren aginterri ta gauzekin? Jainkoen erregek, zeru-lurrak bere argi joriz zuzentzen ditunak berak bialdu nau zuregana Olinpu kardenetik; berberak agindu dit zuri ekartzeko aize azkar ba-

rruna mezu auek: «Zertan zera?, zertarako asti eman Libi'ko lurraldeetan? Ainbat gauzaren aintz-dirdirak bizkortzen ez ba'zaitu ere, edo-ta zeure gorapenez nekatu nai ez ba'zera, begira bederen aziz doan Askani'ri ta zure oiñordeko Jul'i; oni bait-dagozkio Itali'ko jaurerria ta erromar lurra». Kileni'k, era ontan itz egiñik, aren begi aurrea utzi zun itzetik ortzera, ta ikusetik itzali zan urrutira, aizeño emez.

Enea, ordea, mintzul geratu zan ikuskari artaz, zoratuta bezela; illeak ere laztu ta kiribildu egin zitzaizkion izu-dardar, abotsa berriz zintzur-kordari itsasi. Andik iges egin nai du biziki, laga ainbat lenen lur atsegingarri aiek. Sor ta lor bai duzu jainkoen mezu ta agindu gogor arekin. Baiña, ai ene!, zer egin? Nolako itzez pake-azi orain Erregiñ maite mindua? Nundik asiko ote? Ta bere gogo urduria orain ona dakar, gero ara darama; oneri ekin, ura utzi, toki ta alderdi guztiak arakatzen ditu, nasi-biurri. Azkenik, erabaki au ontzat eman zun: Mnesteu ta Sergest eta Kloant arnas andikoeri dei egiñik, ontzia gerta dezatela ixil-ixillik diotse, ta lagun guztiak alkar bildu ditzatela kalean; iskilluak ere bai atondu ditzatela, baiña iñori ere gauza aien zioa esateke. Eta bera, Dido ona ezeren jakitun ezjala ta maitasun ain aundien puskatzeaz susmorik ez dula, nolarebait urbildu ta mintzatuko zaio, lotuta gauzkaten estuntzak austeko abagunerik egoki ta samurrena, ots, biderik errez-goxoena billatzen saiaturik. Guztiak, oso pizkor, ark esana dagite alaitsu, aginduak zintzoro beterik.

Erregiñak, baiña, aren iruzur-saioak aurretiez sumaturik (nork ziria sartu, izan ere, maite-minduari?), iñork baiña len oartu zitun geroko gertakizunak, eta zigur uste zitun gauzak ere bildur-azten zuten. Omen gaizkiñak berak iragarri zion maitez minduari, zer-nola zan ontzidia igesari eroateko gertakizunetan. Asarre, su ta zoro, alderrai dabil uri osoan zear. Bakotar larri-ikaratua dirudi, opari-eskeintzez irten-azia, Bak'i entzunik, iru-urteroko jai ots-aindakoz berotua, ta Kiteron'en gaualdiko deadarrak esnatua. Eta, azkenik, Enea'gana alderatu ta itz auekin akar dagio:

«Onen gaiztakeri aundia estal-erazi uste zendun, etoi orrek, eta itzul-inguruka nire lurraldeak iges egin? Ezin zaitu ezerk emen irauki, ez ene maitasunak, ez beiñola emana izan zaizun nere esku onek, ezta eriotz ankerrez amaituko dun Dido'k ere? Bestetik, neguaren adurpean ere, ontzidia egokitzen duzu ta, aize zakerrei kopeta eroanik, oi. biotz-gordin!, itxas zabal zear joateko artega zagoz? Eta zer egingo zuk, iñoren soro ta lur ez-egazunetara ez ba'ziñoakez? Oindiñoarren Troia'k zutik ba'lirauke, aintziñako Troia'ra jnko zenuke ugin apartszuz? Ala nigandik iges ote zabilta? Nik, bada, arren otoi dagitzut, malko auengatik ta zure eskubiagatik (ez bai **dut** beste zer gaixo onek), geure ezkontzarren, eztai asi-berriakaitik, zutako ezer onik ba'dut beintzat, edo nire ezer eder izan ba'zaizu bederen, urrikal zaitzala eror-agiñean dagon etxe onetaz, eta, eskariak ondiño indarrrik ba'dute,

erantzi egizu, jaurti zuregandik asmo ori. Zure erruz, libitar erriak eta nomadar erregeak begitan naukate; tiritarrak ere muturka dauzkat zuregaitan; zerorren erruz, ene erabea itzali nun, baita izarretaraiño eraikitzen nindun len biziko izen bakana ere. Noren mende edo ardurara uzten nauzu, ni illetsi gaixo au, oi arrotz? Izen au eman dezaioket bakarrik senar uste nuenari. Zeren zai nagoke? Geldirik, bear bada, nere neba Pigmalion'ek nire arresiak suntsitu arte? Edo Yarbas gernikarrak ni atxillo eraman arte? Zuk iges aurretik, beñik bein, zugandik umeren bat sortua izan ba'nu; Enea txiki bat bederen, ots, zure betartea erabat oroit-aziko lidakenak ene jauregian jolas ba'legit, ez nintzake egiaz onen etsia ta utzia».

Au esan zun. Baiña Enea'k, Jobe'ren aginduz, tinko dauzka begiak eta adoretzu biotz-barrenean takatzen du bere kezka. Azkenez au diño mintzolarbur: «Ez dizut iñoiz ukatuko, ene erregiña, zuk izketari bat-banatu zenezazkidaten gauza guzti oiek rereziak dituzunik; ezta ez naiz lotsatuko ere Elise gogoraziaz, nere buruaz oroi naizeño, soin-atalok gogoaren mende daudeño. Labur mintzatuko naiz ontaz. Ez dut toki aldatze ori zalagardaz estali nai izan, ez ezazu olakorik uste; ezta ez nun sekula senar-zuzirik billatu, edo antzeko alkarterik gogora ekarri. Nik, jakizu aurrenik, aduak utziko ba'lidakete neurez bizitza atontzen eta gogara ene kezkek arintzen, Troia uriaren ardura izango nuke ta an, ezer baiño len, neuretar kutunen ondarrak gurtuko nituke; Priamu'ren jauregi eskergak zutik legokez, eta azpiratuentzat Pergamo berriz jaiio bat eraikiko nuke nere eskuz. Baiña orain Itali aundira bultz-erazten nau Apol Grineu'k (10), baita Litziko iragar-zoria ere Itali'ra saka egiten didate. Ura baitut maite, ura aberri. Zu, peniziarra zeranez, Kartago'ko arresiak eta Libi'ko uriaren itxura ederrak zorakortzen ba'zaituzte, nolako iñartxia duzu ori, guri teukrotarroi ausoni lurraldean oiñak jartzen ez uzteko? Aizu zitzaigu, noski, guri ere erbeste lurrrak billatzea. Nik, gauak beraren itzal intzez ezetuekin lurra estaltzen duen bakoitzean eta suzko izarrak jaikitzen diran bakoitzean, Ankise ene aitaren irudi zurbilla deika daukat ametsetan, larrikaraz jartzeraiño. Deiez daukat orobat Askani txikia, ta oni dagiodan bidegabekeria, Esperia jaurreri ta aduak an ari emandako lurralde gabe uzten dutan ezker. Eta, oraintxe berton, Jobe'k berak bidalitako jainkoen adierazleak —bitzuen buruak lekuko— aize eme zear ekarri dizkit bere aginduak. Neronek ikusi dut jainko au, argi dizdizean, arresi zear sartzen, eta belarri auekin jaso dut aren mintzoa. Ez nazazu geiago mindu alakaz, ezta zerori ere. Itali'ra noa, baiña ez nere onez».

Dído, berriz, onela itz zegionari begira, aitzinadanik sumindua; begiak arat-onat itzuliz, so ixil zorrotzez zearkatzen du osoan, eta asarre bizitan jaiki: «Etzan zure ama jainkosa izan, o gaizkin!, ezta ere dardanitar zure

aita: bestera, Kaukaso izugarriak sortua zera bere aitzarte malkarretan, eta Irkani'ko katamotzen ugatzetatiko esnez azia. Izan ere, zertako itzalgaizkeriz jardun? Zertako zoritxar aundiagoak ixildu? Nire negarrak intzirazi zun agian? Begiak niregana itzulazi ote? Bear bada, zaildua, negarrari eman ote?, edota maitaleaz errukitu? Irain aundiagoak jasan al nezaken? Onez-kerro, ez June garaiak, ez Saturno aitak, ez dute begi onez nire auzi au ikusten. Ez dut iñun ere uste osokorik. Ur-ertzera jaurtia ta beartsu, neronek atotsi nun, eta zoro onek nere aginterrian tokia eman nion. Bere ontzidia ondatu gabe neronek jagon nun, eta bere lagunak eriotzatic onez atera. Ai, ene! Asarreak naramate su-garretan! Orain Apol aziatik, orain Litz'i'ko iragar-zoriak, baita ere orain Jupiter berberak bidalitako jainkoen adierazleak aizez aize daramazkite aginda lazgarriak. Au duzu nunbait goitarren lana: beste ezerk ez diru artegatzen. Etzaitut bada geldi-azten, ez zure esanik osteztu. Zoaz, jarraitu Itali'rako bideari aize-egoz: billatu erreñuak itxaso zear. Ziurki ditxarot, goitar onak al izaterik ba'dute beiñik-bein, urpeko amaneran neke beltzak izango dituzu, ta gaiñera, sarri dei egingo diozu Dido'ri, bere izenez atan ere. Naiz-ta urruti, sugar izugarritz darraiketzut; eta eriotz zurbillak nire soin-ataletatik arimea bananduko duenean ere, itzal antzo nainun naukakezu ondoan; orduan ere bai, ordainduko didazu gibel txal'ir orrek, egindako iraiña. Jakingo dut, ildakoen artean su-leza barnean egon arren, iragarriko didate-ta».

Onela diarduala solasa etetzen du, ta aizean zear iges dagi gaixoak. Enea'ren begi aurretik kendu ta itzaltzen dalarik, izuak laga ez ziolako beste gauza gertatu asko ere esateke utziaz. Neskameak artzen dute, eta atxurdiñezko ezkont-oera daramate aren gorputz eroria, an etzanik.

Alare, Enea onberak, Dido'ren oiñazea arindu ta kezkek itz goxoz deuseztu nai izan arren, intziri ugaritan eta maitasun aundiz barrena zauritua dularik, iainkosak esana betetzen du, ta bere ontzidia ikertzera dijoa. Teukrotarrak, anartean, zoli ta maratz ari dira, ta itxas-egi osotik aragotzen dituzte ontzi zutiak. Txirrist dagite ur-gaiñez ontzi piketuak: arraun ezeak daramazkite ta landugabeko mastak, albait lasterren iges egitearren. Troiarrak ikusi ba'zenitu, joan-bearrez, uri osotik astrapaladan biltzen! Ainbateko, iñurriak, negu agertzean, garipil aziari eraso ta beuren zaipse jarten dutenean: ba-doa zelai zear aldra beltza ta ba-daramate belar artetik belar arte, bide-zidor estuz, ostu dutena; batzuk, bizkarrean daramazkite gari-ale astunak; beste batzuk, aldrakoak alkartu ta atzeratu diranak leiatzen dituzte: bide-txigorak lanez diraki oso.

Zer zuk sentitzen, oi Dido!, gauza onek ikustean? Nolakoak ote ziran zure zinkuriñak, zeure jauregi-burutik ikuskatzean nola zeuden irakin ba-

tean, urrutira, itxas-egal guztiak, ainbeste oi u ta zarataz itxasoa bera ere sorgortzen zuteñarik? Maitakeri gaizto, zertara ez ote dituzte beartzen ilkorren bularrak? Dido gaixoak berriz ere negarrari ematen dio, baita eskariz saiatu ere: maitasunaren mende gogoia jartzen du eskale, iltzekoa dan ezkeru, txastatu gabe ezer ere laga ez dezan.

«Oi Ane —dio—, ba-dakusazu nolako joanbear ta leia dan ugaondo guztian? Andik eta emendik, batean bildu dira; oiala, aizeeri deiez dago jadanik, eta itxas-mutillak, pozarren, koroz jarri dituzte ontzi-gibelaldeak. Aurretik asmatu al izan ba'dut ainbesteko lor-nekea, baita, ene aizpa, eraman ere eramango al dut. Egidazu, Ane!, zoritxar ontan mesede auxe beintzat; gaizto arek, bada, itza! aundia zizun zuri, bere asmorik ixillenak ere zuri agerturik; zuk zenidan bakarrik nola ta noiz gizon aren barne-leza arakatu. Zoaz arengana, aizpa, ta mintzo zatzaizkio arrenga etsai atzemaille orri. Esaiozu nik ez nula ziñik egin danaotarrekin, troiar erria sakaitzeko, Aulide'n; ez nula Pergamo'ra ontzidirik biali, ez nula nik Ankise aitaren autsik lurkatu edo aren itzalik edatu. Aren belarri latzak zergatik ez ditue artu nai nire esanak? Norako ainbeste leia? Maitale zori gaiztokoari, azkenik ere; sari au emanik, dagola oraindik pixka baten, eramango duten aize ongille zai iges-bidea artzeko. Ez diot, onezkero, berak eten zun ezkontz-lokarri zarra eskatzen; ezta Lati ederraz jabetu gabe, ango aginterria uzterik ere. Epe laburra deskat, atsedean apur bat, toki pixkat ene errarentzat, ene zoriak, etsia, oiñazera oitu arteño. Atzen-esker au eskatzen dizut. Ai, urrikal zakizkio zere aizpa oneri! Eman ba'dagidazu, bete-gaiñezka itzuliko dizut eriotz-orduan».

Onela eskatzen zun eta auek ziran aizpa gaixoak ara ta ona, ar-eman, zebilzkion negar-intzirak. Baiña ez du ura ezertariko negar-malkok biotzikutzen, ezta ez du samurkor ezereen otsik entzuten. Aduak ditu debekatzaille, ta jainko batek zarratzen dizkio belarriak entzun ez dezan. Alpe-mendietako aize zakarrak, alkar arturik, enbor urtetsuko arte zangarrari lau saietsetatik oratu ta erroz-gora jaurti nai dutenean, ba-da nunbait barbailla ta karraska; eta osto garaiak, mokorra astinduz, larra estaltzeraiño erortzen dira; arteak, osterak, aitzari itsatsia dirau ten-tenean, ta zenbat eta burua aizetan gorago, susterrak beerago sartzen ditu lurtean. Era orretan jo ta astindua duzu gizurena ere mintzo sarri-berrituz, andik eta emendik; eta ba-du bai kezka ta lorrik naiko bere biotz aundian. Tinko ta ermorik datza, alere, artutako asmoan; alperriko malkoak mazail bera.

Dido doakabeak, ordun, adurrak izutua, eriori oles dagio, iguin baitzaio zeruaren ganga ikuskatzea ere. Eta bere asmoan sendoagoturik bizitz-argia utzi zezan, kedats-opamaietan emariak eskeintzen ari zalarik (bildurgarri da esateko ere), ur sagaratuak nola beltz biurtzen ziran ilcusi zun, eta ardao ixuria odol likits. Ikuskari au etzion iñori iragarri, ezta bere aizpari ere.

Ba-zun, gaiñera, jauregi-barnean atxurizko txadon bat bere senar zarrari opatua, oso eder zun eleiz au, ta, ohore aundiz jagoteko, edur-galartzuz ta jai-ostoz apaindu oi zun. Emen entzun bide zituan dei zegion senarraren abots eta mintzoa ordu artan lur osoa estaltzen zun gau illunak, eta bere gandurrean, eriotz-intziri antzo, gauontz bakarti bat ulu unkgarriz ari zan, zinkurin luzeak negar biurtuz. Onez gaiñera, aintziñako aztien iragarpen asko aragi-dardartzen duten aolku ikaragarri bezela zaizkio. Enea'k berak ere, asarre bizi, erasoten dio ames-aldian; ordu oro, utzia dala uste du, iñor gaberik egiten dula beti bide luzea, ta tiritar billa dabillega lur maurtuan. Penteu'ren (11) antzera eumenitar taldeak dakusazki zoro, edo-ta eguzki bikoitza ta Tebas bi uste ditu; edo Orestes agamenonitarra dakus, antzerkiko agerraldietan bezela larri-ikaraz, zuzi ta suge beltzez darraikion ama-rengandik igeska; bitartean, Asarre asperberak atarian datzaz.

Itzea erabaki zunean, beraz, asarrez izor ta oiñaze aunditan, noiz ta nola bere baitan iraulka ari zan; aizpa alegeagana dioja ta, asmoa arpegiz estali ta itxaro-dirdir bekokia, onela mintzatzen zaio: «Idoro dut, aizpa, bide bat (zorionka zatozkio aizpari) berriz ere ura itzuliko didana, edo maite dutanagandik ni jaregin. An, Okean'en muga ondoan, eguzkia etzan oi dan lekuan, ba-da etiopitarren eskualdea, lur-azkena noski, Atlante aundiak izar ditzikorrez jositako zeru-ardatzari lepoz bira dagiona. Andik etorri zait masiliar ariko jaupalerne bat, Esperideen jauretxeko zaindari dana, erensugeari jaten eman eta, ezti jori ta lo-belar-jario ixuriz, zugatz adar sagaratu jagoten duna. Onek, dionez, nai ditun gogoak askatzen ditu azti-keriz, eta beste batzuri kezka ta ardura latzak bialdu, ibaietan ura geldi-azi, ta ortzi-izarrak atzera itzul-azo: etxe-jainko gautarreri dei dagie arek. Orruz ikusiko duzu lurra aren oinpean, eta erpin-leizarrak mendi-bera. Bekizkit lekuko, maite, jainkoak eta zu, aizpa, ta zure buru xamurra, gogorrean bai-zik ez bait noakizu azti-lanera. Zuk, ixil-mixilka, jauregi larraiñean, egur-meta bat jaso ezazu aizetan eta ipiñi aren gaiñean gizon biotz gabe ark ezkonoean tinko utzi zitun ískilluak eta beste guda-ondakiñak oro, baita ni galdu nindun buztar-oe uxa ere. Jaupalemeak agintzen du ta gizaseme etoi aren oroigaiñu guztiak, nai ta ez, erraustu bear dirala dio». Au esanik, ixillera zan. Baiña batera larutasunak artu zion betartea. Ane'k, ala ere, ez du uste aizpak opa-eskeintza berriekin beraren eriotza estaltzen dunik, ezta otu ere ainbesteko zorakeririk, edo-ta Sikeu'ren eriotza baiño gaitz gordiña-gorik bururatu. Beraz, esana egiten dizu.

Atari zabalean erregiñak, jauregi-barne, lerki ta arte sozpalezko sutzar aundia egiñik, osto eioz ta dolu-adarrez jaxten du inguru osoa; oe gaiñean jartzen ditu iantzi-ondarrak, ezpata utzia ta Enea'ren irudia, zer egian jakitun noski. Opa-maiak eraiki dituzte baranoan; eta jaupalemeak, ille-nasi, bere aotiko trumoi otsez iru bider dei dagie eundaka jainkoeri, naspil ta su-

lezari; baita Ekate (12) irukoitzari ta Diane neskatx iru arpegidunari ere. Ixuria zan orduko ura, su-lezakoaren idurira, ta burni orizko itaiz illargitan ebakitako belar guri pozoi esnetsu billa dijoazki; baita billatzen dute zalditoaren bekokiko zera ere, beor amari ixillik erauzitako maite-irazkia. Dido'k berak, opamai ondoan, opil sagaratua eskuetan zeukalarik, oin bata utsik eta soiñeko lokarri gabe, iltzeko gertu, lekuko dakazki jainko ta izar bere aduaren berri zutenak noski. Onez gaiñera, urtzitarren bat ba'legoke maitale erantzun-gabeen ardura dunik, ari edo alakoan doakio zuzentzaren eske.

Gaua zan; eta gorputz abailduak atsedean goxoa artzen zuten lur osoan; egonean zeuden oian eta kresal suminkorrak ere; izarrak beuren ibillaldi erdian zijonzen; ixillik zelaian oro: abere, egazti margoztu, aintzira ur zabalak, soro arantzaz laztuak, gauaren altzo ixillean lo zetzatela, ardura ta biotzak arintzen zituzten, lan-kezka gabe. Penitziar zori gaiztokoa, alare, etzegon orrela; ez du iñoiz loak artzen, aren begi ez biotz gauak ez du lekurik; bai, ordea, arretak ugaldtu, ta maite-sua indar berriz sortazi, asarrezko olatu nasi artean igeri. Ta oraindik ere, iraupen atxikian, onela diardu biotz-barne:

«Baiña, zer dagit? Narda nitun lenengo senar-gaietara itzuliko ote naiz? Nomadatarrei, bear bada, buztar-lokia eskatu, ainstetan ezetsirik? Iliatarren ontzidiari jarraika, Teukrotarren azken-esanak bete? Ba-liteke nik len lagunduz jasotakoen anean bateren bat egin-eskerraz oroitzea? Baiña, baiezkoan ere, nork utziko lidake, nork artu ontzi arro aietan ezetsi au? Ez dauzazu, ai, galdu orrek!, ez dituzu somatzen oraindikarren laomedontetar endakoen gezur-ziñak? Eta zer? Bakarrik beuren igesean nik lagunduko ote itxastar zalapartarierei? Ala tiritar eta neretar guziekin jarrai noakie? Ta Sidon uritik nekez atera nitunak berriz itxasoratuko ditut, oialak aizeratzeko aginduz? Ez, obe zaizu il, merezi zendun bezela, ta galtzairuz uxatu naigabe-azta. Zu, ene aizpa, ene malkoz zapaldua, zu ¿zan ziñan lenengoz zure aizpa eroa zoritxar auekin zamatu ta etsaiari eskeiñi ninduzuna. Etzaidan laket izan oe berri gabe, abere antzo, ez bizitz orbangea eraman, ez kezka ta arduetan murgildu. Ez nuen gorde, ez, Sikeu'ren errautseri agindutako zintzotasuna». Onen gisako alakak zetozen aren bularbarrenetik.

Enea, bide egiteko erabakita, txoparen erpiñean zetzan lo, joateko bear zuna aurrez atundurik. Eta ona, ametsetan, jainko beraren irudia ageri zitzai; lenbizikca zan antzez, ta lena agindu bide zion; Merkuri'ren gisako oso, bai abots bai margo, illedi gorritzka ta soin-atalak gazte diztikor: «Onako unean loari lotuta, jainkosaren seme? Ez al dakusazu nolako arriskuz zauden? Zoro! Ez dantzuzu nola arnas dagiten onezko aize meiak? Arek, iltzeko etsia, iruzurrak eta asperkunde gordiña darabilzki gogoan, eta asarrezko zirimol nasian diraki. Zergatik ez diozu igesari ematen, al duzunik

laisterren? Bertatik dakuskezu itxasoa ontziz nastua ta zuzi ankerrak dirdirka ta ur-egiak sutan, Eguantzak lur auetan luzatuz irixten ba'zaitu. Ea, bada, ez geiago luza! Emakumea beti duzu aldakor ta itzul-errez». Onela itz egiñik, gau beltzean utsalarazi zan.

Eta Enea'k, orduan, bat-bateko itzalez izututa, astintzen du lo-zorrotik bere gorputza, onela zirikatuz bere lagunak: «Esna bertatik, arraunlariak, eta exeri ezarleketan: askatu azkar oialak. Jainko batek, zeru goitik igorriak, ona emen, berriz leiatzen nau toki biurriak ebaki ta igesari al bait bizzorren ematera. Zareana zareala, jarraitu dizugu, jainkoetan deunen orri, ta zure aginduari men dagiogu pozarren. Zabilta gurekin, ta lagun bekizkigu, ta irazeki ortzian onezko izarrak». Au esan zun, eta suzko ezpata zorrotik atera ta burni sakailkorrez ebakitzen ditu masta-lokarri sendoak. Barne gar berdiñak diraki danetan; urduri dabilta ta igesa artzen dute. Itxas-egia utzirik, itxasoa ontzipean ezkututzen dute: arraun-indarrez gandor apartsuak eraiki ere bai, ur-azal urdiñak gogorki astinduaz.

Onezkerok, len-egun argiak, Titon'en oge urreztatua lagarik, dirdir joriz jazen zitun lurraldeak. Erregiñak bere barandatik, nola eguna argitzeaz batera, itxas-egalak uts eta kaia arraunlari gabe utzirik, ontzidia irten zala zapiak berdin, ikusi zunean, iru ta lau bider eskuz jo bular zardena ta ille gorritzak igurtziz: «Jupiter-arren! —oiu dagi—, arrotz ori joango ote zait, ni ao bete agiñez utzirik? Nun, eta nere aginterrian berton? Eta ene uztarpekoak ez dituzte iskilluak aterako ta, uri osotik irtenik, egiñalean eraso ta ontziak ez ote dizkidate gor-ditxoetatik erauziko? Zoazte, eraman sua azkarki, zabal oialak, indar arraunari. Zer diñot? Oi, nun nago? Zer zorabiok lausutzen dit adimena? Dido zori gaiztoko!, adur biotz gabeak gain dituzu orain! Beste garai baten izan bear zun, noski, aginte-makilla eman zeniotenean. Ona aren eskoia ta itza, aberri-zaintzailleak omen daramazkiarenak, eta bere aita ere, adiñez astun, lepoan eraman zunarenak! Eta nik ezin ote dut arrapa ta atzeman aren gorputza ta, txiki-txiki egiñik, uin tartean edatu? Ezta burniz itzali ere aren lagunak, ezta Askani bera, aitari berari jatekotzat maiean eskeiñirik? Baiña, bear bada, ez litzakidan au ere egoki izango. Obeki. Il bear ezkerok, noren bildur? Ai!, zuziak eraman ba'nitu bere kapardira, ta sugarrez ito ontzidia, aita ta semea beuren endakoekin erkatu ta, azkenik, neronek nere burua il! Oi, eguzki!, lur-lanak oro zeure dirdiraz argitzen dituzuna; eta zu, June, nere joran auen lekuko ta adierazle; eta zu, Ekate, uri-kuluetan gau-amentuz sarri deitua; eta zuok, Asarre apentzailleok, eta zuek, iltzera dioan Elisa'ren jainkuok, ar otoi oiuek; entzun, arren, nire eskariak, merezi duten zigorra nire gaizkiñei emanik. Gaizto-alen orrek kairik ikutu bear ba'lu, lurrera urbildurik, Jobe'ren aduak orrela eskatzen dutelako, nai ta ez bete bearrikan, erri ausartuak beintzat egotz dezatela andik gudu ta

su-iski!lu indarrez; muga guztiz erkatua ta Juli'ren besartetik ere irten-azia, bebil alderrai laguntza eske ta bekus beretar guztien erio duin-eza; ta lotsakizunezko pake-ituna artzera beartua baldin ba'litz ere, ez bedi aginterriz goza, ez argi opatuaren txeraz; gazterik eror bedi erio makets pean eta itxas-egiko ondarrak ere ez bezaiote eortz-lekurik eman. Ona nere arre-na; auxe duzu odolaz naste jaikitzen dutan azken-adia. Onezaz gaiñera, zuok, o tiritarrok!, esetsi aren arikoak iñolazko asarrez, aspertzake; emai-ozute eskinte au nere errautseri. Ezpedi erri artean maitasunik, ez egiunerik. Sor bedi ene ezurretatik aspertzaileren bat, su ta burni dardanitar tal-deak, orain, gero ta nainoz, indar azpiratuko dituna. Oiuz deskat: begoz, eten gabe, gure muga, ibai ta iskilluak aien muga, ibai ta iskilluen etsai; beude alkarrekin liskartsu, baita beuren illobaekin ere».

Au esanaz, urduri ta zoratua dabil arat-onat, argi aspergarria lenbait-len, nola ebaki billa. Ontan, Bartze, Sikeu'ren iñudeakin (berea, bada, auts illun zan dagoneko, an bere aberri zarrean) mintzatu zan labur: «Ekardan ona, ene iñude laztan, Ane aizpa; busti dezala bizkor, esaion, bere gorputza euri-urez, ta dakartzila opariak eskeintzeko esan nizkion abere ta zerak; datorrela era ortan, ta zerorrek ere estali Iokiak galartzu donez. Su-lezan errege dan Jupiter'i opariak eskeiñi nai dizkiot, gertu ditudanez, eta amaia eman ene kezka ta lorrei, dardanitarraren irudia sutan amildurik». Onela diño. Bartze zar-joranez zebillen.

Dido, ala ere, soin-ikaraz ta erabakitakoan tinko, begi-odol dirditsuak zearka, loi ta dardarti masaillak, beingoango eriotzaz laru, jauregi barrura dioa txit azkar; sumiñaren erpe artean, sutzar erpiñera igo ta dardanitar ezpatea, onetarako etzana noski, ateratzen du. Ta emen, troiar jantziak eta oe ezaguna ikuskaturik, negarrari ta barne-gogoetari pixkaten leku eman ondoren, oeari buruz etzan zan, azken-itz auek jalkirik: «Oi kondar eztiak, aduak eta jainkoak gura dutelarik, ar ezazute gogo au, kezka otarik askatuaz. Bizi izan naiz, baita Zoriak izendatu zidan aldia aitu ere; orain, berriz, lurpera doake nire itzal aundia. Uri aintzatsu bat eraiki nun; neronen arresiak ikusi nitun; aspertzaille atera nitzaion senarrari; neba etsaia zigortu nun. Doatsu, ai!, lar doatsu ni, dardanitar ontziak sekula ere ikutu ez ba'litu.rtcn gure ur-ertzak!». Esan zun, eta aoa ogeari josirik: «Aspertu gabe —diño— ilko naiz? Baiña il gaitezen. Onela, onela nai dut itzalera jetxi. Bekus dardanitar ankerrak, bere begiz, an itxas gaiñetik, sutzar au, ta dar-mala berarekin nere eriotzaren zeñu gordiña».

Onela mintzatu zan, eta au zerasan bitartean, burni gaiñera eroria ikus-ten dute neskatzak; odol apartsuz gorri ezpatea, odoletan eskuak ere. Ontan, ba-zan an zalapartarik jauregiko atarte ta larrain zear; omena ba-doa, zora-turik, uri dardaraziaren gaindi. Arrangura, intziri ta emakume-zinkurifnez la-zzikaratu dira egoitzak; negar-garrasi gaitzez josia da aide guztia, etsaiak

zalapartaka sartu ta, su ta gar, oro gizaseme ta jainkoen gain zakarki etorri, Kartago osoa ta Tiro zarra jausiko ba'lira bezela.

Aditu zun aren aizpa erdi-illak ango baraila erdiragarria, ta, izulaborri, azkazalez musua urratu ta bularra joaz, oroen erditik arnas-oska igaro ta noiz ilko zegonari bere izenez diotsa: «Ta ura augatik izan zan, ene aizpa? Orrela atzipetu ninduzun? Au lerkarkidaten zendorrak, suak eta opagaiak? onezkero utzia, zertaz negar lenbizi? Iltzean, ezetsi al zenun aizpa laguna? Adur berdiñetara deitu ba'ninduzu, bederen; biok burni berdiñak eramango ginduzen noski, ordu berdiñean, oiñaze berdiñera. Eta neu izan nintzan esku auekin zendorra eraiki nuena, eta neuk, nere abotsez, dei egin nien asabaen jainkoen, ta ni urruti, oi ankeri, zu iltzerakoan? Itzali zera, baita ni ere itzali nauzu, o aizpa!, ta itzali dituzu zure erri, sidonitar guraso ta uri. Ura, ekatzute ura, ta zauriak txautuko dizkiot; oraindik azken-arnas izpirik onen baitan baldin ba'da, aoz nik jasoko». Era ontan itz egiñik, zendor gaillurrera igo ta negar-zotinka aizpa erdi-illa magalean artu ta soiñekoz txukatzen zion odol zutbillu. Ura (Dido), begi astunak goratu nairik dago; baiña ezin ditu, ta zorabioak berriz amiltzen du. Xixtuka dauka bular barreneko zauri ondoga. Iru aldiz, ukalondoan eutsi ta irozorik, erdi-etzan zan nekearen nekez; iru aldiz, irauli zan oe gaiñera berriz ere; ta argia billatu zun ortzi goian begi aldakorrez, ta oi u egin zun, aurkitu zulako.

June guztialdunak, ordun, aren samin luzez ta eriotza gaitzez errukiturik, Iris (13) igorri zun Olinpu'tik, askatu naiean zegon arima aren lokarriak eten zitzen. Adur-zoripean eta erio mereziz barik, lotsagarriro ta bertatiko sumiñak eraginda garai-aurrez iltzen zan ezkeroz, Proserpina'k (14) etzion oraindik ebaki urrezko ille-mataza, ezta aren burua su-lezarako gaitzetsi ere. Iris, beraz, ego intz-ezezkos zeru oztin zear egazka, eun kolorezko abaiña eguzkiari buruz edaturik, egada galgatu ta aren buru gain kokatzen da. «Nik agindu bezela, Pluton'i damakiot ille done au, ta gorputz ontatik jareiten zaitut». Onela diño, ta eskoi eskuz illea ebakitzen dio; ta, batera, joan badioa bero oro, bizia aizetan itzaliaz.

OARRAK

(1) Erebo, naspillaren seme ta gabaren anai ta senar, Lurpean barriatzen dan eremua, ots, Suleza adierazi nai du.

(2) Yarbas, maxitandarren errege, Triton zingiraren iparraldeko ur-ertzetan Aprika'ko erri ibilkariena.

(3) Getuli, Numidi'ko lekaroan, ego-aldera dagon eskualdea.

(4) Barka'ko biztanleak, Kartago egutera, Kirene'tik urbil dagon urikoak,

- (5) Kere legelaria, Kere'k baitzitun soro-lanak asmatu, baita ortarako lege ta arauak eman ere.
- (6) Driopetarrak, au da, kondaira ezagun aurretik, geroago Dorida deitu zioten lurraldean bizitu ziran pelasgotar odolekoak.
- (7) Agatirsotarrak, geroagoko Daki, Danubi'ko ezkerreko ur-ertzean bizi izan ziran eskitar erriak.
- (8) Hamon, Tebas'ko jainko aaria; antziña-antziñatlk, an zitun jauretxea ta erantzun-tokia, berari eskeiñita.
- (9) Garamantitarrak, Tripolitani egoaldean zebiltzan erriak.
- (10) Grini uritik zetorkion Apol'en izengoitia; Asia Txikia'n zegoen uri au.
- (11) Penteu, ots. Euripide'ren *Bakotarrak* trajedi gogorazi nai du; Tebas'ko errege zala, etzun Bak'en omenezko eleizkizunik gura.
- (12) Ekate, iru izeneko jainkotasuna; Illargi, ortzian: Diane, lurrean, eta Ekate, sulezan.
- (13) Iris, jainkoen mezulari, batez ere Juno'rena, ta latiñez izen au daraman berein margotako zeru-ustaia nortzen du.
- (14) Au zan Sulezako jainkosa; berari zegokion aduak xakitutako aldian illen animak jaso ta bitzea.

